



Bertsio elektroniko honen jatorria: Bizkaiko Foru Aldundia:  
*Idazlan guztiak*, Frai Bartolome Santa Teresa (Julen Urkizaren eta  
Luis Baraiazarraren edizioa), Euskaltzaindia / Bizkaiko Foru Aldundia, 2000.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/F/FraiAzkeneko.htm>

## **JAUNGOIKUAREN AMAR AGINDUBEETAKO AZKENEKO BOSTEEN IKASIKIZUNAK**

**Frai Bartolome de Santa Teresa**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **IRAKURLIARI**

Bildurrezko ardura bategaz asi neban kristinaubaren *Ikasikizunak* argitara aterateko sailla. Bainan dakustanian, 1. t. ez daukazuzala ain komuntzat, aurreratu nas 2. ainbat arinen zure eskubetarako prestetara. Leengen ornidurria, luze laburra ta esaeria daroie oneek. Dirautsut bene benetan, irakurlia. Ez nas neure jakinagaz asko pijetan. Bainan ezin ukatu negi, aparteko poza artu dabena nire bijotzak, eleisa gu[i]zonak ene neke puskia ontzat emon dabeenian.

Ez nas aaztu jakitunai itandutiagaz, *gogoratu dagidezala 2. zati onetarako*, 1. *zatijan topau eukeezan uts, nik gitxitu negizanak...* Onen gainian artu ditudan erantzunak, izan dira esker onekuak. Au zor deutseet geijago. Egija da, erantzun eustan batek, *p. iminten nebala f lekuban*; baina, jakitunak dinuenez ta euskaldun utsai entzuten jakuenez, ez dauka zer eginik geure euskeran.

Batzuk gura leukee, *Ikasikizun* oneek urte barruko domeeketako ebanjelijuagaz katiatuta egotia. Ez dinot gaiskiago egongo litzaatekezala. Bainan, ene ustez, ez leukee onera geijago eukiko au gaiti. Erromako Katezismua kura jaunentzat ta eleisa-gizonentzat kristinauben erakutsi osorako egin zan.

Elisako Batzaa ta jakitun nausijen ondo esatez jantzita, jasota dago, besterik ez eduban. Trentoko Batzaa santubaren aginduz urten eban argitara. Bainan orregaiti ez dago Katezismoaren erakutsija domeeketako ebanjelijuagaz lotuta. Bai, kristinaubak sinistu, egin, eskatu ta artu biar dabentzua, arrigarrizko esaeriagaz, naustasunagaz ta indarragaz erakutsita. Trentoko Batzaa santubak bere ez deutsee eskatutenean eleisa gizonai ta kura Jaunai nai ta nai ezian domeeka ta jai andijetan egun atako ebanjeliju erakusteko, ezbada *Eskritura Sagradubak ta Jaungoikuaren legia* edo *Jaungoikuaren berbia* erakusteko.



Beste katezismo nausijak bere ez dira lotuten domeeka ta jai andijke-tako ebanjelijuaren saillagaz.

Kristinatzako siniskizunak, egikizunak, eskakizunak ta artukizunak dira eleisa gizonen lelengo erakuskizunak ta kristinauben ikasikizunak. Au izan da nire lana. Ez deust eguno goguak emon, neure *erakutsija* oba eukeela, urte barruko domeeketako ebanjelijuaren berba edo irago bategaz bakotxa katiatutaegotia. Atara emon ezkero, zeregin erraza da. Ebanjelio bakotxari ezarri legijoz iru edo lau ikasikizun, buruba asko nekatu bagarik.

Baina zerubak prestau dabela, esan legi, kristinatzako erakutsija geure pulpituetarako guztien erara. Ene *erakuskizunak* baduaz, domeeketako ebanjelijuagaz lotu bagarik; beste batenak urtengo dabee laster argitara, edo oraingo urten dabee, ebanjelijuakin. Zerubari eskerrak.

Izan leiteke, irakurlia, zuk *Ikasikizun* onei goraak eristia. Bainanire alegina ezin eldu da asko merkatuteko bidia egitera. Beti dago gatxa oinian.

Asko kosta ta merke emon, ezin legi. Agur.

## VI. AGINDUBA

NON MOECHABERIS. *Exod. Cap. 20. Deut. 5.*



## I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer eragozten daben Jaungoikuak agindu onetan.*
2. *Ze premina andikua dan, kristinaubak ondo jakitia agindu onetako erakutsja.*

Matrimonioko sakramentuba dan legez senar emazten lotugarri estuba, esaten deutsku, neure en[t]zula onak, Erromako Katezismuak, ezin jazo lekijue senar emaztai ditxa obarik, alkar estimau ta maite dabee-la aitutia baino. Ta ezda beste aldeti gauza mingotxagorik ta penagarrija-gorik bere, alkari zor deutseen amodijua ta karinua inori emoten deuteela batak edo bestiak ikustia baino.

Errazoez, bada, dino ta bide zuzenian bostgarren aginduban Jangoikuak *inor iltia* eragotzita, aren ureengo eragozten dau adulterijoko peka[tu]ba; inor azartu ez dedin, karidadiaren indar andija oi dakarren matrimonioko bat egite santuba ta ondrauba urratuten. Asiera onegaz jarraitutene deutsa kura jaunen katezismuak seigarren aginduko erakutsjari. Gogoratutene dau, agindu santu onetan erakustiak gorde biar daben berbetako moduba ta garbitasuna; txristinaubai dotrina au ondo aituten emon biar jakuena; onestidadia gordeetako zer egin biar dan ta ze kontu atera biar dan; zelan austen dan ta zek ausi eragin oi daben seigarren agindu santuba; ze ezaina ta itxusija dan aragizko pekatuba; ze kastigubak oi dituban bere kontra pekatu loijak... ta, beste agindu onetan esan al dedin ta jakin biar dan guzia gogoratutene deusku Erromako izentau dan, Katezismuak, Eskritura Sagradubagaz ta Eleisiaren Gurasuakin, kristinu pelai erakusteko.

Txristinaubaren egin biar guztien artian ez dago menturaz beste bat, seigarren egindu santubak baino erakusten arrisku geijago daukanik. Ondo aitu ten, gatxaago danik. Ondo ikasijaren premina geijago daukanik. Ondo ikastia geijagori jagokanik. Ez jakinagaz arima geijago galdu-ten dabenik. Espiritu Santubak sarriago ta zamai geijagogaz aiton artu dabenik. Eleisiaren Gurasual bildurrago izan jakozanik. Ta kristandadeko oitura santubai lotsaari geijago emoten deutsanik. Kastidadiaren edertasuna ta garbitasuna aginduten dau Jaungoikuak seigarren lekuben. *Non moehaveris.* Ta luxuriak, zein dan kastidadiaren arerijua, illundu ta galdu-

ten dau kastidadia. Luxuriak, san Anbrosiok dinuan legez, amairik ez daukan okerrerrija inpamiak. Luxuriak, lege santubagaz konturik ez daukanak ta bizijo guztia ernal emoten deutseenak. Luxuriak, santubaren esanian, ez beste okerrerrija guztien, eze kodizijaren beraren bere ama edo sortulia danak. Onek lotsatu, ezaindu ta galduen dau gorputzeko onestidadiaren ta garbitasunaren edertasuna, zein zaintu ta gordeetan daben Jaungoikuak seigarren aginduban, adulterijoko pekatuba eragotzijagaz. *Non moehaveris.*

Egiña esateko, ez da erre, neure entzula onak, seigarren agindu santuko eginbiarrak erakusten kristinaubari. Esankizunak dirian legez eureenez bai esateko ta bai entzuteko lotsarizkuak; inos aotan bere artu biar ez litzaatekezanak, san Paulo apostolubaren aginduban, eurakin dakarree lotsarizko gatxtasun bat, esateko. Beste aldeti, seigarren aginduko eginbiarrak ta eragotzijak zabalduta dagozan legez eskina guztietara, edade guztietara ta estadu guztietara naaste andijan bapere ordena bagarik, ez da erre agindu onetako ikasikizunai sallaren etxuria emoten. Beste agindubetan sail bat asi ta amaitu legi ordena apur bategaz, entzulaak aitu ta buruban zerbaitaan, dendatu ezkerro, euki legijen terzijuan. Baino, san Anbrosiok dinuan legez, agindu onetako pekatubak, ez neurrik, ez amairik, ez ordenarik daukee. Ta erakutsja, aituteko erara ekartia lana dauka niretzat beintzet.

Baina alan bere, Espiritu Santubari grazija eskatuta, Ama Birjina guztiz garbija bitaartekotzat artuta, bijotzeko uste ta gogua ainbat onduen zuzenduta ta garbituta, lotsarizko gauzaak esateko ta erakusteko berbaak ainbat onduen neurtuta ta moduztauta, zeuben, Jangoikuaren berba santuba entzuteko ta eginbiarrak ikasteko gurari bitzijan, ezagunian ta santuban, neure indarretan baino geijago pijauta, eskintzen deutsut, kristinaubak, seigarren aginduko erakutsi biarrekua ta lan andikua.

Nai neuke, al balitz, ez belaarrri garbijak tristetutia; ez biotz garbijai kezkaak ta luurrezko gurarijak iraasia; ez arima santai ta zuzenai galdu bidiak erakustia; ez ez-jakin zorijonekuai gatxerako ezauberia ta jausmoduben argija emotia. Ez, ez neuke gura arimak garbituteko ta osatuteko balsamo onaren lekuben, bereno illgarrija zabaldutia. Nai neuke bai, entzula guztien bisj[on]zeetan sortutia, erneetia, jaijota, sustrai senduakin ikustia kastidadiaren, onestidadiaren ta modestijaren, edo gorputzeko ta arimako garbitasunaren amodijo sutsuba, bitzija ta gogotsuba.

Nai neuke, kristinu guztiak artu dagijen pekatu loijaren gorroto mortala, ta ezautu dagijezan aren kalte ikaragariak ta negargarrijak, bai



ariman ta bai gorputzian. Nai neuke, geure gorputzak ta arimak izatia Espiritu Santubaren etxe garbi, bizi, santubak.

Alan gura izan dagijala zerubak. Alan gura izan dagijala Jesus mai-tiak. Alan gura izan dagijala Ama Birjina guztiz garbijak. Jaungoiko Altsubak, Isaías propeta santubari zeruko su santubagaz ezpanak garbitu eutsazanak, garbitu dagizala, bada, bere amodijo santubaren su bitzüagaz nire arimia, nire bijotza, nire gogua, nire miina, nire ezpanak ta nire berbaak. Bialdu dagijala bere jakituria neurri bagakuaren erraijo argigarri bat nire adinera edo adillara, seigarren egindu santuko nire erakutsijak ta berbaak, guztiak izan ditezan Jaungoiko andijaren ondrarako ta geure arimen onetarako. Prestaera onegaz guztiai asipena emoteko, esango deutsut orain: 1. Zer eragozten deutsun Jaungoikuak seigarren aginduban. 2. Ze premina andikua dan agindu onetako erakutsija kristinaubak ondo jakitia.

## I.

Zer eragozten deutsa, bada, Jaungoikuak seigarren agindu santuban kristinaubari? Eragozten deutsa *leleengoa*: adulterijoko pekatuba. Senarrak edo emaztiak, bere laguna bitzi daben artian, bestegaz aragizko pekatu egitia. Zazpi malezija edo lege austre konteetan ditu santo Tomasek adulterijoko pekatu bakotxian. Austen dau naturaleziaren legia. Austen dau Jaungoikoaren ordenia. Austen dau matrimonioko sakramentubaren erreberenzia ta zuzentasuna. Austen dau lagunari emondako berbia ta lejaltasuna. Austen dau pamelijako umen erabagi argija ta ezaubera balijokua. Austen dau umiai zor jakuen aziera ona. Ta austen dau adulterijoginak bere eukija pekatuban ez kasteetako legia. Pekatu inpame au eragozten dau Jaungoikuak berba agirijakin lelengo seigarren agindu santuban.

Eragozten dau *bigarrenian*: matrimonio santuti kanpora, gorputza edo arimia aragizko guztuagaz loitu legijan guzia. Alan esaten deusku Erromako Katezismuak. Alan esaten deusku san Agustinek. Alan erakus-ten deuskubee Eleisiaren Gurasuak. Adulterjuaren izenagaz eragozten ditubala Jaungoikuak seigarren aginduban, gorputza edo arimia loitu legijen matrimonio santuti kanporako luxurijaren gusto bide bagako guztiak. Oneek dira: 1. Noberaren burubagaz edo inogaz, kristinu danagaz edo ez danagaz, luxurijazko gauza loiak egitia. 2. Kanta ta berba desonestubak esatia. 3. Ezauberaz ta bere naiz gauza loiak gogoratuta, areetan gusto artutia. 4. Gauza desonestubak egiteko edo eragiteko borondatia eukitia. Berba baten esaten da guzia. Jaungoikuak eragozten ditu seiga-

rren agindu santuban: matrimonio santuti kanpora, arimako ta gorputze-ko kastidadia ta garbitasuna loitu, mantxau ta ezaindu legijezan egite, berba, desio ta penseeta guztiak. Geroko ikasikizunetan esango da oneen erakutsi biarrekua. Guztiz garbijak ta santuba da geure Jaungoikua. Ta garbijak ta santubak gura ditu geure arimak ta gorputzak bere etxetzat ta egonlekutzat. Grazijaren edertasuna ta obrak gura ditu Espiritu Santubak bere tenplu bitzijan, zein dirian kristinauben gorputzak. Aragijaren obrak luurrezkuak, ezainak ta loiak dira. Ta a gaiti daukaz Jaungoikuak guztiak eragotzita bere lege santuban. Egitate lotsaarizko oneek zer dirian ta zelan dirian, Eskritura Sagradubak esaten dau, bai testamentu zaarrian ta bai barrijan. Esaminau daigun, bida, paska bat, ia kristinaubari zeinbat balijo deutsan, agindu santu onetako doctrinia ondo ikastia.

## II.

Ez dago dudarik, neure entzula onak. Seigarren agindu santuba da, errazoiaren usura eldu dirian gizon ta emakume guztiak berba egiten dabena. Guztiai aginduten deutsee Jaungoiko zuzenak ta itzalsubak, gorputzak ondo ezteko, aragia dometako ta lotsaarizko guraarraj berak imini daben neurriki kanpora urteten ez isteeko. Gizonak luurrezkuak gara; ta gure gurarijak eurenez beti duaz luurrezko gusto eragotzijetara. Espirituba pelietan da aragijaren kontra; ta aragia espiritubaren kontra. Oh, ze gerra andija jagiten dan bijen artian! Oh, zeinbat bidar aragijak goitutten daben espirituba! Oh, zeinbat bidar (batera esateko) luxurijak gal-dutten daben arimia! Gogoratuta beste bagarik, ikara egiten dau bijotzak.

Azartu zan san Bernardo esaten, *diabrubak arima geijago beretuten ditubala luxurijagaz, beste okerrerijekin baino*. Luxurija da, dino santubak, inper-nuba alegretan dabena ta kasik mundu guzia kondeneetan dabena. Ta san Remijiok esaten eban *ume txikarrak apartan ezkerro, nau-sjeetati gitxi salbetan diriala luxurija gaiti*. Oh, atxak eurak birrinduteko berbak! Ez dau, bida, kristinaubak pensauko ondo zer dan, edo zelan ete dan, inpernuba alegretan daben, mundurik geijena kondenetan daben ta bestiak baino ezainago ta kaltegarrijago dan pekatuba edo lege austia! Izanik luxurija Jaungoikuak eta naturaleziak eragotzia ta pekatu illgarrijaren beian era-gotzia, gero esango dan legez, nai pensamentuz, nai berbaz, nai egitadez, nai bakarrian, nai lagunagaz, nai gaztetan, nai edade elduban, nai zaartuta, nai ezkondubak ta nai libriak, nai aberatsak ta nai pobriak, nai gaisuak ta nai osasuntsubak egin legijeena, gorputza ta aragia beti beragaz dau-



kalako edozeinek, ez da txito gauza biarrekua, kristinau guztiak eta bako-txak ondo jakitia, ain arrisku andiko ta orduban ordubango eginbiarrian, zer dan ta zetaragino dan Jaungoikuaren agindu santuba?

Seigarren agindu santuba da bada, kristinaubak, guztiok irago biar dogun zubi bat, jausi bagarik pausu egiteko txito gatxa. Zubi atan umiak labandutene dira. Naustubak kolpe andijk artutene ditubee. Ta zaarrak pausu uts asko egiten dabee. Ta gazte, eldu ta zaar asko bertan betiko gal-dutene dira. Zeinbat balijo deutsa, bada, zubiak irago biar dabenari, zelan juan biar daben, nun oina imini biar daben ta zelan pausu egin biar daben jakitiak? Nortzuk eta zelan, zubi laban, guztiz gatz atan jausi bagarik irago dirian ondo ezaututiak? Jausi dirianak zelan lagi dirian, ta ostera ez jaus-teko zer egin dabeen ikastiak? Ezin ukatu ginai, neure entzula onak, txito balijo andikua ta premina andikua dala au kristinaubarentzat.

Ta ez da beste gauzarik seigarren agindu santuko erakutsja. Garbitasunaren ta kastidadiaren legia ta lege austiaren penia edo kastiguba kristinaubari aituten emotia da, agindu onetako erakutsi guztia. Eskritura Sagraduban ta Eleisa Ama santiaren Gurasuetan ez dago men-turaz beste kristinaubaren eginbiarretako agindu bat, sarriago, argiruago ta itzaltsubago erakutsita, kastidadia gorde biarra ta gordetan ez dabena-ren kastiguba baino. Ezaututen ebeen erakusla zerutar areek, luxuriak sustrai andijk daukazana. Arima asko illten ditubana. Iraasten erraza dana. Osatuten gatxa dana. Santubai eurai zeregin asko emon deutseena. Andijk eta senduak bere goitu ditubana. Kristandadia desondreetan dabena. Zerubari burla egiten deutsana. Gizonak ganadututene ditubana. Munduba ezaindutene dabena. Jaungoikuak txito gorroto deutsana. Ta pena bildurgarrijekin kastigatu dabena. Ezaututen ebeen Jaungoikozko gizon areek, engaño asko ta uts egite andijk erein ditubala diabrubak gizonen bijotzetan seigarren aginduko dotrina santubaren kontra. Luxurijaren sare gaistuetan sartuta, itsututa, daukazala etsaijak arima asko, pekatu loijagaz beretuta. Orregaiti zelo santu bategaz erakutsi ebeen kas-tidadiaren dotrinia kansau bagarik, ta diadar egin ebeen luxurijaren kon-tra isildu bagarik.

Batzuk uste dabee, aragizko pekatubak, egiten errezzak dirian legez, parkatutene bere errezzak diriala ta Jaungoikuak ainbeste gorroto ez deutsala pekatu loijari. Au dotrinako utsegitia da. Beste batzuk, kastidadiaren kontrako pekatu mortalzat Eleisiak erabagita daukazanak ez daukeez kasik pekatutzat bere. Ta engainu onegaz bitzi dira itsu itsuban pekatu mortalian. Beste askok, pekatu loija aintzak euki arren, pekatuko okasi-nioi ez deutsee kasurik egiten. Au da sutan, berotu bagarik egon gura iz-

tia. Alan dagoz beste uts egite andi ta lodi asko arimen kalte agitijan sei-garren agindubaren kontra. Bada, kristinaubak, utsegite ta engainu bil-durgarri onei aurria artuteko, esango deutsut seigarren agindu onetan: *Luxurijaren etxia zelakua dan; Jaungoikuak pekatu ezain oni zelan begiratutene deutsan; inpernubak ze estimazioe emoten deutsan; pekatu lojak berak mundubari ze etxura emon deutsan; santubak zelan begiratu deutseen berari; zeintzuk dirian agindu onek eragozten dituban egitezko pekatubak; zeintzuk dirian berbazkoko peka-tuba; zeintzuk dirian goguan leku emondako edo pensamentuzko pekatubak; ta azkenian birjinidadiaren ta kastidadiaren balijuia.* Au izango da, zeruba lagun dogula, agindu onetako nire erakutsijen ta zeuben ikasikizunen geija. Eskatu daijogun Jaungoiko onari bere grazija Jesusen erijotza penazkua ta grazijazko irabazijak gaiti, guztia jazo dedin Trinidad Guztiz Santaren ondrarako ta geure arimen onerako. Amen.



## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*ze ondotsuba, zabala, luzia ta altuba dan kastidadiaren kontrako  
 pekatubaren etxia.*

Kastidadiaren kontrako pekatuba da, neure kristinaubak, gizonaren sortuerako biarretan errazoiaren ta Jaungoikuaren legiaren kontra gorputzari gusto emotia. Esaten da *sortuerako biarretan*. Bada, janagaz ta edana-gaz gorputzari gusto emonda pekatu egin arren, ez da kastidadiaren kontra. Esaten da *errazotaren ta Jaungoikuaren legiaren kontra*. Bada, matrimonio santuko estaduba ez da ez errazoiaren ta ez Jaungoikuaren legiaren kontra. Esaten da *gorputzari gusto emotia*. Bada, beste pekatubak ez dira ainbeste gorputzarenak, ezbada borondatiarenak. Kastidadiaren kontrako pekatubari esaten jako, *aragizko pekatuba*, aragijan asi ta amaitutene dalako. Esaten jako *pekatu loja*, guztiz loija dalako. Esaten jako *luxurijažko pekatuba*, alako gauzeten gogua olgetan dalako. Esaten jako *pekatu desonestuba*, arimako ta gorputzeko garbitasuna ta osotasuna galduen dabelako. Esaten jako *lotsarizko pekatuba*, daniik deungeenak bere, lotsatu bagarik egiten ez dabelako.

Izen one[elk guztiok emoten jakoz kastidadiaren kontrako pekatubari. Seigarren agindu santuba austen daben pekatubari. Bera ezaina dan legez, izenak bere ezainak dira; aotan bere kristinaubak artu biar ez litukanak dira. Baino pekatuba bera dan legez ain kanpo andija daukana ta ainbeste arima itsu itsuban inpernura darioazana, izen bategaz edo beste bategaz erakutsi biar jako kristinaubari pekatu loijaren bereno iraaskorra. Esan daijogun, bada, *lotsa arizko pekatuba*, beste izen ezainagorik premi-niak eraso eragiten ez dabenian. Ta kristinaubak leleengotu artu dagijan *lotsarizko pekatu* madarikatubaren gorroto santuba ta itzal bildurgarrija, esaminau daigun *ze ondotsuba, ze zabala, ze luzia ta ze altuba dan bere erreinu inpamia*. Entzun egizu, kristinaubak, gogo onagaz ta artu egizu zeuben onerako dotrina santa au. Menturaz ez deutsu gitxiago balijoko, zeuben betiko salbazinoia baino.

### I.

Inpernuragino elduten da lotsarizko pekatubaren zimentuba. Alan esaten deutsku Espiritu Santubak leku askotan. *Leza andija ta ondotsuba dala emakume loja*, dino Salomek, *ta bere oinak elduten diriala inpernuragino. Inpernurako bidia dala*, dino beste leku batet, *pekatu lotsarizkuaren etxia*. Baino nungua izan leiteke edo nun euki legi sustraija edo zimentuba lotsarizko pekatubak, inpernuban baino? Inpernuba bada illuna, astuna, loi ja ta atsitura, lotsarizko pekatuba beste ainbeste da. Oh, ze bildurgarrija, inpernuraginoko sustraijak daukazan okerrerrija! Ta bere zabaleria?

### II.

Batuko ete da leku txiki baten pekatu ezain au? Geratuko ete da erri baten, probinjzia baten edo erreinu baten lotsarizko pekatubaren pestia? Ez, kristinaubak. Mundubak daukan edu zabaleria dauka pekatubak berak. Noragino elduten dirian gizonak eta emakumiak munduban, aragino elduten da lotsarizko pekatuba. Izan arren Adanen seme alaba mundu guztian zabaldubak, euren sinistute, penseeta ta oituretan apartekuak ta alkar artutene ez dabeenak: Batzuk jentilak, beste batzuk judegubak, beste batzuk moruak edo Jaungoiko bagakuak edo erejiak ta beste asko kristinaubak, guztietara zabaldutene da lotsarizko pekatuba. Alperrik eukiko ditubee gizonak aparteko legiak, ekandubak, azteria ta usadijuak euren gobernarako beste eginbiarretan. Leku guztieta aginduko dau ta topauko dau nok leku emon, pekatu loijak. Ez da batubago bere erreinuba edo egonlekuba mundu guztia baino. Oh, lotsarizko pekatubaren peste zaba-la ta iraazkorra! Ta noragino elduko ete da?

### III.

Denpora gitxikua balitz alako gatz bildurgarrija, pena gitxiago emongo leuke. Baino ez. Mundubaren asierati ona badirau. Adanen loba bat galdu eban lelengo pekatu lotsarizko onek. Ta arik ona zaartu edo kansau biarrian, egunian baino egunian dauka indar geijago, kanpo geijago, krijadu ta krijada geijago. Giza aldirik giza aldira sendotutene da ta boteetan ditu sustrai barrrijak. Pekatu zorigesto[ko] onen kontra propeta santubak, apostolu santubak ta Eleisiaren Gurasuak predikau dabee, diadar egin dabee ta bere gatz negargarrijak kontau ditubee denpora guztietan. Baino gaur eguna ez dau gitxiago agindutene ta ez dau kalte gitxiago



egiten arimetan. Oh, inpernuko pozuti urtendako pekatu madarikatuba, denporiak amaitutenez dabena! Ta noragino jasoko ete dau bere etxian edo egonlekuba?

#### IV.

Egija esateko, ez da lotsarizko pekatubaren alturia ain andija. Luurrezkua da ta luurraren urrian dabil. Bainan luurreko palazijuen ta etxe andijen puntaraginogotien dauen. Bai, kristinaubak. Pekatu loi lotsarizko onen gorrotua zeuben bijotzetan artuteko, gogoratu egizu noragino igoiten dabentzat nori agindutenean deutsan. Luxurijak agindutenean deutsa aberatsari ta bestek kendu ezin deutsan diruba kendutenean deutsa. Agindutenean deutsa jakitunari luxurijak; ta isten dauer tontotuta, txoratuta, lelotuta jakitunik andijena. Agindutenean deutsa ondraubari; ta ondria kenduta ekartzen dauer guztien burlagarri izatera. Agindutenean deutsa indartsubari; ta isten dauer makalduta, gaisotuta, orituta, ixa illainian. Esposo baten ditxa ta poza da esposa lejala; ta a saldutenean dauer esposuak, luxurija serbidutia gaiti. Beste ainbeste eragiten deutsa luxurijak emaztiari bere esposuaren kontra. Kaballeruak ta señoraak ostikopetutenean dabe euren ondria ta pamia. Damaak ta neskatillaak euren onestidadia ta kleituba. Erregiak euren koroiaiak ta alizate altuba. Ta andi beerakuak ez deutsee gitxiago obeidutenean lotsarizko pekatu gaistuari. Ez dago estadurik, ez kondezinoerik luxurijari inzensuba emotenez deutsanik. Ta, bere bijotzian altara bat eginda, adoretan ez dabentzat. Oh, pekatu altsuba! Oh, pekatu atreibiduba! Nor librauko da bereganik? Inpernuraginoko sustraijak daukaz. Munduba eduzabala da. Gizaaldi guztiak eduzabetutenean da. Ta gizon ta emakumen jakituria, eukija, ondria, kleituba eta osasuna baino altubago ta agintarijago da. Oh luxurija, inpernuko basilisko bildurgarrija!

Nai dozu, kristinaubak, entzun, lotsarizko pekatu ezainak daukan etxian, erreinubaren edo agindutariaren irudi ezagun bat? Gogoratu, bida, ez burutazinoe ustzat, ezbada geure oituretako jazo egijazkotzat penseta au.

Adanek pekatu egin ebanian, etorri zirian inpernutila mundura zazpi agintari. Zazpirak zirian deungaak ta okerrak. Zeinek baino zeinek naijago ebeen agindu mundu guztian. Ekarri zitubentzat agintari areek bakotxak bere tropaak, soldaubak, krijaubak eta krijadak. Inpernutila pekatubagaz mundura etorri zirian agintarien izenak dira: 1. Soberbia. 2. Kodizia. 3.

Lujurija. 4. Enbidia. 5. Gulerija. 6. Gorroto sutsuba. 7. Nagitasuna. Ezin alkar artu ebeen; ta asi zirian gerran alkarren kontra.

Soberbijak mundu guztia imini gura eukian andituta, aixaatuta, arrotuta. Kodizijak nai eukian, bestialdiak eta munak, uzanak legez, txupauta, balio guztia bere poltsaan eukitia. Luxurijak guztiak ikusi gura zitukian loituta, atsituta, aragi artian lizundutenean. Enbidijak gura eban, dirianak orituta, sikatuta, igartuta egotia. Gulerijak, eztaarriragino beteta, aseta guztiak egotia. Su-gorrotuak guztiak ikutsi gura zitukian ixiota, alkar erreetan. Ta nagitasunak, guztiak etzinda luurrera begira egotia. Soberbijak ezin ikutsi zituban asiak; ezda luurrera begira etzinda egozanak bere, ta ain gitxi, guzta txupau gura ebeenak. Alan soberbijak imini eutsen gerria gulerijari, kodizijari ta nagitasunari.

Gulerijak ta nagitasunak ez eben alkar galdu gura. Bainan ezin ikutsi eben inor orituta, igartuta ta ixiota egotia. Ta ain gitxi diruba gordetia gaiti, gosia iragotia ta gorputza arro ta sabela zimur eukitia. Alan gulerijak ta nagitasunak irakoi ebeen gerria soberbijaren, kodizijaren, enbidijaren eta su-gorrotuaren kontra. Bainan gulerija aseta eguan legez ta nagitasuna alperra dan legez, bertati kansau zirian ta itxi eutsen gerriari.

Luxurija zan gerrak gitxiengoa eukana. Besten gerriari begira eguan. Ta esaten eben bere artian: *Gero bere oneen bakiak neuk egin biarko ditut.* Alan bere soberbijak ta kodizijak imini eutsen gerria luxurijari. Soberbijak ez eben bat egin gura luxurijaren ezaintasun lotsarizkuakin. Ta kodizijak ez eben emon gura luxurijarentzat diruba. Luxurija dan legez lelenguan arpegieta onekua, alegeria ta konbitontsuba, soberbijagaz ta kodizijagaz gerria eukan artian, bera bisitetara juaten zirianak txito ondo eristen eutsen aren berbeta labanari, alegeriari ta guzta naijai egiteko eukan modubari. Egijja da, batzuk esaten ebeen *atsa enkala.* Beste batzuk *ostia enkala loja.* Beste batzuk *likina erijola.* Beste batzuk *berennua iraasten ebala.* Bainan onako esanei bere ez eutsen geijenak entzute andirik emon. Ta zabaldu zan erri guztieta, zazpi agintarien artian, luxurija zala alegerena, bigunena, ugarijena eta gustuak guztia eskintzen eutsezana. Geijago bagarik, erri ta erreinu guztiak juan zirian prisaka, luxurijari eskuban mun egitera ta obeidutera.

Orduban beste agintari txaarrak sinistu eben edo iges egitia edo illitia. Soberbia asi zan arin aringa pabo-errrialak mutildutenean, aren lumaakin arrotuta, aixaatuta, beste mun[du]betara iragoteko. Kodizijak itandutenean eben, ia nun eguan *Potosi*, angotxoa eta zidarra poltsaan ondo gordetako. Su-gorrotua ixiota joian errjak guztiak erretara. Enbidijak topau gura eukian bidia, urtarrilgo ipar otzak urteten dabentzat lekura; agaz bat eginda, mundu guztia orituteko ta igartuteko. Gulerija ebilen karnazeria baten



billak, sabela bein ondo beteta, gero biar bazan illteko. Nagitasuna sartu zan korta illun baten ta an geratu zan etzinda, luurrera begira. Terzijo onetan aurkitutenean zirian inpernuti urtendako sei agintariak, ya euren izatiagaz desesperauta.

Baina luxurija dan legez señora andija, krijadu ta krijada asko biar ditubana, pensau eban, agintari txaar areek galdua ez eukala probetxurik. Oba ebala, bere palazijora eruanda, guztia kin baliju. Abisau eutseen guztiai, juan zitezala beregana ta ez eutseela gatxik egingo. Juan zirian dirianak luxurijaren aurrera ta agindu eutsen, berari obeiduko eutseela beti. Ikutsi zitubanian guztiai luxurijkak bere mendian ta esanian, entero berba leunakin ta jera bigunagaz esan eutsen guztiai ta bakotxari zelan bera serbidu biar eben.

Luxurijkak esan eutsan *soberbijari*: Zu juango zara beti neure aurrian. Prestauko deustazuz bidiak. Ta edegiko deustazuz neuk sartu biar dodan etxeko atiak. Esan eutsan *kodizjari*: Nai irabazita, nai logrerijan, nai oostuta, biar dodan diruba beti prest eukiko deustazu. Kodizjak leleenguan burubarri eragiten eutsan. Bainan laster erantzun eutsan *baietz*. Esan eutsan *galerijari*: Sarri gosetu oi zala ta beti maija prest euki egijola. Esan eutsan *enbidijari*: Zuk jarraituko deustazu beti neure orpuetan. Esan eutsan *su-gorrotuari*: Zuk jarraituko deutsazu neure ondorik datorren enbijari. Esan eutsan azkenian *nagitasunari* luxurijkak: Zu kansetan ez nas gura, ta egongo zara beti neugaz. Pozaren pozez erantzun eutsan nagitasunak *baietz*.

Ara emen, kristinaubak, zazpi pekatu buru edo kapitalen asieria, gerria ta bakia, luxurija guztien agintari dala. Ez da au, neure entzula onak, burutazinoe sutsu bategaz asmauba. Ez da urrin errijeten jazoten dana, ezbada geure artian, kristinauben artian egunero negarragaz ta peniagaz ikusten doguna da. Soberbijia da andiguria, buru eritxiña, urten guria, apaindu guria ta arrotasuna. Ta oni jaoko luxurijari bidiak prestetia ta atiak edegitia. Soberbijaren orpuetan dabil beti luxurija. Ez da ikutsiko panparroe, buru eritxirik ta urten gurarik, luxurijaren atsa ondorik ez darraikonik. Kodiziak dauka karguba, luxurijari diruba emoteko. Bada, pobre bilox bat gaiski esan bagarik, lauzuri emongo ez bajako bere, luxurijarentzat ez da inos diruba palta, edo norberarena, edo inorena, edo oostuba, edo ainbagakua. Gulerijak dauka karguba luxurijari maija pres-teetako. Orregaiti, gulerijazko jan edana dabilen lekuban, inos luxurija paltau ez, dinue Eleisiaren Gurasuak. Enbidijak dauka karguba luxurijaren orpuetan ibilteko; ta su-gorrotuak enbidijaren orpuetan. Bada, luxurijari orpuetan darraiko beti bildurra, zelua, sospetxia, ikutsi ezina, zer-

esana, gorrotua, bengantzia, penia, tristeza ta larrija, zeintzuk dirian enbidijaren ta su-gorrotuaren seme alabaak.

Orain esaten dan nagitasuna da, kristinaubak Jaungoikuaren gauzetaarako daukan atzerapena, gogo illa ta bijotz otza. Alan esan eutsan luxurijak nagitasunari, beragaz egon zedilla beti. Bada, beti dago luxurijagaz nagitasuna. Lotsarizko pekatubetan sartua daguan kristinaubak, nekez zeruru[tz] begiratutenean dau. Nekez espirituba biztutenean dau. Pekatubari ta okasinoiari istia, bitzitzta deungia mudetia, konpesinoe on bat egitia ta Jaungoikua serbidutiari gogoz ekitia, gauza astuna ta gatxa da luxurijotsarentzat. Geijenian geratu oi jakoz luxurijotsbarri onako gauza onak geroko ta beti geroko, pekatu loijak beragaz darabilelako Jaungoikua serbiduteko nagitasuna.

Ez da bada, neure entzula onak, guztiz bildurgarrija ta ikaragarrija, beste pekatu guztiai ta bizi jo edo okerrerrija guztiai beragaz naastuta darabiltzan luxurija edo lotsarizko pekatuba? Gogoratu bada, kristinaubak, ze etxe edo egonlekua ondotsuba, zabala, luzia ta altuba daukan munduban kastidiadiaren kontrako pekatubak. Ez aaztu bere erreinu edo agindute madarikatubagaz. Bildurtu ta ikaratu urrineti bere pekatu lotsarizkuaren zaatiagaz, bere sarepian sartuta betiko galdu ez zaizan. Eskatu dai-jogun Jaungoikuari bere miserikordi ja, egijia santuben ezauberia ta kastidade santiaren doe garbija, munduban gogoz bere lege santuba gordetako ta zeruban beti gozetako. Amen.



### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*Jaungoikuak lotsarizko pekatubari zelan begiratutene deutsan.*

Pekatuba esaten dianian aitu biar da, kristinaubak, pekatarria edo pekatu dana. Lapurretiagaz aituten da, zelakua dan lapurra. Humildadiagaz, zelakua dan humildia. Jakiturijagaz, zelakua dan jakituna. Kastidadiagaz ta birjinidadiagaz, zelakua dan gorputz ta arima garbiduna. Ta lotsarizko pekatubagaz, zelakua dan berba loijak, egite loijak ta bidebagako gurari loijak daukazan gizona edo emakumia. Ezauberazko egitadiak zelakuak dirian, alakua da Jaungoikoaren begijetan kristinauba. Ezauberazko egitade oneek, nai onak ta nai txaarrak, beragaz daruaz kristinaubak beste munduragino. Onak badira, zeruragino. Txaarrak badira, ta erremedijetan ez badira, inpernuragino. Ez dago erremedijorik. Ikusi ezkerro, bida, leengo erakutsijan lotsarizko pekatubak munduban daukan leku andija ta estimauba, ez da errazoeti kanpora izango kristinaubari, zeruban edo inpernuban beti egon biarko dabena sinistuten dabenari, esatia, ia Jaungoikuak zeruti zelan begiratutene deutsan lotsarizko pekatudunari. Baita ia inpernuban zelan begiratutene deutsen bere. Orain esango da leleengua, ta geroko ikasikizunian bigarrena. Entzun egizu gogoz.

Modu bitara portetan da Jaungoiko zuzena ta santuba bere ordenetan. Baita Jaungoikuaren antzera beste legeginalik bere. Batetik, lege santuba austen dabenak ta gaiski egiten dabenak zamaitutene ditu ta kastigetan ditu. Ta bestetik, erakusten deutsku ontasun neurri bagako bategaz, zelan alderatu biar dogun lege austetik eta eskintzen deusku ondo eginaren saria. Esango deutsut bada, kristinaubak, dotrina onetan: 1. *Jaungoikuak zelan zamaitutene dituban lotsarizko pekatudunak.* 2. *Ze gogogaz erakusten deutsku Jaungoikuak pekatu loijaganik aparteetako.* Prestau egizu, kristinaubak, entzutia ainbat gogorik zurrenagaz.

#### I.

Edozeinek daki, Jaungoikuaren maldezinoiak ze itzala ta erruba darioan beregaz. Jaungoikuak zerbaiti maldezinoia ezarten deutsanian, bere bijotzeko gorroto ta asarre nautsiak erakusten dau. Alan erakusten

deutskubee Eskritura Sagraduko jazo askogaz Eleisiaren Gurasuak. Entzun egizu, bida, orain, neure kristinaubak, zeinbat maldezinoe jauregiten dituban Jaungoiko itzalsubak aragizko pekatudunen kontra. *Madarikatubak* gizon eta emakumiak, lotsaarizko pekatu nasaijakin munduba loitura, Jaungoiko andija uxalagaz guziak itotera ekarri ebeenak. Lotsaarizko pekatuba gaiti, luurreko gauza bitzi guziak ondatutera Jaungoikua obligau ebeenak. *Madarikatuba* Kan eritzon Noeren seme lotsagaldukua, lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatuba* Sodoma, Gomorra ta ingurubeetako jentia lotsarizko pekatubak gaiti. *Madarikatuba* Her ta Onan lotsarizko pekatubak gaiti. *Madarikatuba* Sikengo jentia lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatubak* israeltarrak, Moabgo alabaakin pekatu egin ebenak, lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatubak* Zanbri ta Madiango alabia lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatuba* Amon lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatuba* Absalon lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatubak* santa Susana garbijari pekatu eragin gura eutsen agura zaarrak, lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatuba* Gabaongo jentia lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatuba* lege zaarriaren edozein emakume adulteriogin lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatuba* Korintoko luxurijotsuba, san Paulo apostolubak lotsarizko pekatuba gaiti diabruari entregau eutsana. *Madarikatuba* Erodes lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatuba* E rodias emakume dantziaria ta loija, San Juan Bautistaren samia dantziaren saritzat eskatu ebana izotz gainian iragoten eibilela, izotza ausita samaragino uretan sartuta, oinakin dantzaren eibilela buruba urkatu ebana, lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatuba* Nikolas Antiokiakua lotsarizko pekatuba gaiti. *Madarikatuba* Apokalisiko Jesabel emakume loija ta agaz pekatu egin eben guztiak, lotsarizko pekatuba gaiti. Azkenian *madarikatubak* san Pedro apostolubak bigarren kartiaren bigarren kapituluan izentetan ditubanak, lotsarizko pekatuba gaiti.

Ara, neure entzula onak, Jaungoikuak zeruti zelan begiratutene deutsen lotsarizko pekatudunai edo seigarren agindu santuba austen dabee-nai. Eurak gorputzari ta aragijari gusto loijak emon eutseezanak, batzuk batera ta bestiak bestera jagi dira Jaungoikuaren lege santubaren kontra. Bainan Jaungoikuak aragizko pekatubari deutsan gorroto mortala jausi zan euren arimen gainera. Oh, desditxaubak, Jaungoikuaren madarikatubak! Oh, zorigestokuak, pekatu loija gaiti demoninuari betiko entregauta dagozan gizon eta emakumiak! Ze gitxi pensauko eben arima kondenau areek, munduban bitzi zirianian, Jaungoikuak ainbeste gorroto eutsela eurak egiten zituben luxurijazko pekatubai! Bainan munduban izan arren pekatu lotsarizkua gizon eta emakumiak enkantauta, itsututa, zoratuta



darabilzana, zerutarren begijetan beste bat da. Zeruti begiratuta, guztiz da itxusia, ezaina, illuna, atsituba ta gorrotogarria lotsarizko pekatuba, gorputzak usteldu ta arimaak kondeneta ditubana. Zerubak eta zerutarrak entzun bere gura ez dabee pekatu loijaren izena.

Alan esaten deutsku san Paulo Apostolubak, *aotan bere artu biar ez dala luxuriazko pekatubaren izena*. San Paulo apostolubak, kastidadiaren kontrako pekatuba aitatutenean, dino santo Tomas Billanuebauak, beti ekarten ditubala gogora Jaungoikuak lotsarizko pekatubari deutsan gorrotua ta bera gaiti egin dituban kastigubak. Engainauta bitzi dira kristinaubak. Jaungoikuak erreztzo parkatutenean dabela pensauta, pekatu loijai ariman leku emoten deutsenak. Diabrubak bere sarepian segurubago eukiteko emoten deutsen itsutasuna da au. Oh, zeinbat onako zorigesteko errukarri dagozan, urte askotan lotsarizko pekatubetan igiri edo ugar egiten dabeela! Ez leukee pensauko oneek, zeruko santuben, ainge[r]u[ben], Birjinia guztiz garbijaren ta Jesus ederraren amodiju, karinua ta bijotzak irabazteko, guztiz luurrezkua, aragizkua ta lotsarizkua dala luxurija?

Luurrezkua da pekatu lotsagarri au. Ta luurreko gauzeten daukaz bere gustuak. Aragizkua da. Ta aragija, arimia apartau ezkerro, luurra da. Ze prenda ederra izango dan, bida, kristinaubaren gorputza, berezko luurtasunaren gainera lotsarizko pekabakin loitura daguana, Jaungoiko guztiz santubari ta garbijari aurrera presentetako edo eskintzeo. Ez dira akordauko kristinai loijak, euren gorputzak diriana edo izan biar dabena Espiritu Santubaren tenplu edo egonleku bitzjak? Espiritu Santubaren egonlekubak egingo ditubee, bida, pekatu loijaren ontzi? Ta ez da aserratuko Jaungoikua alako egitade loijaren kontra? Bere etxe santuba luxurijagaz mantxau ta loitu daberen kontra? Jesukristoren gorputz garbijaren zatijari, zein dan kristinaubaren gorputza, luurrego lizuna ta atsa bere guraz imini deutsanaren kontra? Oh, kristinaubak! Jaungoikua ez litzaate Espiritu garbijia izango, aparteko gorrotua ez baleutsa lotsarizko pekatubari. Aingerubak, Ama Birjina guztiz santiak, santubak eta santak, zerutar guziak deutsee gorroto ixia aragizko pekatu ezainari.

Sinistu bida, kristinaubak, sinistu, munduban dala lotsarizko pekatuba labana, leuna, zabala, ugarija ta maitetuba. Sinistu arima arimati, zerubak beti izan deutsala ta izango deutsala gorroto; beti zamaitu dabela, madarikatu dabela ta kastigau dabela Jaungoikuak aparteko zelugaz lotsarizko pekatuba. Baita erakutsi bere guztiai zelan apartau biar dogun pekatu inpame atati.

## II.

Aita on batek seme batari, gaixki egin dabelako, asarre bitzijagaz zurra andija emonda, beste semiari, alako gatzik egin ez dagijan amodijoaz ta karinoz konseju onak emoten deutsa[za]n legez, alan Jaungoiko onak bere, lotsarizko pekatudunak maldezinoe ikaragarrijakin inpernuko sata-nasari entregauta gero, erakusten deutsee amodijo ta karino andijagaz kristinai guztiai, zelan apartau biar dabent pekatu loijetati. Leku askotan gauza onen gainian Espiritu Santubak erakutsi deusku geure zeregina. Guztiak ezin esan legiz dotrina labur baten. Banaka batzuk ekarriko ditut zeuben gogora. Ta areetati aituko dozu geure Aita zerukaren opa ona. Dirausku, bida, Espiritu Santubak Eskritura Sagraduban leku askotan.

Ez egijozu emon emakumiari zeure goguan lekurik, galdua geratu ez zaitezan. Ez egijozu emon emakume loijari konpabajtarik; ta ez zaitez izan aren adiskide, zeu ta daukazun guztia galdu ez dagizun. Espiritu Santubaren egonlekuba da zeure gorputza; ez, egin bada loitu lotsarizko pekatubagaz. Emakume loija ostikopian darabilee guztiak, simaurra edo satsa legez. Kontu egizu, ene semia, aragizko pekatuban jausi ez zaitezan. Leza andi baten modukua da emakume berdia; lapurra legez dabil, inozentiai pekatu eragiteko; ta pekatubagaz illten ditu arimak. Luxurijotsubagaz bat egiten dana, galdua da; aarrak ta usteltasuna baino ez jako geratuko. Inoren emaztiagaz ez zaitez jarrita egon; ez egizu agaz ardaozko konbitik euki; zeure gogua bereganatu ez dagizun ta galdu ez zagizan. Iges egizu pekatu loijeetati. Beste guztiak baino ezainagu da, aragizkua dalako. Zaldi sutsubak legez duaz pekatu loijetara; ta ez nas asarratuko aren kontra? Luxurijari leku emoten deutseenak, ez dabee pensestan Jaungoikuagana biurtutia. Ez egijozu entzuterik emon emakumiaren leunkerijari. Lelenguan berba egingo deutsa txito laban; baina azkenetako, sugiak legez, aginka eginda itxiko zaitu. Luxurijotsubaren begijak illunduta dagoz; ta esaten dau bere artian: *ez nau inok ikusten*. Ardauak eta emakumiak jakitun asko kondenau ditubee. Emakume leunaren etxia da inpernurako bidia; ez zaitez juan aren bideti. Illuntzietan plaza eskinetan ta bide baztarretan itxaanda, laban berba eginda, engainauko zaitu; bida, birtute andikuak bere engainau ta kondenau ditubee emakume leunak. Neskatiliari ez eigijozu begiratu; bere edertasunagaz engainauta, galdu ez zaitezan. Lau gauza dagoz inos aseetan ez dirianak: Inpernuba, luurra, suba ta luxurija. Mortipikau egizuz zeuben gorputzak, lotsarizko pekatuban jausi ez zaitezan. Luxurijotsubak ez dabee zeruko erreinuba artuko.



Baina zeinbat onako konseju on ta geure ondo gurazko abisu emoten deutskuz Espiritu Santubak, lotsarizko pekatubetati gu apartetako? Oh, geure zeruko Aita ona ta biguna! Ezin bakiak egin legiz pekatubagaz Jaungoikuak. Kastigau biar dau, penitenzijagaz birrinduten ez dan peka[tu]ba erremedio bagarik Jaungoikuaren justizia zuzenak. Berak ezaututen dau pekatu guztien ta bakotxaren ezaintasuna ta malezija. Ez geuk uste dogun moduban, ezbada dan moduban. Baki kristinauben pekatubeetati lotsarizkuena ta gorrotagarriena dana. Baki zerubak gogor kastigeetan dabena. Baki satanasak pekatu agaz geijen engaineetan daben. Baki, kristinaubak pekatu lotsarizkuan jausteko okasinoe asko daukezana. Ta au guztiau jakinda, esaten deutskuz Jaungoikuak bere Eskritura Sagraduban, pekatu ezainari deutsan gorrotua ta aganik aparteetako moduba.

Zer gurako dau, bada, kristinaubak geijago gauza onen gainian? Ukatu legi Jaungoikuaren borondatia? Dudau legi zerubak luxurijari deutsan gorrotua, ainbeste zamaigaz ta maldezinoegaz pekatu loidunak satanasari entregau ezkerro? Ez, kristinaubak. Ezin ukatu ginai. Ta ez dogu ukatu biar. Sinistu biar dogu bene benetan, aparteko gorrotuagaz Jaungoikuak kastigetan dabela lotsarizko pekatuba.

Denpora guztietan izan da lotsarizko pekatuba zerubaren gorrotokua. Bainan Jaungoikuaren seme bitzia gizon egin zan ezkerro, oraindino zerubaren gorrotokuagua da. Zegaiti, bada, au? Jaungoikuaren semia gizon eginagaz, gizonaren naturalezia leen baino santubago ta Jaungoigotubago geratu zalako. Ama Birjiniaren sabel santan artu eban Jaungoikuaren semiak geure eriko gorputza edo aragija ta odola beraganan. Ta geratu zan Jesusen gorputz santuba Jaungoikotuta. Gure gorputzak dira Jesusen gorputzaren erikuak. Ta geratutenean dira bautismo santuban garbituta, santututa, moduren baten Jaungoikotuta. Orregaiti gara kristinu guztioak Jaungoikuaren semiak ta zeruko erederubak. Edo obeto esateko san Paulo apostolubagaz, geure gorputzak dira Jesusen gorputz santubaren zatijak ta Espiritu Santubaren egonleku bitzijak. Zer izango da, bada? Edozelan begiratuko deutsa Espiritu Santubak bere egonleku bitzijari, kristinaubaren gorputzari, lotsarizko pekatubagaz loitura daku-tsian? Oh, kristinaubak! Edozeinek dakuts, gogoratuta beste bagarik, ikara eragiten dabena pekatu ezain onek. Tristetutenean dau Espiritu Santuba. Ta aparteko injurija egiten deutsa Jesukristoren gorputz santubari ta garbijari. Au gaiti esaten dau san Agustinek: *O ze maldade andija! O ze pekatu negargarrija, Jesus maitiak bere odol santubagaz irabazi ta garbitu eban arimia, istanteko gustua gaiti luxurijagaz loitutia! Inpernubaren etxurakua da luxu-*

*rija*, dino san Buenabenturak. Inpernuban dago su ixia, ar aginkarija ta atsa. Alan lotsarizko pekatudunak dauka aragijaren suba, konzienzijako arra ta luxurijaren atsa. Orregaiti, dino erakusla santubak, ya zelanbit beragaz daukala pekatu loidunak inpernuko penia.

Gorrototu, bada, kristinaubak, lotsarizko pekatubaren kontra. Artu bakotxak beretzat Jaungoikuaren esan zintzuak ta opa oneko abisubak, pekatu ezainetan inos jausi ez gaitezan. Berak esaten deutsku txito argiro, ia lagun gaistuak eta aragizkuak, endamas emakumiak zelan engainen dituben ta pekatu deungijaren sarian sartutenean dituben arimak; zelan ardaozko konbitak ta jan edan laarregijak dagozan lekuban artutenean indarra pekatu ezainak; zelan okasinoeko lekubetati alde egin biar dan; zelan geure begijak, mijna ta sentidubak edo zuzmaarijak gorde biar ditugun, arimia ta gorputza loitu legileen gauzetai.

Eskatu daijogun, bada, geure Aita zerukuari, bialdu daigula bere grazia. Ya ditxia daukagun ezkerro bere aoti entzuteko garbitasuna gordetako bide zuzena ta biarrekua, gorde daigun geure bijotzetan, arimetan ta gorputzian kastidadia. Au galdua, geure gainera etorri ez ditezan Jaungoikuaren beraren maldezinoe ikaragarrijak. Jesukristo geure Jaunak egin daigula mesede au bere odol santubaren baliju gaiti. Amen.



## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan,  
*lotsarizko pekatubari zelan begiratuten jakon inpernuban.*

Eleisa Ama santiaren Guraso askok esaten deutsee, neure kristinaubak, pekatu loijaren gurari eragotzijari inpernuko suba. *Ignis infernalis*. Aitu dozu, bada, leengo doctrineetan, munduban agindute andija daukala, ta zerubak txito gorroto deutsala; inpernuba alegretan daben pekatuba dala; ta mundurik geijena ara darioala. Uste dot bada, neure entzula onak, geure arimen onerako izango dala gogoratutia, ia ze artuera egiten deutsen, edo zelan begiratuten deutsen inpernuban lotsarizko pekatubari. Onetarako aituten emongo deutsut erakutsi oneten: 1. *Kondenaubak gorroto deutsela pekatu loijari*. 2. *Inok egitia nai dabeela*. Prestatu zaitez, kristinaubak, ainbat entzunerarik oneenagaz.

### I.

Kondenauta dagozanak, edo dira diabrubak, edo dira gizon eta emakumen arima kondenaubak. Batzubak bere ez dabee gura pekatu loija inpernuban eureentzat. Ez diabrubak, euren izatiari ez jaokolako. Ez kondenaubak, euren erregarrija dalako. Ikusi daigun zelan.

*Leleengo:* Diabrubak gorroto deutsee luxurijari, euren izatiari ez jaokolako. Diabrubak gorputzik ez daukee. Dira espiritubak. Naturalezaz izate altuba ta noblia daukenak. Soberbijak, borondate gaistuak ta pekatubak ezaindu ta madarikatutu zituban diabrubak. Kondenauta dagoz betiko espiritu zorigestoko areek. Ta gura leuket, arima guztiak bere kondeneta, eurakin beti erretan inpernuban eukiteko. Baina diabru madarikatu areen izate espirituzkuari gitxien jagokan pekatuba da luxurijazko pekatuba, aragizkua ta loija dalako. Au gaiti esaten dau Aita Burdalue zelo oneko jesuita jakitunak, diabru guztiak izan arren geure arerijuak ta guri pekatubak eragiteko ondo dendatuten dirianak, ez diriala edozein modutan. Batzuk eragiten ditubee erijotzaak. Beste batzuk gorrotuak ta odiyuak. Beste batzuk andiguraak, lapurretaak, enbidijaak... Baina luxurijari suba ta indarra emoteko daguan agintaria da *Asmodeo* esaten jakon diabrua. Au da diabru guztietati baxubena. Au gaiti esaten deutsa Jesukristo

geure Jaunak ebanjelijo santuban, espiritu loija. Guztiak izan arren gatxerakuak, ez dau aretati edozeinek gura bere izate espirituzkua gaiti, gizonari pekatu loijak eragiteko eginbiar inpamia bere kontura artutia. Borregutzako ta pregonerutzako eginbiarra artutен dabee legez errijetan gizonik baxubenak; alan aragizko pekatubak eragiteko karguba artuten dabee espiritu kondenaurik baxubenak.

Aita Looner, jesuita piedadezkuak esaten dau, gizon etzizeru batek, aragizko pekatu bat eginda andi laster dei egiten eutsala demoninuari, gauza bat itanduteko. Baina ez jakon agertutene espiritu galdua bestetan legez. Dei egiten eutsan bigarrenian. Baita irugarrenian bere. Azkenian, nekezko baten agertu jakon espiritu illuna. Baina ez eban etzizerubaren ondora eldu gura. Kontu artu eutsan etzizerubak etsaijari, ia zegaiti leenago agertu ez jakon. Ta zegaiti ondora juaten ez jakon. Erantzun eutsan diabrubak etzizerubari: *E! Zure luxurijaren atsa ezin irago izan dot.* Beste ainbeste, dino Jose Klaus jakitunak, jazo jakola emakume lotsarizko pekatudun bati. Esan eutsan diabrubak emakume loijari: *Alde egizu orti, atsa darijazu ta.* Begiratu bada, kristinaubak, inpernuko espiritu madarikatubak bere gorroto deutseela lotsarizko pekatubari, euren izatiari ez jagokolako. Baita arima kondenaubak bere, euren erregarrija dalako. Ikusi daigun zelan.

*Bigarrenian.* Arima kondenaubak bere gorroto deutsee pekatu loijari, euren erregarrija dalako. Bada, arima gitxi egongo dira kondenauta, kastidadiaren lege santubak ausi bagarik. Ez dinot, beste pekatubak gaiti ez diriala kondeneta arimak. Sinistuten dogu, edozein pekatu mortalegaz irabazten dala inpernuba. Ikusten dogu, malpeka, beste pekatubak bere sustrai andijk ta agindute zabala daukeela geure bijotzetan. Baita, Eskritura Sagradubak ta Eleisiaren Gurasuak dinuenez kastidade santia gaiti ta aren arerijo pekatu loija gaiti, sinistu daikegu arima kondenau gitxi egongo diriala inpernuban, kastidadiaren kontrako pekatu ezaina gaiti aparteko suba, aparteko penia ta aparteko arrabijua ez daukenak. Ta noberaren erregarririk ta penagarririk inok gura ez dabent legez, kondenaubak bere beti gorroto izango deutsee, eurak beti erretan ta penetan eukiko dituban pekatu loijari. Amurribaren amurruz naiko ditubee zatiutu ta apurtu euren gorputzak, aragizko pekatubak egin zitubelako. Onan esaten da bada, kristinaubak, bai diabrubak ta bai kondenaubak inpernuban gorroto izango deutsela pekatu loijari. Oh, gatz negargarrija! Gero ainbeste gorroto izango jakona, orain ain maite izatia!



## II.

Baina beste aldeti san Bernardok esaten deusku, *inpernu guztia alegretan dabela luxurijak*. Ta zegaiti? Santubak berak esaten dau: Kasik mundu guztia kondeneetan dabelako. *Quasi totum mundum trait ad supplitium*. Au gaiti, bai diabrubak ta bai kondenaubak nai dabee bestiak pekatu loijak egitia. Aita Looner, leen izentau dan jesuita jakitun zelotsubak esaten dau, munduban zabalduta egozan espiritu gatxginak batu ziriala leku batera. Kontetan zitubela euren gatx eginak ta pekatu eraginak guztiak. Ta zurretan zitubeela beste espiritu inpernuban egozanak, ondo porteeitan ez zirialako. Demonio batek esan eban batzaar inpernuko atan, *berrogei urtian jardun ebala praire bati luxurijazko burutazinoiak ta gurarijak gogora eruaten*. Ta Luziperrek koroa bat imini eutsala espiritu deunga ari, ondo portau zalako. Zeinbat pekatu andi eragingo zitubeen berrogei urtian mundu zabalian beste diabrubak! Orregaiti bere izan zirian zurraubak, Luziperrek gura eban beste egin ez ebeelako. Bakarrik irabatzi eban inpernuko koroia, berrogei urtian praire bati aragijaren tentazinoe loija ta bildurgarrija imini eutsanak. Oh, zeinbat gura lituken inpernuban pekatu loidunak!

Zegaiti baina, esan legi, inpernuko espiritu deungaak nai dabeela ainbeste, kristinaubak pekatu loijak egitia? Errazoe asko gaiti, neure entzula onak. Pediak erakusten deutsku diabrubak geure arerijuak diriana; guri pekatu eragiteko ta gu pekatuban illteko alegin guztia kansau bagarik egiten dabeena; gizon eta emakume guztiak inpernuban eurekin beti errethan euki gura litukeena. Ta euren gurari gorrotozko madarikatu au jadiisteko, ondo ezaututen dabee espiritu kondenaubak: 1. Oi danez, lotsarizko pekatuba dala lasterren iraasten dana ta nekezen erremedijeetan dana. 2. Lotsarizko pekatu baten bein jausi ezkerro kristinauba, oi danez, beste pekatu askotan bere jausiko dala. 3. Ezaututen dabee diabrubak, pekatu loijak eskubide geijago emoten deutsela eurai kondenauben arimak ta gorputzak inpernuban peneetako, beste pekatubak baino. Au gaiti, ez dira inos bere aspertuten espiritu zorigaistokuak munduban luxurijari su ta indar emoten.

Lotsarizko pekatuba laster iraasten dana, nekez erremedijetan dana, edo inos bere askok erremedijau ez oi dabena, ta bere ondorik beste pekatu asko, Jaungoikua ukatuteraginoko, eragin oi ditubana, guztiak autor dabeen egija da, neure kristinaubak. Beste pekatubak baino eskubide geijago lotsarizko pekatubak berez diabrubai emoten deutseena bere, inpernuban kondenauben arimak ta gorputzak penetako, gauza agirija da.

Bada, Espiritu Santubak esaten dau, pekatu zegaz egiten dan, agan penarik geijen. Miin gaistokuari miinian emongo deutsee penarik geijen. Gulerubari auan ta sabelian penarik geijen. Gorrototsbari borondatian ta bijotzian penarik geijen. Alan beste bizijo edo pekatubetan. Ze arimako ta gorputzeko sentidu ta zentzungarrigaz egiten daben kristinaubak pekatu, sentidu ta alizate atan bertan kondenaubak pena geijago. Ta an diabrubak kondenauba peneetako eskubide geijago. *Per ea, quae quis pecat, per haec et torquetur*. Kastidadiaren kontrako pekatuba egiten da, entendimentubagaz pensauta, borondatiagaz nai izanda, gomutiagaz akordauta, bijotzagaz amauta, begijakin, miinagaz, belaarrijakin, eskubakin, pausu txaarrakin... gorputz guztiagaz ta arimako alizate guztiakin. Orregaiti pekatu madarikatu onek eskubide geijago emoten deutse diabrubai gorputzak ta arimak peneetako, bestiak baino. Ta izan zatekian au gaiti esatia san Bernardok, inpernu guztia alegretan dabela luxurijak.

Begitanduten jat, kristinaubak, kastidadiaren kontrako pekatudun bati jazotzen jakola inpernuban diabrubakin, basuan illdako ardi bat mirubakin jazoten jakona. Batak kolpe egiten deutsa begje[ta]ti, bestiak samati, bestiak tripati, bestiak bularreti, bestiak buruti edo ankeetati ta guztiak era batera pikatu ta zulotuten deutsee, zatijak kendubaz, gorputz guztia. Beste ainbeste demoninuak inpernuban luxurijotsbagaz. Oh, gorputz ta arima, garbitasunaren kontrako pekatuz loitura zagozana! Pensau ete dozu inos inpernuban demoninuak zelan erabiliko dituben zeure begi loijak, miin loija, esku, oin, bijotz, matreila, ezpan, belaarri, enpin gorputz ta arima guztia, euli gosiak eztijari legez, gorrotoz ta amurriz eldu dagijuenian!

Ah, kristinaubak! Gogoratuko bagendu, goputz ta arima desonestubak bere zati guztietai inpernuban daukan aparteko penia ta padetzeta moduba. Pensauko bagendu puska bat astiruago, pekatu ezainak ta loijak inpernuko espiritu deungai emoten deutseen aparteko indarra ta alizatia kondenau loijen kontra. Aaztuko ez bagina inos sarritan entzuten dogunagaz ta leku askotan irakurten dogunagaz. Luxurijotsbak bai gizonak ta bai emakumiak, bai ezkondubak ta bai libriak euren pekatuko adiskidekin sartutem ditubela oe ixiiuetan, laba gorijetan ta galdera iraakinetan, nun egon biarko dabeen kondenau loijak demoninuen burlagarritzat, alkar zatitutem ta alkar erretan. Oh, lotsarizko pekatu madarikatua! Ze ben-gauba ta ze kastigauba inpernuban! Begijak andituta, gorrituta, su artuta, materija atsituba darijuela. Belaarrijetan sierpe deungaak, eztenak sartuta. Matrelletan zapo mortalak erpiakin ta aginakin oratuta. Ezpanak sarnatuta, baltztuta. Miina aterata, ixiota, suba darijola... Oh! Ta zelan beste peka-



tu loi lekubak? Ah, neure entzula onak! Liburu askotan irakurten dana gogoratuta beste bagarik, ikara egiten dau bijotzak ta aragijak. Ta au ondo pensau ezkerro, eukiko leuke ainbeste leku lotsarizko pekatubak kristinauben gorputzzetan ta arimetan? Etzetz uste dot, kristinaubak.

Ez, bada, aaztu inos, neure entzula onak, inpernuko leza ikaragarri atan daguala penia pekatubagaz ta errubagaz neurtuta. Zegaz kristinaubak ausi daben Jaungoikuaren legia, an izango dabela pena geijago. Luxuriak loitu, ezaindu ta pekatututenean dabela gorputz ta arima gizon guztia bere zati guztietan. Inpernuban dagozala ondar erriak, azupre ixia, pika iraakina, ar aginkarijak, ats astuna, su gorija ta illun galdaubak. Ez aaztu, lotsarizko pekatzar aragizkuak, luurrezkuak, baxubak, ezainak ta loijak guztiz diabrubaren eskuperatutenean dabela gorputza ta arimia inpernuban. Ango penagarri guztiakin balijetan diriala etsaijak, pekatzar loidunak gorputzian ta ariman kastigetako. Ta au gaiti nai dabela entero diabrubak, lotsarizko pekatubak guk egitia.

Ta naiko ete dabee inpernuban dagozan arima kondenaubak pekatzar loijak guk egitia? Bai, kristinaubak. Eurentzat gorroto deutsee aragizko pekatubari. Bainaz bestentzat nai dabee. Zelan, bada, au? Santo Tomasesen erakutsijan, arima kondenaubak gura leukee beste guztiak bere kondenezia. Eurak inpernuban erretan dagozan legez, bestiak bere aintxe erretan egotia. Jaungoikuaren gorrotuan dago arima kondenauba. Baita Jaungoikuaren adiskide guztiak gorrotuan bere. Gorroto onetati jatorko inoren ona ikusi ezina, gustiak gatxa opa izatia ta guztiak kondenau ditezan nai izatia. Bakijee eurai jazo jakuenagaz, lotsarizko pekatubak arimariak geijen itsututenean ditubana, engainenetan ditubana, Jaungoikuaren gauzetai ustua ta liortutenean ditubana ta kondenetai ditubana. Au gaiti, inpernuko arima kondenaubak bere estimeetan dabee ta txito nai dabee inorentzat pekatzar loija.

Ara bada, kristinaubak, ze etxuria, ze lekuba ta estimazinoia daukan inpernuban kastidiadiaren kontrako pekatzar ezainak ta bildurgarrijak. Diabruben espirituzko izate nobliari ez jagoko; ta au gaiti ez dabee nai. Kondenauen erregarrija da; ta au gaiti kondenau guztiak gorroto deutsee. Bainaz bitzubak nai dabee, inor pekatzar loi lotsarizkuetan jaustia. Inpernuban dagozan guztiak alegretan dira, munduban egiten dirian luxuriazko pekatubakin. Pekatzar areek gaiti egunen baten euren laguntzat ta mendian gorputz ta arima erretan ta penetan eukiteko.

Oh, Birjina zerukual! Oh, Jesusen Ama garbija! Erregutu egijozu, bada, gu gaiti zeure seme bijotzekuari, emon daigula kastidade santiaren doe zorijonekua. Libratu gaizala pekatzar ezainaren bide guztietatia. Ebagi

daiguzala pekatubaren okasinoe guztiak. Seillatu dagijala geure ariman ta bijotzian, zerubak lotsarizko pekatubari deutsan gorrotua ta inpernuban espiritu madarikatubak emoten deutsen sugarrezko paguba. Onan gordeko dogu geure ariman ta gorputzian garbitasuna ta kastidadia. Jarraituko deutseegu Espiritu Santubaren grazijagaz Birjina ederraren pausu garbijai. Izango dira geure gorputzak ta arimak Espiritubaren beraren tenplu edo egonleku bitzijak, bitzi garian artian. Ta gero zeruban beti glorijaz jantzijak ta ditzosuak. Alan gura izan dagijala Trinitade guztiz altubak, Aitiak eta Semiaik eta Espiritu Santubak. Amen.



## V. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*pekatu loijak mundubari ze etxuria emon deutsan.*

Ikasi ezkerro kristinaubak kastidadiaren kontrako pekatu ezainak munduban daukan agindutia, Jaungoikuak zeruti deutsan gorrotua, ta inpernuban daukan sari suzkuak ta betikua, pekatu zorigaitoko oni begiratuteko merezi daben gorroto ta odijuagaz, biurtu dailee kristinau piel guztiak euren gogua ta gomutia, luxurijak mundubari berari edo mun[du]ban bertan, bera maite izan dabeenai emon deutseen etxuria ikustera. Au obeto aituteko gogoratu biar dozu lelengo, neure entzula onak, Eskritura Sagradubak ta Eleisa Ama santiaren Gurasuak, alako jazo dirian egitade negargarrijen erruba, batzubetan ezarten deutseela gorputzaren gustuai, beste batzubetan aragijari ta beste askotan emakumiai. Bain guztiak lotsaarizko peka[tu]ba gaiti, kastidadiaren kontrako pekatuba gaiti, luxurijazko pekatuba gaiti, orain esplikeetan dan pekatu madarikatuba gaiti. Mundubari pekatu zorigaitoko onek emon deutsan (ta emoten deutsan) etxuria guztiz da galdua, ezaina ta bildurgarrija. Dotrina labur baten aitatu baino besterik ezin legijo. Ta ez dira luxurijaren egitade onek giza aldi batekuak, ezbada denpora guztietakuak. Ez erri edo erreinu batekuak, ezbada mundu guztian zabaldu dirianak. Leenagoko giza aldiak saltoka iraguaz gogoratuko ditut batzuk, nundi ezautuko dozun pekatu loijaren erru madarikatuba. Prestau zaitez guztiok, entzuteko gogo onagaz.

1. Mundubari pekatu loijak emon eutsan etxura ezaina ikusten da lelengo *dilubio* edo mundu guzikiko usaletan. Ezin ukatu ginai, kristinaubak, Eskritura Sagradubak ta Eleisiaren Gurasuak esan ezkerro, luxurijaren kastigurako berrogei eguneko ta gabeko euriagaz mundu guztia urez estaldu zana; ezda, zortzi persona Noeren utxaan bitzirik geratuta, beste munduko gizon ta emakume guztiak orduban ito ziriana bere. Oh, egunak! Oh, gabak! Oh, lotsarizko pekatubaren egitade gomutagarrija ta negargarrija! Berrogei egunen barruban or duaz sustraiti etxiak eta palaizkuak, errijak eta ziudadiak, gizonak eta emakumiak, ganadubak eta pristijaak, guztiak. Ze ikusgarri ikaragarrija izango zan, gizonak eta emakumiak, al egijenak, uraren igesi ta ura euren ondorik atxituten. Batzuk igongo ebeen teilaatubetara; an bere atxitu luxurijaren zigorrak. Beste batzuk

arbola altubetara; an bere atxitu. Beste batzuk torren puntara; an bere atxitu. Beste batzuk mendi gainetara; an bere atxitu. Batzuk igoten ta beste batzuk igo ezinda. Batzuk bidian ta beste batzuk goijan, guztiak, atsuak eta aguraak, ume txikijak eta nausijak diadar baten, uluba baten, negarrez ta sokoru eske, dirianak atxitu luxurijaren zigorrak ta ito urak berrogei egunian. Oh, larrujak eta penaak! Oh, pekatu madarikatuba! Oh, mundubaren etxura ezaina! Zer geratutena da munduban Noeren utxako zortzi lagunentzat? Gizon ituen, andra ituen, ume ituen ta zaar ituen gorputz ustelak leku guztieta urak itxita. Alemania ta pristija ituen ta etxe birrinduben zatijak alkaren artian. Oh pekatu gaiskina! Nok ez deutsa gorroto? Ta amaitu zan luxurija, berak alan munduba amaitubagaz? Ez, kristinaubak. Noeren ondorik laster zabaldu zirian Jebuseotarrak, Amorreotarrak, Hebeotarrak, Kananeotarrak, Moabitaarrak, Kaldeotarrak ta Ejitoarrak. Kasta oneek guztiok leku emon eutseen pekatu loijari euren bijotzetan ta gorputzeten. Ta irakurten dogu eurak gaiti, zeinbat lotsarizko gauza bildurgarri egiten zitubeen. Eurak illundu ebeen errazoa, lotsatu ebeen naturalezia, desondrau ebeen gizatasuna, ukatu ebeen Jaun zerukua, ausi zitubeen geurezko argijaren lege ezagunak, kondenau zitubeen euren arimaak ta ez eutseen itxi ondorenguai, zegaz lotsatu ta zegaiti negar egin baino beste onik munduban. Zer geijago egin eukeen munduban zorigaitoko luxurijotsu areek, Jupiter, Marte, Apolo, Zeres, Bako, Benus ta beste gizon ta emakumerik galdu beenai ta nasaijeneri Eleisak jasota, Jaun zerukotzat adoretia baino? Zapuai, sugiai, ugaa-sijai, sierpiei, oillaarraiai ta berakatzai inzensuba emonda, Jaungoikotzat eukitia baino? Oh, luxurijaren munduko egitade itsubak eta negargarrijak!

2. Noeren ondorik bere semen artian laster ikusten dira ostera bere luxurijaren negargarri barrijak, lengo munduban ezer egin ez baleu legez. Sodoma, Gomorra, Adama ta Seboin Pentapoliko ziudadiak, ogetaz legua bidiak luze eukezanak, dira testigu onak. Zer jazo zan? Lot justuba ta aren pameli jaiztadeetati kanpora aterata, aingerubak zeruko subagaz begijaren itxi edegi baten erre zitubeen lau ziudadiak jente guztiagaz. Ez zan gorputz bat erre bagarik geratu. Ezda etxe bat bere. Ezda gauza bitziren edo eginen errasturik bere. Ta zegaiti? Lotsarizko pekatuba gaiti, esaten deusku Espiritu Santubak. Ta geratu zan onetan Sodomako luxurijaren errastu madarikatuba? Irakurten danez, ondatu zirian ziudade loi areek. Agertu zan ur arria euren lekuban. Bainan ain atsituba ta pestetsuba, ze eguno ez arrainik, ez gauza bitzirik emon dau. Ezda bertara bota dirianak bitzirik euki bere. Alan geratu zirian luxurijotsuben ikasgarritzat leku inpame areek ur arre ill geldiko itxasobalitz. Oh, ze gomutagarrija, kristi-



naubak! Errazoiaren paska bat bageunka, berau litzaateke asko lotsarizko pekatubak guztioi ikara eragiteko.

3. Ejiton imini eban beste etxura bat ondo tristia ta errukarrija luxurijak, kasik denpora areetan bertan. Bainan zelan? An ikusi zirian katigu egozan andraak, illak beteta bere, seinak egiteko traza bagarik penaz, alaz ta minez.

An ikusi zirian sein bagako andraak era batera soilduta, ama izateko ustiak galdua.

Ze luxurijaren egitadia au! Ez dago seinik jaijoterik. Sortuta dagoznan sabelian egon biar dabee ta sortu legizan sabelik ez dago, Abraanen erregubak gatz bildurgarri ta penagarri a erremedijau artian. Etxura oneitan Ejiton imini eban Abimelek erregiarenean lotsarisko pekatubak bere palazijoko jente guztia. Kananeako ziudade nausijan, errege lekuben eguna jente guztija, txiki ta andi, geijeenak ill ta bestiak preso eruan zituban ta ziudadia erreta itxi eban Sikenen pekatu loijak. Setingo ziudadian ogeta lau mila israeltar ill zituban beste egun baten. Ze odol errekaak? Ze lorrotz karinosuak egiten dituban munduban pekatu ezainak? Beste era baten Benxaminen tribu edo kasta osua galdu eban gau bateko luxurijak. Ta ill zirian pekatu a zala bitaarte iru edo lau egun barru eun ta ainbeste mila gizon. Oh, pekatu inpmariaren egitade negargarrijak! Ta nun dira Kan, Ruben, Juda, Aner, Onan, Absalon, Amon, Zanbri ta beste askok aintzinako legeko denporeetan luxurija gaiti eragin zituben negarrak ta euren errijetara ekarri zitubeen naibagaak? Ah, kristinaubak! Ez daukee konturik.

4. Jesukristo geure Jaunak gizatasuna artuta, geure naturalezia edo gorputzak santutu zituban ezkerro, ezainagua ta erru gaistuagokua da luxurijako pekatuba leenago baino, ta endamas kristinaubetan. Bainan au onan izan arren, lege barriko denporan edo Jesus maitia, arimak ta gorputzak Espiritu Santubaren egonlekutzat garbitutera ta santu egitera etorri zan ezkerro, ez deutsa lotsarizko pekatubak mundubari asko etxura obia emon. Bada, san Jeronimoren esanian, jentiltasuna ta erejia edo Jaungoikua ta ebanjelija ukatutia, luxurijak ekarri ditu mundura. Luxurijak ixiota, luxurijak itsututa, zoratuta pekatu loiz zetakatuta, ukatu dabee gizonak Jaun zerukua. Batzuk guztiz ta beste batzuk erdiz erdi euren ustez. Bainan balitorako dirianak guztiz. Ezin bat egin zituben aragijaren lotsarizko gusto eragotziak ta Jaungoikuaren lege santuba ta garbija. Itsutu zituban diabrubak, engaina zitubeen emakumiak, goitu zitubeen aragijaren gusto loijak ta naijago izan ebeen, luur rezko gusto ezainai larga baino, Jaungoiko egijazkua ta aren lege santuba ukatu, zerubagaz

desesperau ta arimaak kondenau. Ez dago kontau baino, zer zirian Simon Mago, Nikolas Antiokiakua, Marzion, Zerdonio, Arrio, Eutikes, Nestorio, Phozio... Bainan zeinbat? Ta zer zirian eurak ta eurak engaina zitubeen gizon ta emakume desditxaubak? Erejeen burubak, nasaitasunaren era-kuslaak, kastidadiaren arerijuak, emakume deungen adiskidiak, aragijaren otseginak, gorputzeko gustuen krisjadjubak... Enpin luxurijak galduak. Orijenes ta Tertuliano topeetan dira, pedian uts egin ebeenak, onako tatxa agiri bagakuak. Ta euren salbazinoia dago dudaan jakitunen artian. Beste ereje buru ta Jaungoiko-ukazaleen asieria da lotsarizko pekatuba ta amaija inpernuba. Ta zeinbat onako itsu, errukarri, zoro, zorigaistoko mundu zabalian?

5. Aprikako erreinu zabaletan kasik alkoran loijaren sinistutia baino ez dago. Asiako ta Europako erreinu askotan bere ez. Zegaiti ainbeste jente alan itsututa? Maoma madarikatubak ta desonestubak onestidadia, modestija ta kastidadia gordetati librau zitubalako bere eskolaubak. Maomaren lege inpmarian ez dauka inok zer kansau luxurija goituten, gorputza dometan, aragijari gurari gaistuak ukatuten, penitenzija egiten ta kastidadia gordetan. Oh, naastau desbenturaubak! Oh, errukarri tristiak! Oh, inpernuti urtendako luxurijaren su madarikatuba! Ainbeste arima, Jesukristoren erijotziagaz ta odol santubagaz irabatzitako, daukaz bendetuta, luurtuta, loitura, inpernurako prestauta, irago dirian amabi giza aldition! Eurak edo euretatik askok esaten ei dabee, *kastidadia gordetako aginduko ez baleu ebanjelijo santubak, biurtuko litzaatekezel jaunaren Eleisara ta sinistute egijazkora*. Ah, lastima gorria! Erregutu, kristinaubak, Jaungoikuari, geure lagun edo proximo triste areek arimako begijk edegi dagijezan ta pede santura biurtu ditecan.

Ta zer jazo zan geure Espana ditzosuan ta zeruko ortuban? Oh, kristinaubak! Bijotza tristetu bagarik ta negarragaz begijk busti bagarik, ezin gogoratu ginaiz bosteun, edo seideun urteko geure erreinuko jazo tristiak. Adios pedia, adios eleisak, adios sakramentubak, adios sazerdotiak, adios kristinautzia, adios birjinak, adios kastidadia Espanan. Bizkaiko, Gipuzkuako ta Montaineetako baso artetan sartuta ezkutau ez zirianak, galdu zirian. Moro loi ta odoltsuz estaldu zan geure erreinu guztia bertatiko baten. Zeinbat gerra? Zeinbat gizon illte? Zeinbat odol erreka? Zeinbat errennai su emote? Zeinbat matrimonio galdu? Zeinbat Birjinien negar triste? Oh, ezin pensau legi! Ta zegaiti ainbeste urtetako negargarri oneek guztiok Espanan? Luxurija gaiti. Lotsarizko pekatubaren egitadiak dira, kristinaubak, oneek guztiok Espanan. Oh, zeinbat gauza ikaragarri,



lotsagarri, ta arrigarri egin dirian munduban biziō edo okerrerrija inpame au gait!

6. Begiratu daijogun Lutero bati. Ezin esan ginai garbija zala. Ez bera ta ezda bere lagunak bere. Bada, euren kastidadiaren kontrako pekatubak eskandalizau ebeen Eleisa guztia. Luterok urratu zituban lotsa onaren legiak, eten zituban onestidadiaren katiak, ukatu zituban kastidadeko boto santubak, idegi eutsazan luxurijadi atiak, atera zituban prailiak ta monjaak euren etxeetati, birrindu edo erre zituban eleisak eta konbentubak, eragotzi zituban mezia ta sakramento santubak, artu eban demoninua bere maisu edo erakuslatzat, ezarri eutsazan Jaungoiko santubari pekatubak ta irakoi eban Europarik geijenian oraindino amatau ez dan gerria. Ta bera kondenauta, itxi zituban bere eskolaubak edo ondoren-guak ainbeste erreinutan aragijaren gustuetan, gerra odolsubetan ta inpernuko ateetan.

Nun da Ingliterrako Jaungoikozko sinistute egijazkua? Nun dira santu erreinu atako eleisak, altaraak, mezia, sakramentubak, koruko Jaungoiko alabetia, kastidadiaren ta kristinautza egijazkuaren eskini santubak Jaun zerkuari egitia? Ah, kristinaubak! Gizon baten ta emakume baten luxurijak ondatu zituban dirianak. Ta bitzi dira Inglesak, ya irago dirian iru giza aldi jetan Eleisa bagarik, pede bagarik, sakramento bagarik ta Jaungoiko bagarik, inpernurako bide jakinian luxurija gaiti. Onezaz gainera Spainian bertan, erreinu oneetan, irakoi dituban naibagaak ez daukee neurrik. Kontetan dira peliadaak Spainian bertan, eun milla moro gerraan era batera ill dirianak. Baita Spainaren urrian irudeun ta irudogeta amabost milla egun baten ill zitubenak bere. Bada, luxurijaren asieria izan arren amodijo loija, amaija ta azkena geijenian oi da gorrotua, suba, gizon illtia ta odol boteetia. Oh, ze illuna, naastauba, larrija ta bildurgarrisia imimi daben lotsarizko onek Europarik geijena bera!

7. Zer egin ez dau Pranzijan? Zeinbat zorakerija negargarri ikusi ez ditugu geuk egun oneetan Pranzija tristian ta albo erreinubetan? Oraindino Pranzes odolezko errekok ta pozubak kasik lurruna dariuela dagoz orreetan. Ze gaiti negargarri oneek? Ah! Gauza jakina da. Ta ujala jakin ez bagendu! Orrako Voltaire, Espinosa... ta beste Pranzijako jakitun kantaubok barristau ditubee aintxinako Epikuro, Zenon, Pirro... ta beste gizon loi, desonestu guztien arima bagako ta espiritu bagako aragi utsezko lege madarikatubak ta eskola atsituba Pranzijaren erdijan lotsa bagarik. Ta atzo kristinu zan erreinuba, imimi dau gaurko, esateko moduban, luxurijak ta libertadiaren amodijuak eleisa bagarik, altara bagarik, sazer-

dote bagarik, Jaungoiko bagarik, luurtuta, aragituta, odoltuta, ikusi legijanik tristeena, errukarrijena, lotsarizkuena ta negargarrijena.

Ez dituzu ikusi pranzesak pede bagarik, Jaungoiko bagarik, errege bagarik, lege bagarik, alemanijen gisaan alkarrregaz naastuta? Ez dituzu ikusi, ardi artian sartutako otso gosiaz legez, alkar zatituten, illten ta amaitutzen? Ez ditugu ikusi, abadiak, prailiak eta monjaak Pranzijako libertadiaren igesi erreinuti kampora eskian, euren burubak librau ezinda edo ezkutau ezinda? Ez dozu ikusi, albo erreinubetan zer egin dabeen? Izan da arri gaistorik edo elementurik pranzesak edu negar errijetan eragin dabenik? Zeinbat guraso ume bagarik? Zeinbat ume guraso bagarik? Zeinbat emazte senar bagarik? Zeinbat matrimonio loitura? Zeinbat birjina galdua? Zeinbat palazioa ta etxe inor bagarik? Zeinbat pamelija etxe bagarik? Zeinbat etxe, erri, eleisa oostuta, sakeatuta, erreta, birrinduta? Zeinbat porma konsagrado (oh, Jesus!) ostikopetuta, zapalduta, eleisetan ta kaletan zabalduta? Zeinbat urte bi edo iruko jirabirako ezkontza loi uts? Zeinbat erru bagako gizon illte? Nok eukan seguru pranzesetati ez aita ta ez ama, ez senarra ta ez emaztia, ez semia ta ez alabia, ez etxgia ta ez bitzitzia? Nor oian sartu da, irago dirian urtetan, pranzesen bildurra ikara eragin bagarik? Nok ames egin dau beste gauzarik? Nor geratu da negargarri bagarik? Zer egingo ebeen pranzes orreek egin daben baino oker ezain geijago, inpernuko puriña utsak izan balira bere?

Ta guztia lotsarizko gusto eragotziak gaiti, aragija nai erara serbidutia gaiti, konzienzijako libertadia gaiti, luxurija gaiti. Oneek dira, neure entzula onak, luxurijaren egitadiak giza aldi guztietan ta mundubaren baztar guztietan. Au da pekatu ezainak mundubari emon deutsan etxuria. Egunero erri bakotxian ta lekuan lekuan kasik iminten ditu pekatu loijak, auzijkak, eskandalubak, zeluak, matrimonio galtzeiak, derrigorreko ta pekatzko ezkontzak, gorrotuak, bengantzaak, erijotzaak, gaisuak, zer esanak, bake txaarrak ta kondenauak. Oh, pekatu madarikatuba! Oh, desondrauba! Oh, atsibuba! Oh, mundu-galtzailia, gizon-illzaila, arima-galtzailia, zeru ustuzailia, inpernu betezailia! Nok ez deutsa gorroto!

Oh, Jesusen Ama garbija! Oh, zerubetako Erregina! Jadiitxi egiguzu zeure Seme maitia ganik onestidadiaren ta kastidadiaren amodijo santuba. Gorputzeko ta arimako garbitasuna eskatuten deutsugu zeure erraija bigunak ta errukizkuak gaiti, Ama zerukua. Argitu egizu geure itsutasuna, biztu egizu geure sinistute otza, jaso egizuz geure bijotzak luurreko gurarijatzi zerkuetara, urrin iges egin daigun kastidadia galdueteko peligru guztietati. Aitiaren, Semiaaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## VI. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Lotsarizko pekatubak goitu ditubeneen exenplubak.*
2. *Pekatuba bera goitu dabeneen exenplubak.*

Inoren jazuak, bai onak ta bai txaarak dira, neure entzula onak, ikasi gura dabaren erakuslarik oneenak. Ta esan oi dan legez, galdu gura ez dabaren *eskarmenubak*. Leenagokuen jazuak erakusten deutskube zer egin biar dogun peligruzko lekubetan. Bata zelan galdu zan; bestia zelan eskapau zan; ta, bestiari zer jaso jakon entzunda, kontubak ateraten ditugu peligrubak iragoteko. Neure kontura, mendi luze, astun, lapur leku bat diru askogaz irago biar dabenak, zur entzuten dau mendi atan lapurrik nor galdu dabeen ta zelan galdu dabeen; nor lapurretati librau dan. Guztiok galdu gura gaituban, balijoko ondasunak oostu gura deuskuzan ta popuertza irago biar dogun portuba edo peligruba da aragiña ta aren erako luxuriña. Ez da bada, kristinaubak, errazoenetik kanpora izango erakutsi onetan zubei aituten emotia: 1. *Ze senduak ta indartsuak goitu ditubeen emakumiak edo luxurijak* 2. *Zer egin dabeen, aragiñaren galdu bideti jausi bagarik irago dirianak.* Banaka bazuk ekarriko deutsudaz gogora, areetati beste asko aitu daizuzan. Prestau egizu gogua, ainbat onduen entzuteko.

### I.

Emakumiak engainautako gizon senduen artian, Adan leleengua, neure kristinaubak. Ta ez kolperik txikarrena artu ebana ta bere ondorenguai emon eutsena. Pekatu egitia eskatutenean eutsan Eba ez tristetutia gaiti ta emakumiari penia ez emotia gaiti egin eban Adanek emakumiaren naija ta pekatuba paradisuban. Naijago izan eban Adanek Espiritu Santuaren tristetu, Jaungoikuari obeidutia ukatu, pruta eragotzi jan, bere arimia galdu ta ari darraikon guztia, pekatu egitia eskatutenean emakumiari ezetz esan ta lotsia emon baino. Oh, emakumiaren arte artetsuba, gizonaren bijotza ta naija beretuteko! Adan justuba, Adan jakituna, Adan oker bagakua, Adan lelengo paradisutarra erbestetutenean emakumiak, dino san Jeronimok, paradiso ditxosotik negarrezko errijeetara. Nor bildur izango ez da emakumiaren labankerien ta karinuen!

Sanson, santu andija, espíritu andikua, indar andikua, philisteo, Jaungoikuaren arerijo guztiak goituta, burlagarritzat eukazana. Leoia goitutenean zitubana. Katiak eta karzelaak, atiak eta pillarrak eskubakin birrindutenean zituban santuba. Sanson goitu eban emakumiak. Maitetu eban Sansonek Dalida, biar dan baino geijago. Engainu eban Dalidak Sanson. Irabatzi eutsan Dalidak bijotzeo karino ez garbiña Sansoni. Koitautu eban ta makaldu eban karino txaarragaz Dalidak Sanson. Entregau eutseen bere arerijuari. Atera eutseean oneek begi bijak Sansoni. Ta geratu zan Sanson itsututa, makalduta, emakumen ta philisteo bere arerijuenean burlagarritzat.

Lot justubak ta juizijo andikuak ondo ezautu eban ardauak eta emakumiak gizona zetara ekarri legijen, aita izan arren. Arrigarritzua ta bildurgoarría da bere jazua.

Dabid erregia, santuba ta santuben ispileta. Emakume bat kuidadoz ta karino txaarrez begiratu eutsalako itzuli zan Dabid santuba ta Jaungoikuaren bijotzaren neurriera egina pekatuba. Egin eban adulterijoko pekatuba Bersabegaz ta ill eban Urias, aren senar inozentzia erru bagarik Dabid erregiak. Zer ete da luxuriña, santubak onan itsututenean ditubanian?

Salomon, guztiz jakituna, guztiz zuzena, guztiz ona ta onerakua, Jaungoikuagaz beragaz berba egiten ebana ta txito Jaungoikozkua. Au, Salomon jakitun au goitu ebeen emakumiak eta luxurijak, gizonek egin legizan txotxakerijariak ta pikaerdijariak lotsarizkuenak egitera. Ukatu eban bere Jaungoiko egijazkua; galdu eban lotsa ta bildur guztia; ta entregau eutseen bere bijotza kontau ezin legizan beste emakumeri, edozein bere modutan. Ta adorau eban Jaungoikotzat edozein gauza. Oh, emakume galduak! Oh, luxuri! Ze askotakuak dirian! San Jeronimok, san Gregorijok ta beste batzuk esaten dabee, Salomon azkenian bere pekatubak ezaututa, garbatuta, penitencia eginda salbau zala. San Agustinek, san Juan Krisostomok ta san Ziprianok beste askogaz dinue, kondenau zala. Jaungoikuak librau gagizala geu onako dudetati.

Jazo oneetan dakuszu, kristinaubak, jausi zirianak ez ziriala edozein, ezbada santu andijkak. Ta jagi ziriala Jaungoikuaren grazijagaz guztiak, Salomon dudaan itxita. Ta zeinbat beste, urte askotan Jaungoikua gogoz serbidu dabeen, itzuli ez ditu ta galdu ez ditu betiko luxurijak? Irakurri bitez *Gurasuen Bitxitzaak* deritxon liburu estimauba, san Jeronimo, san Juan Klimako ta beste onako jazo negargarrijen erakuslaak. Ta an aurkitutenean dira ta juizijoko egunian ikusiko dira, zeinbat sendo, zeinbat jakitun ta zeinbat birtute andiko goitu ta galdu dituban diabrubak emakumen ta



lotsarizko pekatubaren bitartez. San Agustin baten berbak ikara eragin legiue kristinaubari gauza onetan. *Sinistu egijozu, ondo dakianari*, dino Santubak; *Jaungoikua testigutzat artuta esaten dot: Santutasunik andijenian ta penitenziarik gogorreenian egozanak galdu ditubee emakumiak eta luxurijak. Ez neban sinistuko areek pekatu lojain jausiko ziriala, san Anbrosio bat edo san Jeronimo bat jausiko ziriala baino geijago.* Onako jazo ikaragarrijak entzunda, zelan bitzi ete dira kristinaubak ardura bagarik ta pena bagarik pekatuko okasinoe ta peligru jaki netan? Oh, ze itsutasun andija! Oh, ze gatx ikaragarrija! Illten egon ta gatxik daukanik sinistu ez! Ez daiguzan bada aaztu, neure entzula onak, aragi loijak goitu dituban gomutagarri ta eskarmen-tugarri jakin oneek. Baita gogoratu daigun beste asko zelan librau dirian arerijo muker, zal, iraaskor, lotsa gaistoko onetati.

## II.

Jaungoikuaren grazijak ta kastidadiaren amodijuak mirari andijk egin ditu munduban denpora guztietan, neure entzula onak. Ojala ispllu txiki baten aurrian guztiak bitziro pintauta imini al balegiz! Bainaz dago lekurik ikasikizun labur baten onetarako. Banaka batzuben etxura erdi bat esan baino ezin legi.

Job antxinakua, guztiz aberatsa ta munduko era on guztiengauzia jaubia zan. Zer egin eban kastidadia gordetako? Inos bere neskattillari begiratu ez. Tratu bat bere begijakin egin ebala Job santubak, inos neskattillari ez begiratuteko, dino Espiritu Santubak. Jakob patriarka santubak ze modestia ta garbitasuna gorde eban Labanen etxian zazpi urtian, gauza jakina da. Jakoren seme Jose antxinakuak, ugazaba andra señora andijk pekatu eragin gura eutsanian, emakume lotsa bagearen esku loijetan bere soinekuak etenda itxita, iges egin eutsan; emakume galduak guzur andija jaso, kleituba galdu ta preso sartuko ebana beekijken bere. San Benitok, erdi biloxik arantza artian sartuta, arantza puntaz gorputza orraztuta, odolduta, goituten eban luxurijaren tentazinoia. San Agustinek, Jaungoikuagana biurtu zan ezkerro, ez eban emakume bat bere bere etxian euki. Bere ar[r]ebia bere ez eban ikusi gura izaten san Agustinek. Arrebia izan arren, emakumia zala esaten eban Santubak. San Simon Estilitak, Jaungoikuagana biurtu zan ezkerro, ez eutsan emakumeri aurpegira zuzen begiratu. Ezda bere amari bere azkeneko urtetan. Ursino santubak inos bere ez eban emakumegaz berbetarik euki. Agonian ija ill ainian eguanian

juan jakon santubari emakume bat bere aurrera, ondo biarrez mesede egitera. Ta esan eutsan santubak: *Kendu zaite begijetati, oraindino bitzikirik nagota.*

Amiano obispo jaunari, emakume bat berba egitera juan jakonian, agertu jakon bentanan erijotziaren etxuria. Aituten emoteko, emakumia ta erijotzia bardinak diriala gizonentzako. Pakomio antxinako praireen agintarijak, ez eban gura izan endemoniauta eguan emakumia bere aurrera eruan egijuen, orazinoiagaz demoninuetati libretako. Bildur zan Pakomio, ain gauza onerako izan arren, emakumiaren etxuria ikusten. Emakumearen soineko bat, esan eban, eruan egijuela, ez emakumia bera. Soinekuaren aurrian orazinoia eginda librau eban endemoniadia. Nizetas martirija imini ebeen biloxik ortu edo jardin lorazko ta usain gozozko txito alegere baten, luma bigunezko oe eder apainduban, sedazko sokia-gaz nasai baina ondo eskubak eta oinak lotuta. Bialdu eutseen berarijaz emakume galdu bat, lora presko ederren, luma bigunen ta usain gozuen artian sedaz lotuta min bagarik eguan Nizetas mutil gaztiari, pekatu era-gitera. Ze tentasinoia? Esan eta egin eutsazan emakume gaistuak, aotan artu biar ez dirian gauzaak. Zer egiten dau Nizetas garbijak? Besterik ezinda, aginakin bere miina ebagita, jaurtegi eutsan emakume loijari odol ta naaste arpegira. Onan goitu zituban luxurijaren suba ta emakume gal-duba. Beste monje edo praire batek, emakume gaistuak tentau ebanian, su andijkaren erdira salto egin eban. Gorputza erriaz goitu eban aragijaren tentazinoia. Beste monje batek, pensamentu loija gogoratutenean, atzamarra eruaten eban su garretara tentazinoia goituteko. Arsenio monje santubari esan eutsan emakume batek: *Akordau nigaz bere, Jaungoikuari erre-gututeko.* Erantzun eutsan Arseniok: *Erregutuko deutsat Jaungoikuari zugañ ez akordetako.*

Aita san Pranziskuba gaiti esaten da, emakume bat bere ez ebala arpegiz ezaututen, berbaz baino. San Andres Korsinokua ta san Luis Gonzagakua gaiti beste ainbeste esaten da. Santo Tomas Akinokuak, kar-zelara, pekatu era gitera bialdu eutseen emakume galdua, sutako iletiaga-z arin kendu eban bere aurreti. San Ignazio Loiolakua ez zan inos azar-tu emakumegaz bakarrian berba egiten. Ezda san Pranzisko Xabier bere. Ta au konseju itxi eutsen euren semia. Esaten ebeen, emakumiagaz ez diriala egin biar puerpuertzako berbaak baino geijago.

Emakumen artian irakurten dira arrigarritzko jazuak, birjinidadia ta kastidadia gordetako. Susana batek erakusten deutsa mundu guztiari, zelan gorde biar dan kastidadia. Pekatu ez egitia gaiti iminten dau bere buruba erri guztiaren gorrotuan ta lotsarijan ta bere bizitzia arrikadaz il-teko arriskuban. *Obeago dot* esan eban Susana garbijak, gizon bik alan estu



artu ebeenian, *oba dot, pekatu bagarik zuben esku gaistuetan imini neure ondria ta neure bitzitzia, Jaungoikuak dakusela, pekatu egin baino.* Santa Maria Madalenak, santa Maria Egiziakuak, santa Pelaijak, Tarsoko Maria pekatarijak, Koma Porphira beste pekatarijak, san Eprenek Jaungoikuagana biurtu eban emakume pekatarijak, Phanuzio abatak biurtu ebanak ta Bitaliok biurtu zitubanak, emakume oneek guztiok, dinot, Jaungoikuagana biurtu zirianian, sartu zirian laster gizonezkorik ikusiko ez eben mendi astunetara edo konbentubetara, penitenzija egitera. Santa Euprosina, dama aberatsa, aitak ezkontzia egin eutsan gabian etxeti iges eginda, gizon jantzita, praille konbentu batera juanda, abituba artuta, ogeta amazortzi urtian inok ezautu bagarik, praille izanda ill zan. Santa Eupemiak kasik beste ainbeste egin eban, edo moduren baten gejago. Ladizeako donzella edo neskatilla batzuk, gaistuen eskubetan jausteko peligruban euren burubak ikusi zitubenian, sekreta loijan euren gorputzak ezkutauta, garbitasunaren loria osorik gorde ebeen. Alexandrijako neskatilla batek, ikusi ebanian bere begijen edertasunak karinotuta eukala mutil gazte bat, bere begijak atera ta (ez zan izango zeruko aparteko argi bagarik) bialdu eutsazan mutilari. Ta abisau eutsan: *Aor, zenk maite dituzu-nak, ta itxi egidazu* bakian. Santa Rosak ta leengo urtian altaretan ipini zan Maria Ana Birjinia beneragarri Merzedeko monjiak euren burubak mutildu ta arpegijak ezaindu zitubeen, gizonezkoren begik ondo eritxi ez egijuen ta gogoz begiratu ez egijuen.

Baina zeinbat onako jazo pozgarri irakurten ez dira birjina ederren lorazko ortu santuban? Bada, kontauko bagenduz Katalina, Barbara, Zезilia, Ines, Ageda, Martina, Liberata, Eulalia, Luzia ta beste birjina ta martiri ederren egitadiak birjinidadia ta kastidiadia gordeetako, ze mirari andijk agertuko ez litzaatekez birtute santa onen jasorako?

Zegaiti deritxazu bada, neure entzula onak, bai gizonezkuak ta bai emakumiak, zeuben ustez, ain gauza gatzak ta andijk egiten zitubeela? Alan euren burubak zaintuten zitubeela? Alan okasinoe urrinezkuetati bere iges egiten ebeela? Oh, neure kristinaubak! Ezaututen ebeen diabrubaren astuzia, mundubaren engainuba ta aragijaren argaltasuna. Beekijen, erre bagarik, suba kolkuak inok eruaten ez dabena. Beekijen pekatu loiha laster iraasten dana ta nekez kenduten dana. Beekijen san Agustinegaz, zerubaren urrera igoen ebeen andijk ta santubak bere luxurijak itzuli ta goitu ditubana. Beekijen san Isidorogaz, beste pekatu guztiak baino arima gejago luxurijak inpernura eruaten dabena. Emakumiak gizon askori pedia ta arimia galdu eragin deutseena. Beekijen, gizonezkuak emakumentzat ta emakumiak gizonezkuentzat, txito bildur santubagaz, lotsa onagaz ta

modestija andijkagaz ez badabiltz alkaren arteko artu emonetan, alkar il-teko berenua daukeena. Endamas emakume urten gura, ibiltari, apaindu-bak, zein gaiti dinuan san Anbrosiok, *inpernuko demonino guzti-en etxia dala.*

Au guztiau ekijen. Ta au gaiti egin zitubeen entzun dituzun mirari-jak, arimako garbitasuna ta gorputzeko kastidiadia gordetako. Engainaue ete zirian areek? Ta areek engainaue ez bazirian ta egin eben guztia zerubak ontzat emon badeutsee ta sari andijkagaz pagau badeutsee Jesusek euren kastidiadiaren amodijo altuba, zer esango dogu, gorputzari naijak egitia, aragija biztutia ta luxurijari su emotia baino beste gogorik erakus-ten ez dabeenak gaiti? Zer, onestidadia galdu teko okasinoe urekuetan ta jakinetan sartuta, pena bagarik dabiltzanak gaiti? Zer, emakumen begij-e-tati ta arpegitu euren bijotza ta gogoa esegita daukeen prakadunak gaiti? Zer, gizon eskurik gizon esku olgeeta naastaubetan ta desonestubetan gau ta egun geratu bagarik dabiltzan emakumiak gaiti?

Ete daukee onako prakadunak Dabid errege santubak baino grazija gejago? Ete dira Salomon baino jakitunago? Sanson baino senduago? Ete daukee alako emakumiak, Dinak baino aziera obia ta lotsa obako gura-suak? Oneek guztiok ta beste onako asko jausi zirian pekatu lotsarizkuan. Ete dagoz segurubago, onako okasinoerik okasinoe luxurija artian dabil-zanak, irudogeit urtian mendi artian zilizijoz gorputza lotuta euki eban san Ilarion baino? Bada, zaartuta gero esaten eban ak bere gorputza ta aragi-ja gaiti: *Asto makal onen saltuak eta mukerkeriaak oraindino ezin ondo ezin ditut.* Egin ete dabee orrako mundutarrok, san Jeronimok baino penitenzija gejago aragija goituteko? Bada, san Jeronimok, azotez, alanbre zorrotzez ta gosez gau ta egun erdi biloxtuta, uda ta negu basoko luur gainian urte luzeetan eziten eban gorputza ta aragija gaiti dino: *Erroman gaztetan ikusi zituban dantza ak eta dantzaarijak gogora ekarrita, zereginik asko emoten eutsala berari luxurijaren subak.*

Kristinaubak, inos amaitu ezin legijan sailla da au. Gogoratu daigu-zan luxurijak goitu zituban senduak, areekin eskarmienteetako. Baita, luxurija goitu ebeen senduak ta garbijak bere, areen bide santubai jarrai-tuteko. Alan gura izan dagijala Jaungoikuak bere miserikordija amai baga-kua gaiti. Amen.



## VII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zeintzuk dirian kastidadiaren kontrako egitezko pekatubak.*

Jakin arren kristinaubak, lotsarizko pekatubak bai zeruban, bai inpernuban ta munduban daukan etxura ezaina, bildurgarrija ta gorrotogarrija, ez badaki nos jausten dan pekatu gaisto atan, palta dau biarrenea. Ta ara emen, neure entzulak, ikasikizuna, nos eta zelan pekatu egiten dan kastidadiaren kontra. Onetariko pekatu batzuk dira egitezkuak edo obrazkuak. Beste batzuk berbazkuak. Ta beste batzuk nai utsezuak. Epite, esate ta nai izate loi oneen artian batzuk dira guztia pekatutzat daukeezzanak ta errazto ezaututenean. Oneen gainian ez dago asko zer esan. Baino beste batzuk ta ez gitxi dira eurenagarrak agindubaren kontrako pekatu mortalak. Ta kristina askok aintzat ez daukeezzanak, kristinatzako erakutsija edo dotrina ez dakijelako. Ez jakin onek euki legiz sustrai asko. Geienian izango da, edo *kristinaubak euren jakin biarrak ikasten den datutenez dirialako, edo biar litzaatekian argijagaz ta erabagijagaz erakusten ez jakuelako.* Seigarren aginduko pekatubak dirianak legez lotsarizkuak bai esateko ta bai entzuteko, jazotenean da askotan, beste kristinatzako jakin biarrak kura jaunak ta predikadoriak ziatz ta argiro pulpitoti predikauta, kastidadiaren kontrako pekatubak kristina pielai erakusteko atzerapena edo lotsia eukitia. Edo gauza naastaubak dirialako, edo berba ezainen batek aotia urten ez dagijuen bildurragaz, edo Erromako Katezismuak dinuan legez, erremediarien lekuben berenua zabaldutzen dakin arduraz.

Dan moduban dala, ezin ukatu ginai, agindu onetan txito ezjakin andija daguana kristinauben artian. Au gaiti, konpesinoe asko barristau biar oia dira. Ez umeenak bakarrik. Baita nausijenak bere. Baita zaareenak bere. Baita gauza jakina da, onetariko ezjakinak geienanak diriala Jaungoikuaren begi argijeten pekatuzkuak. Erromako Katezismuak berak erakusten deutsku zelan austen dan seigarren agindu santuba. Ta da eginagaz, esanagaz ta nai iza nagaz. Edo, esan oia dan legez, seigarren agindubaren kontrako pekatubak dira obrazkuak, berbazkuak ta konsentimentuzkuak. Dotrina onetan esango deutsut, *zeintzuk dirian kastidadiaren kontrako egitezko pekatubak.* Ta geroko erakutsietan, berbazkuak ta naizkuak. Eskatuten deutsut ostera bere, kristinaubak, zeuben orazinoia, entzuteko presta eta garbia ta uste zuzena, biar dan modestijagaz ta oso-

tasunagaz erakutsi dagizudan ta ikasi dagizun, *zer dan kastidadiaren kontrako adulterjua, pornikazinoia, sakrilejina, senikerako pekatuba ta naturaleziaren kontrakua.*

*Adulterjua:* Adulterjua da, ezkonduta daguanak beste bategaz aragizko pekatuba egitia. Bijak badira ezkondubak, gizonezkua ta emakumia, orduban dira adulterijo bi. Adulterijoko pekatubak injurietan ditu Jaungoikuak, matrimonioko sakramentuba ta laguna. Kastidadiaren kontrako pekatuben artian ez da txikijena adulterijoko pekatuba. Seigarren aginduban Jaungoikuak leleengo eragotzi ebana da. Lapurretia baino andijagotzat ta ezainagotzat emoten dabee erakuslaak. Beragaz dakaz adulterijoko pekatubak geienian eskandalubak, zeluak, bitzitzga galdua ta umiak aita nor dabeen ez jakitia. Orregaiti legeginak begiratu deutsee beti lotsarizko pekatu oni gorroto mortalagaz. Jaungoikuak agindu eban bere legian, gizon edo emakume adulterijogina illteko. Kristinautza barrijan, ebanjelioa santubaren asieraean ez jakon eleisan sartutenean isten adulterijognari, dino Bona kardenal jakintsubak. Aurelianok agindu eban, adulterijoko pekatuba egiten ebeen gizona ta emakumia, alkarri kaderetati lotuta, arbola batetik esegita, bijak buruz bera illteko. Saxonian emakume adulterijogina ito egiten ebeen leleengo. Ta gero erre gorputz itua. Ta gero gorputz erriaren gainian urkatutenean ebeen agindu pekatu egin eban gizona. Ejiton azotau egiten ebeen emakume adulterijogina. Ta gero suurra ebatzen eutseen, ezagun izan zedin. Jaungoikuak lege barrijan berba gitxiagaz amaitu eban san Paulo apostolubaren aotia adulterijoginen sailla esanagaz, *adulterijoginak ez diriala zeruban sartuko.* Au gaiti begiratu biar deutsee kristinaubak ezkontzako sakramento santubari, jagokan garbitasunagaz ta lotsiagaz.

*Pornikazinoia.* Pornikazinoia esaten jako, gizonezkua eta emakumia alkarregaz egiten dabeen aragizko pekatu loijari, bijak libriak dirian... Persona libriak alkarregaz aragizko gauza loijkak egitia pekatu mortala dana, pedeko erabagiya da. Espiritu Santubak esaten dau leku askotan, emakume galduetati alde egiteko, pornikazinoerik ez egiteko. Ta san Paulo apostolubak dino, *pornikadoriak ez diriala zeruban sartuko,* zeinegaz erakusten dabentz pekatu onen anditasuna ta ezaintasuna. Iges, bida, urrin, kristinaubak, Apostolubak dinuan legez, pornikazinoeko pekatu loijetati.

*Sakrilejina.* Kastidadiaren kontrako sakrilejina da, garbitasunaren eskinija edo botua Jaungoikuari eginda daukan personiagaz aragizko pekatuba egitia, nai dala gizona nai dala emakumia botoduna. Baita sakrilejiozko pekatuba da edozeinentzak, eleisan edo leku sagraduban aragizko pekatuba egitia bere. Zerubak eta luurrak gorroto deutsee sakrilejioz-



ko pekatu loijari. Bada, bein Jaungoikuari bere naiz eski[ni]tako gorputzeko garbitasuna edo kastidadi galdua ta austia, txito gauza ezaina ta lotsari andikua da Jaungoikuaren aurrian. Baita mundukuen aurrian bere. Ez dago berbarik alako gizonak nai emakumiak Jesus, birjinen Espreso garbijari egiten deutsan injuriya ta aintzat eza aitu eragiteko. Beste ainbeste, eleisaan, Jaungoikuaren etxe bedeinkatuban, leku sagraduban pekatu loijk egitia da guztiz ezaina ta zero guziaren gorrotokua.

Ez dakit au dan lekuba zerbait esateko, orrako eleisapetan ta ermin-tapeten piesta egunetan ta beste askotan gizon ta emakume naaste egiten dituben dantza desonestubak gaiti. Gauza bat esan neike, leku askotan egiten diriala lotsa gitxigaz. Kura jaunak eta errjetako burubak kendu legijee Jaungoikuari bere etxe santuban egiten jakon desondra andi au. Kastidadiaren kontrako sakrilejijo oneek autortu biar dira konpesinoeko sakramentuban. Bada, egite bategaz austen dira lege asko; edo leku sagraduban pekatu loija egin dabelako, edo konsagrautako personiagaz egin dabelako, edo kastidadeko botodunagaz egin dabelako. Ta egite bat izan arren pekatuzkua, zeinbat lege austen dituban egite agaz, ainbeste pekatu egiten ditu. Ta esan biar dira konpesinoian, inor izentau bagarik. Beste ainbeste esaten da adulterijoko ta senikerako pekatu loijk gaiti. Oneek bere konpesau biar dira, ala ezkondubagaz edo senidiagaz edo senide ezkondubagaz egin ziriana.

*Senikerakua.* Kastidadiaren kontrako senikerazko pekatuba da senidiak alkarragaz aragizko pekatuba egitia. Senikeria izan leiteke edo berez etorrja edo iraatsija. Berez etorrja da gurasuetati umetara datorrena. Aita ala bak, ama semiak, neba arrebak, loba osabak edo izkuak, leengusu leengusinak, ta alan beste ondorenguak laugarren gradu edo belauneragino. Iraatsija esaten jako ezkontzati datorren senikeriari. Koinatu koinatak senide dira. Baita koinatiaren berezko senidiak bere koinatubaren senide dira. Ta koinatubaren senidiak dira koinatiaren senide iraatsitako senikerian. Norberaren odolari jaokan lotsa ona edo errespetua gaiti eragotzita dago, seigarren agindubaren gainera, senidiak alkarragaz pekatu egitia. Bautismo santuti dator beste senikera bat batiatutenean, aren gurasuen ta aita ta ama besuetakuen artian jaijua. Oni esaten jako espiritzuko senikeria. Seniden arteko aragizko pekatubak autortu biar dira, bada, konpesinoian. Ez bakarrik pekatu egin dana, ezbada baita senidiagaz ta ze gradutakuagaz egin dan bere. Aragizko pekatuba noberagaz egin daberen bigarren graduraginoko senidiagaz ezin inor ezkondu legiteke, ezkontziak balio dabela, Eleisiak senikerako katiguba kendu bagarik. Kura jau-

nak euren erakutsijetan ta konpesore jaunak euren erabagijetan au goguan eukijagaz, uste dot, balio bagako ezkontza askori atia itxiko leuskijuela.

*Naturaleziaren kontrakuak.* Naturaleziaren kontrako pekatubak esaten jakue beste kastidadiaren kontrako pekatu batzubei. Ta dira iru modutak: 1. Noberak bakarrik bere gorputzian egiten ditubanak. 2. Ganadubagaz egiten dirianak. 3. Sodomatarren pekatuba esaten jakuenak.

1. Noberak bakarrian gusto loijk gorputzari emotia bere naiz pekatu mortala da, bai ezkondubentzat ta bai libreentzat. Ta zeinbat bidar egin daben, ainbeste pekatu mortal egin ditu. Ta gogora ekarri al da gizan guztiak konpesau biar ditu. Onako naturaleziaren kontrako pekatu ezainen gorrotua erakutsi eban Jaungoikuak, Her eta Onan, anae bi alako pekatubak gaiti ill ta inpernura bota zitubanian. San Paulo apostolubak beste pekatu andi ezainen artian kontetan dau noberaren gorputzagaz egindako pekatu loija ta alderatuten dau zeruti.

2. Ganadubagaz pekatu egitia da guztiz gauza deungia. Pedia ukatu-tiaren urrera eldutenean dana, esaten dabee erakusla batzuk, errazoezko arima bagako ganadubagaz bat egiten dalako. Asko da gogoratutia, lege guztiak agindutenean dabeela, ganadubagaz pekatu egiten daben gizona edo emakumia illteko. Baita legegin batzuk, ganadubagaz beragaz plazaan bitzirik erreetako bere.

3. Sodomatarrena esaten jakon pekatu loija da, gizonezkuak gizonezkuagaz ta emakumiak emakumiagaz lotsarizko pekatuba egitia. Esaten jako *sodo matarrena*, erri madarikatu areetako jentiak ala pekatu egiten ebeelako. Jaungoikuak onetariko pekatubak gaiti erri zorigaistoko areetan egin zituban kastigubak ta itxaso ill arre eginda erri areek geratu ziriana, esan da bostgarren ikasikizunian. Pekatu andija ta txito ezaina da gizonezkuak gizonezkuagaz ta emakumiak emakumiagaz gusto loijk artutia. San Paulo apostolubak, beste esan dirianak legez, alderatutenean dau zeruti alako errazoiaren ta naturaleziaren kontrako pekatari loijkak.

Kastidadiaren kontrako egitaden artian kontetan dira, neure entzula onak, esan dirian pekatubenean gainera, mosuka loijkak, eskuka loijkak, oratute loijkak ta beste aragijari gusto emoteko azalkerija loijkak. Onako egite laban, loi ta ezainak gaiti esaten da, kristinaubak, ezauberazta naiz aragijaren gusto loija gaiti izan ezkerro, nai egitia ta nai egiten istia pekatu diriala. Adiskidetasunaren ta usadijuaren izenagaz kristinau askok garbitu gura oihalak ditubee onetariko pekatu mortalak. Baina engainenetan dira. Naturaleziaren legiak ta seigarren agindu santubak eragotzita daukez ezkontzati kanporako ta noberaren ezauberazko ta naizko aragijaren gusto loi guztiak. Lege santu oneen kontra ez dago adiskidetasunik. Ez



dago usadiorik ta ez dago estalgirik, mosuka, eskuka, oratute ta beste azalkerja desonestubak pekatutti libretan ditubanik. Ez engaina, bada, kristinaubak.

Esan dirian kastidadiaren kontrako pekatu modu guzietan kontuba euki biar da konpesinoian autortuteko ezkonduba dan, senidia dan, persona konsagrauba dan, edo garbitasuneko promesduna dan ta leku sagraduban dan edo ez dan. Bada, leen aitatu dan legez, onakuen pekatu loijak ta oneekin egindakuak beti darioe eurakin aparteko lege austia, luxurijazko pekatubaz ostian, edo enkontziaren kontra, edo senikerako odolaren kontra, edo ordia sagrakubaren kontra, edo erlijinoeko ontasunaren kontra, edo leku sagraduko santidadiaren kontra. Au berau esaten da nai utsezko pekatu loijak gaiti. Bada, nai utsezkua edo konsentimentuzkua izan arren, pekatarija zeinbat legegaz katiatuta daguan, ainbeste pekatu egiten ditu, nai bategaz guztiak austen ditubanian. Ta esan biar dau konpesinoian zeinbat lege ausi dituban edo zeinbat legegaz katiatuta eguna, ondo konpesauko bada.

Jaso daiguzan, kristinaubak, luurrezko gauza oneetati zerurutz geure begijak. Eldu gaitezan Ama Birjina guztiz garbijaren oinetara. Eskatu daijogun zerubetako Erreginari espirituzko atseginen ta gustuen gosia, luurreko gusto ezain oneen gogobetia ta arimako ta gorputzeko garbitasuna ta beti bere krijadu ta krijada leijal ta garbi izateko grazija. Oh, Birjina ederra! Oh, Birjinen Erregina ta Ama! Jadiitxi egiguzu bardin bagako mese-de au Jesus zeure Seme matiaganik, zeure ta beraren naijan mundu oneitan bitzi gaitezan. Ta gero beti zeruban maitetu daigun zeugaz Jaungoiko betikua, Aitia, Semia ta Espiritu Santuba. Amen.

## VIII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Berbañ nos austen dan seigarren aginduba.*
2. *Nai utsez edo konsentimentuz nos austen dan.*

### I.

Lotsarizko pekatuba egitiari darraiko geijeenian, neure kristinaubak, leenago edo geruago berba nasaijak ta indezentiak esatia. Alan egiten dira pekatu mortal asko berbaz kastidadiaren kontra. Berba desonestubak eurakin darioe beti eskandaluko pekatuba. Ta zeinbat lagun geijagoren aurrian esaten dirian, ainbat egiten dira pekatu geijago. Ezin ukatu ginai, ta lastima gorrijan edo negargarri andijan laarregi dakusgu, kristinauben auetan atertu bagarik dabilela lotsarizko pekatubaren berbia. Zaar ta gazte, ezkondu ta ezkontzaka, gizon ta emakume asko, zein garbijago dirian esan ezin legi, euren miin loijai begiratu ezkerro. Batak dino, *barre eragitiarren esan ebala*. Bestiak, *gatx bagarik esan ebala*. Bestiak, *txantzan esan ebala...* Bainan beti berdekeria ta berba lotsarizkuak auan. Bainan beti amodijo loizko jazuak, adiskidetasun lotsarizkuak, ipoin berdiak, burla desonestubak, txantza edo iten aragizkuak ta kastidadiaren kontrako panparriek auan. Esango dogu oneek gaiti bijotz garbijak daukeezala? Kristinai garbijak diriala? Kastidadia maite dabeela? Ezin esan ginai. Bijotzeti urteten dabee berba desonestubak. Ta sarritako berbak erakusten dabee zelakua dan bijotza. Berba garbijak erakusten dabee bijotz garbija. Ta berba loijak bijotz loiha.

Ta konpesetan ete ditubee kristinaubak euren berba loizko pekatu mortalak? Zeinbat bidar esan ditubeen? Zeinbat lagunen aurrian esan ditubeen? Umen aurrian esan ditubeen? Gazteen aurrian esan ditubeen? Zeinbat urtian berba loijak esateko ekandu galdua daukeen? Gogoratu ete jakue, dinot, alako kristinai ao loidunai konpesinoeko sakramento santuban euren konzienzijak azaldetia ta berba loizko pekatubaz iatz ta susstraiz autortutia? Eurak jakingo dabee. Oh! Ez ditezala juan, Jaungoikua dana dalako, betiko subagaz ta negarragaz inpernuban autor-tutera. Nik san Paulo apostolubagaz esan negijuena da, *euren berba loijakin kristinauben arteko oitura garbijak ezaindu ta galdu egiten ditubeela*. Nik esan



negijuena da san Basiliogaz, *pozura arri bat botetan dabenak pozuko ur guztia-ri eragiten deutsan legez berba loija edo desonestuba esaten dabenak, entzuten dabeen arima guztiaik berez loitutene ditubala.* Alako ao loija daukanari nik esan negijona da, diabruben opizijua egiten dabela. Diabruben zeregina da inor pekatuban jausteko eria prestetia. Bada, berba loijk esaten ditubanak, aurrian daukazan guztiai emoten deutsee era presta, gauza desonestubak gogora ekarrijaz, kastidadiaren kontra pekatu egiteko. Berba loija entzun dabenak pekatu egin ez badau, ez eskerrik a esan dabenari, ezbada Jaungoikuaren grazijari, zeinegaz goitu daben ao lojjak imini deutsan tentazinoia edo pekatuko eria. Au gaiti esaten dau Aita Burdalue jesuita zelotsubak, *berba loijk esaten dituban kristinauba, deungago dala etxe baten edo erri baten, inpernuko demoninua baino.*

Berben artian sartutenean dira kantak. Kantak batzuk dira onak. Beste batzuk ez deungak. Ta beste batzuk txaarrak eta pekatuzkuak. Jaungoikuaren, Jesus maitiaren, Ama Birjiniaren, santuben ta Eleisiaren kantak onak, gozuak ta graziosuak dira. Zeruban bere kantetan dira. Eleisan bere bai. Belengo Portalian edo ganadu lekuban bere kantau zituben aingerubak Jesusen jaiotzan. Kantau, bada, zubek bere, kristinaubak, onako kantak, nai dozunian. Ojala, zeuben miinak onetan kansauko balira! Kanta, eurenez ez on ta ez deunga dirianak esatia edo kantetia, inor gatxera ekarteko uste bagarik, ez dago eragotzita. Ta askotan izan leiteke gauza ona. Onen gainian ez dago zer esanik.

Baina kanta ezainak, eragotzijak ta pekatuginak dira, arako amodijo ta karino loizko berbak daukezanak. Adiera askotako esanez, ipoin ta jazo loiz, berarijaz asmauta ta jantzita dagozanak. Onetariko berbaz ta esanez, luxurijaren ixiogarriz ta arimen illgarritz gaixotuta dagoz denpora triste onetan kristinak askoren bijotzak eta miinak. Inpernuko espiritu loijk agertu dituban astuziak dira oraingo jentiaren kantarik geijenak, pekatuko sarian asko igarri bagarik arimak sartuteko. *Kanta loijk esaten dituban auak, dino san Ziprianok, basilisko berenotsu batek baino bereno geijago zabaldutene dabela, entzuten dabeenentzuten bijotzetara.* Pekatu andija ta askori pekatu eragiteko bidia da, neure kristinaubak, kanta desonestubak kantetia. Ta onen ondorik ez da lotsari andija izango, abemaria ez dakien ume konduai kanta indezentziak eta loijk entzutia? gurasuak esaten istia euren umiai? Edo eurak pena bagarik, barre eginda, kantetia? Au guztiau jazoten da. Onan su emoten jako luxurija inpamiria. Ta onan lotsatutenean lekuban geure sinistute ta kristinautza garbija ta santuba. Jakin bada, kristinaubak, sarri pekatu mortala egiten dala berbaz ta kantaz kastidadiaren kontra. Baita nai utsez edo pensamentuz bere. Ikusi daigun zelan.

## II.

Pensamentuba edo burutazinoia edo gogorazinoia guztia da bat. Gogora edo burura edo pensamentura jatorkon gauzia ona bada, a goguan eukitia, penseta ta nai izatia bere ona da. Bainan bada gauza era-gotzija, txaarra ta pekatuzkua gogora jatorkona, a penseta ta agaz gusto artutenean ezauberaz ta bere naiz egotia bere, txaarra da ta pekatu da. Ara emen pensamentuzko edo konsentimentuzko pekatu guztien sustaija. Ara emen milla konzienziako duda ta kezkaren asipena. Adanen ume, pekatu egin dabenean, munduan ondo ezaututez amaitu ez dabentz gatxa da au, neure kristinaubak. Burutazinoia dan legez guztiz arina, ain laster zeruban nai inpernuban, etorkizunian nai iraguan, aginduban nai erago-tzijan, gauza onian nai txaarrian dabilena, inok bere guztiz esirik imini ezin legio burutazinoiari edo pensamentubari. Askotan, geu kontuban jausi orduko dua gure pensamentuba uste ez dogun lekura. Beste askotan, nai ez dogun lekura. Ta ez gitxitan, biar ez dan lekura ta pekatu dirian gau-zetara. Ta au jazotenean jaku edozein aginduren kontra. Emeti dator kristinak askoren penia ta arduria, ia pekatuzko pensamentu edo burutazinoe ari ezauberaz goguan leku emon deutsan eta nai izan dabentz; ala kontuban jausi danian, kenduteko alegina egin dabentz. Bada, ezauberaz nai izan badau pekatuzko pensamentuba, egin dau pekatu. Ta kontuban jausi danian kenduteko alegina egin badau, ez dau egin pekatu. Zelan ezautuko dogu, bada, alako lasterreko burutazinoe pekatuzko bat ezauberaz nai izan dan ala ez dan? Goguan noberaren naiz leku emon jakon ala ez jakon? Konsentido dan ala ez dan? Zelan jakingo dogu nai utsezko pensamentuz nos pekatu egin dogun edo ez dogun?

Oni erantzuteko esaten da, neure kristinaubak, kastidadiaren kontrako pensamentu edo burutazinoetan gauza batzuk dagozala erabagijak, ta beste batzuk dudakuak edo destajukuak. Erabagijak dira:

*Leleengo:* pensamentu edo burutazinoe loijk gogora etortia ez daguala askotan noberaren eskuban. Nai ez dabela bere etorri legiozala kristinaubari gogora.

*Bigarrenian:* alako pensamentu ta kastidadiaren kontrako tentazinoiak sarri etorri arren gogora, jazo leitekiala pekatu mortalik ez egiti Jaungoikuaren grazijagaz ta laguntasunagaz, santu ta santa askoren bitzitzetan irakurten dan legez.



*Irugarrenian:* Noberak askotan berarijaz ekarri oi ditubala gogora gauza desonestubak, eurak pensetan ta gusto artutten egoteko. Beste batzuetan, noberak erruba daukala ta noberak etorbidia emonda oi diriala alako penseta ezainak ta aragijaren tentazinoiak. Aragizko gauza ezainak goguan erabiltia gaiti ta areetan gusto artutia gaiti beste bagarik, nobelak, komedijak ta liburu loijak irakurten ditubanak; onestidadia mantxetako ikusgarrijetan ardura bagarik begijk zabalik daukazanak; kanta ta berba desonestubak gustoz esan ta pozik entzuten ditubanak; komedija ta nasteko dantzetara bere guraz doianak; apaindurria laarregija ta dezenzia gitxikua bere gorputzari iminten deutsanak; onako kristinaubak, dinot, nai andikijk, nai nekezarijak, nai ezkondubak ta nai libriak, berak dakaz bere burura pensakizun loi guztiak. Berak dauka guztiak erruba. Berak etorbidia emon deutsee. Berak nai ditu dirianak. Baita arei darraikuezan pekatubak bere.

*Langarrenian* esaten da, dirurijanez ta teolojija sagradubak Eleisako Gurasuakin esaten dabenez, alako kristinau nasaijak, kastidadia galdueteko okasinoe jakinetan premina bagarik ta pena bagarik gorputzaren gustoz ta atseginez dabilenak, bere bakarreko pensamentu ta burutazinoe desonestubetan edo, eurak esan oi dabee legez, aragijaren tentazinoetan egingo dabela pensamentuzko edo konsentimentuzko pekatuba kastidadiaren kontra. Alako kristinaubak ez dabee diaburrik biar, tentazinoe loijak gogora ekarteko. Eurak dira euren aragijaren biztugarrijak ta arimiaren illgarrijak. Beti nai dabee alakuak, luxurijaren maija prest egon dedin, lotsarizko gauzak edo esateko edo entzuteko edo egiteko edo penseetako. Orregaiti daukez egitezko, berbazko ta nai utsezko pekatu mortal asko kastidadiaren kontra. Begiratu, kristinaubak, zelan egiten dozun examina konzienzijakua. Ta zelan konpesetan zarian. Edertuta, gitxituta, dudakotuta, apainduta, nai ez dituzun tentazinoe batzuk balira legez konpensau oi dituzu zeuben pensamentu ezauberazko ta naizko pekatu loi ezainak. Ta ez gitxitan, izango dira egunian asko. Oh, zorigaistoko desbenturau bak! Su onduan gura zenduke egon berotu bagarik? Basatzan sartuta loitu bagarik? Ibaijan sartuta busti bagarik? Au ezin leiteke. Ezda zubek bere alako pensakizun loi jakinetan gogoagaz ibili, pekatu egin bagarik.

*Bostgarrenian* esaten da beste arima batzuben konsuelorako, kristinauba bizi bada Jaungoikuaren bildur santubagaz, pekatubaren gorrotuagaz ta arimia salbetako ardura andijagaz; gordetan baditu beste agindubak ainbat ziatzen; deskuiduan pekatu mortal baten jausten danian laster badua konpesetara, arimia garbituta Jaungoikuagaz bakiak egitera; pena geijago ta bildur geijago emoten badeutsa bijotzian pekatu mortalian ego-

tiak, munduko gauzak galduetik baino; ta bada bere berbetan, jantzian, egotian ta lagun arteko ibili ereten garbia, jasua, modestiakoa ta okasi noe gaistuetati alde egiten dabena, sinistu daikagu au gaiti, pensamendu loi ta itxusi asko ta sarri etorri arren gogora, ez dala beinguan pensamentuzko pekatu mortalian jausiko. Ta deskuiduan jausten bada, jagiko dala laster. Alako arima Jaungoikuak bere eskutu daukaz. Tentazinoiagaz emoten deutsee bere grazia a goituteko. Ta bestiak galduen dirian leku ban, alako arima Jaungoikozkuak ta pekatubaren bildurtiak irabatzi egiten dabee. Onei esaten jakue, ez dagijezala itxi inos bere konpresa bagarik euren burutazinoe edo tentazinoe desonestubak. Ez ditezala sartu pekatuko okasinoetan euren guraz premina andi bagarik. Ta eskatu dagi juela Jesus maitiari ta Ama Birjina guztiz garbijari tentazinoiak goituteko grazia.

*Seigarrenian* esaten da: Pensamentu loijak noberak berarijaz burura ekarri ez arren ta etorbiderik noberak emon ez arren, etorten jakozanian kontuban jausita, ya pekatuko tentazinoia dana ezaututa bere naiz badago gauza loijak pensetan, aragijari gusto emoten ta atsegin artutten, denpora gitxian izan arren, egin dau pekatu. Tentazinoe gaistua etorri jakola ezautu dabenian, laster Jaungoikuari, Ama Birjiniari, aingeru onari edo santuben bat eskatu badeutsa grazia ta sokorruba; edo egin badau beste gauzaren bat buruti a kenduteko ta tentazinoa goituteko, esaten da ez dabela pekatutik egin izango. Baina oneek guztiok dirian legez txito laster bijotzian irago leitekezanak ta irago oi dirianak, esaten jakue kristinau piel guztiak, autortu dagijezala argiro konpessoriaren oinetan kastidadiaren kontra etorri jakuezan burutazinoe ta tentazinoe guztiak. Isten baditubee konpresa bagarik, edo lotsaz edo pekatu ez dirialakuan, sarri engainuko ditu etsaiak alako kristinaubak. Bada, erakusla askok dinuen legez, egija bada seigarren agindu santubaren kontra berez pekatu benialik edo gauza gitxirik ez daguana, edozeinek dakuts ze arrisku andijan daguan geure arimako grazia pensamentuzko pekatubetan bertan. Ta au asko izan dedilla oneen gainian.

Erromako Katezismuak iminten ditu agindu onen azkenian luxuriaren sugarrijak. Ta dira: Alperrerija, ardaoa laarregija, begijetako libertadia, emakumen apaindurria armatuba, berba ta kanta desonestubak, dantzaak, pintura indezentziak ta irakurte loijak. Bakotxak *erakutsi* bana biar leukee oneek, kristinaubari aituten emoteko ondo kastidadiaren kontra eurak dauken indarra ta berenua. Baina ya orduba da lotsarizko sail oni giltza emoteko. Jaungoikuak zuzendu dagizala agindu onetako berba ta esan guztiak bere ondrarako ta geure arimen onerako. Au eskatu biar deutsa-



gu, neure entzula onak, Jesus geure Salbatzaille maitiari, bere Ama egijazkuaren, garbijaren, birjiniaren ta santiaren erraija bigunak ta amodijo santuba gaiti. Emon daigula kastidadiaren doia. Emon daigula garbitasunaren gurari sutsuba. Emon daigula pekatu ezainaren, lotsarizkuaren, loijaren, aragizkuaren, zerubak gorroto nausija deutsanaren, inpernuko erre-garri nausijaren ta mundu ondazaillaren, luxuriaren gorroto biarrekua. Emon daigula miineko, begijetako, jantziko, eskubetako, gorputzeko ta bijotzeko onestidadia, kristinutasuna, eldutasuna ta garbitasuna. Emon daigula, kastidadia galdueteko okasinoe inpametati, ordikerijetati, emakume dantzaarijetati, kantarijetati, nasaijetati, komedijetati, dantza naastau-betati, irakurte desonestubetati, jantzi indezentetati ta lagun txaarreti alde egiteko grazija. Au gura izan dagijala zerubak. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## IX. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Birjinidadiaren edertasuna. 2. Kastidadiaren balijuia.*

Ya urten dogu, neure kristinaubak, leengo egunetako izungura ats-tubetati. Ya ez dauke belaarrer garbijak berba ezainak ta lotsarizkuak entzun biar dituben penarik. Ya ez daukee zetan kansau geure adilliaren begijak, luurreko gauza naastaubai ta itxusijai begira. Ya estalgi baten azpi-jan ezkutauta geratutenean dira aragizkuentzat, seigarren agindu santubak eragozten dituban ustelgarri, esaten ta entzuten gatzak. Ya ez dauka mii-nak nekerik, aragizko egite lotsagarriren ta esan zatarren ezaubera biarre-kua kristinaubari emoteko, berba ez ezainak billatutenean. Ya itxi ditugu atze-ra lengo *erakutsijetan*, patari guztiak edatera juanda, loitu dituben pozu berdiak; ganadu guztiak sartuta, mutxikauta, zapalduta, zikinduta itxi ditu-ben ortubak; ta aragijaren preso guztiak lo eginda, atsituta dagozan lezaak.

Zabaldu begijak, zurtu belaarijak, alegrau bijotza, poztu gogua ta beiratu zerurutz, neure kristinaubak, txaloka, birjineen kanta barrijak entzutera. Lora eder utsezko ta usain gozoko jardin edo ortu itxi bat da birjinen etxia. Ez da kale aldetan, erreka aldetan edo erbereetan iminija. Ez da birjinen hortuba jentiaren arnasiak, bidetako autsak edo basiak edo ur onduetako lausuak eta laino astunak zetakutuba, zimelduba edo orri igartuba. Siongo mendijaren gainian, eguzki ederrak ta aise preskuak eski-na guztietati joten dabela dago birjinen ortu alegere, eder, enkantarrija. Zeruko euri gozua ta iruntz biguna baino beste erragarrijorik ez daukee birjinen loraak. Kanpo santu grazioso onetara jaso biar dogu bada, neure kristinaubak, geure gogua erakutsi onetan. Ojala baneuka nik san Anbrosio baten, san Jeronimo baten, san Basilio baten, Krisostomo baten edo Agustin baten zeruko espirituba, argija ta grazija, gorputzetzko ain-geruben andiarrijak ta ondo esankizunak zubei aituten emoteko. Liburu andijak eskribidu zituben areetati bakotxak, birjinidade santa ederraren ondo esatez aspertu ezinda. Aingeruben miinak biar litzatekez gorpu-tzezko aingeruben, birjina egijazkuen egitadiak esateko. Pensakizun batzuk gogoratuko deutsudaz bada, neure entzula onak, erakutsi onetan birjinidade santiaren gainian neure moduban, alabau dagizun Jesus, zeru-ko Errege Jauna bere espresa garbijetan. Prestau zaitez entzunera onagaz.



1. Leleengo jakin biar da, zer dan birjinidadia. Birjinidade egijazkua ta ondo esatia merezi dabena da, neure kristinaubak, *Jaungoiko Santubaren izenian ta ondran gorputza osorik ta garbirik gordetia; arimako ta gorputzko garbitasunaren ta osotasunaren amodijua gaiti beti birjina iragoteko ta bizi izateko uste osuagaz*. Ez da orain aita dogun birjina egijazkua, bere aldeti gorputza oso-rik gordetan ez dabena. Ez da birjina egijazkua, gorputzko osotasuna gorde arren, gogo garbija ta arima garbija ez daukana. Ezda gorputz ta arima oso ta garbi bitzi dan artian gordetako gogo edo uste betia ez daukana bere. Ezda Jesus birjinien Esposo egijazkuaren ondria ta amodijua gaiti bakarrik birjina ez dana bere. Au da birjinidade egijazkuaren ezaun-garri edo izate noraezekua, bai emakumentzat ta bai gizonezkuentzat.

2. Birjinidadia gordetako agindurik edo legerik ez deutsku imini Jaungoikuak. Au gauza jakina da ebanjelio santuban, san Pauloren kartelan ta Eleisako Guraso guztien erakutsijan. Geure eskuban itxi dau Jesus maitiak birjinidadia gordetia. Konbidau gaitu Jesusek birjina izatera. Esan deusku, geu atara dendatu ezkerro izan geintekozana. Baina ez gaitu ain lan gatxeko legepian imini. Estimetan dau Zerubak birjinidadia. Nai dau guk gordetia. Baina ez berak aginduta, ezbada bere amodijua gaiti geuk nai dogula. Geuk aukeratuta.

3. Jaungoikuaren naijagokua da birjinen bizieria edo estaduba, ezkondubena ta alargunena baino. Au bere gauza erabagija da Jobiniano ta beste erejen kontra. Gorputzko ta arimako osotasunagaz ta garbitasunagaz bizi dan artian, Jaungoikua gogoz ta bijotz osoz serbidutia da kristinatzako biziera edo estadurik altubena, lelengua, ederrena, estimaubena, grazijotsuena ta zeruko Erregiaren gogokuena.

4. Birjinidade egijazkua ez da topeten kristinatzati edo Eleisa santati kanpora. Jentilak, moruak, ateistak edo Jaungoiko bagakuak ta erejiak ez dabee ezaututen ta ez dabee gordetan birjinidade egijazkorik. Egija da, jentilen artian topeten dira asko, gorputzko osotasuna edo birjinidadia enpeinu ta estimazinoe andijagaz gorde dabeenak. San Jeronimok kontetan ditu onetariko gizon eta emakume asko arrigarritzko jazuakin. Baina oneen birjinidadia edo zan naturaleza utsezkua edo zan puntuzkua edo zan mundubak aginduba. Palta ebeen Jaungoiko egijazkuaren sinistutia. Ta ez eban euren birjinidadiak zerurutz igoten. Arritu ebeen munduba, euren gorputzai naturaleziaren gustuak ukatubagaz. Baina ez ebeen irabazi zeruko amodijua, zer gaiti edo nor gaiti gorde biar ebeen ez ekijelako. Au gaiti esaten da, Eleisa egijazkuaren ezagungarri agiri bat dala birjina egijazkuak eukitia Jesusen ondra ta amodijua gaiti. Ez da, bada, gauza andija, erejiak ta Eleisa santiaren arerijuak birjinidade egijazkuaren areri-

juak izatia. Loijk dira gorputzian ta ariman Eleisa santati kanpora dagozanak. Ta loitu gura litukee guztiak. Baina Jaungoikuaren semiak, gizon egitera mundura etorri zanian, dino san Jeronimok, ornidu eban munduban pamelija barrija, zeruban aingerubak adoretan dabeen legez, bere anditasuna luurrian adorau dagijen. Oneek dira Jesusen birjina ederrak, munduko gorputzezko aingerubak.

Baina zer da birjinidadia? Edo, zer da birjina izatia? San Paulo apostolubak esaten deusku, neure kristinaubak, *birjinen ardura ta kontu guztia dala, zelan zerenko Esposuaren, zerenko Erregiaren, Jesus maitiaren naija egingo dabeen gorputz ta arima garbi ta santu beti izateko*. Oh, ze pensakizun maitegarri! Oh, birjinien egikizun zorijonekua ta betikua! Zer geijago egiten dabee aingerubak zeruban? Begiratu bekijo birjina egijazkuari luurraren gainian. Ta guztia da garbija, guztia santia, guztia zerutarra. Arimia Jesusen eskubetan itxi dau bere nai ta adiera guztien giltzagaz. Penetan bada, Jesus bere Esposo maitiarentzat gauza gitxi daukalako penetan da. Nai lituke euki milla bijotz garbi ta bijotz bakotxerako milla lore eder, guztiakin usain gozoko sorta bat eginda, Jesuseri eskura emoteko. Tristetutenean bada, bere Esposo zerukuari nai leukian nai guztia egiten ez deutsalako tristetutenean da. Pensetan badau, Jesus nor dan, Jesusek zer esan dabentz, zer egin dabentz, zer erakutsi dabentz, zer agindu dabentz, zer eskini dabentz ta zer eskatutenean dabentz pensetan dau. Jesusegaz ta Jesusek esan, egin, erakutsi, agindu, eskini ta eskatutenean dabentz, uda ta negu, gau ta egun beti bere arima gosia janduteko, adin lausotsuba argituteko, Jesusentzat daukan nai gogotsuba edo borondate presta geituteko ta Jesusen jazo ta egite gozuakin bere bijotza indartuteko, zolituteko ta amodijo santubagaz urtuteko.

Jesus zeruko Jaun andija da birjinen pensakizuna, maitekizuna ta gomutakizuna. Jesusek daukaz lotuta birjinen bijotzak ta arimak amodijo santu, garbi, gozo baten katia senduagaz. Euren gurarijak, euren zuzpirubak, euren naijak, euren erregubak ta euren kexa karinosuak guztiak duaz zuzen Jesusen Bijotz Sagradura. Zelan Jesusen naija obeto egingo dabeen ta arimia ta gorputza santu ta garbi gordeko deutseezan da birjinien ardua guztia.

Begiratutenean badeutsagu, bada, birjina egijazko batire agiriko egitadetan, oh, ze gitxi oratutenean jakozan munduko aixe gaixuaren autsak eta lausuak! Ariman ta bijotzian daukan amodijo santu ta garbijaren ispilla argija da bere agiriko egite guztia. Jesusen birjinian miina isilik. Berba gitxi ta eurak ondo pensaubak, zuzenak, goguagaz batekuak, Jesusen ondrarakuak ta arimaak santututekuak. Begijak sosiguz, geijenian luurrerutz. Ta



beti onestidadiaren ta modestijaren aixe lotsa oneko grazijotso bategaz. Belaarrijak zur ta prest Jesusen berbak, jatzuak ta naijak entzuteko arpegiko poz ta atsegir argi agiri bategaz. Baina tapauta edo gortuta, Jesusek nai ez dituban ta karidadiari min emoten deutseen berbak entzuteko bekoki triste, illun, itzaltsu bategaz. Arpegijan berezko lotsia, ontasuna, eldutasuna, grazija ta moduba, guztiak enbidija deutsena ta adiskidetzat gura leukeena. Soinian prestaera andi bagako jasotasuna, asetasuna, zintzotasuna ta bere goguan ta bijotzian daukan birjinidadia ta Jesusen amodijua berekauten autor dabena. Pausubetan zuzena, begiratuba, bildurtxia, kontuzkua, pisutsuba. Kaletan nekez, plazetan nekezagoo, bentanan gitxitan, ta orduban bere Jesusen billa edo Jesusen ondorik. Zaata ta builletan, barre ta algara andijetan inos bere ez, aixe txaarraren gaixua oratu ez dakinjon. Bakarrian sarri, eleisetan ez gitxitan. Eskubakin biarrián, berak biar ez badau, gose tristiak janduteko ta bilox pobriak janxtxeko ta espiritu-bagaz, arimiagaz, bijotzagaz ta goguagaz Jesus ala betan ta guztiak gaiti Jesus bere Esposo maitiari erregututenean. Au da birjinien ezaungarria.

Baina zer da edo zer aituten dogu birjina egijazkuak gaiti, dirurijela, zeruti begiratuta? Ez dakit, kristinaubak, onetan zer esan. Gauza bat esan negizu: Luurrezko gustorik gura ezda, zeruko Erregiagaz eskubak emon ditubeela birjinak. Jesus da birjinien Esposua. Jesusen munduko pamelja barrija dira. Birjinak Jesusek zaintutenean, gordetan ditu, jantzten ditu, apaindutenean ditu ta, bere ortu santuban sartuta, atseginez ta pozez naikututenean ditu birjina bere espresa leijalak. Jesusek jorratutenean eta erragarijetean dau birjinien ortu samurra ta loratsuba. Batian, bere jaiotza gozoko negarragaz. Bestian, bidetan kansauta gu gaiti emon eban izerdijagaz. Bestian, bere arantza, azotea, kurutze ta ultzezko jorrailagaz. Bestian, bere biztuerako eguzki alegeriaren berotasunagaz. Bestian, Espiritu Santubaren su indartsu, argitsu, azigarri gozuagaz. Bestian, altarako mana bitzijagaz. Bestian, zeruko eztegu santubetako konbit ugariagaz ta betikuagaz.

Ze lora ederrak jaiotzen dirian ta azten dirir birjinien ortuban gau ta egun, uda ta negu! An humildade, orrijak beerutz ta sustraijak gorutz daukazan, ondotsuba. An, guztiak lo balegoz legezko isiltasun, asko dinuana. An, bijotza beti esnaatuta daukan, Jesus galduko ete daben bildur gozo arduratsuba. An, sarri begijk negar gozoz bustitzen dituban ta bijotza urtutenean dabenten Jesusen amodijo samur, itsu, lotsa oneko, amatau bagarik beti ixiota daguana. An, bedar txaarrak jaiotzen isten ez deutseen modestia, onestidadia ta garbitasuna. An, orri igar guztiak biztu, preskotu ta loratutenean dituban penitenzia gozatsuba. An, oideijk iragota, zeruragino igotenean dabenten orazinoe ta errege garbijen prantu bedeinkatuban. An, bijotza

guztiak atseginez daukazan ta ortu guztia alegeretan daben *bake* pozgarri zorijonekua. An, zeruko iruntz ederraren zain kansau bagarik ta asarratu bagarik, beti zur ta lejal egoteko pazienzia. An... Baina zer? Zerubak maite dituban lora eder guztiak topetan ditu birjinen bijotzeta Jesusek. Euren amodijo garbizko, humildezko ta prestezko lanparaak orijo santubagaz ixiota, arimako garbitasunaren ta gorputzeko osotasunaren lora ederrakin apainduta dagoz beti birjinak prest, Jesus, zeruko Espreso mai-tiaren dei-jaren zain, betiko eztegubetara beragaz juateko.

Ikusi ezkerro aragija, odola ta jausgarriak bestiak legez daukezan, ta munduko autsaren ta basiaren artian bestiak legez bizi dirian birjinien irudi santia, bai mundukuen ta bai zerukuen begijetan, ez da gauza andija Jesusek esatia, *ezkontzariak gogoratutenean ez jakuen zeruko aingerubak legez diriala birjinak munduban*. Ez da asko, san Juanek esatia, *inok bere bestek zeruban kantau ezin eban kanta barrija, birjinak bakarrik kantau eutsee la Jesus Bildots manso, garbijari*. Ez da asko Jesusek berak birjina bere esposak zaintuteko ta osorik gordetako, lege guztiak urratutia ta mundubari ta inpernubari burla egitia. Katiak eten dira, kaltzaidubak bigundu dira, subak oztu dira, otsuak mansotu dira, agintariak goitu dira, borregubak kansau dira, orijo ta berun urtu gorrijak iruntz preskotu dira, ta laba ixiuak bainu epeldutu dira, birjinien gorputz garbi osuak ausi ezinda, zatitu ezinda, penau ezinda, galdu ezinda. Ez da asko Jesus maitiak birjina argalai, bigunai, azal meekuai, eurenez bildurtxia, ta askotan umiai ta gaztiai, indarra ta espiritu-bagaz, mundu guztia ta penagarri guztiak goituteko ta iragoteko, tristetu bagarik. Oh, Jesusen birjina argal senduak! Zeinbat bidar egon zara pozez ta atseginez bijotzak zabaldua, arpegi alegeriagaz Jesusen kanta barrijak esaten laba ixiuetan, karzela illunetan, galduak burdina saretan, orijo urtuzko galduak, kandela garretan erretan, azotez eratzita, alanbrezko orrazi zorrotzez urratutena ta katiaz estuta? Zeinbat bidar itxi deutsezu, birjina ederrak, berdigubai pozik eta gustoz Jesus gaiti, zeuben bularra ebaten, begijk ateraten, aginak austen ta birrindutenean, gorputza erretan ta samaak ebaten? Oh! Konturik ez daukee birjinien lora oneek.

Ez da asko Eleisiaren Gurasuak ta erakuslak berbarik topau ezinda ibilitia, birjinien edertasuna ta baliju ja-soteko. Birjinidade egijazkua esaten da dala seinoren artian erregina, dameen artian lelengua, izarren artian eguzkija, metalen artian urria, perlen artian *rubes*, txorijen artian usua, aberen artian bildotsa, loren artian lirijua, zaaren ondria, gazten edertasuna, bijotzen alegría, arimako bakia, Eleisiaren ama, apostolugina, martirijogina, santugina. Munduko miraria ta gorputzeko aingeruba da birjinia. Amaitu daigun esanagaz: *Zeruban bere birjina ederrak jarraitutenean*



*tseela Jesus Esposo maitiari, doian leku guztira.* Ezer bere esan bagarik luzatu jat, kristinaubak, dotrina onetan, oi dodan baino geijago. Ez dakit zelan.

## II.

Kastidadiaren gainian asko luzatu bagarik berba bi esango deutsudaz. Kastidadia izan leiteke ezkondu bagakuena edo ezkondubena edo alargunena. Ezkondu bagakuen kastidadiak, Jaungoikuaren begijetan bali-jokua izateko, euki biar dau uste osua, aurrera bizi dan artian gorputz ta arima garbi bizi izateko, nai dala botozkua, nai dala ain bagakua. Ta au biziera edo estadu obia da Jaungoikua serbiduteko, ezkondubena ta alargunena baino. Ezkonduben kastidadia da euren bizieraan garbi iragotia. Au da kristinatzako estadu edo biziera guztietati atzerengua, gitxien bali-jo dabena. Alargunena da, alarguntzan gorputz ta arima garbi bizi izatia. Ezkontzan bizieraz beeratu zana alarguntzan jagiten da puska bat, Jesusen amodijua gaiti alan beti bere naiz bizi bada.

Eskatu daijogun, kristinaubak, Jesus maitiari ta bere Ama beti Birjinari, bakotxak bere estaduko edo bizierako garbitasunaren ta kastidadiaren doia. Aitiaren, Semиaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## VII. AGINDUBA



## I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dan lapurretia.*
2. *Zeinbat modutakua dan.*
3. *Ze pekatu dan.*

Inok bere ukatu ezin legi, neure kristinaubak, geure Jaungoiko andijaren ontasuna ta zuzentasuna, bere agindu santubai paska bat begiratu ezkerro. Zaintu dau bere ondra santuba ta altuba. Zaintu dau guraso ta nautsijen lotsa ona. Zaintu dau gizonen bitzitzia. Zaintu dau gizonaren sortuera ta azi biarrekua onestidadiaren ta garbitasunaren legiagaz. Ta orain zazpigarren lekuban edo aginduban zaintutenean geure eukija edo aziendia, lapurretia eragotzijagaz. *Non furtum facies.* Guztioak dakiguna da edo jakin biar doguna, lapurretia Jaungoikuak eragotzita daguana. Baina lapurreta modu asko dagoz; edo inok aintzat ez daukazanak; edo, aintzat euki arren, lapurretak ez balira legez ontzat emoten dirianak. Kodizjak sustrai andijk daukaz, neure entzula onak. Dirubaren edo eukijaren gurari andija dago kristinauben bijotzetan. Ta topetan dira egijaren etxurako gezurrak, inoren gauziagaz geratuteko, atzera jaubiari ez biurtuteko eta ostuteko. Nire erakutsikizuna ta zuben ikaskizuna da bada, kristinaubak, zazpigarren agindu santuba austen dabeen lapurreta moduba aituten emotia.

Onetarako esango deutsut agindu santu onetan: 1. *Zer dan lapurretia...* 2. *Zeintzuk dirian Logerubak.* 3. *Zeintzuk dirian lapurretako tratubak.* 4. *Zeintzuk dirian neurri ta pisuko lapurretak.* 5. *Zeintzuk dirian gurasuen, umeen ta otseginen lapurreta modubak.* Guztiai asipena emoteko, aitu egizu dotrina onetan, oi dozun prestaera zintzuagaz ta ikasteko gogo onagaz: 1. *Zer dan lapurretia.* 2. *Zeinbat modutakua dan.* 3. *Ze pekatu dan.* Nai dakijola Jaungoikuari, nik zubei ondo adituren emotia.

### I.

Lapurretia ez da beste gauzarik, neure entzula onak, ezbada, *jaubia-ren errazua* *zko najaren kontra ta ez jagokala, inoren gauzia artutia.* Diruba,

laboria, ganaduba, soinekua edo beste balijoko gauzaren bat artutenean jaubiaren errazoezko najaren edo borondatiaren kontra, egiten da lapurretan. Ta ez bakarrik inoren gauzia artutenean, ezbada baita egiten da lapurretan, nai inori emon biar jakona emoten ez jakonian, nai jatorkona kendutenean jakonian, nai irabazi biar leukiana, deungaro edo bide bage eragozten jakonian bere. Emen sartutenean dira, nai juezak, nai letraubak, nai eskribaubak, nai auzilarri bide bagakuak, nai testigu paltsuak, nai zor pagazaile atzerak, nai beste edozeinek, dakiyeela edo jakin biar leukeela, inori aziendan egiten deutseezan kaltiak. Oneek guztioak, nai modu batera ta nai bestera, inori euren erruz kalte egiten deutseenian austen dabee zazpigarren agindu santuba. Ta dira Jaungoikuaren aurrian lapurrik, munduban atxekija askogaz ezkutau arren euren pekatubak ta lapurretak.

### II.

Modu askotarakoa da lapurretia. Biziera guztietan kasik bat topetan ez da, lapurretiaren berenua iraatsita ez daukanik, dino Poujet jakitunak. Itsumenti andija da, kristinaubak, lapurretiaren zabaltasuna. Ta penagarri andija da geijenak ez pensetia lapurrik dirianik. Milla lapurreta modu gero zerbaite esango dirianai itxita, orain zubei jagotzunez, iru modutakua da lapurretia: 1. Ostutenean bida jaubiak ez dakiela, esaten jako *lapurretia.* Menditi ganadu bat ostutenean legez. 2. Ostutenean bida jaubiak daku-sela edo ostutenean bajoko derrigorrian patrikarati edo etxetia edo nunnai, esaten jako *atzamarretatiko-ostutia* edo *rapina.* Lapurrik orduban egiten ditu pekatu bi: Bata ostutia ta bestia, derrigorrian jaubia injuri jaubaz ostutia. Ta esan biar dau konpesinoian, zelan oostu eban. 3. Ostutenean bida eleisan edo eleisati kanpora gauza sagraduba, esaten jako *sakrilegiozko lapurretia.* Ta esan biar dau konpesinoian eleisan lapurretan egin beebar edo eleisan edo eleisati kanpora gauza sagraduba ostu beebar, zan moduban. Bada, orduban lapurretiaz ostian egiten dau pekatu erlijinoaren kontra, edo bat edo geijago.

### III.

Lapurretia pekatu da. Ta berez pekatu mortala. Alan erakusten deutskubee Eleisiaren Gurasuak san Paulo apostolubagaz, zeinek esaten



daben, *lapurrik ez diriala zeruko erreinuban sartuko*. Jaungoikuak ez deutsa ukatutenean inori zeruba, pekatu mortala edo illagarrija gaiti baino. Jesukristo geure Jaunak beste ainbeste esan eutsan, zerura juateko zer egingo eban itandu eutsanari. Beste eginbiarreen artian esan eutsan Jesus maitiak, *lapurretarik ez egiteko, zeinegaz erakutsi eban Jesukristok, lapurrezia pekatu andija edo illgarrija dana*. Lapurrari kontuba artuko jakola ta kondenauko dala, lenago esanda daguan legez, dino Zakarias propeta santubak. *Etorriko dala lapurraren etxera maldezinoia ta ondatuko dabela lapurraren etxia, baita etxiaren zirak eta arrijak bere*.

Oh, zeinbat bidar au jazotenean jakuen lapur desditzaubai mundu oneitan bere! Geijenian munduban bertan bere probetan dabee lapurrik, Jaungoikuak euren pekatubai deutseen gorrotua. Bada, gitxika gauzia ostutenean dabeeen lapurrik badira, bizi dira triste errukarriak bildurrez ta ikaraz. Euren lapurretak jentiak aotan darabiltzana dakijeela. Beti zorpian. Geijenian erdi biloxik. Sarri gosez. Sarri lua galdu. Inok errrial bat pijau gura ez deutseela. Ta beti ostuteko usijan. Ta azkenian, edo eskian edo karzelan, inok asko erruki ez ditubala. Au oi da munduban lapur txiki txaaren amaija. Badira lapur andijkak. Seguruti (mundurako) kolpe onak egin ditubeenak. Gizon ondrauben etxuran inorenagaz aberatstuta dagozanak. Izan leiteke urte batzubetan zer jan ondo eukitia, ebanjelijoko aberats zorigaistokuak legez. Baina ostutako ondasunak andijkak eta ugarijak ta isilak izan arren, lapurrari edo ondorengui despeida errukarrija emoten deutsee munduban bertan bere. Oh, zeinbat laster aberatstutako etxe, laster pobretuta ikusi oi dirian!

Akan lapurraren jazo tristia da asko, Jaun[goi]kuak lapurretiari deutsan gorrotua ta lapur tristen amai bildurgarrija ezaututeko. Egin eban Akan eritxuen gizon batek lapurreta andi bat Isrraelen. Ta lapurreta a gaiti, Jaungoikuak aginduta, erriko edo Isrraelgo jentiak arrika ill ebeen Akan. Ta guztiz erre zituben subagaz bere emaztia, umiak eta ganadubak. Zelan jausten dan maldezinoia lenago edo geruago lapurraren etxera! Zer atera eban Akak erregiak, Nabot gizon garbijari solua ostubagaz? Antikok zer atera eban, Jerusalengo eleisati ondasunak ostubagaz? Zer, Judasek bere lapurreta txiki ta andijkakin? Entzute txaarra ondorik; bitztarrija, bildurrezkua ta penazkua munduban; eriñotza inpamia ta desesperauba azkenian; ta betiko inpernuba orain. Au oi da lapurren azkena ta euren lapurreten prutuba.

Jaungoikua guztiz zuzena ta arteza da. Berak daki nos nori ondasunak emon biar deutsazan ta ez deutsazan. Nos nori kendu biar deutsazan edo ez deutsazan. Ta ez dau gura Jaungoiko santubak ordena oneitan inok

esku artu dagijon, ezbada nai dau Jaungoikuak, bide oneti emoten deutsanagaz kontentu izan dedin mundu guztia ta inoenari osorik geldi itxi dagijon. Zer eginten dau, bida, lapurrik? Guztioak dakizuna. Jaungoikuak bere ordena santubagaz bati emon deutsan ondasuna, ari kendu ta beretu. Ausi Jaungoiko zuzenaren ta jakitunaren aginduba. Okertu ta naastau eukijaren edo ondasunen ordena errazuazkua. Ta galdu giza arteko lejaltasuna, zuzentasuna. Au da lapurraren pekatuba. Ez da miraari andija, guztia lapurrari gorroto izatia. Eskritura Sagradubak zeruti erbestetutenean ditu lapurrik. (Aitu biar da, erremedijeetan ez bada). Errazoiak ta naturaleziaren legiak gorroto deutsee lapurrai. Erreinubetako legiak kastigetan ditubee lapurrik, probau ezkero lapurretia. Batzuk karzeliagaz. Beste batzuk destierrubagaz. Baita askotan urkatubagaz bere. Ta beti, desondriagaz. Au da lapurraren prutu inpamia, ez zerubak, ez luurrak ikusi ezin dabena. Oh ze kasta gaistoko pekatuba!

Pekatu onetati ez dira libretan lapurrik, aberatsai ostu deutseela esanagaz. Atxekija au txaarra da. Uts egite asko daukazana ta arimak galdu-tekuak dala dino Erromako Katedrismuak: *Misera sane, et pestifera defensio*. Ostu ezkero, nai aberatsari ta nai danari dala, beti da lapurretia ta beti da pekatu. *Inos bere limosnarik egiten ez dabent aberatsari ostuta, bere ostu guztia pobriari emongo balentza bere, beti da pekatu lapurretia*, dino san Agustinek. Diabrubaren astuziak gogoratutenean ditu onako lapurretarako asmuak, dino Santubak. Ez dago, bida, atxekiarik, neure entzula onak, jaubiaren errazuazko naijaren edo borondatiaren kontra inori ezer kenduteko, edo aziendan kalte egiteko. Isrraelarrak ejitoarrei artu beutsezan euren gauzak atzera ez biurtuteko ustiagaz pekatu bagarik, Jaungoikuaren agindubagaz izan zan. Ta Jaungoikuak, azienda edo euki guztien jaubiak emon ezkero, edozeinek beretutenean dau gauzia, inoren eskubetan egon arren.

Lapurretako pekatuba izan arren pekatu inpamia ta berez andija edo illgarrija, ez da lapurretan egiten dan guztian pekatu mortala edo illgarrija egiten. Lapurretako pekatuba ezaututeko, begiratutenean jako, oi danez, gauza ostubari. Ta izan leiteke gauza gitxi bat ostutia ta kalte andirik agaz ez egitia. Orduban izango da lapurreta txikarra ta pekatu txikarra edo beniala. Baina, gauza gitxi ja bida jaubiak asko maite dabena edo jaubiari palta andija egiten deutsana, dakijala edo jakin biar leukiala a ostutia, izan leiteke ta askotan izango da pekatu mortala. Beste ainbeste esaten da, gauza gitxi bat baino ostu ez arren, geijago ostuteko gogua lapurrik daukanian. Orduban ez jako begiratutenean lapurretari, dino san Jeronimok, ezbada lapurrik ostuteko daukan goguari. Gogua andija bida, ostuba txikija izan arren, egingo dau pekatu andija. Errrial bat edo aren balijuera ostu-



bagaz, askotan egin legijo jaubiari kalte andija. Bada, dakijala a artutia da pekatu andija. Ostu legiz batek lau quarto ta geijago ez ostu. Bainaz ez geijago ostu gura ez leukialako, ezbada geijago zer ostu ez daukalako. Bada, orduban lapurrazen ustia ta gogua zetaragino dan, aragino izango da lapurretako pekatuba.

Bardin esaten da, ta gero argiruago esango da, puskaka gauza gitxija lantzian ostuten dabeenak gaiti. Lapurreta bakotxa txikija izan arren ta bakotxian geijago ostuteko nairik euki ez arren bere, paska asko ostuteko ustia badaukeetan ta paska guztiak alkarriz ezzarrita andira eldutenean badira, egiten dabee pekatu andija. Bada, oneen gogua ta naija da, lapurreta txiki askogaz gauza andija ostutia. Ta au pekatu andija da. Ezin imini legi, kristinaubak, onako erakutsi txiki baten erregela edo ezaunzarri guztirako bat, lapurretiagaz pekatu andija egiteko nos zeinbat biar dan orduna guztiarako erakusten dabena. Asko da jakitia, arimiari ondo gura deutsan kristinaubak beti kontuz ibilteko ta inoren gauziari inos ez ikututeko: 1. *jau-biak errazuañ nai ez dabela, gauza gitxija bere inok ostu dagijon.* 2. *Sarritan egin legijala ta egiten dala pekatu andija, gauza gitxija ostubagaz.* Bakizu zure auzuak aza bat nai porru bat ostu deutseelako, egingo ditubana luurrari ikara eragiteko bidauak ta maldezinoiak. Au dakizula ostuten deutsazu. Bada, esango dogu ez dozula egiten pekatu andija? Ez, aza bat edo porru bat gauza andija dalako. Bainaz bai, dakizula, gauza gitxija ostubagaz, bidao andijk eragin deutsazuzalako. Onegaz aituten dira, neure entzula onak, beste onetariko egitade asko.

Egijja esateko, penagarrija da noberak nekez bere izerdijagaz irabatzita edo eginda Jaungoikoz daukan gauzia, alper batek, burugin batek edo kodizijoso batek artuta eruatia. Kodizijak ta alperrerriak dakaz lapurrik. Kodiziosuak ezin ase edo naikotu dira inos diruz edo ondasunez. Bainaz oneen kontra da Espiritu Santuba Eskritura Sagraduban, kasik isildu bagarik, ez dakit zeinbat gatxegaz ta zamaigaz. Tentazinoe asko, ardua asko, probetxu bagako gurari asko, diabrubaren engainu asko, pekatu asko ta azken edo ilte desditxauba dira, Espiritu Santubak dinuanez, kodiziosuaren irabatzi guztia. *Errazago da kamelu bat orratzaren zuloti iragotzen,* dino Jesukristok, *kodizijoso aberats bat zeruban sartutenean baino.* Ze poza, pobriaren odola txupetan diarduben lapur aberatsentzat! Alperrerrija da besteti gatx ta okerreria guztien ama. Alperra jaalia, alperra edaalia, alperra jokolarria, alperra asmotsuba, alperra kastalarria, alperra burugina ta alperra zorpagazaile txaarra. Au guztiau estalduteko, alperrak asko biar. Ta beria kastau edo galdu dagijanian, inoenera, lapurretarra. Bai, kristinaubak, kodizija ta alperrerrija dira lapurretiaren ama.

Gogoratu bada, neure entzula onak, zer dan lapurretia, zeinbat modutakua dan ta ze pekatu ezaina ta desondragarrija dan, bai mundurako ta bai Jaungoikuaren aurrerako. Artu asmo sendo bat, inoren gauziari, ez gitxijan ta ez askuan, inos ikuturik ez egiteko. Euki konprijantza osua Jesusen berbetan, zeinek agindu deutskun bizitzarako biar doguna, bere agindu santubak gordetan baditugu. Naikotu edo kontentau, Jaungoikuak bide zuzenetik emoten deutsunagaz. Dendatu biarra egiten bakotxa bere estaduban edo bizieraan, zer jan ta zer jantzi eukiteko. Ta erregutu Jaungoikuari, emon daigula zeruba irabazteko biar doguna munduban bizi izateko. Au eginagaz urrinduko da kristinauba lapurreta desondrabetati. Alan gura izan dagijala Jaungoiko onak eta zuzenak, bera dana dalako. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zeten daguan logrerijako lapurretia.*

Ez dago inor bere, neure kristinaubak, biar dabentz gantz beti prest etxian daukanik. Aberatsa izan arren, ardura andikua izan arren, gitxigaz iragoten ikasija izan arren, nosbait izango dau preminia zerbait edosteko edo saldueteko edo inori eskatuteko. Geurezko premina onetati dator gauzak salduetia, edos tia, emotia, truketia, aurraz itxaanian inori prestetia, lagunari pijetia ta beste tratu ta artu emon gantz. Onako tratu ta artu emonetan inor engainu bagarik, ebanjelio santubak aginduten dabentz legez, bakotxari jagokana zuzen emotia da zazpigaren aginduba gordetia. Baino, oi dirian lagun arteko tratu, saldu, edosi ta artu emonetan, nai isilik ta nai agirijan, nai bestiak dakijala edo igarritza, nai estalgi guzurrezko bategaz engainaute kendutene badeutsa zerbait, egiten dau lapurretan ta austen dau zazpigaren aginduba. Onetara oi dirian lapurreta modu guztietak esaten amaitu ezin legiz, neure entzula onak. Neurri bagarik ta txito asko dira lapurretak lagun arteko artu emonetan. Guztien artian *logrerija* esaten jakonak dauka jarleku nausija. Au da lapurreta jasua, ondo jantzia ta apainduba azaleti. Baino desondrauba ta kondenauba bere izatian, azal ederragaz lapurreta andijak egiten ditubalako. Esango deutsut, bada, dotrina onetan: 1. *Zer dan, inori gauzia aurraz emotia.* 2. *Aurraz emotia gaiti emon dan baino geijago artu legian edo eskatu legian.* 3. *Zegaiti ta zeinbat artu legian.* Entzun egizu gogoz ta zuzen. Menturaz balijoko deutsu, kristinaubak.

### I.

Itaunduten dau Poujet jakitun pamaubak, *ia zeten gejen lapurretan egin daroien aberatsak ta eukijan ondotxu bizi dirianak.* Ta erantzuten dau berak: Leleengo, pobriak larregi kansaubagaz. Aberatsak uste dau, pobriak zor deutsala berari mandatubak egitia; etxeko biar txikiak egitia; erbeste batera nosbait juatia; ta onako, andijak esan oi dabeen legez, ezauberazko ta mesedezko biarrak duarik egitia. Ara emen trago bat arda nosbait edo baziari bat urtian emonagaz, betiko kriaduba edo kriadia erosita aberatsen etxian. Errenteruba bada, oh! errenta andija pagau arren, bera, emaz-

tia, umiak ta ganadubak bere euren aparejubagaz prest egon biar dabee beti ugazaba askoren kriadutzat. Trukauko etc ditu Jaungoikuak egunen baten aberatsen ta pobren era edo suerte oneek? Eurak ikusiko dabee. Au da aberatsak pobria larregi kansaubagazko lapurretia.

Aberatsen bigarren lapurretak, dino izentau dan erakusliak, diriala, edo diruba, edo laboria, edo soineko geija, edo artubaz kastetan dirian gauzak aurraz inori emon deutseزالاکو, emon dabeen baino geijago eska-tubagaz ta kendubagaz. Au da *logrerijako* lapurretia, Errromako Katezismuak dinuan legez, txito sustrai andijak ta zabalak daukazana. Jesukristo geure Jaunak esandako karidadia ta mesedia da, preminan daguanari edo eskatutene dabentz biar orduban, edo diruba, edo laboria, edo soineko geija, edo beste gauza bat plazuban edo ordiazku aurraz emotia. Au lagun arteko eginbiarra da. Au proximuri mesede egitia da. Errazoiari, gizatasunari ta ebanjelijo santubari darraikona da. Esan oi dan legez, *gaur zuri ta bigar neurri jazoten da, edo ogeiko bat, edo eun dukat, edo anega bat labore, edo beste preminako gauza bat proximuri plazura emonda, mesede egitia.* Au da kristinaubak biar orduban alkar estaldutia, alkari lagundutia ta alkar maitetutia, ebanjelijuak aginduten deutsku legez. Itanduten da, bada, *ia alan proximuri diruba edo beste gauzaren bat aurraz emonagaz egin deutsan mesedia gaiti, emon deutsan baino zerbait geijago eska-tu legion edo artu legion.*

### II.

Erantzuten jako bada, kristinaubak, itaune oni siku sikuban, *egetz.* Aurraz emon deutsulako, ezin eskatu legijola ta ezin artu legijola emon deutsan baino geijago. Emon deutsazuz itxanian eun dukat proximuri? Eun dukatak atzera artuta, kitu. Emon deutsazuz anega batzuk labore? Areen baliju edo ordia atzera artuta, kitu. Plazura emon jakolako edo mesede egin jakolako geijago eskatutia edo artutia, lapurretia da. Birritan gauza bat pagau eragitia da. Edo ez dan gauzia salduetia da, dino Errromako Katezismuak.

Ez engainau, kristinaubak. Onako emonaren gainerako irabatzijari, aurraz emonagaz lagunari mesede egin jakolako, mundubaren asierati ona beti begiratu jako lapurreta utsari legez. Giza aldi guztiak erakuslak ta aintzinako jentilak, Platonek, Aristotelek, Plutarkok ta beste Jaungoikuaren ezaubera bagako askok bere eragotzi gura izan ebeen logrerijako irabatzi tristia ta desondrauba. Jaungoikuaren lege santubak



beti ta guztiai eragotzi deutsee. Dino Jaungoikuak leku baten: *Ez deutsazu zeure lagunari edo anaiai emongo ez diruba, ez laboria, ez beste ganzarik logrerijan.* Dino beste leku baten: *Nor sartuko da zeruban?* Bere diruba edo gauzia logrerijan emon ez dabena. Dino beste leku baten: *Logrerijan ezer emon ez dabena ta emon dabena baino geijago atzera artutenez dabena justuba da ta biziko da zeruban; vita vivet.* Jesukristo geure Jaunak dino: *Emon egijozu lagunari edo proximuarti aurra, emon deutsazun baino geijago atzera artuteko uste bagarik.* Jesusen berba oneen gainian dino santo Tomasek: *Ez da noraezekua, proximuarti eskatutenez dabena itxanian edo plazuban beti emotia.* Bainan noraezekua da, itxanian emon jakolako, emon jakon baino geijago ez artutia. Jazoko da edo jazo leiteke, pekatu egin bagarik, itxanian eskatutenez dabeni ez emotia; baina ez da jazzo, lapurreta bagarik, aurraz itxanian emon jakolako, emon jakon baino geijago kendutia. Eleisaren batzaarrak eta gurasoak ta errege jaunen legiak guztiak era batera diadar egiten dabee logrerija desondraubaren kontra. Ta eragozten dabee arimako ta gorputzeko pena andijen beian.

Ta zer biar da inok esatia, neure entzula onak, logrerijaren lapurretia ezaututeko? Ez da berez guztiz agirria? Auzo bat dakar jan biarrak edo preminiak zu gana, diru zati baten eske itxanian. Ez deutsazu emoten, zerbait geijago atzera artuteko ez dala. Bada, zure zorra pagetako plazuba danian beste bati eskatu biar badeutsa, oi dan legez, zuri pagetako, ak bere zerbait eruan dagijola emonaren gainera, zuk legez. Urrengo plazuban bestiak bere bai. Ta onan, emoten deutsen guztiak. Ara emen, denpora gitxi barru pobriaren eukija nun daroian, ez zor garbijak, ezbada logrerijako irabatzitostubak.

Logreru guztiak lotsatu ditezan, (lotsatutekuak badira) iminiko deutsut neure eskubetati iragotako kontu bat, lelengoti azkenera euren pirmiagaz sillututa daguana. Onetariko gizon batek emon eutsazan aldi zka bost ogeiko beste preminako gizon bati. Bost ogeikuen alderako artu zituban logrerubak zatika, lelengo plazuti asita bi milla ta ogei errial. Lelengo ogeikua emon eutsanetitosturriaren urtian batu zirian kontubak egitera. Kontu areetan bost ogeiko utsak gaiti artuben gainera, logrerubak artzeako egin eutsan bestiari iru milla zazpireun ta laroiei errial. Bost ogeikogaz bost urte baino gitxiaguan ostu zituban logrerubak irureun ta berrogeta iru dukak ta lau errial ta bost ogeikuak osorik. Bijak zirian nekezarijak. Ara emen logreruben mesedia. Oneen gainian dino san Anbrosiok: *Oh, aberatsak! Oneek dira, zubek pobriari egiten deutsazun mesediak.* Puska bat emoten deutsazun; ta geijago kendutenez deutsazun. Jantzen dozunian, biloxtutenez dozu... Erremedijua eskatutenez deutsu; ta berenua emoten deutsazun. Libretan dozulakuan,

*katiatutenez dozu. Ogija eskatutenez deutsu; ta expatia jaurtegitenez deutsazun. Zer izan legitike, au baino deungago?* dino santubak.

Esango dozu: *Jauna nik ez dot ainbeste e[r]naten.* Bada, nai ainbeste ta nai gitxiago, logrerijan eruaten dozuna lapurretia da. *Jauna, mesede andija egin neutsan emonagaz,* dino beste batek. *Justizijak etxian eukana jan biar eutsala ta negarrez eterri jatan eske:* *Berak esan eutstan zerbait geijagogaz erantzunzo eustala...* Bada, nai mesede andija egin zeuntsala, nai txikija egin zeuntsala. Nai justizijak jan dagijola guztia, nai ez da gijola. Nai berak eskini deutsula, nai zeuk eskatu deutsazula, emon deutsazunaren gainera aurraz prestetia gaiti artutenez dozuna, ostuba da, lapurretia da. Zuk ezin mudau zinai ebanjelijoko legia. Kodizija naikotuteko atxekijak dira orreek. Aberatsa aberatsago egiteko modubak dira orreek. Apapuban bizi dana eskera bialduteko bidiak dira orreek. Inorena ostuta arimak kondenetako legiak dira orreek. Oh, logrerubak! Ez daukazu mendi bakarretara juan biarrik lapurretarako.

*Baina, jauna, dino beste batek, menturaz ez deust pagauko.* Ta inori emonagaz, guzia galduko arriskuban jarten nas. *Edo kobrau ezinda ibili biarko dot.* Bada, ez egijozu emon. Ez emotia pekatu dan edo ez, esango deutsubee konpessoriak. Bainan, aurraz itxaanian emotera ezkero, emon biar deutsazu geijago artute bagarik. Ta ari emon deutsazun dirubak edo laboriak edo dendaku... ez dauka zeure etxian arriskurik? Ez dago lapurrik zuri a ostuteko? Ez dago surik zure etxian edo eukija erreetako? Ez daukazu eskubidua juezaren aurreti eskatuteko? Ez deutsu pijadoria aginduten? Zer nai dozu, bada, geijago arriskuba kenduteko? Jauna, baina isilik nai dau. Bada, ez emon, gizon ondrauben aurrian nai ez dabeni. Ordubar ken-dutenez da arriskubaren bildurra. Gauzia aurraz emonak berez beti dakkaren arriskuba gaiti, maraberri bere eruan ezin legi, emon dan baino geijago. Ez dago atxekijarik ebanjelijuaren kontra. Logreruben asmuak dira oneek. Euren logrerija edo lapurreta desondrauba edertuteko asmetan ditubee alakuak. Ogei duktat baino emon bagarik, ogeta lau emon dituben papera egin ta... beste onetariko lapurretako asmuak.

### III.

*Baina, jauna, neuri kalte egiten jatala emon neutsan.* Ta au gaiti zerbait geijago eruan legijala esaten dabee, dino beste batek. Oni erantzuteko, jakin biar da kaltia zelakua dan ta zeinbat dan. Egija da, noberak popuertza esku-betan biar dabena emoteko ez dau Jaungoikuak aginduten, ezbada orduna-



ban nobera ainbagarik irago leitekiana. Neuk zentsuan iminteko neukan diruba emon neutsan, dino batek. Traturako neukana emon neutsan, dino beste batek. Etxerako neukan laboria emon neutsan ta gero geijago pagau biar izan neban, dino beste batek. Zentso bat aterateko neukan diruba emon neutsan; ta a gaiti egon zan neure kontra zentsua...

Onetara joten dabee, kristinaubak, proximuarri zerbait itxanian emonagaz euki zinaizan kalte guztiak. Edo da *irabatziko zendukiana ez irabatzia*. Edo da *galduko ez zendukiana galduetia*. Beste atxekija gaiti ezin artu legi emoten dana baino geijago, lapurretan egitiaren beian. Baino noberak eskubetan biar daben gauzia inori itxanian emon deutsalako badauka kalte jakina, ziartuba ta zuzena, orduban zerbait eruan legi emonaren gainera. Dinot, *badanka kalte jakina, ziartuba ta zuzena*. Ustezko kaltiak, menturazko kaltiak, zer egingo neban ez dakidaneko kaltiak ez dira, ez kalte jakinak, ez ziartubak, ez zuzenak. Logrerubak esatia: Ari emon neutsan diruba, menturaz zentsuan iminiko neban. Menturaz tratu paska bat artuko neban. Menturaz beste konbenienziña bat izango neban; ta beste onetariko menturazko irabatzjak edo kaltiak, ez dira, ez kalte jakinak, ez ziartubak, ez zuzenak. Eritikuak, destajkuak, menturazkuak edo galdu gordetuak dira. Ta onako menturazko kaltiak edo irabatzjak gaiti ezin eruan legi ezer bere emonaz gainera, lapurretiaren beian.

Esan legi logrerubak: Ari emon neutsanagaz zentso bat aterako neban, edo etxian palta neban laboria merkiago erosiko neban, edo solo barri bat ausiko neban... ta onetan kalte jakina daukat ari emonagaz. Ta bazeunkan beste dirurik zentsua atarateko, laboria erosteko edo solo barrija austeko? Bai, jauna, ainbeste modu baukat. Bada, ari emonaz ostian badaukazu zegaz erremedijau orreek kaltiok, ez da proximuarri emon deutsazulako. Ta orregaiti ez da ari emonetzi zuzen datorren kaltia. Ta ezin eruan zinagijo ezer bere, emonaz gainera. Etxazu ari emonagaz kalterik etorri, asmo orreek zegaz erremedijau ostian daukazunian. Esan legi logrerubak: Jauna, tratuban edo zetan edo atan irabatziko neban ari emon neutsan dirubagaz, emon ez baneutsa. Baino onek bere lenago diruba daukala traturik egin ez badau, tratuko arriskubetan sartu bagarik etxian edo kanpuan diruba gordeta geldi euki oi badau, kasik ezagun da ustezko kaltia dala onena, menturazkua dala. Ez kalte ziartuba. Preminako bat eske etorri ez balitxako negarrez erreguka zerbait geijo agindubaz, traturik gogoratu bagarik ari emon eutsan diruba gordeta eukiko eban. Bada, onan izan ezkerro, ezin eruan legio emon deutsan baino geijago, lapurretiaren beian.

Baina, Jauna, kalte jakina neukala emon neutsan. Eskubetan palta egiten eustan diruba emon neutsan. Neuk gero etxian biar neban laboria errukitura emon neutsan. Ta kalte andija daukat, *zuzen irabatziko nebana irabatzji ezagaz*. Ta *galduko ez nebana galdubagaz*, ari emon neutsalako. Egija esateko, dirautsut, neure entzula onak, ikara egiten dodala azkeneko oni erantzuteko. Irabatzi biar neukiana ez irabaztia: *lucro cesante*. Ta galduko ez nebana galduetia: *damno emergente*, dira berba batzuk, esan ezin legijan beste logreruren arima inpernura eruan ditubeenak, dino juizijozko Aita Jose Pranzisko Isla jesuita jakitunak. Esaten jako, bada, botikako onegaz, alan kalte jakinagaz ta zuzenagaz inori itxanian zerbait emon deutsanari, artu legijola atzera zerbait geijago emon deutsan baino, daukan kalte jakina ta zuzena gaiti. Ez, aurraz emotia gaiti. Ez, egin deutsan mesedia gaiti. Ez, alan emonak galduteko berez daukan arriskuba gaiti. Ez, atzera kobretiak berez dakinaren zeregina gaiti. Ezbada zuzen ta egijaz, illgo danian legez, daukan kaltia gaiti. Ta orduban kondezinoe bigaz: Bata da esatia aurraz gauziaren eske juakonari, ari emonaz daukan kaltia gura badau bere kontura artu dagian edo itxi dagijon. Bigarrena da, emonaren gainera ez artutia kalte jakina ta zuzena baino geijago. Eleisiaren edo errege jaunen legiak iminita badago zeinbat eruan legian emonaz gainera, ainbeste. Ta ez geijago. Ez badago legez senailauta zeinbat eruan legian, juizijozko ta konzientziatzko konpesore edo jakitun batek esaten dabena. Ta ez geijago. Beste eruate guztiak, emonaz gainera, lapurretak dira. Logrerijk dira. Eskatu daijogun, kristinaubak, Jaungoikuari, egija oneek ezaututeko argija ta arimako grazija, zeinegaz jadiitxiko dogun zeruko ondasun betikua. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian, Amen.



### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*tratubetan oi dan lapurretia.*

Saldu-erosja edo tratuba da, neure kristinaubak, lapurretiak geijen barrututenean dabena. Tratuba lapurren estalgi zabala da. Bainan Jaungoikuaren begijetan urratuko dira estalgijak ta agertuko dira lapurrak, dirian moduban. Iru modutako tratalarrijak kontetan ditu santo Tomasek. Batzuk, etxian palta dabeenak erosia ta sobretan jakuena saldutenean. Beste batzuk, erosten dabeenak gauzia mudau edo obatuta saldutenean. Linua erosi ta euna saldu. Ola erosi ta utxia saldu. Ta alan beste gauza batzuk obatuta edo biarra eginda saldutenean. Irugarren tratularrijak dira, artutenean dabeenak moduban salduteko gauzia erosten dabeenak. Dendakua erosi ta dendakua saldu; garija erosi ta garija saldu... Lelengo tratu modu bijak garbijak dira eurenak. Irugarrenari ez deutsee Eleisiaren Gurasuak ondo esate andirik emoten. Sarri pekkatu egiteko bizi moduba da. Kristinak batek bere ez egitia oba dana da. Ez da niri jaotana saldu-erosi utseko tratuba, irabaztia gaiti beste bagarik, nos pekatu eta ta nos ez dan zubei erakustea.

Tratu guzietako lapurretan ezin erakutsi legiz, neure entzula onak, dotrina labur baten. Tratalarrijak alkar artuta egiten dira lapurretanako tratubak. Gauziaren balijuaren gaiti egiten dira lapurretanako tratubak. Engainubagaz egiten dira lapurretanako tratubak. Ta inoren preminiagaz balijauta egiten dira lapurretanako tratubak. Esango deutsut, baina, dotrina onetan: 1. *Zeintzuk dirian alkar artutako tratu gaistuak.* 2. *Prezijo gaistoko tratubak.* 3. *Engainuzko tratubak.* 4. *Inoren preminako tratu gaistuak.* Entzun egizun kontuz, bat edo bat askori oratuko jatzu ta.

#### I.

*Alkar artutako tratu gaistuak.* Oneek dira, neure kristinaubak, merkatarijaka edo tratalarrijak sarritan egiten ditubeenak. Esaten jako onetariko tratubari latinez edo griego, *monopolium*. Au da, lagun bik edo geijagok alkar artutia, eurak bakarrik salduteko daukeen gauzia onenbeste baino merkiago batek bere ez salduteko. Edo da alkar artutia, eurak bakarrik

erosiko dabeen gauzia onenbeste baino goraago batek bere ez erosteko. Alan salzailak edo eroslak alkar artutenean, eurak iminten dabee saldu erosijaren legia ta prezijua. Ta ekarten ditubee bestiak derrigorrian eurak iminten dabeen prezijuan gauzak saldutera ta erostera. Au aparteko personak ezin legi. Agintarijaren eskubidia da bakarrik. Batoz lagun bi, iru edo lau errijan biar dan gauza bat saldutera. Alkar artutenean guztiak, lau balijo baditu, sei baino merkiago, ez emoteko; gora nai merke, salduko dabeenak dakijelako. Ta ekarten dabee erosi biar dabena, balijuaren gauzia geijago pagetara. Au lapurretan da. Ola jaun bik edo iruk edo geijagok bakijee euren oleetara inguruko iketzak geijenak edo guztiak eruan biar ditubeenak, beste olaak urrin dagozalako. Olajaun oneek alkar artutenean badabean, zortzi errrial balijo deutsen karga iketzari sei baino ez emoteko, egiten dabee lapurretan. Bardin da zein garija zein artua edo beste edozein gauza. Errrotarijaka egin oihala dabee au sarri. Eurak dira leku askotan labore sobriaren eta endamas garijaren eroslaak. Bakijee daukanak saldu biar dabena, ta eurak baino nok erosi ez daguana. Balijo da ogeta amar errrial anegiak. Ta, alkar artuta, ez deutsee batek bere emon gura ogeta sei edo zortzi baino. Au lapurretan da. Baita beste onetariko balijotik kanporatzen ta alkar artutako tratu guztiak bere. Oneen ureengo dagoz prezijo okerreko tratubak.

#### II.

*Prezijo okerreko tratubak.* Tratalarrijak ez gitxik uste dabee, zerbait saldutera duazanian, ainbat goreen saldu arren eta zerbait erostera duazanian, ainbat merkeen erosi arren, ez dabeela pekaturik egiten. Bada, kristinaubak, ez da au tratu guzietarako kontu zuzena. Egijia da, eurijak edo liortziak, bakiak edo gerriak, ez urtiak edo ugaritasunak, salzaila gitxi edo asko egonak, erosla geijago edo gitxiago egonak goratu edo beeratu legije gauzen balijuaren gauzia ta prezijua. Bainan salzailaren naija edo borondatia ez da geijenaren erregela zuzena, gauzai prezijua iminteko. Erregela edo neurri zuzen bat artu bagarik, ainbat goren saldu eta ainbat merken erosi beti egiteko ustia daukan tratalarrijak, mila lapurreta egingo ditu. *Tratubak izan biar da zuzena, errazoezka ta tratalarri bijen onerakua,* esaten deusku santo Tomasek. Bada, balijuaren gauzak saldutenean, kalte egiten jako erosliari. Ta balijuaren gauzak saldutenean, kalte egiten jako salzailari.

Erregen edo agintarijen aginduz prezijua iminita dauen gauzak saldututako gauzak, lapurretan da. Prezijo eginik legez ez dauen gauzak sal-



duteko edo erosteko, begiratut biar jako aituten jakuen gizon eldubak ze balijo emoten deutsen gitxi gora bera. Dinot, *gitxi gora bera. Bada, ez dago gauzen baliju*a, dino santo Tomasek, zatitu ezin legijan puntu baten. Ta apur bat gitxitu edo geitubak ez dau kenduten zuzentasunaren bardina. Bainaz apur bat geijago edo gitxiago onek beti izan biar dau neurrijaren eskinati kanpora urteten ez dabena. Bide baten doiana juan leiteke bidia- ren erditu, baita bidiaren eskina bateti edo besteti bere. Bainaz, nai eskina bateti, nai besteti nai erditu juan, beti dua a bideti. A gaiti ezin esan legi oker doiala. Bainaz bideti urteten badau, ez dua zuzen. Lapurrak ibilten dira bideti aldenduta. Beste ainbeste. Tratuko prezijuan puska bat gorago saldu edo merkiago erosio, *ak puskiak* ez dau urten biar beste konzienzia oneko tratalarrijak duazan bidiaren eskinati. Andi aurrekua lapurretia da, dino santo Tomasek.

Onako prezijo moduban lapur tratu asko egiten dira, kristinaubak. Batian, diruba aurraz emon deutsalako. Bestian, laboria, ganaduba, dendakua edo biar ebana plazura emon deutsalako. Bestian, menturaz kobrauko ez deutsalako. Bestian, tratu batian galdu dabena aterateko. *Beriagaz urteteko*, eurak esan oi dabeen legez. Onako atxekijak gaiti baliju baino gorago saldutia ta merkiago erostia, geijenian izango da lapurretia. Zerbait ondo bizi dirianen poltsak betetako, pobretxu daguan jentia eskeratuteko, logrerijak geituteko ta arimak kondenetako dira alako tratubak ta asmuak. Amar eskudoko bat edo ogeiko bat emongo deutsut; baina onen beste burdi ikatz botako deustazuz aurten olara. Anega bat edo bi arto emongo deutsudaz; baina abuztuban pagau biarko deustazuz. Eutsi orain dendakua; baina abuztuban popuertza biarko dot nik paguba. Zegaiti au? Diruba aurraz emonda, iketza merke artuteko. Artua abuztu arteko itxanian gora salduta, aren pagutzat garija merke artuteko. Dendakua plazura nai daben preziju emonda, abuztuban nai dabeen preziju garija ekarri eragiteko. Mesede egiten deutsalakuan, pobre trisiari odola txupeetako. Ah, tratalarijk! Zeinbat onako tratu prezijo okeurreko? Ez dira obak engainuzkuak.

III.

*Engainuzko tratubak.* Kodizijk eskina guztiak aztertutenean ditu, neurako kristinaubak. Ta modu guztiak billatutenean diruba geituteko, okerrak izan arren. Tratalarijari geijenian jazotenean jakona da, diru asko poltsan sartutenean dabean eguna, egun ona. Bere gustora tratu asko egiten dituban

eguna, egun ditxosua, egun alegeria. Zelan illgo dan pensetan daben eguna, egun tristia. Tratuban zuzen ibili dan edo ez gogoratutem daben orduba, ordu penazkua. Sermoetati, liburu on bat irakurtegi ta konpese-tati ateraten daben prutuba, guz tia dudia, larrija, kezkia, konzienziakoa arantzia ta naaste illuna. Zegaiti? Dirubaren gosia daukalako. Saldu eros-ian, al dagijan guztian, (beriaz urtetiarren, dinue) zer edo zer bere aldera geijago eruaten dabelako. Beti konzienzia bere kontra diadarka daukalako. Pulpitoti, liburuti edo konpesinoeti bere lapurretek entzuten dibuba-lako ta gitxituten ez ditubalako.

Tratu asko dagoz engainuzkuak. Guztiak ezin esan legiz. Neurriko ta pisukuak esango dira geroko ikasikizunian. Engainuzko tratuba da, gauza txaarra ontzat saldutia. Agiri ez dabentz paltia daukan ganaduba, palta bagakuaren balijuaren, ona balitz legez, dakijala, saldutia lapurretia da. Jauna, neuri bere, esan bagarik, onaren balijuaren emon eusten. Ori da zukta zuri emon eutsunak, bijok lapurretan egitia. Jauna, perija errialian saldu neban. Ta an libre dala esaten dabee. Perija errialak ez dau obatuten zaldi gaixua, mula paltsua edo idi lanparoeduna. Ta txarra gaiti onaren prezizjua, dakijala, inok artu ezin legi konzijenzijan. Egija da, legegeginak libretan ditubee perija batzuk, tratu bakotxeko auzi bat izan ez dedin. Bainaz ez dabee kenduten konzijenzijako zorra.

Engainuzko tratuba da, lenagoko urteko arto edo gari arinduba ta iragua, urte atako ona balitz legez edo urte atakuagaz naastauta, esan bagarik, saldutia. Askok eukiten dabee laboria saldu bagarik urteetan, eurak nai leuken prezijora eldu ez dalako. Ah, koitaubak! Ta labore zaar arinduba ta erdi irotuba onagaz naastauta saldutene deutsee pobriari onaren prezijuan. Au lapurretia da. Jauna, zaarra zan baina ona eguan dino kodiziosuak. Esaten jako, ona egongo zala laster etxeti kenduteko, baina ez uruna egiteko. Ona beguan, zetako naastau dozu urte barrukuagaz lengo urtekua? Kodiziosuentzat, salduteko dauken guztia da ona; ta erosi biar daben guztia atxekijaz betia. Nos aseko ete dira diruz?

Engainuzko tratuba da, dendako ustela, erria edo galduba, ona balitz legez, ez dakianari emotia. Ikusi baino ez eukan, esanak ez dau kenduten engainuba ta lapurretia. Ikusita bere guztiak ezautuko ez dabee ojalak edo dendakuak daukan paltia. Ta zeuk saldu bazeuntsan, zenkijala, onaren balijuau edo balijuau baino goraago, egin zenduban lapurretan. Zeinbat onako lapurreta, kristinaubak! Nos pagauko ete dira? Engainuba da, amar kosta jakona gaiti, amabi kosta jakola guzurra esanda, balijo dabent baino geijago pagau eragitia. Au jazoten jakue askotan baserrijetako ez jakin pobriai. Ez dakije, ez ze prezijo daukan, ez zelakua dan erozi biar dabeen



gauzia. Orduban salzailiak engainenetan dau erosla ez jakina milla guzurregaz (ta ez gitxitan juramentu eginda) ta berba labanakin ta eragiten deutsa engainuzko tratuba, edo gauza txarra ontzat saldubagaz, edo balijo dabentz baino gorago emonagaz. Au ostutia da. Baita inoren preminiazko balijauta egiten dirian tratubetakuak bere.

#### IV.

*Inoren preminazko tratu galduak.* Kanpo andija daukan sailla da au, neure kristinaubak. Ta Jesukristo, geure Jaunaren karidadeti urrinen aldenduten dana. Zorrak eta jan biarrak asko eragiten dau. Noraezekuak ez dauka itxaanik. Emeti jazoten da ta ez gitxitan, edo laboria, edo ganduba, edo soinekua, edo tresnia, edo beste gauzaren bat jaubiari preminiaz, danian dala, saldu eragitia. Baita noraezian biar dabentz gauzia gora nai merke erostia bere. Bigarkua baino gaurkua leenago dalako, esan oi dan legez. Orduban, inoren preminia ikusita, ari balijo dabentz baino gorago saldutia edo merkiago erostia da orain esaten dan lapurretan tratuba. Exemplu bategaz aituko dozu obetuago.

Bakizu auzuak diruba biar dabena popuertza. Preminiak zaldi bat saldutera dakar jaubia. Balijo ditu guztien eritxian eta zeuretzako bere bai berrogei dukat. Egiten zatzakoz merkatari. Ta saldu biar dabena ikusita, eskintzen deutsazuz ogeta amalau dukat. Ez deutsazu geijago emon gura milla atxekijagaz. Ta ekartzen dozu aren jaubia lau edo bost dukat galdubagaz zaldia zeuri saldutera, premina daukalako. Au inoren preminako tratu txaarra ta lapurretanak da. Au bide eskinati kanporako tratuba da. *Ainbeste bere nok emon ez eukan*, esanak ta beste atxekijkak ez dabee balijkoko Jaungoikuaren aurrian. Biar ez bazenduban, ez artu. Edo guztien eritxiko balijuak emon erosi biar dozun gauzari.

Beste ainbeste. Labore paska bat buruban artuta dua nekezari bat a saldutera, zorra pagetako. Bakizu diruba biar dabena ta, nai gora ta nai merke, saldu biar dabena. Eskintzen deutsazu ez balijuak. Ta dakarzu atan emotera. Bada, ostu deutsazu. Beste ainbeste, soineko bat edo etxian biar dabentz tresna bat preminiak saldu eragiten deutsanagaz. Beste ainbeste, jan biarrian edo nora ezian imina bat edo anega bat artoren eske jatorzungaz. Beste ainbeste milla tratutan. Erremedijo bagarik saldu edo erosi biar dabena ezauduta, ari guztien eritxiko balijuak baino merkiago erostia edo gorago saldutia da inoren preminazko lapurretanak tratuba. Au da lagunaren pobrezia, premina orduba edo ez unia diru truke saldutia. Au

da pobreen odola txupetia. Au da era dabentz ostutia, mendira juan bagarik bere atetan sosiguz. Orregaiti alakuak oi dira, euren eritxian, mesedeginak ta gizon ondraubak. Esan bekijke, bada, emeti aurrera: *Lapur ondraubak.* Alperrik da esatia: *Ez nintzan aren billa ibili. Bera etorri jatan. Ez eukan ez emon baino. Mesede geijago egin neutsan. Alakuan gauzak merkiago oi dira. Justizija atetan eukan...* ta beste onako errazoe errazoe baga-kua. Estalgia arinak dira oneek, neure kristinaubak, esan dirian lapurretan ontzat emoteko. Alako tratalarriak topeten baditubeetee pobriak ta preminan dagozanak, ostera bere laster ibili biarko dabee oneek eskian, dauken puskia galdubaz.

Gogoratu bada, neure kristinaubak, ze astuzijagaz lapurretan egiten dan alkar artutako, ez balijkoko, engainuzko ta inoren preminazko tratubetan. Jaungoiko altubak emon daigula guztioi zuzentasunaren bidia ta geuretzat nai doguna proximua beti opa izateko ta egiteko grazia, zeinegaz gordeko dogun lege santuba ta irabatziko dogun zeruko gloria, Amen.



## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*pisu ta neurri gaistoko lapurretia.*

San Agustinek esaten deutsku, neure entzula onak, inpernubaren modukua dala kodizijotsuba. Inpernubak inos esaten ez dabent legu[e]z *naikua egin dot edo asko da*, ezbada beti daguan legez eske ta tiraka, alan, dino santubak, daguala kodizijotsubaren bijotza inos diruz naikotu bagarrik, beti eske ta beti tiraka. Salomonek lenago kodizijotsubari emon eutsan markia bere berau da. Inpernuba baino geijago ez naikotutia. Beti geijago eukijaren gosez egotia. Kodizija naikotu ezin dan onek topetan ditu milla asmo, oker edo zuzen, ondasunak geituteko. Batzubetan itsu itsukan dua lapurretara mendira edo bidera edo inoren etxera, al dagian lekuban ostutera, bere buruba, pamelija, ondria ta bizitzia arriskuban iminita. Bainau lapur gitxik egiten dabee. Ta onetariko lapur lapurrik denpora gitxian iraun oi dabee bakotxak. Seguruti ta esker onian ostuten dabeeenak dira lapur jakitunak, obeto irauten dabeeenak ta ez txikiyenak. Oneek, inori seguru ostuteko keizgarritzat ekiten deutsee tratubari. Batak andijaguari, bestiak txikijaguari, ta al dagianak bere duinari. Alan ikusten dira erririk txikarrenak bere tratalariz beteta. Batzuk, errjak ondo dituban tratu edo opizijuetan. Beste asko, euren buruti artutako ta nai utsezko tratubetan. Tratu utsa bere, lagundu bagarik, sobre da liorra lapurriari naikua eragiteko. Lagundu biar jako, bada, tratubari, lapurretan seguru ta luzaro egiteko. Bainau zelan? Berbetako modubagaz. Tratubak geitutia ta berbeta eder etxura oneko paltsuak bere orduban esaten jakitia, tratalarrijak lapurretan seguru ta luzaro errijetan egiteko kanpo andija.

Bijak dira, neure kristinaubak, Espiritu Santubak esanak. Alako tratubak ta traturako asmo barrijak geituten ditubeenai esaten deutsee Espiritu Santubak zer egiten dabeeen. Baita euren tratu txaarretan laregi pijau ez ditezan, azkenian zer jazoko jakuen bere. *Zeruban izarrik daguan baino tratu geijago egin dozu*, esaten deutsee Jaungoikuak. Esango baleutsee legez: Tratubaren asmo ta arte guztiakin balijuau zara Zubek, diruba batuteko; baina eltxua edo arbola koka legez egaa eginda, laster ezkutauko da zuben irabatzia. *Bruchus expansus est, et arovavit.* Tratalarrijaren berbetako modu labana ta paltsua gaiti dino Jaungoikuak, euren miinak ez diriala garbi egongo pekatubetati. Au da guzurra ta engainuba sarri miinian darabile-

lako tratalarrijak. Berau gaiti esaten dau Ezekiel propeta santubak arima tratu gaistokuen gainian: Tratu askoren artian zeure bijotza pekatuz beteta daukazu. *In multitudine negotiationis tua plena sunt cisteriora tua iniquitate.*

Au jazoten jakue arako neurrijan ta pisuban gauza gitxian edo tratu txikijetan artu emona daukenai. Ta oneen lapurretak dira nik doctrina oneitan azaldau gura deutsudazanak. Neurri paltsoko ta pisu gaistoko lapurretak. *Pisu paltsua Jaungoikuaren gorrotokua da, dino Espiritu Santubak, ta neurri zuzena bere gustokua.* Pisu paltsua da arina eukitia, gauzia emoteko; ta astuna, artuteko. Neurrijari beste ainbeste jazoten jako. Au gaiti esaten dau Espiritu Santubak berak: *Ez dituzu eukiko zeure etxian pisu bi, bata andijagua ta bestia txikijagua edo arinagua. Ezda neurri bi bere. Bata andijagua ta bestia txikarragua. Non erit in domo tua modius major, et minor.* Neurri ta pisu paltsuagaz kasik igarri bagarik egiten dira lapurreta asko. Ta gauza gitxian izan arren aldi bakotxian, sarritakuak dirian legez, laster iragoten dira lapurreta andira ta pekatu mortalera. Alan, duda bagarik lapurretan egiten dabee ta pekatu mortalian bizi dira:

*Lelengo:* Dendakuak salduen ditubeenak kanaka ta ontzaka gauza gitxika, lantzian puska bat pisuban edo neurrijan gitxiago emoten dabeeela. Oneek neurri edo pisu aldi bakotxian egiten dabee lapurretan. Ta lapurreta bakotxa gauza gitxia izan arren, egunian eguniangua edo sarritakuak dan legez, alkarriz autsez lapurreta txiki areek. Ta guztiak alkarriz iraatsita gauza andira eldu ditezanian, egiten dau lapurretzko pekatu andija. Oraindino geijago: Alako tratalarrijak badauka gogoa lantzian puska bat neurri edo pisu bakotxian ostuteko, ostuteko uste edo gogo galdua bera da pekatu mortala. Bada, zein era batera ta batizan, zein puskaka ta askorri izan, gauza andija ostuteko ustia edo gogoa daukana, borondatez lapurra da ta pekatu mortalian dago.

Ez dakit zelan dan, kristinaubak. Errrial puska batzuben balijuau dendakotan artuta sartutene dira asko kale zulo baten. Tratu puska arena baino beste irabazi bagarik mantenidu edo jandutene dira, apaindutene dira, dendak geituten ditubee, tratu andijageten sartutene dira ta guztiai kobru emoten deutsee. Ez dakit, tratalarrijak, zetan daguan au. Baserriko biar garbijagaz ez dot nik inor alan aberatstutene ikusten. Bildur nas, zeuben pisubak ta neurrijak asko balijo ete deutsuben. Esan da lengo dotrinan, engainuzko tratubak, prezio okerreko tratubak ta logrerrijako tratubak zer dirian. Bainau geijago ta geijago esan arren eurak gaiti, ez da inos bere laregi izango. Bildur nas, dinot, alako tratalarri laster aberastu gura dabeeenak, kodizijak itsututa ete daukazan ta modu guztietara lapurretan egiten ete dabeeen. Batian, plazura dendako puskia emoten dabeelako; bestian,



kobrauko ezin dabeelako. Batari saldutenean prezijuan gorago ta bestiari neurrijan ta pisuban gitxiago. Beste batia emoten deutsee dendakua, abuztuban garijagaz pagetako ta korridutenean prezijuan garija izateko. Bestiari egiten deutsee nai dabeen kontuba, pagazaille txarra dalako. Ta onan, kasik euren tratu guztietai.

Ara emen, kristinaubak, ate asko zabalik alako tratarijak lapurretan egiteko, kasik eurak aintzat artu bagarik. Pobria dalako ta ezin dabelako bidaia pagazaille txaarra, ezin ari emon zinagijo gitxiago ez pisuban ta ez neurrijan. Ezda prezijuan bere gorago. Ardura bagakua dalako bidaia pagazaille txaarra, ari ez emon plazura, arduria artutenean ta zorra pagetan ikasi dagijan. Bainaz zer jazoten da? Ah! Tratalarijak ondo dakjee. Gauzia saldu biar dabeenian, ez da pagazaille txaarrak. Txito bigun ta gozo berba egiten deutsa salzailliak erosilari, tratuba egin artian. Plazura bere emoten deutsa, ain paga zaille ziurra ez dana jakin arren. Ta orduban engainetan dau onduen erolia. Pagatzaille txarra dalako emoten deutsa prezijuan gorago ta neurrijan edo pisuban gitxiago. Abuztuba oia da alako zorrik geijenen plazuba. Orduban biarko dau salzailliak popuertza diruba edo garija. Garitan oia da alako zorren paguba. Ta ze prezijotan? Balio dabenean baino merkiago. Ara emen tratu asko. Ta guztietai lapurretia. Orregaiti tratari askok naijago dabee nekezarijari plazura gauzia saldu diru eskukorra baino. Kanpo zabalagua dauke ta atxekija geijago dauke orduban, lapurretan egiteko.

Ya aitatu dan ezkerro laboriaren prezijua, esan biar jakue tratarijak, ez bakarrik erritetan dendako puskak dauerazanai, ezbada zorraren aldeera laboria artutenean dabeen guztiak. Esan biar jakue, kondenau ez ditezan. Ez dala, eurak uste dabeen legez, laboriaren prezijo korrientzia. Preminiak edo bizijo gaistuak imina bat labore saldu eragiten dabenean prezijua ez da korridutenean edo korridu biar dabenean prezijua, zor aldera laboria artuteko. Emakume ordi batek eruango dau, etxian ostuta, gari paska bat salduera. Amar balio baditu, itxiko dau zortzijan edo zazpijan. Beste batek salduko dau beste ainbestian, zorrak estututenean dabelako. Ta areak saldu dabeen prezijua izango da korridutenean dabenean prezijua? Ez jakoz geijago kontu egindo, zorra pagetako garija edo artua dakerrenari? Tratalari askok ez. Berba ederrakin leen gauzia saldu eutsanak esango deutsa orain, *laboria prezijo atan artutenean dabela; ta gura badau, atan itxi dagijala, ta ezbabere diruba ekarri dagijala*. Zer egingo dau, zegaz diruba egin ez daukan zordun trisiak? Larga labore zati bat zorraren alderako emakume ordi batek imilaun bat saldu daben prezijuan, tratari paltsuak atara ekarri dabelako. Ta ez dagijala gura izan Jaungoikuak alako tratarijak konpescinoian esatia, *paga-*

*zaille txarra bere bazala ta paska bat goratxuago saldu etsala; ta laboria korridutenean eban prezijua kontu egin etsala.* Au alde guztietai ostutia da. Ta ojala gitxiago balira onetariko lapurrak. Ta endamas erri txikijetan, jentiak nora ezian legez euretarra, gauzak eroastera, juan biar dabenean lekuban. Pisuba ta neurrija, prezijua ta berbetia, guztia da engainuzkua alako tratarijen etxian.

*Bigarrenian:* Pisuban ta neurrijan ostutenean dabee, popuertzako edo lelengo biarreko gauzak saldutenean ditubeenak, zeintzuk dirian ogia, okelia, orijuak, ardaua ta beste premina nausikuak. Ta ez modu batera, ezbada askotara: 1. Neurrijan edo pisuban gitxiago emoten dabenean. Au gaiti eutzun dozu leen, pisu aldi edo neurri aldi bakotxian gitxi izan arren, alkarriz dautseela egunian egunianguak edo sarritakuak dirianian alako lapurreta txikijak. Ta puskak bat eginda gauza andira eldu ditezan, egiten dala pekatu illgarrija eta beste lapurretak. Ogi bakotxari kenduten jakoz ontza erdi bat. Libra okeliari beste ontza erdi bat. Libra orijuari beste paska bat. Quartillu ardauari edo azunbre ardauari beste paska bat. Bada, nai ontza laurenak, nai erdijkak, nai paska txikijak, guztiak leku batera duaz. Ta, nai ogijan, nai okelan, nai beste edozein pisuko edo neurriko gauzan gitxiago bada, ostuba da.

Onetariko tratarijak, euren konzienziyen zotinak ta diadarrak isoluteko, nos bait ateraten dabee meza bat edo beste. Baita emoten deutsee arimai argitakua bere. Baita, zerbait geitxubago dakijenak, konposizioeneko *buldatxu bat* nosbait artu bere euren buruti, eurak esan oia dabeen legez. Alan bizi dira urte askotan lapurretako tratuban. Bada, jakin biar dabee desditxaubak, ez euren buruti atarako edo ostu alderako mezaak ateriak, ez argitakuak, ez buldiagaz erremedijetako ustian ostuta gero buldia artubak ez ditubala libretan pekatutenean ta lapurretan egitenean, alan bizi dirian artian. Edo salduari itxi edo neurrijan ta pisuban emon bakotxari beria. Gainerakoa lapurretia da.

Baita lapurretia da, erriko agintari. edo nausi batzubei neurri ona, pisu ona ta azienda ona emonda, bestiak komuna ta neurri txaarra emotia bere. Aragirik oneena ta pisu ona errijken agindutenean dabenean etxera; ta okelarik komunena ta pisu arina, pobren etxera. Orijo ona ta neurri ona, abazerubak nai dabenearentzat. Orijo komuna ta neurri arinona bestentzat. Ogi salzailliak ta arda salzailliak erregaluziak juezagazkua egindak, bestiak nai dabeen pisu ta neurrikua emonda, burla egin. Au guztiau lapurretia da. Ta sarri geure erritetan jazotenean dana.

Oneek esatia, *galdu egiten dogu; geuriagaz ezin urten dogu; askok pagan bagarik, iges egiten deutskubee; geuri bere ostu egiten deutskubee...* ta beste nako



atxekijak bapere ez deutsee balijo Jaungoikuaren aurrian. Ez deutsa Jaungoikuak inori aginduten tratubagaz bizi izateko. Bainan bai, tratubagaz bizi arren, ez ostuteko. Orregaiti salbau gura daben tratalarijk egin biar dabena da, tratuban zuzen ibilita galduen badau, itxi tratubari ta artu beste bizi modu bat.

*Irugarrerian:* Lapurretan egiten dabee, ez bakarrik esan dirian opizjuetakuak, ezbada baita beste edozeinek bere, neurri ta pisu okerrak daukezanak. Kana laburragua, pisu arinagua ta endamas imina txikijagua laboria emoteko ta andijagua artuteko. Onako neurriko engainubak andi etxetan bere badira. Baserrijetan bere bai. Oleetan bere bai. Errotetan bere bai... Esaten jakue guztiai, neurrijan edo pisuban inori ezer kenduten deutsenian, lapurretan egiten dabeela. Ta aintzat Jaungoikuak juzgauko ditubala.

Begiratu, bada, neure kristinaubak. Gejago edo gitxiago guztoi jazoten jatzuna da, nosbait neurrtuta edo pisauta gauzia saldutia. Sinistu, pisuba ta neurrija zorrekuak diriala ta osorik emon biar diriala. Gorroto deutsa Jaungoikuak pisu paltsuari. *Statera dolosa abominatio est apud Deum,* dino Salomonek. Oraindino agirijago erakusten dau Jaungoikuak, neurri paltsuari deutsan gorrotua Mikeas propeta santubaren aoti. *Suba dago,* diadar egiten dau Jaungoikuak, *lapurraren etxian.* Bainan ze su? Neurri txikarra gorrotoz beteta. *Mensura minor irae plena.* Ta ontzat emongo dot, dino Jaungoikuak, neurri okerra ta pisu paltsua? *¿Nunquid justificabo stateram impiam?* Esango baleu legez Jaungoikuak bere asariaren subagaz neurri ta pisu paltsoko tratalarijken kontra: Miin labanagaz, *lingua fraudulenta,* enbus-terijagaz ta guzurrik esanagaz, *loquebantur mendacium,* pisu ta neurri paltsuagaz batu dituzu pekatuzko ondasunak, *thesauri iniquitatis.* Orrelako lapurretakin aberastu zara diruz ta pekatuz, *in quibus divites ejus repleti sunt iniquitate...* Bai, au guztiau egin dozu tratralari gaistuak, dino Jaungoikuak. Bainan asi neban zeuben pekatuben kastiguba. Jango dozu ta ez zara aseko; batuko dozu ta ez dozu gordeko; ta gordetan dozuna, zeuri gatz egiteko izango da; ereingo dozu ta ez jatzu elduko. *Tu seminabis, et non metes.* Ta azkenian izango zara jentiaren burlagarria. *Opprobium populi mei.*

Ara kristinaubak, zer dirian ta zetan geratu oi dirian neurri ta pisu paltsoko lapurrak. Beti ostuten ta inos aspertu ez. Beti lapurretan ta beti geijagoren guran. Beti inorenari tiraka ta beti inorenaren biarrian, inos medrau bagarik. Urte baten edo bijan tratu paltsuakin dirubak batutene ditubee. Ta beste ainbestian, nundi ta zelan ez dakijela, keia legez, guztia ezkutetan jakue. Ta geratuten dira azkenian pobre ta desondrau jentiaren barregarri. Au oi da lapur guztien azkena, Jaungoikuaren ordena nausian.

Egija da, tratralari logreru, paltso, lapur batzuk itxi oi ditubee ondoren-gentzat ondasunak munduban. Bainan areek bere oi dira euren ta ondo-rengan gatxerako; *quos sahaveris, in gladium dabo.* Lapurraren ondasunak auzitan ta alkaren gorrotuan kastau oi ditubee umiak edo senidiak. Norbera illteko ezpatia dira ostutako ondasunak.

Artu bada, kristinaubak, gogo santu bat, inor engainau bagarik ta inori ezer ostu bagarik, pisu zuzenagaz, neurri zuzenagaz ta kontu zuze-nagaz beti bizi izateko. Orduban Jaungoikuak emongo deutsku mundu onetan biar doguna ta gero betiko zeruba. Alan gura izan dagejala bere ontasun amai bagakua gaiti. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## V. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*nos eta zelan pekatu egiten dabeen agindu onen kontra gurasuak,  
umiak ta otseginak.*

Jaungoikuak emoten deutsku, neure entzula onak, munduban bizi izateko biar doguna. Onen artian kontetan da ondasuna edo eukija. Jaungoikuak emon deuskun ondasuna bakotxari zuzen gordetako da zazpigarren aginduba, zeinek eragozten daben lapurreta guztia. Ta emon deutskuz Jaungoikuak ondasunak, eurakin jaubiak gura dabena egiteko? Ez, kristinaubak. Ondasunak jaubiarenak izan arren, ez dira alperrik galdueteko. Ez dira borondate gaistuari ta gurari txarraia naikua eragiteko. Ez dira Jaungoikuak emondako ondasunak, Jaungoikuaren ondriaren kontra pekatubetan kastetako. Uts egite bi dagoz gauza onetan. Bata, ondasunak larregi maitetutia. Au kodizijotsubena da. Bestia, Jaungoikuak eragotzitako gauzetan ondasunak kastetia. Au ardura bagako kastalarijena da. Bijak dira pekatu, gitxiago edo geijago. Ta geijenian bitzubak austen dabee zazpigarren agindu santuba. Areek, inorena ostubaz. Ta oneek, inori emon biar deutseena eurak gaiski kastaubaz. Lelengen lapurretan zerbaite esanda geratu dira lengo erakutsijetan. Bigarrenak dira orain azaldauko dirianak. Aituten emongo deutsut bada, kristinaubak, doctrina onetan: 1. *Gurasuak nos pekatu egiten dabeen, euren pamelijaren kaltian ondasunak kastaubagaz.* 2. *Umiak zelan pekatu egiten dabeen etxeko eukijaren kontra.* 3. *Otseginak zelan patetan dabeen agindu onen kontra.* Entzun egidazu aimbat gogorik oneenagaz.

### I.

Guraso baten zereginak bere seme alabetarako andijk ta asko dira, neure entzula onak. Gurasuak umiari zor deutseena amaren sabelian sortutent dirianeti, euren aginduban dagozan artian, bai bizitzari jagokazan gauzetan ta bai arimakuetan, erakutsita geratu da laugarren agindu santuban zati bat. Beste zati bat esango da bautismoko sakramentuban. Ta orain bakarrik esango deutsut, gurasuak zer egin biar dabeeen euren umiak emoteko munduban zegaz bizi izan.

Sinistu biar dabee, bada, guraso guztiak euren zeregina dala, ez bakarrik seme alabai exenplu ona, doctrina ona ta konseju onak emotia zerurako bizi ditezan, ezbada baita euren eukijk ta aleginak eskatut恒 dabent eduban, zegaz bizi izan umiak emotia bere. Naturaleziak berak eskatut恒 dabena da au. Orregaiti esaten da umiak zor deutseela gurasuak obeidutia; ta gurasuak umiak zegaz bizi emotia. Berau gaiti gurasuak artu biar dau ardurria ta euki biar dau kontu ona, biarra egiteko, bere etxial, soluai ta basuak edo aziendiari begiratuteko, Jaungoikuak emon deutsazan ondasunak alperrik ez galdueteko ta berak, errazoez ta Jaungoikuaren legia ta konsejubak gordeta, irabatzi al dagijana aurreratuteko. Au umiak daukazan guraso guztiak zorra da. Eginbiar onen kontra pekatu egiten dabee gurasuak.

1. Alpererrijken denporia iragota irabatzi biar leukeena irabatzi eza gaz, pamelijak kaltia daukanian. Nekezarijak nekezarijaren moduban, opizjokuak opizjokuaren moduban ta kaballeruak berari jaokan moduban, guztiak biarra egin biar dabee, euren etxiak janduteko, soinak janzteko ta pamelijari zegaz bitzi emoteko. 2. Pekatu egiten dabee gurasuak, (batez bere emakumiak ta baita gizonak bere emaztari edo umiak parkatut恒 deutseelako) egunian eguniango modetan ta etxeo eukijari ez jaokazan jantzi jetan, pamelijarentzat biar leukeena kastetan dabeeenian. Dendan zorra, konpiterijan zorra, zapatarikuan zorra, leku guztietan zorra, areek pagetako modurik ez ta beti moda barrija ta ez jagokan jantzia soinian. Au pekatu da. 3. Pekatu egiten dabee gurasuak, alperrik izan ez arren, ordikerijetan, joko larregijetan, pekatuko adiskidetasunetan ta bide bagako auzijetan euren dirubak kastetan ditubenian.

Ebanjelijoko seme kastalarijak legez, lagun gaistuakin ta luxurijan kastetan dabee, seme alabentzat gorde biar leukena askok. Zeinbat onako etxegalzaille nasai! Beste batzuk gau bateko jokuan galduen dabee urte guztiko irabatzia edo errentia. Beste askok ordikerijan ta tratu gaistuetan jaaten ditubee euren etxiak. Ta ez gitxik temazko ta bide bagako auzijetan. Zeinbat kaballero, okerrerijetan pobretuta, zorrez beteta, arpegija giza artera ateraten lotsa biar leukela? Zeinbat opizjoko, alober ona irabazten dabeeela ta osasuna daukeeela, beti arlote ta beti nekez, peseta bat dabeeeneko jokuari emoten deutseela ta emaztia ta umiak gosez ta biloxik daukeeela? Zeinbat etxagun ordi, etxiak *konkursanta*, umiak eskerako bidian isten ditubeeela? Geure errrijetan onetarikuak diriana edozeinek daki. Bada, esaten jakue guztiai, zazpigarren agindu santuba austen dabeeela, alpererrijken, jokuan ta okerrerija gaistuetan pamelijak biar leukiana kastetan dabeeenian. Ta ez daukee zetan pensau, ondasunak eurenak ditubee-



la nai dabeena eurakin egiteko. Ondasunak nai gurasuetati etorrijak, nai inok emonak, nai norberak irabatzijak, ez dira pekatuko bidetan ta gaiski eginetan kastetako, ezbada errazoiak ta ebanjelio santubak aginduten daben moduban zabalduteko. Etxia ta etxeko pamelija jagokan moduban serbiduta, gainerakua pobriari emoteko. Ta umiak daukazan gurasuak, bere eginbiarrai kobru emonda, errazoezko ta eukijagazko aginzarrijak ta limosnak eginda, gainerakua umiai zor deutsee. Jakin bada, kristinaubak, alako gurasuak austen dabeela zazpigaren aginduba ta egiten dabeela pekatu mortala, gauza andira eldutene dirianian. Baita seme alabak bere austen dabee zazpigaren agindu santuba. Ikusi daigun zelan.

## II.

Gurasuakin ta gurasuen aginduban bizi diran seme alabak modu askotara pekatu egin legijee zazpigaren agindubaren kontra. *Lelengo*: Alperrerijari emonda, gurasuai biarrian ta euren lanetan lagundutenez deutsenian. Gurasuak etenaz biarrian, umiak azteko; ta ume azijk alpererririan, gurasuen odola txupetan. Zeinbat seme ta alaba alper ta burugintzak dira azita orreetan? Zelan ta nundi bizi dirian inok asko ez daki-jala? Ta auzuak deungaro esaten dabeela? Izen leiteke au gurasuen erruba ta umen pekatuba. Bainaz gurasuen erruba ez bada bere, umen pekatuba da. Ta ez sustrai txikikua. *Bigarrenian*: Pekatu egiten dabee seme alabak, gurasuak agindu deutsen opizijuaren edo ikastian aleginaz ta errazoez den datutenez dirianian. Geijago ikasi legijela ta ikasi biar leukela, ikasten ez dabeenian. Kastau eragiten deutsee gurasuai euren nagitasuna ta ardura gitxija gaiti, biar leukeen baño geijago. Ta au gurasuai ostutia legez da. *Irigarrenian*: Pekatu egiten dabee seme alabak, jan edan larregijetan, joko gaistuetan ta pekatuko ibiltetan ta lagunakin kastetan dabeenian. *Langarrenian*: Gurasoen ixilik, etxetzi laboria, diruba edo beste gauzak ostutien ditubeenian. Gauza jakina da, kristinaubak. Gurasoen ixilik edo gurasuaren errazuazko naijaren kontra umiak etxeko gauzak artu edo kastetan ditubanian, egiten dau lapurretan. Ta gauza andira eldu ezkerro, atzera biurtu biar dau. Aitari eta amari zerbaiztutu pekatu ez dala esaten dabenak, illten dau bere arimia. *Particeps est homicidae*, dino Espiritu Santubak. Beste ainbeste esaten da, senarraren errazuazko naijaren kontra gulerijetan, joko txarretan, moda gaistuetan ta pekatuzko tratubetan kastetan dabentzat emaztia gaiti.

Egija esateko, penagarrija da ta ez etxe gitxitan jazotene dana. Aita bat izerdija darijola dabil bere bizi moduban zerbaiztutu, emaztia ta umiak jandu, jantzi, jaso ta lagun artian bizi izaten iminteko. Ta menturaz, erosita ekarri dabentzat laboreti, edo zorra pagetako ozta batu dabentzat diruti, edo urterako nekez egin dabentzat okela puskati ostu dagijola emaztia edo umiak burugintzarako, gulerijarako, tabernarako edo jokorako? Ostu dagijueta plazarako ta piestarako ta saraurako soineko barrijak egiteko, etxian daukan laboria, diruba edo irabatzia? Ez da au gizon bat jazo lekijon penagarrik andijena? Asko dira bada, kristinaubak, alako seme alaba lapurrik. Ta ez gitxi emazte burugintzak ta etxe galzaillak. Sitsak soina jaten dabentzat legez, kasik sentidu bagarik, etxia pobretutene dabeen amaak ta umiak. Lapurrik dira oneek guztiok Jaungoikuaren begijetan.

Ta ezaututene ete ditubee eurak euren pekatubak? Ez dakit. Gauza bat esan negi. Ta da, guraso alperrak ta ordijk, jokolarijat, tratu gaistuetan emakumekin urte askotan ibili dirianak ta okerreria inpameten etxian saldu, aziendak zorpetu ta umiak pobretu ditubeenak; premina bagako txokolate, arda, merijenda, mizkineria, adiskidetasun ondo pagau ta jantzi sobraubak gaiti etxiarri luur jo eragin deutsen edo kastu andijk egin deutsseen emaztia; ta gurasuen naijaren kontra, edo ostutia, edo alpererririan, edo beste maina txarretan gurasuai kastau eragin deutsseen umiak; oneek, dinot, nekez konpresa oihal dabeela etxeko aziendari ta eukijari egin deutsseen kaltia. Jokolarijat ez dau konpresa oihal pamelija pobretu dabentzat. Emakume ordijk ez dau esango, etxian ostutia edaaten dabentzat. Semiak edo alabiak ez dau esango, urtia ezer ikasi bagarik irago jakona ta gurasuai alperrik kastau eragin deutsseen. Ta ezda etxian ostutako jan gauziagaz, adiskide ez onari merijandia sarri emon eutsana bere. Bada, jakin, neure entzula onak, (onako gauzarik jazo bajatzu, nai aitari, nai amari ta nai umiai) aparteko pekatuba dala zazpigaren agindu santubaren kontra, esan dan moduban etxeko ondasunak kastetia. Pekatu mortala nos dan ta zetaragino dan ta zelan erremedijau biar dozun, esango deutsubee zeuben konpresa jaunak.

## III.

Seme alaben ondorik dira otseginak ugazabai egin oihal deutsseen lapurretan ta kaltiak. Otseginen ordekuak legez dira aloberekuak. Baita moduren batzen erreenterubak bere. Guztientzat balio daikoa dotrina onek. Bada, bata gaiti esaten dana jaoko bestia bere. Otseginen lapurretan aita-



tu zirian laugarren aginduban. Bainaz ez da errazoeti kanpora izango orain barriro esatia.

Onetarako pensau biar dozu, neure entzula onak, begi illunak eta bista laburra daukaguzala, geure paltaak ikusteko. Ta txito zolijak ta argijak, inorenak ikusteko. Itsutasun au gaiti uste dogu bestiak obeto bizi diriala geu baino. Ta artu emona badaukagu inogaz, uste dogu geuk mesede geijago egiten deutsagula ari geure tratubetan ta artu emonetan, berak geuri baino. Alan, otseginak uste dau ugazabari obeto bizi dala, bera baino. Ta bere otsegintzako biarragaz ugazabari obeto juakola, soldatigaz berari baino. Bestetik, ugazabak uste dau mesede egiten deutsala otseginari, etxian eukijagaz. Ta bere etxian legez, ez aurreratu ta ez bizi eginago leukiala beste leku baten otseginak. Aloberekua uste dau, biar geijago egiten dabela alobera emoten deutseen baino. Ta aloberekua daukanzanak uste dau, aloberik erdija bere irabazten ez dabeela. Erreenterubak uste dau, errenta andijegija daukala; ta errentiaz gainera bere ugazabak sarri kansonan dabela. Ta ugazabak uste dau, etxia merke daukala; ta bere erreenterubak ondo bizi diriala edo bizi leitekezala ondo, biarra egin ezkero.

Ara emen, kristinaubak, ugazabari, erreenteru, aloberekua ta otseginen lapurreta askoren asieria. Ta ez kasta onekua. Bada, geijenian ostuten deutssee alkarri konzienziako pena bagarik. A baino geijago berari eruaten deutsalako. Alan aloberekua ta otseginak pekatu egiten dabee zazpigarraren agindubaren kontra: 1. Jagokuen beste biar egiten ez dabeanian. Ta *jagokuena* izango da, eurak deritxuena? Ez, ezbada euren etxian eurentzat egingo leuken edo egin biar leuken tertziuia. Au da errazuazko *jagokona*. Urtiaren asierati amaira otseginak ta aloberekua lapurreta andija egin legijee onetan. 2. Lapurretan egiten dabee, soldatiaz ta aloberaz gainera etxetik ixilik gauzak artutengitzen ditubenian, soldatia edo alober txikiaren atxekian. 3. Pekatu egiten dabee otseginak, etxian euren kontura dagozaren gauzak euren paltaz galduen dirianian. Edo ardura bagarik laarregi kastaubagaz, edo ugazabaren naijaren kontra inori emonagaz, edo inori ostutengitzen. Maiordomo edo etxearena gauzen kontuba daukan otseginak kalte andijk egin legioz onetan ugazabari. Ta bere erruz egin jakozanak jaso biar deutsaz otseginak.

Ugazabak pekatu egiten dau zazpigarraren agindubaren kontra: 1. Etxiak merezidu daben baino errenta andijagua erreenterubari pagau eragiten deutsanian. Ta nok daki etxiak zeinbat balijo daben? Dakijeenak esango deutssee etxe jaubia, erreenterubaren izerdija ostu gura ez badabeari. Luurrak neurtutenean mojoiak ezaututenean jakitia edo geure errijetako *peritu*

izatia uste dot ez dala asko, baseerrrijetan etxialdeko errrentak iminteko. Etxebatek luur modu asko daukaz, oi danez. Biar bardinagaz ta onera bardinagaz bere prutu bardina emongo ez dabeenak. Oneek zeintzuk dirian ta zeta[r]ginokuak dirian peritubak ez daki, oi danez. Auzuaz bizi izan dan nekezari on aitubak obeto daki. Dinot au, kristinaubak, ugazabari askok konzienziiza baketutenean dabeelako, peritubak etxialdeko edo balijotu dabela esanagaz. Ta auzetako nekezari jakitun guztiak dinue, *errenta goria daukala ak etxialdeko*. Bada, balijoti gainerakoa ez da ugazabarena. Oh, zeinbat ugazabari, erreenterubaren odola txupetan dabeenak. Bada, egunen baten pagau biarko da. 2. Ugazabak pekatu egiten dabee, erreenteruba errrentiaz gainera ta alober bagarik biarrian ta beste balio gauzeten kansonan dabeenian. Errreenteruba ez da eskatutenean. Ta ugazabari, sarri kansonan arren, ez deutsa emoten. Ugazabari askok uste dabee, Aprikati erosita eka-rijak diriala euren erreenterubak. 3. Pekatu egiten dabee ugazabari, erreenteriaz pagau ta etxialdeko begiratutenean deutsan erreenteru ona errazoe edo premiana andi bat bagarik etxetik ateraten dabeanian. Kalte andija egin jako erreenterubari. Ta kalte andija egiteko, etxialdeko beria izan arren, errazoe edo premiana andija biar da. Ugazaben prestuezkeria oneztatiko dator erreenterubak ugazabari lapurretan egitia geijenian.

Egiña da, bein tratuba egin ezkero, erreenterubak pagau biar dau errentzia zuzen. Ta ez deutsa ugazabari ezer ostu biar. Alan, lapurretan egiten dau erreenterubak: 1. Tratubetan ta ugazabagaz beraren arteko artu emonetan ugazabari engainenan dabeanian. 2. Ugazabaren basotik iketza, materijala edo egurra salduko edo inori emoteko artutengitzen. 3. Etxiari, soluari, basuari, arbolari ta beste ugazabari erreenterubaren kontura daukan gauzai, beriak balira legez, begiratutengitzen deutsenian. Onan ugazabari egindako kaltiak jaso biar deutsaz erreenterubak. Errreenteru asko dira txito ardura bagekuak ugazabaren gauzeten. Soluak gijau ez, pruta arbolak bat imini ez, leen dagozaren galdu, basuak triskau, ikezgeijak ta materijalgeijak erre edo saldu ta etxe barruba birrindu egin oi dabee erreenteru askok konzienziako pena bagarik. Alako erreenterubak ez dabee etxekiek merezietan. Alkarri egin oi deutssee sarri lapurretan ugazabari ta erreenterubak. Batak modu batera ta bestiak bestera. Bainaz Jaungoikuak batarenak bere ez ditu ontzak emongo.

Gogoratu baina, kristinaubak, dotrina onetan entzun dozuna. Ez aaztu, gurasuak, ze ardura andijagaz kontu egin biar deutssez zeuden umentzat Jaungoikuak emon deutsun eukijiari. Ez da emen esaten kodizioso izateko, (bostgarren aginduban esan zirian onen kaltiak) ezbada esaten da, alpera ta kastalarri ez izateko. Begiratu, umiak, zelan lagundu biar



deutseezun gurasuai, alperrrijan ta bide gaistuetan areek daukena kastau bagarik. Ikasi, ugazaba, erreenteru, alobereko ta otseginak, zeubenagaz naikotutenean, zintzo izaten, inoren gauzijari begiratutenean, biarra egiten ta inoren izerdijaren bildur izaten. Orduban gordeko dozu guztiok zazpigarraren agindu santuba. Eskatu daijogun Jaungoiko zuzenari emon daigula guztioi bere grazija santia, erijotzako orduban bere aurrian agertu gurako dogun zuzentasunagaz munduban bizi izateko. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## VI. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zelan erremedijau biar dan inori aziendaan egindako kaltia.*

Ez da asko, neure kristinaubak, nos eta zelan lapurretan egin dan ta inori eukijan kalte egiten jakon kristinaubari erakustia, zazpigarraren agindu santuba osoz gordetako. Bada, onezaz ostian noraezekua da salbetako, ostuba atzera biurtutia, ta inori eukijan edo aziendaan egin jakon kaltia jasotia. Kasik esan ezin legizan beste dira lapurreta ta inori kalte egite modubak, ta beste ainbeste izan biar dabee kalte jasote modubak. Dotrina labur baterako au kanpo andija dana bakusu, kristinaubak. Aitatu baino besterik ezin legijue. Ostuba atzera biurtu bagarik ta inori eukijan egin jakon kaltia jaso bagarik, inundi al dedilla, pekatuba parkatutenean ez dana ta lapurra ta kaltegina kondenauko diriana, Eleisa guztiaren sinistutia ta era-kutsija da, neure entzula onak. Nundi pagau ezelan bere ez daukanian, (orduban bere inundi al dabean pagetako naijagaz ta gogo osuagaz) edo jaubiak bere guraz ostuba edo kaltia parkatutenean deutsan dago libre lapurra edo kaltegina jaubiari ostuba atzera biurtuteti edo kalte egina jasotetik. Bestetan ez. *Ez da parkatutenean pekatuba*, dino san Agustinek, *atzera biurtu bagarik ostuba edo kenduba*. Berau gaiti dino san Paulok, *lapurrak ez diria zeruban sartuko*. Ostuba biurtuta erremedijetan ez badira, ez dira zeruban sartuko.

Kontu bada, kristinaubak, inos diabrubak tentauta ezer ostu badozu edo inori kalterik egin badeutsazu, gitxitu lua, gitxitu jana, gitxitu soina, gitxitu kastuba, geitu biarra ta erremedijau munduban ostuba, inpernurako itxi bagarik. Guztia ezin badozu, erdiya edo laurena edo al dagizuna. Au da lapurretiagaz edo inori kalte eginagaz kristinaubak bere bizkarrari ezarten deutsan kargia. Karga onetati konpesorek askatu ezin legi lapurra, ez kaltegina. Onetarako esango deutsut ikasikizun onetan: 1. *Lapurrak edo kaltegina nos daukan ostuba atzera biurtu biarra edo jaubiari kalte egina jaso biarra*. 2. *Zelan biurtu biar daben ostuba ta jaso biar daben kalte egina*. Zurtu egizuz, kristinaubak, zeuben zentzunak. Entzun egidazu gogoti. Ta ikasi egizu askotan biar oi dozun erakutsija.



## I.

Kristinaubari aituten emoteko nos jaso biar daben inori ostubaz edo ostian egindako kaltia, izentetan ditu Erromako Katezismuak zortzi kaltegin modu edo lapur modu. Ta dira: 1. Lapurretia agindu dabeenak. 2. Konseju emon dabeenak. 3. Lapurretia ontzat emon dabeenak. 4. Lapurretaan oneria edo probetxuba euki dabenak. 5. Lapurretia eragotzi biarian, eragotzi ez dabeenak. 6. Lapurrak azaldau biarian, azaldetan ez ditubeenak. 7. Lapur estalzailliak. 8. Inorena ostu dabelako lapurra alabeetan edo abonetan dabeenak. Oneek guztiok, bakotxak bere moduban, ezarten deutsee euren burubai ostuba biurtuteko zorra. Ostu dabena bera da lelengo atzera ostuba biurtu biar dabena. Ta aren urrengo dira beste esan dirianak. Kalte egite edo lapurreta modu bakotxa esanagaz aituko dozu, kristinaubak, obeto dotrina au.

*Lapurretan egiteko aginduten dabenak.* Aginduten deutsa aitak umiari, senarrak emaztiari, ugazabak otseginari nai edozeinek bere agindupian daguanari lapurretan egiteko. Bada, ostu dabenaren paltan, agindu deutsanak pagau biar dau ostuba.

*Konseju emoten dabeenak.* Lapurretan egiteko agindu ez arren, konseju emoten badeutsa inori ostuteko edo eragiten badeutsa lapurretan, ostu dabenaren paltan, konseju emon deutsanak edo eragin deutsanak biurtu biar dau ostuba bere jaubiagana.

*Lapurretia ontzat emoten dabeenak.* Bakizu zuk inoren kalteko gauza bat egitera duazana edo lapurretarra duazana beste batzuk. Areen artian bat egi ten zara zu bere. Ta, edo zeure esanagaz, edo zeure eritxijagaz, edo berba eginda, inoren kaltia eragotzi biar zenduban lekuban ixilik egonagaz ontzat emon zenduban besteen kalte egitia edo lapurretia? Bada, areen paltan, zeuk biurtu biar deutsazu jaubiari edo jaso biar deutsazu kalte egina.

*Ostutako gauzatan parte izanagaz.* Ekarten deutsabee gauza ostuba. Ta erosten dozu ostuba dana dakizula. Bada, lapurraren paltan, zeuk pagau biar deutsazu jaubiari edo biurtu atzera bere gauzia. Zaintutenean dozu atia, etxian edo bidia, inok ikusi bagarik bestiak lapurretan egin daginen. Bada, nai pagau deutsabeela ta nai ez deutsabeela zeure nekia lapurrak, zuk pagau biar dozu areen lapurretako kaltia, parte izan zarialako lapurretaan.

*Lapurretia eragozen ez dabenak.* Oneek dira lapurretaak eragoztekoi karguba daukenak, al izan ezkero. Juezak, gurasuak, ugazabaak ta aloberrian inoren gauzak zaintuteko arduria artu dabeenak. Juezaren ardura ta

lotsa txikija gaiti, erremedijau legizala, jazoten dira errijan lapurretaak. Bada, juezaren paltia da ta berak zorko ditu. Gurasuen edo ugazaben paltaz egiten ditubee seme alabak edo otseginak lapurretaak. Bada, areen paltan, gurasuak ta ugazabaak pagau biar ditubee. Letraubak, eskribaubak, prokuradioriak, medikubak edo barberak euren eginbiarretan zor dabeena egin ezaz luzetutenean da edo galduen da auziña ta geitutenean dira kastubak, luzetutenean da gaixua ta geitutenean dira kaltiak ta kastubak. Bada, izentau dirian opizijuetakuak, bakotxak noberari jagokana, pagau biar dabee inori egin deutseen kaltia.

*Lapurretia azaldetan ez dabeenak.* Oneek dira lapurrak nun dagozan ta gauza ostubak nun dagozan dakijeela, juezak juramentubaren beian itanduta, ukatutenean dabeenak edo autortutenean ez ditubeenak. Oneek, lapurrak orduban azaldau ez ditubeelako juezaren aurrian, pagau biar dabee lapurretako kaltia. Otseginak ugazabari kontu emon biar deutsa lapurretan egiten deutseen, jakin ezkero. Baita beste edozein, inoren gauzak gordeetako karguba bere kontura artuta daukanak bere. Ta egiten ez badau, lapurraren paltan, berak pagau biar dau kalte egina.

*Lapur estatzailliak.* Oneek dira lapurrai egon lekuba, armak, janarija edo sokorruba emoten deutseenak. Justizia lapurren ondorik dabilenian, etxian edo kanpuan lapurrak ta gauza ostubak ezkutetan ditubeenak. Gauza ostubak, dakijeela, erosi edo salduen ditubeenak. Logrerijako tratuben eskriturak edo paperak egiten ditubeenak. Guzurrezko testigantziagaz inori kalte egiten deutseenak. Ta beste edozein esanagaz edo eginagaz inori lapurretarako bidia emoten deutseenak. Oneek guztiok, lapurraren paltan, jaso biar dibubee areek egindako kalte guztiak.

*Lapurrak alabetan ditubeenak.* One[e]k dira, nai dala laurretia, nai dala inori beste kalte bat egitia, egitadetzat ta ezertakotzat nor baiti alabauta a kalte egitera ekarten dabeenak. Edo inori kalte egiten ez deutsalako kointautzat ta ezertakoeztzat burla eginda, kalte egitera inor jireetan dabeenak. Bakuszu auzuak daukala bildots on bat ortu on bat edo beste alako gauza on bat. Ta esaten deutsazu bat, *ezertako danak, axe ostu biar leuskiola*. Ostutenean dau zure esanaren gainera. Bada, zuk onerarik euki ez arren lapurreta atia, pagau biar dozu, lapurraren paltan, ak ostuba. Bakuszu egitade doiñor bat zeure lagun bat beste batetik egin deutsana. Ta esaten deutsazu *ezertako eza dala, koitan epela dala, alako prestu ezari alan isten badeutsa*. Bestelan egingo ez ebala, zure esana edo burlia dala medijo, banatutenean dau bere areriju. Bada, jo dabaren paltan, zuk jaso biar dozu aren kaltia.

Ara emen, kristinaubak, esanda nok daukan ostuba atzera biurtu biarra. Ta inori egin jakon kaltia jaso biarra. Lelengo da ostu dabena edo



kaltia bere eskubakin egin dabena. Baita gauza ostuba daukana bere. Oneen paltan dira, lapurretan egiteko edo kalte egiteko agindu dabeenak; konseju emon dabeenak; eragotzi biarrian, galarazo ez dabeenak; azaldau biarrian, azaldau ez dabeenak; atzeratu biarrian, aurreratu ditubeenak; zaintu biarrian, larga ditubeenak; agertu biarrian, ezkutau ditubeenak; ta, dan moduban dala, lapurretiari ta inoren kaltiari aurrera bidia ta laguntasuna emon deutseenak. Onegaz aaztu bagarik aitu egizu, neure entzula onak, zelan egin biar dan kalte jasote au edo zeubek *errestituzinoia* esaten deutsazuna.

## II.

Entzun dozu leen, kristinaubak, al dedilla, ostuba biurtu bagarik edo inori alan egindako kaltia jaso bagarik ez daguala pekatuben parkazinoezik, ez arimako salbazinoerik. Onen ondorik berba gitxitan esaten da, bada, zelan jaso biar dan kalte egina. Lagunari aziendaan edo eukijan egin jakon kaltia jaso biar jako osorik. Ez jako bakarrik atzera biurtu biar ostuba, ezbada baita ostubagaz egin jakozan kaltiak bere. Ostu deutsazu norbaiti zaldi bat. Zaldi aren billa jaubiak kastau ditu eun errial. Bada, zaldija ta eun errialak biurtu biar deutsazuz jaubiari. Zuk konseju emonda artu dau batek, bestelan artuko ez eban auzi bide bagakua. Kastau dau auzitan asko ta kastau eragin deutsa bere auzi lagunari. Bada, auzilarri bijen kastubak ta kaltiak jaso biar dituzu zuk. Zuk guzurrezko testigantzia emonagaz galdu dau batek auzija ta auzijagaz solua edo basua edo etxia edo diruba. Bada, guzurrezko testigantzia emon zendubalako jaso biar deutsazuz auzija galdu ebanari, daukazan kalte guztiak. Zuk ostu deutsazu auzuari anega bat arto soloti, artuak berrogei errial balijo zitubanian. Aren jaubiak pagau biar dau anega arto aren ordia etxerako irudogei errial. Bada, irudogei errial pagau biar deutsazuz, ostu zeuntsan anega artua gaiti. Zuk ostuta urrinera eruan dozu inoren gauza bat. Bada, bere etxian edo artu zenduban lekuban imini biar deutsazu jaubiari, berari ezer kosta bagarik. Onan, kristinaubak, beste lapurreta ta kaltegintza guzietan. Esan dan modu batera nai bestera, ezauberaz ta naiz lagunari kalte egin deutsanak aziendan edo eukijan, berak dauka erruba. Ta bereti adabau biar dau egin daben kalte guztiak, salbauko bada.

Topautako gauzak ez dira topau ditubarenak, ezbada galdu ditubarenak. Alan, zerbait topau dabenak dendatu biar dau jaubia topetako. Agertutenean bidaia, emon biar deutsa jaubiari osorik. Topau ezin

badau jaubia, konpesoriak esango deutsa gauza topaubagaz zer egin biar dabentzat. Bada, beretzat geratutenean bidau gauza topauba, gejagoko bagarik, ostuba legez da. Edo ostuba da, dino san Agustinek. Topau badozu ta biurtu ez badozu, ostu dozu. *Si invenisti, et non redidisti, rapuisti.* Topautako gauza batzuen gainian erreinuko legiak gorde biar dira konzienzijan.

Basuetan egiten dirian lapurretan kaltiak gaiti dotrina luze bat imini legi, neure entzula onak. Ta menturaz euskal errijetarako ez litzateke izango errazoi eta kanpora. Baino onako baso kaltiak errazoezko zuzentasunak eskatutenean legez erabagiteko, nire aitutia txiki ja. Jakituria gejago daukeenak esango dabee zietzago ta argiruago.

Uts egite bi, deritxat, alderatu biar diriala gauza onen gainian, errazoezko zuzentasunari jarraituteko. Bata da *estubegi izatia. Ta bestia da nasai-jegi izatia.* Baso jaube batzuk ta *monteru* esaten jakuen baso-jaole batzuk txito dira estubak. Oneek zotz baten paltia arbola bati ikusi orduko, multa gogorrak ezarten deutseez batie edo batie; al dagjenari. Bizkayko basuai ta jentiarengan gizatasun prestubarri begiratu ezkerro esan legi, alako baso jaube ta baso jaolak bijotz gogorra ta kodizja sikuba aituten emoten dabeela. Karga bat orri edo biurgei bi basuan palta ditubalako, urren danari ezarri bost eskudoko bat edo amarreko bat multa. Eurai ain lege estuba ta kontu estuba artuten badeutsee Jaungoikuak, ez dakit zelan ibiliko dirian azkeneko kontuban.

Bigarrenak dira konzienzija nasaikuak. Euren etxeetan edo basuetan zotz bat ez daukeela, urte guztian etxian biar dabeen egurra, orrija ta materijala inoren basuetati ostuta daukeenak. Onetariko baso lapur asko dagoz. Ta menturaz konpesakuntzat bere artutenean ez ditubee onetariko lapurretaak. Uste dot, bitzubak uts egiten dabeela. Ez dala ain estu izan biar basoko egurren gainian, baso jaube ta baso-jaole asko dirian legez. Ta ezda ain nasai bere, beti inoren basoti ostuta etxian biar dana ekarteko.

Gauza batzuk dagoz kasik jakinak sail onetan: 1. Larria geituteko, basuari su emotia eragotzita dago Bizkayko legian. Ta subak egiten daben kalte guztiak jaso biar dau su emaiiliak edo aren lagunak. 2. Inoren basoti ostutia egurra, iketza edo materijala inori salduteko, lapurretia da, oi danez. Baita egurra ostutia bere, agaz iketza eginda iketza salduteko. 3. Lapurretatzen kontetan da, etxetarako izan arren, asko balijo daben ta auzo guztiak saldu oi dabeen eriko materijala ostutia inoren basoti. Zura, ola, latia... ta beste materijal nausitzat baserritar ondraubak kontetan ditubeenak. 4. Lapurretia legez da, nai egurra, nai orrija, nai beste gauza bat kendubagaz, inoren arbolak galdu edo arboletan kalte jakina egitia.



Onezaz gainerakua erabagiko dabee basoko lapurreta ta kalten gainian, obeto aituten jakuenak.

Gogoratu egizu bada, kristinaubak, zazpigarren aginduko eginbiar santua. Zeinbat arte ta modu asmau dituban alperrerijak, gulerijk ta kodizijak, inorena ostuteko. Ze lege gogorragaz ta zamai asarriagaz era-gozten daben Jaungoikuak inori ostutia ta inori aziendan kalte egitia. Ta ze karga astuna ta pisutsuba ezarten deutsan bere burubari, inorena ostutten dabenak edo inori kalte egiten deutsanak. Au da, atzera biurtu biarra. Kaltia osorik jaso biarra, salbauko bada. Bildurtu ta ikaratu zaite bada, kristinaubak, lapurretiaren beraren izenagaz. Ez inori egin zeubei inok egitia gura ez dozunik. Ez galdu zeuben izerdija; ta ez tiratu inorena. Estimau zeuben eukija; baina ez txupau inoren odola. Alan izango dira zuzenak zeuben tratubak, artu emonak ta pausubak. Ta Jaungoikuak emongo deutsu zeuben izerdijaren ta biar zintzubaren sari ugarija bizitzan ta betiko ditxia zeruban. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren ize-nian. Amen.

## VIII. AGINDUBA

*Non loqueris contra proximum tuum falsum testimonium.* Exod. 20.



## I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Ze ezaina dan testigantza palsua.*
2. *Ze zuzenak izan biar dabeen juezak.*
3. *Zer egin biar dabeen letraubak, eskribaubak eta prokuradoriak.*

Santiago apostolubaren berbak erakusten deutskubee dino, neure kristinaubak, Errromako Katezismuak ze premina andikua dan, ez bakarrak ona dalako, ezbada baita biarrekua dalako bere, zortzigarren agindu santuko erakutsija. *Miinagaz pekaturik egiten ez dabena santuba da*, dino Santiago apostolubak. Baino Apostolubak berak dino miina gaiti: *Miina da gorputzaren zati txiki bat, gauza andijk irakoiten ditubana. Oh, ze su andija! Oh ze mendi andija ixioten daben!* Izanik bada, neure entzula onak, miina, guztien esanian, zein gauza onerako zein txarrerako prest daguana, Jaungoikuaren zortzigarren aginduba da miina ondo erabiltia. Leengo agindubetan zaintu dau Jaungoikuak, entzun dozun legez, bere amodijo ta ondra santubari jagokana; gurasuen ondriari ta inoren bizitzari jagokana; ta gorputzko ta arimako garbitasunari ta inoren eukijari edo azientziari jagokana. Bada, orain zortzigarren lekuban zaintutenean dau Jaungoikuak proximuaren ondria. Ta agindutenean dau: *Ez dozu zeure proximuaren edo lagunaren kontra testigantza guzurrezkorik emongo.* Gauza bi Jaungoikuak eskatutenean deuskuzala agindu onetan, beste agindubetan legez, dino Errromako Katezismuak berak. Bata da guzurrik ez esatia. Ta bestia, oni darraikona, egija esatia. Arrigarritzko jakituria ta zuzentasunagaz alkarri dautsala dago Jaungoikuaren lege guztia. Guztia da zuzena ta garbiña, zerurutz geure gogua ta arimak jasotenean ditubana ta humildiai zentzun andija emoten deutseena, dino Dabid erregiak.

Agindu guztien artian kanporik txikarrena daukana ez da zortzigarren aginduba. Balio andiko gauzia da, Jaungoikuak emen gorde ta zaintutenean deutskuna. Geure ondria, geure pamia. Kasik bizitzia bera baino geijago maite doguna. Ta beste aldeti, inoren kleituba, ondria edo pamia galduko dagozanean legez ainbeste artean moda gaisto, noraezekua da zortzigarren agindubak kanpo andija eukitia. Juezaren aurrian esandako guzurragaz galduen jako geijen proximuri kleituba. Ta au da, lelengo, agindu onek eragozten dabena, dino Errromako Katezismuak. Baita gal-

dutenean jako proximuri pamia, juezaren aurrian ez eze ostian bere. Batzubetan, proximua gaiti guzurra esanda. Beste batzubetan, bera gaiti deungaro esanda. Beste askotan, bera gaiti deungaro entzunda. Ta ez gitxitan, gaiski proximua gaiti juzgauta. Oneek guztiok eragozten ditu, baina, Jaungoikuak agindu onetan. Eragozten dau proximuren kontra testigantza paltzua. Eragozten dau proximuren kontra guzurra esatia. Proximua gaiti deungaro esatia. Proximua gaiti deungaro entzutia. Ta proximua gaiti gaiski juzgeetia. Au guztia da agindu onetan erakutsi biar dana. Ta baita proximuri ondria edo kleituba galduen jakonian, zelan biurtu biar jakon bere. Guztia asipena emoteko esango deutsut erakutsi onetan: 1. *Ze ezaina dan testigantza palsua.* 2. *Ze zuzenak izan biar dabeen juezak.* 3. *Zer egin biar dabeen letraubak, eskribaubak, prokuradoriak...* Ez pensau, kristinaubak, ez dala zeubai juazun dotrinia au. Bada, zeubek izan ez arren eginbiar areetakuak, ondo izango da Zubek jakitia areek zer egin biar dabeen ta zer egin biar ez dabeen. Endamas geure errijetan. Bai, geure errijetan, bide bagako ta balio andi bagako milla auzi gorroto ta kastu andiko egunero ikusten dirian lekubetan. Ez dakit au zegaiti. Ala jentia berez auzilarria dalako, ala inoren auziagaz ondo bizi gura leukeen laurregi dagozalako. Izan leiteke bijak gaiti. Prestau egizu, bida, zeuben gogua entzuteko.

### I.

Guzurrezko juramentuba juezaren aurrian egiten dabenak ze pekatu andija egiten dabenean ta kalte andijk ekarri oihala dituban esan zan, neure kristinaubak, bigarren agindu santurban. An esan zanaren gainera, aitatutenean da barriro emen, artu dagizun guztiok gorroto santu bat testigantza paltzuren kontra. Testigantza paltzuren ezaintasuna ta Jaungoikuak deutsan gorrotua agiri da argiro, neure entzula onak, Jaungoikuaren beraren legeztia. Bada, dino Jaungoikuak: *Jakiten bida inos testigantza paltzua emon dabela batek bere lagunaren kontra, egin bekijo berari berak inori egin gura eutsana. Kastigan egizu, bestiak bildurtu ditezan. Ez egizu erruki izan. Bizitzia galdu gura izan badeutsa inori, kendu berari bizitzia; begija galdu gura izan badeutsa, begija; agina, eskuba edo oina galdu gura izan badeutsa, galdu berari agina, eskuba edo oina.* Au dino Jaungoikuak egiteko, testigantza guzurrezkua emoten dabenagaz. Alan jazo jakuen Susanari guzurrezko pekatuba jaso eutseen agura zaarrat. Ezarri eutseen Susanari guzurragaz arrika illtia merezidu eban pekatuba. Ta jazo zan, Danielek testigantza paltzua agertuta, agura guzurti



bijak jentiak arrika illtia. Beste ainbeste jazo jakon Aman guzurti, paltso, soberbijosuari. Mardoeko gatx bagekuarentzat guzurrez ta enbusterijaz prestauta eukan urkaan, bera urkatu ebeen.

Modu askotara Jaungoikuak erakutsi dau testigantza paltsuari deutsan gorrotua. Sarritan illak biztu ditu, gatx bagekuak libretako ta guzurti paltsuak kastigetako, san Estanislaoen bizitzan irakurten dan legez. Baita sarri testigu paltsuak kastigau bere. San Narziso Jerusalengo obispua jaso eutseen guzur desondragarri bat. Artu zitubeen iru testigu paltso. Lelengua esan eban: *Au egija ez bada, Jaungoikuak erre nagijala. Bigarrenak esan eban: Egija esaten ez badot, egin onik izan ez dagidala.* Irugarrenak esan eban: *Bistiak paltanu dagidala.* Onan juramentu guzurrezkua egin ebeen iru testigu paltsuak. Lelengua, gau baten etxiak su artuta, pamelja guztiagaz erre zan. Bigarrena, biatzetati bururaginoko gatx triste batek artuta, galdu zan. Irugarrenak, lagunen kastiguba ikusita, garbatuta, autortu eban bere guzurrezko testigantzia ta egin eban penitenzia. Baina ak bere negarraren negarragaz galdu eban begijetako bistia ta geratu zan itsututa. Pekatuba damututa, konpesauta bere jadiitxi jakon testigantza paltsuaren kastiguba.

Gogoratu, kristinaubak, pekatu ezaina dala testigantza paltsua. Txito gorroto andija deutsala Jaungoikuak. Testigu paltsuak desondretan dabela Jaungoikua, beste leku baten esan zan legez. Engainenetan dabela jueza, guzurra sinistu eraginda, juzgu okerra emotera dakarrelako. Kalte egiten deutsala proximua, kleituba edo aziendia edo bizitzia galdu eragiten deutsalako. Baita erri guztiari bere, gatx bageko erritar on bat, deungatzat kastigau eragiten dabelako. Jesukristo geure Jauna illteko bere testigu paltsuak biar izan zirian. Oh, ezautuko balebee kristinaubak ondo ze pekatu andija dan testigantza guzurrezkua! Baina ikusi daigun juezak ze zuzenak izan biar dabeen.

## II.

Ez da orain nire ustia, kristinaubak, erriko buru edo juez baten egin biar guztiak esatia, ezbada bakarrik zortzigarren agindubari jagokana. Jueza dan legez ta lagun artian oi dirian *ezdabaidaak* erabagi biar dituban legez, zer egin biar dabentzat esatia da oraingo saila.

Esaten jakue, bada, Espiritu Santubagaz juez guztiai, norbait juzgetan dabeenian *ez* dabeela gizonaren eginkizuna egiten, ezbada Jaungoikuarena berarena. *Videte, quid faciatis, non enim hominis exercetis iudicium, sed Domini.* Ez dau, bada, euki biar, Jaungoikuaren lekuban edo tro-

nuban jarrita lagunaren bizitzaren, ondriaren edo aziendiaren gainian erabagija emotera doian gizonak adilla edo entendimentu argija ta zurra, borondate edo nailla arteza ta ondrauba, bijotz garbia, irabatzi gura bagakua ta zelo santukua, errazoiaren ta legiaren maitetasun bizija ta, dan moduban dala, egijari, errazoiari ta legiari jarraituteko opa ona! Baietz esan legi, kristinaubak.

Orregaiti, Jetrok esan eutsan Moisi juezak iminteko, gogoratu eutsan zelako gizonak artu biar zituban jueztat. *Imini egizuz jueztzat, esaten deutsa, jente guztien artian billatuta, kodizijiarik ez daukeen, dirubaren gurarrak ez daukeen, egija maite dabeen ta Jaungoikuaren bildur santuba daukeen gizon jakitunak, juzgan edo erabagi dagjezan jenten arteko ezdabaidaak.* Zentzun ona edo jakiturija, kodizija usainik eza, egijaren amodijuia ta Jaungoikuaren bildur santuba biar ditu juezak, erabagija ondo emoteko. Au gaiti aginduten deutsee Salomonek juezai, ikasi dagjeela zuzentasuna, errijak juzgetako. Entzun egizu, juezak, dino, Jaungoikuak emon deutsu bestiak juzgetako eskubidia. Bada, berak artuko deutsu zeuben erabagijen kontuba. Berak aztertuko ditu zeuben bijotzetako naijak. Bada, izanik bere ordekuak jentia zuzenduteko, ez dozu zuzen juzgau, ez dozu lege santuba gorde ta ez dozu Jaungoikuaren borondatia egin. Orregaiti dino Salomonek berak, *munduban andi dirianak, pena andijk irago biarko ditubee.* Esango baleu legez: Juezak jaso ditu Jaungoikuak bere lekuragino. Egin ditu beste gizonen artian txito andi. Baina ez badira juez zuzenak ta onak, gero irago biarko ditubee pena andijk. *Potentes potenter tormenta patientur.* Enterro kontu gogorra, dino, artuko jakuela juezai. *Juditium duris simum.* Ta Isaias propeta santubak esaten deutsee juez okerrai: *Zorigaistokuak ta madarikatubak zara diruba gaiti gaiskina askatu dozunok ta erru bagia katiatu dozunok.* Zorigaistokuak ta madarikatubak zara pobria, alarguna ta ume zurtza estututeko ta nekatuteko lege gaistuak edo erabagi okerrak emon dituzunok. Onan Jaungoiko, guztien Juezak, berba egiten deutsee luurreko juezai.

Lau gauzak juezak okertutenean ditubala, esaten eban san Isidorok. Edo kodizijak, edo bildurak, edo amodijuak, edo gorrotuak, edo guztiak. Kodizijak edo diruba artuteko ustiak luzatu ta okertu eragin eutsan Felix juezari san Paulo erru bagiaren gaineko erabagija. Bildurak okertu eban Pilatos jueza. Ta ill eban Jesus errubagia. Amodijuak okertu eban Herores. Ta ebaki eutsan samia san Juan Bautistari. Gorrotuak oketu zituban Anas, Kaipas ta beste Judeako juezak. Ta kondenau ebeen Jesus, Bildots mansua. Zeinbat onetariko juez oker agertuko ete dira, guztien erabagija Jaungoikuak emoten dabentzat! Esaten jakue, bada, juez guztiai



Moisek beriai esaten eutseena: *Egijezu guztiai erabagi edo juzgu zuzena*. Nai dala erbestekua, nai dala errikua. Nai dala senidia, nai dala atzia. Nai dala adiskidia, nai dala arerijua. Nai dala pobria, nai dala aberatsa. Juzgau egizuz guztiak legiagaz bardin. Ez egijo zu begiratu sentenziak emoteko, noren auzija dan edo nor katiatutera edo askatutera zuazan, ezbada nok errazoia daukan ta legiak zer dinuan. Orduban egingo dozu, juezak, Jaungoikuaren juizijua. *Quia Dei judicium est*. Juezen urrengo dira letraubak, eskribaubak, prokuradoriak ta baita ez gitxitan bitartekuak bere. Ikusi daigun zer egin biar dabeen.

### III.

Juezak auzijaren erabagia emoteko jakin biar dau nok daukan errazoia. Au jakiteko balijetan da testigubakin. Areek zer dinuen jakiteko, eskribaubakin. Ta areen esanak legiagaz neurtureko letraubakin. Auzilarrijak artutenean dau bere laguntzat norbait. Ta oni esaten jako *prokuratoria*. Onek, alegin guztiagaz begiratuta, zaintu biar dau bere partiaren errazoia juezaren aurrian. Onei darraikuez, oi danez, auzi guztietan enpeñubak ta bitaartekuak alde bijetati. Ez, geienian, errazoia agertuteko ta zuzenduteko, ezbada dan moduban dala, auzija irabazteko. Ara emen, kristinaubak, ze mendi gatxa, altuba ta aldapatsuba irago biar dabentzen auzijaren errazoiak, juezak erabagia emotera orduko. *Errazoia dawkat ta ezin atan itxi negijo*, esaten dozu, auzilarria. Baina zure errazoiak esi asko irago biar ditu. Buru askotan sartu ta urten egin biar dau. Ta bakotxian zati bat kenduten badeutsee, ze etxuragaz elduko da juezagana? Ta agan beste zati bat galduen badau, zetan geratuko da zure errazoia sentenziara orduko?

Ah, auzilarrijak! Zeinbat bidar, letraubak edo eskribaubak errazoia zeunkala esan eutsun auzija galdu dozu? Ez eutsun esan errazoia zeunkala? Ez zeuntsan pagau alobera? Ez zenduzan topau enpeñubak erregalubakin? Zelan, bada, galdu dozu errazoezko auzija? Ah, kristinaubak! Zuri, auzitan asteko, errazoia zeunkala esan eutsubeenak izan leitekeez ez gitxitan, zure auzija galduera egin dabeenak. Eurak dira, ez gitxitan, zuri auzitarako gogoa emon deutsubeenak. Ta bein auzitan zu imini ezkerro, zeintzuk auzija irabazi zein galdu ardura ez deutseenak. Ojala onan ez balitz auzilarri askogaz!

Baina zer egin biar dabee, izentau dirianak euren eginbiarretan utsik ez egiteko? *Lelengo* egin biar dabeena da: Errazoc bagako, tema utsezko ta

gorrotozko kereillarik edo auzirik ez artu bere kontura. Baki letraubak, eskribaubak, prokuradoriak edo enpeñubak eskatutenean bengaiz edo gorrotoz errazoe bagarik auzitara doiana. Bada, au dakijala ari aurreira bidia emoten badeutsa ta aren saila artutenean badau bere kontura, sail atako kalte ta pekatu guztiak duaz bere gainera. *Bigarrenian*: Itandu ezkerro inok, onako edo alako gauzatan eskubidua edo errazoia daukan edo ez, erantzun biar deutsa letraubak edo atariko opizjokuak dakian moduban, bere saila balitz legez, zuzen. Edo esan, itandu dagijola obeto dakianari. Au egiten ez dabentzen emoten dau testigantza paltsua ta kalte andikua. *Irugarrenian*: Bein errazoezko inoren auzija bere kontura artu ezkerro, zaintu biar dau alegin guztiagaz ta legiak eskintzen dituban medio guztiak. *Langarrenian*: Ez letrauk, ez eskribauk, ez prokuradorek ez deutssee entzuterik emon biar ez enpeñubari, ez bitartekuari, ez erregalubari, ez dirubari euren kontura daguan auzi zaintzaan bigunduteko, laututeko edo errazoiaren indarra makalduteko, auzija jaokanaren nai agirria bagarik. *Bostgarrenian*: Ez dabee eskatu biar ez artu biar, legez jagokuen baino alobet geijago.

Oneek dira, kristinaubak, zeregin atarikuen noraezeko eginbiarrak. Ostian austen ditubee zazpigaren ta zortzigarren agindu santubak. Ta askotan geijago bere bai. Ez dakit, kodizjak leku larregi ez ete daukan euren bijotzetan. San Bernardok esaten beebarra letrau, eskribau ta prokuradorek gaiti, *eurak diriala miinai guzurra esaten erakutsi deutseenak; txito zurrak, justizi ja austeko; txito jakitunak, guzurrari egijaren etxuria emoteko ta gatx egiteko*. Kasiodorok esaten badau, *eurak diriala bein kereiliagaz doianaren poltsiari usain egin ezkerro, Argok baino begi geijago daukeezanak; Brearioren esku tegia ta tripa tegia daukeenak; Simonen enbusterija darabileenak; Laomedonen juramentu paltsuak egiten ditubeenak; Polimestoren kodizja ta berba salzeiak dankeezanak; Ulijen astuzijak dankeezanak; Pimalionen sakrilegiuak egiten ditubeenak...* Euren isilik egotia bere, dino, pagau biar dala; ta euren miinak bere kaltegarrijak diriala, *zidarrezko arrijagoz lotutzen ez badira*.

Onetarikuak izan ezkerro letrau eskribaubak, zeinbat kalte egin legijen errijetan esaten ez da erreza. Alperrik errijak ta pamelijak naiko dabee bakia. Eurak irakoiko dabee gerria, auzija ta naastia. Jazo leiteke, kristinaubak, geure errijetan alako papergintzako okerrak ez egotia. Baina nik esaten deutsudana da, letraubakin ta eskribaubakin balijetako, arako ill edo biziko botikakuagaz medikuba edo osalarria balijetan dan legez. Beste erremedijorik ez daukanian, nora ezian emoten jako gaixuari ill edo biziko botikakua, esan oi danez. Beste ainbeste, kristinaubak. Zeuben bizitzia, aziendia edo kleituba jasoteko, (ta oneek bere gauza andija danian) beste



medijorik ez daukazunian, nora ezian, azkenengo azkenengo eskribauaren etxera, auzitan asteko. Ta orduban bere bideti etxera biurtuta, kontubak obeto ateraten badituzu auzitan astera orduko, nekez garbatuko jatzu.

Eskatu daijogun Jaungoikuari, bialdu daigula zeruko espiritubagaz geure arimetara zuzentasuna, prestutasuna ta egijaren amodijua. Bialdu dagijuela juez guztiai bere argi santuba, errazoia ezaututeko, ta zelo santuba, legia gordetako. Bialdu dagijuela auzigintzako paperdunai bere bildur santubaren golpe oso bat, berbak zuzenak, atzamar oskolak laburrak ta bijotza Jaungoikozkua erabili daijen euren arrisku andiko eginbiarretan. Alan gura izan dagijala zerubak bere miserikordija andija gaiti. Aitiaren, Semиaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dan guzurra esatia. 2. Ze pekatu dan.*

### I.

Zortzigarren agindu santuban eragozten deutsku, neure entzula onak, Jaungoikuak guzurra esatia. Guzurra esatia, dan moduban dala, beti da testigantza paltsua emotia. Ta au eragotzita dago Jaungoikuaren legian. Zer da, bada, guzurra esatia? Guzurra esatia da, dino san Agustinek, *inor engainetako ustiagaz, goguaz bestera gauzia esatia*. Zerbait oker esatia ta guzurra esatia ez dira bat. Gauzia oker esan arren, esaten bada noberak deritxon edo uste daben moduban, ez da guzurra esaten. Bainan gauzia esaten azertau arren, goguaz bestera edo noberak deritxonaz bestera esaten badau, guzurra esaten dau Jaungoikuaren aurrerako. Berbia ta gogua edo jakina bat egiten ez dirianian izaten da guzurra. Bainan ez, berbak ta ustia bat egiten dirianian. Au ondo ezaututa euki biar dabee kristinau gitxi jakinak. Bada, askotan guzurrik esan bagarik, uste dabee, guzurra esan dabee-la. Gauzia oker esan ezkerro, pensetan dabee beti dala guzurra. Uste dau batek gaur jai eguna dala. Ta esaten dau: *Gaur meza entzuteko eguna da. Bada, aste eguna izan arren gaurkua, ez dau ak pekatuzko guzurrik esan, bere orduko jakinagaz ta ustiagaz berbak bat egin ditubalako*. Ta berbiagaz zuzen esan arren gauzia, eritxijaz ta goguaz bestera esaten badau, guzurra esaten dau. Uste dau batek gaur meza entzuteko eguna dala. Ta berak ainzat euki arren, esaten deutsa beste batiz ez dala meza entzuteko eguna. Bada, aste eguna izan arren gaurkua, esaten dau guzurra, goguaz ta ustiaz bestera berba egin dabelako inor engainen gaiti. Egijja da, alan ez jakinez gauzia orker esaten danian, balijoko gauzia bada, jakin ezkerro, atera biar da laguna uts egititi. Esan deutsazu ez jakinez ta uste onian lagunari meza egunian, ez dala meza eguna. Ez dozu pekaturik egin. Bainan kontuban jausten bazara meza eguna dana, bestiak mezia entzun legijan tertziuan, atera biar dozu uts egititi, meza eguna dala esanda. Onan beste balijoko gauza guztietan, erremedijau al dedin artian, kontuban jausi ezkerro oker esan ebana.



Iru guzur kasta erabagiten ditubee erakuslak. Ta dira: *Lelengo*: Barre egiteko edo eragiteko guzurrak. Beste atsekabarik edo kalterik inori ekartzen ez deutseenak. *Bigarrenian*: Noberari edo inori mesede egitia gaiti beste gatx bagarik esaten dirianak. Etxeko bakia gaiti, inoren palta bat eskutetia gaiti, norberaren premina ordu bat ez autortutia gaiti, daukan gauza bat ez emotia gaiti... ta onan beste guzur asko esaten dira zerbaiten onerako, inoren kalte bagarik. *Irugarrenian*: Inoren kaltiagaz esaten dirian guzurrak. Edo kleituban, edo ondran, edo aziendan, edo kardinian lagunari kaltia egiten jakola ta gatxa baino ez daukala esaten dirian guzurrak dira irugarren kastakuak. Ez aaztu bada, kristinaubak, iru guzur kasta oneekin, guzurra ze pekatu dan ezaututeko. Ta entzun egidazu gogo onagaz.

## II.

Ezin ukatu ginai, neure entzula onak, guzurra dala errijetako ta lagun arteko sinistute ona galduen dabena. Sospetxa gaistuak geituten ditubana. Giza arteko artu emonai kleituba ta prestutasuna kenduten deutseena. Esan guztiak dudan ta eritzian iminten ditubana. Gorrotuak ernetan ditubana. Ta jente guztia naastetan daben okerrerrija da guzurra. Au gaiti dino Espiritu Santubak, *desondra ezaína dala guzurra kristinaubaren anan*. Aoko berbiaren bitartez alkarri aituten emoten deutsagu geure goguan daukaguna, geuk dakiguna edo ez dakiguna, nai gendukiana edo nai ez gendukiana. Bada, geure laguna engainauko ez badogu ta testigantza paltsua lagunari emongo ez badeutsagu, nai ta nai ez esan biar dogu gauzia dakigun moduban. Edo ez badakigu, ez dakigun moduban. Nai dogun moduban. Edo nai ez badogu, nai ez dogun moduban. Onan geure ariaman, geure goguan edo bijotzian daguan moduban gauzia esaten ez deutsagunian lagunari, engainenetan dogu laguna.

Ara emen guzurraren malezija edo gatx guztia. Ta zeinbat geijago esaten dirian guzurrak, ainbat engainu geijago lagun artian. Ta guztiak esaten badabee guzurra, guztiak dagoz engainaute ta guztiak alkar engainenetan. Orduban bizi dira gizonak eta emakumiak, alkarren berbak eta goguak inos bat egiten ez diriala. Inos alkar aitu ezin dabeela. Ara guzurragaz ze injuriya egiten deutsagun, berbia emon eutsun Jaungoikuari. Ta zelan engainenetan dogun laguna. Au gaiti Jaungoikuak eragozten dau guzurra esatia. Baita errazoiaren argijk berak bere. Bada, bere agiriz da oba izango zala gizonak eta emakumiak berbetan ez jakitia, berbetan jakinda

berbiagaz alkar engainenetia baino. Berbetan ez bagenki, ez gendukez geure lagunak berbazko guzurragaz engainauko. Esan biar dogu bada, kristinaubak, berba egiten dogun guztian egijja.

Badakizu, neure entzula onak, nundi datorren guzurra? Ta zein dan guzurraren aita? Bada, san Juanek esaten deutsku, diabrubia dala guzurtija ta guzurraren aita: *Diabolus es mendax, et pater ejus*. Diabrubia da guzurtija beti guzurra esaten ta inor engainenetan diardubalako. Diabrubia da guzurraren aita, lelengo guzurra berak esan ebalako. Diabrubak esan eban lelengo guzurra. Esan eutsan Eba, guztion amari: *Jaungoikuak paradisuban Adani ta berari eragotzi eutseen prutia jan arren, ez ziriala illgo*. Ta ez zirian ill? Bai. Bijak jan ebeen prutia. Ta bijak ill zirian. Diabrubaren eskolakuak dira, bada, guzurti guztiak. Diabrubia da guzurraren ta guzurtijen aita. Eskola madarikatu atari urten dau giza artera guzurraren aizi gatxtsubak. Ta zabaldu da mundubaren baztar guztieta. Ya esan legi Oseas propeta santubagaz, ez daguala luurraren gainian egijiarik. *Non est veritas in terra*. Berba deungaak ta guzurrak ondatu dabeela guztia. *Maledictum, et mendum [...] inundaverunt*. Aberatsak ta pobriak, andijkak ta txikijkak, gurasuak eta umiak, zaarrak ta gaztiak, jaun dirianak ta ez dirianak, ume konduetaraginoko guztiak, esan legi, lelengo ikasten dabeena dala guzurra esatia ta inor engainenetia. *A propheta usque ad sacerdotem cuncti faciunt mendacium*. Oh, okerrija inpamia! Ze gorrotua izan biar deutsagun!

Ta itanduten badau inok, ia beti dan pekatu guzurra esatia, erantzuten da baietz. Ez dabela inok inos guzurrik esan, Jaungoikuaren ta naturaleziaren legia ausi bagarik. Berez da gauza txaarra guzurra esatia. Ta beti da pekatu. Ezin guzurra esan legi pekatu egin bagarik, ez kleituba gaiti, ez ondasunak gaiti, ez bizitzia gaiti. Ezda erru bagako bat urkati libreetia gaiti bere. Ezda kondenau guztiak salbetia gaiti bere. Ezer gaiti bere ezin esan legi guzurra, pekatu egin bagarik Eleisa Ama santiaren sinistutian ta santuben erakutsijan. Emeti agiri da, kristinaubak, orrako berban berbango guzurtegijori guztiok ta bakotxa diriala pekatubak. Alperrik da esatia: *Guzur txikijkak esan nituban; ez zirian inoren kaltekuak; bakia gaiti esan neban; barre egiteko esan neban; txantzaan esan neban...* Dan moduban dala, guzurra da? Bada, pekatu da. Bainan ze pekatu da guzurra esatia?

Gitxienaz pekatu txikarra edo beniala beti. Ta sarritan pekatu andija edo illgarrija. Izango da guzurra pekatu txikarra edo beniala: 1. Jaungoikuari ta pedeko gauzai injuriarik egin bagarik ta lagunari edo proximari ezetara bere kalterik egin bagarik ta egiteko uste bagarik esaten daniñan. 2. Guzurragaz lagunari egiten jakon kalte agirija eskina guztietai txikarra edo gitxija daniñan. Dinot, *eskina guztietai begiratuta gauza txikarra*



*danian.* Bada, guzurrak gauza gitxija iruri arren, emon legijo guzur txikijagaz lagunari lotsari andija edo susto andija edo nai bage andija. Orduban izango da txiki dirudijan guzurra pekatu andija, ezauberaz bada.

Alan, txantzan ta barre egiteko izan arren bere, pekatu mortala da, geijenian, guzurra esatia pedeko egijen kontra, Jaungoikuaren, Jesukristo geure Jaunaren ta Ama Birjina guztiz santiaren ontasunen kontra, meza santubaren, komuninoeko ta konpesinoeko sakramentuben, zerubaren, arimiaaren ta beste gauza santuben kontra. Onako gauza altuben ta sagraduben kontra guzurra esatia, inor engainenako edo gauza santubai barre egiteko, Jaungoikuari berari injurija andija egitia da. *Bigarrenian:* pekatu mortala da guzurra esatia, proximuarri nai aziendan, nai kleituban, nai ondran, nai bakian, nai adis kidetasunian, nai osterantzian kalte andija edo atsekaba andija egiten jakonian. Kalte andija inori etorri legijon guzurra esan ezkero ezauberaz, gero kalte a jazo ez arren, izan leiteke guzurra pekatu mortala. Ezkontza bat egitia jazoten da. Esaten dozu zuk ezauberaz guzur bat nobijo edo nobija gaiti, zein dan asko eskontzia galdueteko, juakonak jakin edo entzun ezkero. Bada, ezkontza a galdu ez arren, egin dozu pekatu mortala. Zure partez galdu zan ezkontza a. Ta egin zeuntsan kalte andija lagunari guzurra esanagaz.

*Irugarrenian:* Guzurra berez gauza andija izan ez arren, izan leiteke pekatu mortala, edo personiaren parteti, edo guzur geijaren parteti. Juez ondrau baten, kura jaun baten, sazerdote baten edo relijioso baten kleitu onaren kontra guzur bat esatia berez andija irudi ez arren, izan leiteke pekatu mortala. Bada, alako persona sagraduben ta ondraduben pamia guzur gitxiaguagaz gauza andijan galduen da, beste edozeinena baino. Ta lasterrago guzurragaz pekatu egiten da, alako personen kontra esaten danian. Beste ainbeste, asko lotsatuteko guzurra esaten bajako arpegiyan persona lotsa ta kleitu oneko bat, txikija iruri arren, izan leiteke pekatu mortala, lotsaari andija emon jakolako guzurragaz. Onestidadiagaz ta kleitu onian bizi dan emakume edo neskatilla bat gaiti esatia guzurragaz kolorriak arpegira ateraten deutseezan azalkerijaak ta lotsagarrijak, burlaz ta txantzan izan arren, askotan izango dira pekatu mortaleko guzurrik, lotsari andija emoten jakolako guzurragaz persona ondraubari.

Alan oi dira lagun artian gizon ta emakume kleitu andi bagako asko. Alkarri kinu eginda, aurrian dagozan persona ondraubai guzur minberak ta lotsarizkuak esaten deutseezanak. Geijenian eurak dira berdiak ta eltzakak. Eurak dira alako palta agirijak daukeezanak. Ta badago euren artian norbait, euren palta jakinak ez daukananik, ari ekiten deutsee milla lotsarizko guzurregaz, jentiarri barre eragiteko. Onako jentia ez da bakarrik

konzienzia nasaikua, ezbada baita bijotz doilorrekua ta erne prestu eze-kua bere. Oh, zeinbat onetariko, lagun artian egotia merezidu ez dabeen daukazan luurrik bere gainian! Endamas denpora triste oneetan. Asko da kristinai batek zuzen bide puska bat artutia, pekatubari ta pekatuko lagunai ta okasinoiari largatia, nosbaitako baten sarrijago konpesetara, sermo- etara edo eleisaruz juatia, lagun arte baten mila guzur lotsarizko ta burla minbera ari esateko ta ezarteko. Zegaiti au? Larga dagijon salbetako bidia- ri ta biurtu dedin guzurtijen bide ta biziera nasaira. Ez da au diabrubaren beraren zeregin? Duda bagarik, kristinaubak.

Jakin bada, neure entzula onak, zeubek gauza gitxitzat daukazuan guzurrak askotan izango diriala pekatu mortalak. Ez pensau barre egiteko dala. Ez dau Jaungoikuak ontzat emoten lagunaren lotsarizko ta santi- dadiaren kontrako barrerik. *Guzurra esaten daben anak illen dau arimia,* dino Espiritu Santubak. *Guzurtijai gorroto deutseela Jaungoikuak. Guzurtijen amaija azuprezko laba gorria izango dala.* Oneek ta beste onako esanera asko dagoz Eskritura Sagraduban guzurraren ta guzurtijen kontra. Pekatu mortalez- ko guzurrak gaiti dira oneek. Bainan entzun dozu, danik guzurrik txikarre- na bere pekatu dala. Ta ezer gaiti bere esan biar ez dala.

Begaz, esango dozu, beti esan biar dogu egija? Begaz, esan biar ez dan gauza bat inok itanduten badeusku bere, esan biar deutsagu? Ez, neure entzula onak. Ez dozu olan aitu biar dotrina au. Gauza bat da guzu- rra esatia. Ta beste bat da egijja ez esatia. Guzurra esatia beti da pekkatu. Egijja ez esatia askotan da biarrekua. Kristinai asko dira txito jakin gurak. Ezer bere ez juakuen gauzak jakin artian, beti itanduten dagozanak. Alako ez juakon itaunliari ez guzurrik erantzun; baina ezda egijjarik bere, berak nai leukian moduban. Dakiguna dakigun moduban beti esateko legerik ez daukagu. Askotan ixilik euki biar dogu dakigun gauzia. Orduban inok itanduten badeusku alago gauzia, ez erantzun. Jesukristo, geure Jaunari gauza asko itandu eutseezan Anasek, Kaipasek ta Pilatosek. Baina ez eutseen erantzun areen itaune guztiak. Samuelek, Dabid errege egitera juan zanian, zer egitera joian itandu eutseenai ez eutseen erantzun, Dabid errege egitera joianik, ezbada Jaungoikuari sakripiketara joiala. Dabid Errege egitia zan orduko Samuelen zeregin nausija. Baina a ixilik eukita, bidezko zereginha egitera joiala esan eutseen. Mo[i]sek ez eutsan inos esan Paraoni, Ejitoti jentia aterata atzera biurtuko ez zanik, bere uste ta lan guztiak atarako izan arren. Iru eguneko bidian juan biar ebala bere jente guztiagaz Jaungoikuari mendijan eskinija egitera, esaten eutsan Paraoni. Ta atzera biurtuko ez zana ixilik euki. Juditek beste ainbeste egin eban Olopernesagaz. Oneek guztiok egija erantzuten ebeen. Baina ez batek



bere itaunlak jakin gura eukeena. Areek jakin gura eukeena ixilik euki; ta arei balijo ez eutseena erantzun, egin ebeen Moisek, Dabidek, Samuelek, Juditek ta beste askok.

Au berau esaten da bada, kristinaubak, egin biar dala alako ordu estubetan. Guzurrik esan ez, egijiarik bere ez, ez juakonak nai leukian moduban edo egija esanet i gatxa etorriko dan orduban. Erantzun orduban beste gauza bat, egija dana ta gatxik ez dakinarena. Ta ez guzurrik esan ezer gaiti bere. *Nec prodam, nec mentiar*, dino san Agustinek. Juezak itandu ezkero, beti esan biar da egija dakian moduban, bigarren agindu santuban erakutsi zan legez. Gogoratu bada, neure entzula onak, zer dan guzurra esatia ta ze kasta gaistoko pekatuba dan. Artu zeuben bijotzetan guzurraren gorrotua ta egijaren amodijo bizija. Oitu beti egija esatera, zeuben kontra bada bere. Eragotzi txikitati zeuben umiai ta otsegina guzurra esateko ekandu galdua. Ez barre eginda ontzat emon lagunen burlazko ta lotsarizko guzurrik. Gomutatu, bijotz ondraubaren ta prestubaren senailia dala beti egija esatia. Ta bijotz erkindubaren, luurtubaren ta ondra bagakuarena dala guzurra esatia. Gomutatu diabrubia dala lelen go guzurra esan ebana ta guzurraren aita. Ez aaztu, guzurragaz etsaijak atera zitubala paradisuti geure gurasuak. Ta guzurraren arerijua dala egija, zein artu eban Jesus geure Salbazaile maitiak bere izentzat. Neu nas *egija*, dino Jesukristok. *Ego sunt veritas*. Izan gaitezan, bada, guztiok Jesusen semiak, bautismoz garian legez, egija esaten bere. Erakutsi daigun geure berba guzietan, egijaren semiak gariana. Orduban duda bagarik librauko gara pekatu askotati, bai txikijetati ta bai astunetati. Orduban maitetuko gaitu Jaungoikuak geure berbetako zuzentasuna gaiti ta bialduko deutskuz bere grazija ugarijaka. Orduban Jesusek ezautu ta autortuko gaiti bere semetzat Aita zerukuaren aurrian. Orduban geure lagunak emongo deutskubee entzute ona ta sinistute ona giza artian. Orduban, azkenik, miinagaz pekatutik egin ez dogunian izango gara santubak, san Juanek dinuanez. Alan gura izan dagijala Jaungoikuak bere zuzentasun neurri bagakua gaiti. Amen.

### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zelan pekatu egiten dan inoren paltak esanagaz edo inor gaiti deungaro esanagaz.*
2. *Nos ez dan pekatu inoren paltak esatia.*

Salomonek esaten dau, neure kristinaubak, erijotzia ta bizitzia dagozala miinaren eskuban. *Mors, et vita in manu linguae*. Esan gura dau, miinagaz emon legijola gizonari bizitzia ta baita erijotzia bere. Miina ongilla andija da, ondo erabili ezkero. Baita gaiskin andija bere, gaiski erabili ezkero. Askori mesede andijk ekarri deutsaz miina ondo erabilijk. Apostolu santuben miinak duda bagarik izango dira zeruban gloriaz apaindubak. Beste askori ekarri deutsaz kalte andijk. *Lingua imprudentis subversio illius*. Esan begije inpernuban dagozan hereje ta gaiski esalak, ze sarija ekarri deutseen miinak. Juezaren aurrian testigantza paltsua emotiak ta guzurra esatiak ze etxura ezaina dakeen entzun dozu, kristinaubak, leengo erakutsijetan. Bada, orain esango deutsut: 1. *Zelan pekatu egiten dan inor gaiti deungaro esanagaz*; 2. *Nos ez dan pekatu inoren paltak esatia*. Ez dago inor bere, kristinaubak, muturen bat ez bada, miina erabilten ez dabenik. Berau gaiti, ezda dotrina onen ikasi biarra ez daukanik bere. Alan eskatuten deutsut guztioi, imini dagizula aimbat eutzunerarik oneena zortzigarren aginduko erakutsi oneetan. Batez bere gaurkuan ta geroko domeekakuan, zeintzubetan berba egingo deutsudan zeubek murmurazinoia esan oi deutsazun pekatu inpamiaren gainian.

### I.

San Juan Krisostomok esaten deutsku, neure entzula onak, *ate bigaz itxita emon eutskula Jaungoikuak miina, lasterregi edegita, berbareni bat gaiski esan ez daigun*. Begijk zabalki emon eutskuzan Jaungoikuak, ikusteko. Belaarrjak bere bai, entzuteko. Suurra bere bai, usain egiteko. Eskubak ta oinak bere bai, oratuteko ta pausu egiteko. Ta izanik miina ainbeste bidar biar doguna, au emon eutskun ate bigaz itxita, aginakin ta ezpanakin



barrututa. Ate bijak edegi biar dabee lelengo, miinak berba egingo badau. Ojala au asko balitz, miina ondo erabilteko!

Miinaren egite txarretati bat da, ta ez oneena, lagunari pamia galdu-tia. Inor gaiti deungaro esatia. Pama onak eta kleitu onak asko balijo dabeena edozeinek daki bere burubagaz. Ta zerbait esan zan onen gainian bostgarren agindu santuban. Lagunaren edo proximuaren pamia galdu-ten da, bada, miinagaz, inor gaiti deungaro esaten danian. Ta au jazo leiteke modu askotara.

*Lelengo:* Lagunaren kleitubaren kontrako guzurra norberak asmauta esaten dabenian. Esaten dozu inor gaiti (guzurra dana dakizula edo zeuk edo bestiak asmautakua) *ostu ebala, orditu zala, zorra ukatu ebala, lagun txaarrekin ikusi zendubala...* Bada, orduban galdu-ten deutsazu proximuarri miinagaz pamia.

*Bigarrenian:* Lagunaren paltia egijja izan arren, ixilik eguaneti zeuk azaldau dozonian, edo zeu zariala medijo azaldau danian. Egin dau batek erijotza bat. Baino ez dakije txito gitxik baino, nok egin daben. Ta ixilik dagoz. Esaten deutsazu zuk bat, nok egin daben erijotza a. Ta zabalduten da zure esaneti. Bada, zuk zeure miinagaz galdu deutsazu ondria. Ta jakin, neure entzula onak, edozein lagunaren paltatan dala au. Nai lapurreta baten, nai orditute baten, nai joko eragotzi baten, bai juramentu paltso edo blasphemija baten, nai logrerijako tratu txar baten, nai kastidiadiaren kontrako pekatu ezain baten, nai beste edozein pekatuzko errutan. Nai dala gizona, nai dala andria, nai dala mutilla, nai dala neskatillia, nai dala jueza, nai sazerdotia, nai relijiosua, nai gurasua, nai senidia ezkutuban gaiski egin dabena. Aren ezkutuko paltia zeure miinagaz zeuk azaldetan badozu, lagunaren ondria zeuk galdu dozu. Ta ez pensau, kristinaubak, lagun batek edo bik jakin ezkerro, ez dala ezkutuko paltia. Ez pensau aopian bat edo biri esan ezkerro, pekatu azaldauba ta jakina dala. Ez dago onako legerik, proximuauren kleituba aotan erabilteko. Gogoratu zeubek zer naiko zendukian, deskuido bat edo lotsagari bat jazoten jatzunian. Egijja da, bagoz gatz egite batzuk ezkutukuak izan arren, agertu biar dirianak. Ez edozein modutan, ezbada gatz eginaren sailari jago-kan moduban, ondo pensauta, azaldau biar da gaiskina, gatxa erremedijetako, al dedin moduban. Onako gatz egite andijak zeintzuk dirian esango deutsut laster.

*Iruigarrenian:* Inoren paltak geitura esaten dirianian galdu-ten da proximuauren ondria. Ikusten dozu auzo bat jai baten meza entzun bagarik daguala bere guraz. Ta esaten dozu, *a ez dala eleisara bere juaten.* Au inoren paltia geitura esatia da. Ta ondria galdu-ten da. Ikusten dozu eleisa gizon

bat bein bere estadubari ez jagokan moduban. Ta esaten dozu, *a beti dabilela okerrerijetan.* Au geitura esatia da.

*Langarrenian:* Proximuauren esan onak edo egite onak txartztat juzgauta kontetan dirianian, galdu-ten jako lagunari ondria. Judegubak alan galdu gura izan ebeen Jesusen ondra santuba. Ikusten da gizon bat, bere etxari kontu egiten deutsana, tabernetan ez osteranzian kastu alperrika-korik egiten ez dabena. Ta esaten da a gaiti, *zeckenkerijak eragiten deutsala.* Ikusten da persona bat, mundutarren okasinoetati alde egiten dabena ta biar dan ondo izatiagaz eleisara sarriago juaten dana. Ta esaten da a gaiti, *mundubak santutzat enki dagian egiten dabela.* Au inoren ondria galdu-ten da.

*Bostgarrenian:* Proximuauren ondria galdu-ten da inoren ona bestiai entzunda, noberak ontzat emon biarrian, gaistoz entzuterik ta sinistuterik emoten ez deutsanian.

Proximuauren ondria galdu-tenko, bost modu oneek erakusten ditubee Eleisiaren Gurasuak santo Tomasegaz. Ondria galdu ezkerro, atzera biurtu biar jako proximuauren, al dedin moduban. Bestelan ez dago salbetarik. Zelan biurtu biar dan ondra galdu-ten deutsa konpesoriak galdu dabenari. Onezaz ostian, lagunaren paltak agirijak, jakinak ta azaldaubak izan arren bere, preminia bagarik inor gaiti esatia beti da pekatu. Baino nos egongo da preminia inoren paltak esateko, pekatu egin bagarik? Sarritan egon leitekez, kristinaubak, atarako preminia ordubak. Ta entzun egizuz batzuk.

## II.

*Gauza bitarako,* dino san Basiliok, *esan legizala inoren paltak, pekatu egin bagarik.* Bata da, norberak zer egin biar daben jakiteko. Ta bestia, erru bagako ez jakina galdu ez dedin. Santo Tomasek geituren deutsee onei bijoi bere ordu bat. Ta da, paltia egin dabaren onerako danian. Alan esaten da, neure entzula onak, ez dala pekatu inoren paltia esatia: 1. Ebanjelijo santubak aginduten dabenian. Bestelan erremedijetan ez bada gaiskina, juezari edo agintarijariaren paltak esanda erremedijau dedin. Au beraren onerako da. 2. Noberak zer egin biar daben jakiteko. Bakizu lagun batek gauza deunga bat egin dabena edo egitera doiana; edo pedeko gauzen kontra, edo errege jaunaren kontra, edo errijetako bakiaren kontra, edo erru bagako baten kontra. Ta ez dakizu zer egin. Bada, orduban esan zinagijo ta esan biar deutsazu aren pekatuba ta gatz egina konpesore bat edo gizon eldu bat, sail atan zer egin biar dozun jakiteko. 3. Erru bagako



ez jakin bat galdu ez dedin. Bakizu deunga batek inozente edo ez jakin bat engainenetan dabena. Ta ariman edo bizitzan kaltiak ekarteko sailetan sartutenean dabena edo sartu gura leukiana. Bada, orduban deungiaren paltak ez jakin erru bagakuari esatia, aren engainubetan ta pekatubetan sartu ez dedin, ez da pekatu. Au gaiti, gurasuai esatia umen okerrijak, okasinoiak ta adiskidetasun peligruzuak; ugazabai esatia otseginen lapurretek ta kondezinoe inpamiak; errijaren burubai esatia gabetako gizonen batzar txarrak; kura jaunari esatia pamelijetako eskandalubak; otsegin ez jakinai esatia lagunen ta ugazaben pekatugintzak ta pekatu-eragintzak... Onako paltak esatia, dinot, jakinak ta ziertubak izan ezkerro, erremediju legizanari ta erremediju biar ditubanari edo juakonari bakarrik, ez gaiskinaren gorrotoz ta bengaiz, ezbada nai onagaz ta uste zintzuagaz paltak geitu bagarik, erru bagiak galdu ez ditezan, oi danez, ez da pekatu. Ta askotan agertu biar dira gaiskinak, norberak baino bestek jakin ez arren pekatubak. Batez bere pedeko gauzen kaltian, Eleisa santiaren kaltian, erlijioe santuben kaltian, errege jaunen kaltian, erreinubaren ta errijken kaltian, guztien onaren kaltian... egin dirian edo egin gura dirian pekatubak eta paltak azaldau biar dira, konseju ona artuta, batek baino jakin ez arren. Alako ordubetan ez dauka gaiskinak eskubiderik, inok guztiz bere pekatu ezkutukua ixilik euki dagijon. Alan bere, kristinaubak, gauza astunak dira onetarikuak. Ta inos jazoten jazunian edo gatxa erremedijetako zer egin ez dakizunian, itandu laster konpesore bati edo aituten jakon bati. Ta aren esana eginagaz ez dozu utsik egingo.

Onezaz gainerako inoren deungaro esatia edo inor gaiti murmuretia, nai dala guzurra, nai dala egijja, nai dala ixilikakua, nai dala azaldauba edo publikua esaten dana, beti da pekatu, kristinaubak. Beti da, edo karidiaren kontra, edo zuzentasunaren kontra. Ta ez gitxitan bijen kontra. Ojala denporiak lagunduko baleust, inoren gaiski esate madarikatubaren ezaintasuna zeubei ondo aditu eragiteko! Ojala pekatu inpame ta desondragarri onen zabaltasuna, erreztasuna ta gatx berenotuba zeuben bijotzetan sustraiz sartu al banei! Artu dagizun beraren gorroto mortal. Ta inos aorik edegi ez dakizun laguna gaiti gaiski esateko. Baino zer esan legio murmuradoriari edo *gaiski esaliari*? Batian gorrotuak, bestian enbidijkak, bestian bengantziak, bestian buru eritxjak, bestian esanguriak, inor gaiti deungaro esateko baino aua edegi eragiten ez deutsanari? Zer esan ginaijo gaiski esaliari, miina zuzen erabilten ikasi dagijan?

Esango deutsagu, bere aua gaiski esatiaren atsa darijon sepultura edegi bat dala? Esango deutsagu, gaiski esaliaren kastia Jaungoikuaren begijetan gorrotokua dala? *Detractores Deo odibiles sunt*. Esango deutsagu,

Espiritu Santubaren esanian, gaiski esaliagaz ez dabela inok bere bat egin biar? Esango deutsagu, otso batek artegijan baino kalte geijago egiten dabela gaiski esaliak erri guztiko jentiaren ondraan? *Gatx andija da*, dino san Juan Krisostomok, *miin gaiski esalia. Demonino okergin bat da. Gizonari baketen inos bere isten ez deutsana da. Miin gaiski esaliak irakoiten ditu asarriak, sortutenean ditu gorrotuak, geitutenean ditu anjizjak, galduen ditu bakiak, okertutenean ditu bijotzak, zabaldutenean ditu sospetxak, egiten ditu erijotzak, oraintxe adiskide diriñan puntuko iminten ditu arrerijo, nastetan ditu pamelijak ta urratutenean dau errrijetako bakiaren ta battasunaren lotugarria, zein dan karidadia. Gaiski esaliak dia-bruba serbidutenean dau. Ta orre gaiti guzurtitzat ta lapurtzat erbestetu biar da. Tamquam mendax, et sur est propellendus*. Au guztiau da san Juan Krisostomorena. Miin gaiski esalia, dino san Bernardok, dala suga biboriaren eztena. *¿Nunquid non viperæ est lingua ista?* Zer egiten dau sugiak? Inor akordau orduko, ixilik eztena sartu, berenua ezarri ta gaisotu edo ill.

Ta zer egiten dau miin gaiski esaliak? Sugaren beraren egin egina. Batian, *au entzun dabena*; bestian, *au ei dinuela*; bestian, *alan ei zala*; bestian, *zanak emon eutsala*; ta bestian, *alan dala esanda*, beti inoren paltak, guzurrak edo egijak esaten ta bere miin zitalagaz inoren kleituba gaisotutenean illten diardu gaiski esaliak. Odol aterazaillarena edo barberubarena, dino Aita Prai Luis beneragarri Granadakuak, egiten dabela gaiski esaliak. Zer, bada? Barberubak gaisuari odola aterateko, lelengo ondo igortzi, labantu ta leundai egiten deutsa besua. Ta gero sartu lantzetia erruki bagarik ta odola atera. Ah, miin gaiski esala madarikatubak! Zeinbat bidar au egiten dozu? Asten zara norbait gaiti lelengo ondo esaten. Jasoten dozu zeruragino. Igorztutenean dozu, labandutenean dozu ta leundai deutsa besua. Ta andi laster, ez dakit zelako erruki bat edo ondo gura bat bazeuntasa legez, asten zara dakizun ta ez dakizun, entzun dozun ta sospetxa egin dozun guztia zeuben aoti miin zorrotzagaz aren kontra esaten. Ordu erdian edo ortu betian proximaren azur guztiai, odol guztiai, laugarren belauneraginoko senikera guztiai eraginda, guztiai gaiti gaiski esanda, aren kleitu guztia ostikopetuta, azkenian zeure gaiski esaaldijari ezarten deutsazu *txaplatia*, barberak sangriari legez, proximaren pamari egin deutsazun epaija osatuteko, esanagaz: *Neuri mesede baino ez deust egin. Neuretzat persona ondraubak izan dira. Eurak jakingo dabee zer egiten dabee. Ni baino kristinu obia da. Ez daigun inor gaiti murmurau. Emen esan dodana, emen geratuko da...*

Ara emen, kristinaubak, gaiski esaliaren azkeneko txapleta osagarri-jak. Ta ez da onen miina suga biboriarena baino gaistuago? Berenotsubago? Kaltegarrijago? Bildurgarrijago? Ez dago ordu guztieta-



miin zorrotsagaz lagunari kalte egiten gaiski esalia? *¿Tota die injustitiam cogitavit lingua tua?* Nori parkatutene deutsa gaiski esaliak? Nok dauka ondria seguru bere ao atsituti? Inok bere ez. Gaiski esaliak bere etxia kobernetako ez bada bere, esaminetan dau erregia, juzketan dau obispua, tatzetan ditu abadiak, deungatuten ditu prailiak, lapurtutene ditu juezak, logrerututene ditu kaballeruak, guzurtituen ditu predikadoriak, zekendutene ditu ugarijak, zitaldutene ditu baketsubak, zelotsotutene ditu ezkondubak ta lotsagarriaz estaldutene ditu libriak. Ez ordenautakok, ez andik ta ez txikik, ez errikok ta ez auzok, ezda bere zeldan edo koru bantzarran belaunbiko daguan monjiak bere, ez dauka seguru bere ondria erriko gaiski esala baten ao galduan.

Ta zeinbat onetariko ao gaistoko? Zeubek dakizu, neure entzula onak, ze ugarija dan inor gaiti gaiski esatia. Lagun bi edo iru alkarregana batu ezkerro, berba aldi gitxi izaten dira lagunari gitxi edo asko ondran ikutu bagarik. Eurak gaiti inok esatia gurako ez leukeen edu norbait gaiti esan bagarik. Errazto txito gaiski esaten da. Ta nekez gaiski esanaren epaija osatutene da. Laster ta sarri inoren kleitubari luur jo eragiten jako. Ta geijenian ez da inos bere odo jasoten. Ez da ondra galdua atzera batutene beinguan. Au gaiti esan eutskijon miin gaiski esaliari Jeremias propeta santubak *saeta zaurilaria. Sagitta vulnerans.* Zegaiti au? Saetiaren epaija osatutene txito gatxa dalako. Geijenian ondo osatu bagarik ill oi dalako saetiaz zaurituba. Beste ainbeste. Miin gaiski esaliak egiten dabent epaija osatu bagarik ill oi da. Bein galduak ondria, galdua oi da. Geijenian miin gaiski esalaak beste mundura joan oi dira, emen inoren ondran ta kleituban egin zitubeen epaijak osatutera edo pagetara.

Bakigu Eskritura Sagraduti, Jaungoikuak gorroto deutsana inoren kontrako gaiski esatiari. Ta irakurten dogu ze kastigu ikaragarrijak egin dituban, gaiski esalaak kastigetako. Maria Moisen arrebia, bere nebia gaiti gaiski esan ebalako, lepra loi astun batek estaldu eban gorputz guztian. Irakurten da gaiski esalia erijotzako ordu tristian konpesau gura ezda, daguala. Esan konpesoriak, dei egin dagijola Jaungoikuaren miserikordi-jari ta konpesau dedilla. Ta erantzun gaiski esaliak: *Ezin dot.* Esan ostera bere, jaso dagizala begijak Jesus kurutzekuagana ta damu egijazko bategaz konpesau dedilla. Ta erantzun gaiski esaliak: *Miin deunga onek kondenanta nauka ta ezin negi.* Ta konpesau bagarik ill. Irakurten da, gaiski esala bat inpernuti agertu jakola bere lagun bati ta erakutsi eutsala ze sarija eukan inpernuban bere gaiski esatiak gaiti. Miina eukan sututa, aoti lurreragino luzatutene ebala. Ta kondenaubak berak zulotu ta zatitutene ebala bere miina. Baita atzera sartu bere bere lekura. Ta esan eutsala azkenian: *Miin*

*onegaz askoren ondria galdu neban. Ta pena au irabatzi neban betiko.* Baita irakurten da, miin gaiski esalak arrak jan ditubeena ta usteldu diriana bere. Baita neska gaiski esalaak ta guzur czarlak, seinik egin ezinda luzaro egonda, egin bagarik errebentau dabeena bere. Panuzio monje inozentiarri erruba ezarri eutsan neskia egun askotan seina egin ezinda egon zana bakigu. Azkenian, ala seina egin eban, ala inoren kleitu galduaren sarija artutera egin bagarik, beste mundura juan zan ez dakigu.

Oh, Jaungoiko zuzena! Zeinbat kastigu egin dituzu miin gaistuak erremedijetako? Euki egizu, bada, gugaz errukija. Ta erakutsi egiguzu geure miinak zuzen erabilten, zeu munduban alabetako ta beti zeruban gozetako. Amen.



## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dan gaiski esaliari entzutia.*
2. *Gaiski esatiaren entzunlarijak zer egin biar dabentzutu.*

Gauza ezaina ta kaltegarrija bada, neure entzula onak, inor gaiti deungaro esatia, leengo dotrinan entzun zenduban legez, ez da asko obia inoren berbeta desondragarrija bere guraz entzutia. Pena bategaz kastigetan ditu legiak pekatu egiten dabeenak. Lapurretia gaiti esan oi da, estalzailerik ez balego, lapurrik izango ez litzatekiala. Bada, errazoe geijagogaz esaten da, gaiski entzularik ez balego, gaiskiesalarik izango ez litzatekiala. Txito alkarri dautsee, kristinaubak, inor gaiti deungaro esatiak ta inoren deungaro esana entzutiak. Baino askotan jazoten dan legez norberak nai ez dabela gaiski esaliari entzutia, erakutsi biar jako kristinaubari zeinbat modutara jazo leitekian gaiski-esaliari entzunagaz pekatu egitia; ta alako orduban zer egin biar dabentzutu. Esango deutsut bada, neure entzula onak, dotrina onetan: 1. *Nos dan pekatu gaiski esaliari entzutia.* 2. *Zer egin biar dabentzutu gaiski-esatia entzuten dabentzutu.* Prestau zaitez entzuteko gogo onagaz. Bada, guztioi balijo deutskun erakutsja da au.

### I.

Iru modutara jazo leiteke, inoren gaiski esana norberak entzutia. *Lelengo:* Norberak inor laguna edo proximua gaiti gaiski esaten iminita. Bakizu persona bat beste bategaz asarre dana. Ta zeuk persona a aitatu ezkerro, a gaiti deungaro esango dabena. Au dakizula aitatutenean deutsazu bere areriju, a gaiti deungaro esan dagijan ta entzuten deutsazu laguna gaiti gaiski esaten. Bada, ak edu pekatu edo geijago zuk egiten dozu, zeuk proximua gaiti deungarorik esan ez arren. Deungaro esaten imini dozulako ta deungaro esana entzun deutsazulako. *Bigarrenian:* Zeuk destajuban edo sospetxan dakizun inoren palta bat obeto jakiteko edo barriro entzuteko, zerbait bazezenki legez edo andijua balitz legez, berba uts batzubekin aitatuta bestia inoren paltak esaten iminten dozunian. Orduban, zeu zaria la medio da aren murmurazinoia edo gaiski esatia. Zeuk eraso ta zeuk entzun inoren paltak. Bada, zeuk egin dozu pekatu, esan ditubanak

legez. Badira errijeten ta auzuetan alako gizon ta emakume bijotz galdukuak, inoren bizitzak jaki ten ta banatutenean, ezer ez juakuela, dabilzanak. *Irugarrenian:* Norberak gaiski esaten inor [i]mini ez arren, bestiaren murmurazinoia edo gaiski esana gogoz entzuten dabentzutu. Bada, zeuk emon ez arren biderik gaiski esateko, bestiak gaiski esaten diardubanian pozik eta gustoz entzuten badituzu inoren paltak, bat egiten dozu zeure buruba gaiski esaliagaz. Ta bijok pekatu egiten dozu. Ak esaten dabelako. Ta zuk entzuten dozulako. *Ak dauka demoninua miinian,* dino san Bernardok *ta Zuk daukazu belaarrjan.* Onako gaiski esatiak ta entzutiak erasotenean ditu geijenian, kristinaubak: Batzubetan, *jakin guriak.* Beste batzubetan, *enbidiazak.* Inoren ona entzun ezinak ta ikusi ezinak. Norberak paltak daukazanak, inoren paltak entzun gura, esan gura ta zabaldu gura. Norbera baino aurrerago inor bada zetan edo atan, ari paltak topau gura, arenak entzun gura ta esan gura, bestia andijagotzat edo geijagotzat inok euki ez dagijan. Emen dator arako enbidiziati urten eban esaneria: *Nor da zure areriju?* *Nor da zure gaiski esalia?* *Zure opizjokua.*

Ara emen, neure kristinaubak, milla gaiski esate ta gaiski entzuteren sustraija. Andikijak andikijaren kontra, nekezarijak nekezarijaren kontra, letraubak letraubaren kontra, eskribaubak eskribaubaren kontra, gerraginak gerraginaren kontra, tratalrijak tratalrijaren kontra, mediku, barbero, botikario, zapatajin, jostun, errotari... geijenak bakotxak bere opizjio edo kondezinoekaren kontra gogoz gaiski esaten dabee ta ain gustoz entzuten dabee. Enbidijaren prutu mingotxa, berenotuba ta ugarija da au, neure entzula onak. Ojala gitxiago balitz! Beste batzubetan gaiski esatiari ta entzutiari su emoten deutsa gorrotuak. Gaiski egin deutskuna gaiti errazto gaiski esaten da. Ta pozagorik entzuten da aren kontrako gaiski esatia. *Ez dabaida* bat auzuak edo errikuak izatia da asko areen leenagoko ta geroko palta guztiak esateko ta bestiak bere esan dagijezan nai izateko. Oneen miinak eta belarrijak beti dagoz prest, areriju paltak esateko ta entzuteko. Au gorrotuak eragiten dabena da. Proximuaarentzat bijotz txarra daukan senaile agirija da. Ta menturaz bere buruba garbituteko esango dau alakuak konpesinoian, *ez deutsala gatxik opa.*

Gatxik opa ez badeutsazu, zelan a gaiti gaiski esaten dozu? Zelan aren paltak ta gatzak gustoz entzuten dituzu? Ta zeinbat geijagori entzuten deutsazu[n] gaiski esaten edo murmurazinoia gogoko ez dan personia gaiti, ez dozu pozagorik entzuten? Ez deutzetu zeuk bere lagundutenean? Bada, inoren paltak ta pama txarra entzunda gogua alegretutenean jatzunian, zelan esaten dozu ez deutsazula gatxik gura? Entzungo zendukez alan gogoz ta gustoz zeure aitaren paltak? Naiko zenduke zeure ama



gaiti alan inok berba egitia zeure aurrian? Naiko zenduke zeure senidiaren edo adiskidiaren ondria alan inok aotan erabiltia, zeuk entzuten dozula? *Ezez* esango dozu. Zegaiti, bada? Zeure aita ta ama, senidiak ta adiskidiak maite dituzulako. Bada, zeure arerijua bere maite izan biar dozu. Zeure gogoko ez dana bere maite izan biar dozu. Zeuri gatx egin deutsuna bere ta zeu gaiti deungaro esan dabena bere maite izan biar dozu, salbauko bazara. Ta areen kontrako gaiski esanak edo murmurazinoiak bere zeure guraz entzun biar ez dituzu. Ta entzuten badituzu gustoz inoren paltak, sinistu daikezu duda bagarik etsaijak engainauta, itsututa zaukazala, ari gatxik gura ez deutsazula esaten dozunian.

*Langarrenian:* Jazo leiteke ta askotan jazoten da, norberak gura ez dabela, inoren gatxak ta paltak entzutia. Ezin beti egon geintekez bakkarien. Ezda belarrijak tapauta bere. Ta sarri egon leitekez murmuradoriak edo gaiski esalak geu gagozan lekuban. Zer egin biar dau, bada, orduban kristinaubak, gaiski esaliagaz bat ez egiteko? Ara zer egin biar daben.

## II.

Al izan ezkero, eragotzi biar dogu karidadez lagunari jatorkan kaltia. Ukatu ezin ginai, gaiski esanagaz proximuarri ondran ta paman kalte egiten jakona. Ta ez edozein modutan kalte, ezbada kalte andija ta minberia. Bada, ondria, ondasunak eurak baino geijago estimetan dana, galduen da gaiski esanagaz. Au gaiti esanda puntuban, inor murmuretan iminten dabenak; inori lagunaren gatxak eta paltak erasoten deutsazanak; ta inoren paltak pozik ta alegere entzuten ditubanak, nai jakin guraz, nai enbidiaz ta nai gorrotoz, galduen dabela lagunaren pamia ta egiten dabela pekatu, gaiski esaliak berak legez. Ta norberak inor gaiski esaten imini ez dabenian? Gaiski esateko biderik emon ez deutsanian? Ta inoren paltaak entzun baino ez entzun najago leukianian? Ta bera daguan lekuban ta egon biar dabenian, bestiak inor gaiti deungaro esaten dabeenian? Zer egin biar dau gaiski esana entzunagaz pekatutrik ez egiteko?

Orduban kristinaubak karidadez egin biar dabena da, neure entzula onak: *Lelengo*, inundi al badai, eragotzi bere aurrian inor gaiti gaiski esatia. Alan egiten eban Dabid erregiak. *Inor gaiti ixilik deungaro esaten ebana, persegiduten ebala*, dino. *Hunc perseguebar*. Alan egiten eban san Agustinek. Ez eukan inok eskubiderik san Agustinen aurrian inor gaiti deungaro esateko. Alan egiten eban Aita san Pranziskubak. Alan ene Ama santa Teresak. Alan beste millak. Lotsatu egin biar da gaiski esalia, bere paltia ta gaiski

esaneko pekatuba berari arpegijan ezarrijagaz. Esaten jako san Bernardogaz alako gaiski esaliari: *Zuk esaten dituzun proximuaaren palta orreek guzurrak ala egiak dirian ez dakigu; baina zen murmuradoria ta gaiski esalia zariana, zuzen dakusgu*. Ta esaten badeutsu murmuradoriak, *inoren palta areek nun esaten dituban bakijala; edo arren inori esan ez dagijoza, konpesinoian legez esaten dentsuzala...* erantzun egijozu gaiski esaliari san Juan Krisostomogaz, *ia zorua ala gaistua dan. Berak obeto ixilik euki biar leukian ta euki ezin daben inoren paltia, zeuk ixilik eukiko dozula pensetako*. Onan portauko bagina, neure entzula onak, norbait geure aurrian inoren paltak esaten asten danian, laster amatauko genduke murmurazinoiaren suba. Bainaz zara azartutenean argiro ta artez berba egiten murmuretan dabenari, edo persona andi bat dalako, edo zeu umia zarialako, edo gaiski esaliaren agindupian zagozalako, edo orduban geijago ta txartuago berba egingo leukialako, askotan jazo oi dan legez?

Orduban *bigarren* erremedijua, Espiritu Santubak dinuana. Ta zer? Arantzazko esi bat egin belarrijai. Ta miin gaistuari ez entzutera egin. *Sepi aures tuas, et lingua nequam noli audire*. Bestia asten danian inor gaiti deungaro esaten, zeu ixildu, mututu, oztu, tristetu ta bekokija illundu. Ez aren berbai jaube egin. Ez ari arpegira begiratu. Ez ari kasurik egin, bapere en tzuten ez bazendu baino geijago. Au edozeinek egin legi inor murmuretan asten danian noberaren aurrian. Nai lagun askoren artian izan, nai bakarrian izan; nai persona andija ta lotsa ona zor jakona izan gaiski inor gaiti esaten dabena; nai beste edozein murmuradore izan, edozeinek egin legio gaiski esaliari arpegi illuna imini ta kasurik egin ez. Au da inoren paltak ez entzuteko belarrijai esija egitia. Geuk arpegi jaube egin. Geuk arpegi illundu edo tristetuta beste bagarik, ixilduko gendukez, kristinaubak, geure aurrian dagozan miin gaiski esalak. *Egoiak eurjak ta lainuak kenduten dituban legez*, dino Espiritu Santubak, *arpegi tristiak kenduten ditubala gaiski esatiak*.

Oh, ze erremedio erraza ta seguruba miin galduak ta gaiski esalak ixilduteko! Murmuradoriak ez badauka aurrian nok belarrijak zabaldu, nok entzutia emon, nok barre egin edo nor jaube egin bere gaiski esanari, berekauten ixilduko da. Ta onezaz gainera, ikusten badau gaiski esaliak bere murmurazinoia entzunda gaineukau ixildu diriala, mututu diriala, tristetu diriala ta arpegijak illundu ditubeela, berekauten ezautuko dau areek inoren gatxil entzun gura ez dabeena. Nai ta ez lotsatuko da, danik lotsa galdukuena bere. Ta areen aurrian ez da ostera asiko inor gaiti deungaro esaten. Espiritu Santubaren esana da au. Baita, oi danez, geuk ikusten doguna ta errazto aituten doguna bere. Alan, neure kristinaubak, mesede asko egin ginaiz gaiski esaleen aurrian bekoki illuna ta arpegi tris-



tia erakutsijagaz. Isildu ginai miin gaiski esalia. Ta ari egiten deutsagu mesede, pekatu egiten itxi ezagaz. Jaso ginai lagunaren ondria, murmuradiori gaiski esatia eragotzijagaz. Ta lagunari egiten deutsagu mesede. Baita geure burubari bere. Batetik, karidadezko biarra egiten dogulako. Bestetik, pekatuban jausten ez garialako, inoren paltak geure naiz entzunagaz. Ta azkenian, geure ondra ona zaintubagaz.

Bada, ez dozu pensau biar, kristinaubak, zeuben aurrian inor gaiti deungaro esaten daben murmuradioriak, zeuben kleitubari erruki geijago izango deutsala. Gejenian zubei esango deutsuz inoren paltak geitura; ta zubenak esango deutsaz beste bat edo beste amarri. Ez, dirian legez, ezbada geitura, ezainduta, berak deritxon legez, gogo obiagaz entzun dagijuezan bestiak zuben paltak. Miin gaiski esaliak beti daukaz palta barrijak zer kontau, nok entzun topau ezkerro. Berbeta bakotxian isten dau karga zati bat inoren kleitubaren kontra; ta jasoten dau beste zati bat, urrengo lekuban kontetako. Alan dabil gaiski esalia, beti bere aoti atsa darijola edo berenua darijola suga bibora baten miin zitalagaz, lagunen ondra ta kleitubari epaijak egiten. Ze erremedijo, bada, alako miin gaistua ganik norberaren ondria zaintuteko? Ez besterik, ezbada gaiski esaliaren aurrian astundu, ixildu ta tristetu. Ez dagijala euki zeure ondriari nundi oratu, zuri berba bat entzunda. Belarrijak zabaldu ta entzunda berba egiten badeutsazu gaiski esaliari, berbarik esaten deutsazun beste zer esan emongo deutsazu, zeure ondriaren kontra beste bat kontetako. Au onan jazoten dana guztioak dakigu. Ez, bada, entzuterik emon. Ez ezer erantzun gaiski esaliari, lotsatutekua bada lotsatu dedin ta erremedijau dedin miin gaistuaren jaubia. Bainaz zeu isilik ta triste zagozan lekuban badiardubee murmuretan beste bik edo iruk edo geijagok, atertu bagarik, ta zure inoren gatxa entzuteko gogo txarrari, isiltasunari ta arpegiko astuntasunari kasurik egin bagarik, sarri lagun gaiski esaleen artian jazoko jatzun legez? Orduban bere oraindino erremedijua daukazu, lagunaren ondria jasoteko ta miin gaistuak isilduteko. Ta da:

*Irugarrenian:* Alako orduban kristinaubak egin biar dabena da, tertzi-jua artuta, kontubak aterata, berbak pensauta, beste sail bat edo palta bageko berbeta bat norberak aitatu, bestelan edo berez balitz legez. Bestiak inor gaiti deungaro esaten dagozanian, aitatu noberak edo *egubaldija*, edo *laboria*, edo *gaisnak*, edo *gerrak*, edo beste inoren gatx bageko ta gaiski esaleen goguari dei egiteko esangarri bat. Ta agaz aaztu eragin murmurazinoia. Onetariko modubagaz ta juizijuagaz askok gaiski esalak isilu ditubee. Aldatu berbetia beste sail batera, inori zergaiti dan igarri era-gin bagarik. Karidadia txito artetsuba da. Proximuaaren ondria benetan

maite dogunian, gauza asko asmauko ditugu a jasoteko, bata ez bada bestia. Tomas Moro, juizijo ta karidade andiko Ingliterrako kanziller nausijk geijagoko bagarik bere aurreko murmurazinoiak kendu oi zituban. Inor gaiski esaten asten zanian, asmetan eban beste esankizun bat berbe-tia aldatuteko ta gaiski esatia ixilduteko.

Alderatu bada, kristinaubak, inoren gaiski esatiak zeuben aurrian jazoten dirianian. *Ez zaitez bat egin gaiski esaliagaz*, dino Espiritu Santubak. *Bada, usterik gitxien danian izango da euren azkena.* Bertatik jagiko da gaiski esaliaren gainera kastiguba. *Cum Detractoribus non commisearis, quoniam repente consurget perditio eorum.* Bildur izan beti, inoren kleitubari ikutu egiten. Zeubena inok gordetia ta zaintutia gura dozun legez, gorde zeubek inoren ondria. Ze laster penetan zarian, inok zeuben kontra zerbait esaten dabenian!. Bada, bestiak ez dabee gitxiago estimetan euren ondria.

Ez, bada, inor imini, neure entzula onak, laguna gaiti deungaro esaten. Ez entzun inos gogoz ta arpegi alegeriagaz lagunaren paltarik. Ta zeuben aurrian inor azartutenean murmuretan, esan bildur bagarik ze gaiski egiten daben. Ta alan esaten azartutenean ez bazara, illundu arpegija, itxi belaarrijak ta ez jaube egin aren esan txarrai. Edo aldatu berba geija beste gauza batera. Onan jasoko dozu proximuaaren kleituba. Osatuko dozu gaiski esalia. Gitxituko dituzu pekatu asko. Ta gordeko dozu kari-dade santuba, zeinegaz jaditxiko dozun zeruko betiko ditxia. Aitiaren, Semiaaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## V. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*Ze gauza txarra dan, miinagaz lagun arteko bakia ta adiskidetasuna galduzia.*

Zorrotzu zitubeen euren miinak sierpiarena legez; ta euren ezpanpian daukee aspijaren edo erubiaren berenua, dino Dabid erregiak gaiski esalaak gaiti. *Acuerunt linguis suas, sicut Serpentis; venenum aspidum sub labiis eorum.* Menturaz geijago ezin esan eukian berba gitxiagotan miin deungen kontra. Zorrotzu, dino, miina, sierpiarena baixen zorro[t]z egin artian; *sicut serpentis.* Ta zetako? Proximuaaren pama ona, kleitu ona ta ondra ona ebagiteko, ezainduteko ta ostikopetuteko. Onetarako biar dabee gaiski esalak sierpiaren miin zorrotza. Ta *aspijaren* berenua ezpanpian edo miinan. Aspija da pristija txito bereno gaistokua, guk erubia esango bagendu legez. Aspijaren berenauak ez dauka osatuterik, erubiarenak ez daukan legez. Entzun dozu bada, kristinaubak, miin gaistuaren berenauak zeinbat kalte egiten daben lagunaren kleituban, ondran ta paman. Ta ze nekez osatuten dan miinagaz lagunari kleituban egiten jakon epaija. Baino oraindino san Agustinek erakusten deusku beste miinaren berenauak iraasten daben gatz bat, leen esan dirianen aazgarrija. Ta da, miin gaistua izatia adiskidetasunaren ta bake onaren galzaillia. *Venenum amittiae.* Adiskidetasuna ta bake ona galduzako ta ilteko, berenauak daukaz miin gaistuak ezpanpiam. *Venenum aspidum sub labiis eorum.* Begiratu daijogun bada, neure entzula onak, miin gaistuari aldia onetati. Ta ikusi daigun ze etxuria daukan. Onetarako esango deutsut: 1. *Zer dan adiskidetasuna.* 2. *Zelan galduzen daben miin gaistuak.* Ojala denpora paska bat geijago banueva, sail onei jagokuen erakutsija sustraiz zuben burubetan sartuteko! Entzun egizu, bada, ainbat gogorik oneenagaz.

### I.

Adiskidetasuna da, santo Tomasek dinuanez, leen danazko bata bestiaren ezauberati urteten daben alkarrido gura izate pirmia. Edo da, san Agustinek dinuanez, arimako ta gorputzeko edo zerurako ta mundurako gauza guztietan alkarrido gura izatia ta beti alkarrartutia karida-

dez. Adiskidetasunak zabaltasun andija dauka berez. Munduko guztiak adiskide izan biar ditugu edo maite izan biar ditugu Jaungoikua gaiti ta karidadez. Baino ez da ainbeste zabaldutenean orain aita dogun adiskidetasuna. Ezagunen artian ta alkarrategaz artu emona daukenen artian edo euki dabenen artian batutenean erakutsi onetan aita dan adiskidetasuna ta andi dator[r]jen bake ona. Auzuen artekua, seniden artekua, pamelijaren artekua ta artu emona daukenen artekua da orain esaten dan adiskidetasuna. Au bere ez adiskidetasun txarra, alkarragazko galduzia, pekatuzkua, edo pekatuzko eragitekua. Bada, pekatuzko ta pekatuzko adiskidetasunak ta alkarrartutia galduzia ona da. Ta ojala ainbat lasterren guztiak galduko balira! Esaten da, bada, adiski detasun ona, Jaungoikua serbiduteko ta alkarridi munduban lagunduteko balijo daben adiskidetasun zintzua, lejala, pirmia ta Jaungoikozkua dala egijazko adiskidetasuna.

Onetariko adiskide alkarrartutak, guztiak daukeez gitxiago edo geijago errijetan, auzoeretan, senidetan edo pamelijetan. Alako adiskidiak alkarrartutak maite dabee, alkarrartutenean dabee, alkarrartutu jasotenean dabee ta alkarridi lagundutenean deutsee. Ez deutsee, dakijela, inos alkarridi atsekabarik emoten, ez eginagaz ta ez miinagaz. Preminan ikusi ezkerro adiskidiaz, inok esan bagarik dua lagundutera, asko kostata bada bere. Alkarrategaz luzaro egon arren, ez dira kansetan. Alkarrategaz dagozanian, ez dabee berba geija inos bere palta. Batak daukan gauzia, bijak daukee. Bataren onak, bijeenak dira. Batak daukan gaxtian, bijak artutenean dabee penia. Ez dago gauza zatiurrik adiskide egijazko biren artian. Ez dago engainurik euren berbetan alkarrarentzako. Ezda tolutzurrik bere euren bijotzetan. Batak dakijana, bestiak bere baki. Batak entzun gura dabena, bestiak esaten dau. Ta alkarridi pena emongo deutsana, batak bere aitatutenean ez dau. Legiak edo Jaungoikuak eragozten daben gauzarik alkarridi eskatutenean ez deutsee, ez esateko ta ez egiteko. Batak deskuiduan esaten badau edo egiten badau pekatuzko gauzia, bestiak penia artutenean dau. Ta gogoratutenean karidadez bere pekatuzko, erremedijau dedin ta ostera egin ez dagijan. Ara emen, kristinaubak, adiskide egijazko bi. Bijak daukee nai bat, bijak uste bat, bijak asmo bat, bijak gogo bat. Edo, esan legi, bijak daukeela bijotz bat ta arima bat. Ze gauza ona au! Ze poz andija bijotzarentzat alako adiskide bat edo geijago eukitia! Zeinbat estimetan dan!

Baina zegaiti ez dira alan adiskide alkarrategaz, edola bere auzoerako guztiak? Edola bere senide guztiak? Edola bere etxe bateko guztiak? Edola bere gurasuak ta umiak? Ez dira, bada, kristinaubak. Ta izango bere ez dira guztiak ez senide artian, ez auzo artian, ez pamelijan alako adiskide alkarrartutak, bat eginak. Ama izango da alaba bataren adiskidiago, bes-



tiaren baino. Aita izango da seme bataren adiskidiago, bestiaren baino. Senarra izango da auzo baten adiskidiago, emaztiaren baino. Ta onan beste guztiak, oi danez. Zek egiten dau, bida, au? Ez beste gauzak, ezba-da geure eritxjak, geure ustiak, geure goguak, geure aitutiak, geure umoriak edo jenijuak bardinak ez dirialako. Orregaiti nekez topetan dira bi, alako gauzetan alkar bat eginak. Ta bik alkar topetan dabeenian, berez legez alkar maite dabee. Alkarri berba gitxigaz goguak aituten deutseez. Ta errazoiaren ta karidadiaren neurrijagaz errazto adiskidetutenez dira, kasik zelan ez dakijela. Ez dogu askotan topetan geure karga astunen arintasuna ta peneen konsuelua obeto atze bat kontaubagaz, geure senidiai edo etxekuai kontaubagaz baino, guztiakin ondo egonarren ta guztiak maite izan arren? Edozeinek esango dau baietz. Au gaiti esaten dau san Anbrosiok, *adiske bagako pensetia tristeza dala; adiskide bagako biar jenero guztia penia dala; etxia bere adiskide bagarik erbestia dala; bizitzia bere adiskide bagarik tormentuba dala; ta adiskiden laguntasuna bagarik bizi izatia bera bere illtia dala.* Au gaiti esaten dau Salomonek bere, *adiskide on bat topetan dabena ditxosna dala... Adiskide on bat topau dabenak, ondasun andija topau dabela. Ezer bere ez daguala adiskide onaren balijkorrik.* Adiskidetasun onak beragaz dakar bake ona. Zer egiten dau, bida, miin gaistuak? Adiskidetasuna ta adiskiden arteko bakia, bijak galdu. Ta leen adiskide zirianak arerijo egin. Ikusi daigun zelan.

## II.

Miinaren egitadiak andijk dira, neure kristinaubak. Zerbait gaiti esaten dau Espiritu Santubak, *kutxiuak asko ill ditubala; baina miinak gejago galdu ditubala. Miina erabilten ez dakikanaren sinistutia, alperrikakua dala. Alemanija kasta guztia ezi ta dometan diriala, baina miina inok bere ondo dome-tan ez dabela.* Ta beste onako berbeta asko, zeinegaz aituten emoten deus-kun Jaungoikuak miinazko pekatubai deutseen gorrotua. Pekatu gitxi egingo dira munduban, leenago edo geruago, asieran edo amaijan miina parte ez dala. Gaiski esatiaren edo murmurazinoaren gaineko kaltiak zerbait esan dira leengo ikasikizunetan. Au oi da kleitubaren ta pama onaren kontra. Baino kleitubaz ta pamiaz ostian galduen dau askotan miinak adiskidetasuna ta bake ona zortzigarren agindu santubaren kontra.

Alako adiskidetasuna ta jentiarek arteko bake ona galduari esaten jako *enbusteria*. Ta a darabilenai, *enbusterua edo enbusteria*. Esan legio berbeeta onian alako miin galduari, *adiskide on galzaillia, bake on galzailla*. Ta

zeten dago okerreria inpame desondragarri au? Ez beste gauzatan, ezba-da batari ondo gura baleutsa legez, bestiagaz errukitutenez balitz legez, bestia kontutan imini gura baleu legez, bestiari konseju on bat emoten baleutsa legez, adiskiden, auzunen ta seniden artian nok zer esan dabenez ta zer egin dabenez alkarraren kontrako berbak edo egitiak esatian. Au da enbusteria. Au da miin berenotsuba. Au da adiskide galtze madarikatuba. Ezer bere ez juakola, baztarretako guzurta saltsa guztiak batuta, areek bakotxari bere erara, ta guztiak min emongo deutseen modura kontetia da, adiskidetasun ta bake on guztiak galduen. Batari esaten deutsa alako enbusterubak edo enbusteria: *Zu gaiti url Jainak au zinuan.* Bestiari: *Zure lepoti zelan olgau zan url Jainak!* Beste bat esango deutsa: *Zure senarra (edo emaztia) url Jainagaz egon zan atzo.* Beste batzubetan esango dau: *Ona dau-ka zu url Jainak... Oraindino ez ei deutsu atan itxiko... Jesus, ze miina daukan... Neu lotsatuta egon mintzan, ak zubek gaiti esan zitubanak entzunda...* Jesus, gauza arima gaistuaren jaubia da... Nik alakuari axe egingo neuskijo...

Ara emen, kristinaubak, enbusterubaren, adiskide galzailliaren ta bake on galzailliaren berbetia. Guztia berenoz betia. Batzubetan esango deutsuz onako berba minberak zeure senarraren kontra. Beste batzubetan emaztiaren kontra. Beste askotan, edo otseginaren kontra, edo ugazabaren kontra, edo senidiaren kontra, edo auzo ondratzen baten kontra. Zeuk artu emona edo ezauberia edo konpajantzia daukazun ta aintzat ez zeukan baten kontra. Askotan izango dira alako enbusterubaren berbak asmaubak. Ez gitxitan erdi entzunak. Ta beti geitubak ta etxura guztia gal-dubak, adiskidetia geijago penetako. Onako enbusterak ta enbusterubak izaten dira, edo inoren adiskidetasuna ikusi ezin dabeelako enbidijaz, edo batari edo bestiari edo bijai ezkutuko gorrotua deutseelako bengantzaz, edo guztien ederra eukiteko banidadez, ta ez gitxitan, zerbait emon dagi-juen euren miin gaistuaren ta enbusterijaren saritzat. Zuri esango deutsuz zeure adiskidetia kontra gorrotua irakoiko deutseen gauzak. Ta zuaren gorrotuan iminita zuri entzuten deutsuzanak, laster esango deutsaz bestiari. Ez esan dituzun legez, ezbada geituta, ezainduta, dauken etxura guztia galdua, obeto sinistu dagiozan ta sari barrija emon dagijon.

Ta zeinbat onetariko enbusteru ta enbusteria? Endamas erri txikijetan? Nok dauka etxian bakia seguru euren miin gaistuetatik? Zeinbat matri-monio alkarraren gorrotuan iminten ez ditubee otsegin enbusteru batek edo auzo miin gaistodun batek? Batian senarrari emaztiaren kontra ta bestian emazteari senarraren kontra milla guzur kontauta? Zeinbat ezkon-tza galduen ditubee miin gaistuak, Jaungoikoz egingo zirianak? Nok dauka seguru enbusteruben erriaren edo auzuan adiskide bat? Nor azartu-



ten da etxe baten sartutenean enbusterubak zelatari ez diriala? Euren sospetxak leenak ta gerokuak aotan artuta, laster adiskidiari edo juakonari arin kontetan ez deutezezala? Zeinbat denporan ta zeinbat, leen adiskide zirianak egon oi dira alkaren gorrotuan, enbusteru baten miin gaistua dala medijo? Batak deskuiduan esan eban berba bat, edo ondo pensau bagarik esan eban bat, edo txanzan esan eban bat, enbusterubak geitura, berenotuta bestiari belarrijetara eruan deutsalako?

Oh, miin enbusterubaren esan ezin legizan kaltiak! San Basiliok esaten beebaran, gaiski esaliak ta gaiski entzuliak, bijak merezidu dabeela erritetati ta jente arteti erbestetutia: *Exterminandi sunt a reliquorum societate ambo, zeinbat geijago merezidu dabee enbusterubak ta enbusterak?* Gaiski esaliak ta gaiski entzuliak galduen dabee lagunaren kleituba. Bainan enbusterubak, kleituba ta ondria lagunari galdu, ta areen gainera galduen deutsa adiskide ona ta bake ona. Diabrubaren beraren opiztua egiten dau enbusterubak. Luziperrek berak galdu eban lelengo Jaungoikuagaz aingeruben arteko adiskidetasuna ta bakia. Berak galdu eban Abel ta Kain anae bijen arteko bakia. Baita Jakob ta Esau anae bijena bere. Baita Jakoren semeena bere. Baita Dabid ta Absalon aita semeena bere. Baita beste millarena bere. Bada, beste ainbeste egiten dau enbusterubak edo enbusteriaiak. Berak galduen dau laster aita semen, senar emazten, neba arreben, auzuen, kura jaunen, relijiosuen, edozeinen, guztien adiskidetasuna ta bake ona. Zer esan ginaijo, bada, enbusterubari edo enbusteriar? Bere benenozko miin zorrotzagaz, labanagaz ta epelagaz galdu dabela askoren ondria ta kleituba. Galdu dabela askoren adiskidetasun ondrauba ta artu emon onekua. Galdu dabela etxe askotako, pamelija askotako ta auzo askotako bake santuba. Ta leen Jaungoikuak ta alkarrak maite ebeenak imini ditubala Jaungoikuaren ta alkaren gorrotuan. Esaten jako enbusterubari, dana dala, egin ditubala bere miinagaz aspijaren berenozko epai andi illgarri asko. Nekez edo inos ondo osatuko ez ditubanak. Enbusterubaren berbak eztia dirurijela ta saeta zorrotz illgarrijak diriala. Au esaten jako enbusterubari, jakinda egon dedin.

Ta geratuko dira bere pekatubak kastigu bagarik? Ez. *Gorroto deutsala*, dino Jaungoikuak, *miin embusterubari; eum, qui seminat discordia inter fratres*. Ta ez edozein modutan gorroto, ezbada aparteko gorrotua deutsala. Bada, ez da geratuko kastigu bagarik. Enbusterubaren kastiguba bera bere Espiritu Santubak esaten deutsku. Ez bakarrik gerokua, inpernuban euki-ko dabena, ezbada baita munduban izango dabena bere. Ta ze kastigu? Enbusterua edo enbusteria artu dagijela guziak gorrotuan, euki dagijela arerijotzat ta izan dedilla desondrauba edo desondradia, dino Espiritu

Santubak. *Susurratori odium, et inimicitia, et contumelia.* Alan oi dira enbusterubak ta enbusterak munduban. Ez dago bat, eurai ondo gura deutseenik. Ez dago inor, enbusterijaren kontra bijotzian suba ta zelo santuba jagiten ez jakonik. Ez dago inor, enbusteria desondragarritzat ez daukanik. Kendu, bada, urrin zeuben miinetati enbusterijak.

Ta zubek, etxian senikeran ta auzoeran bake ona daukazunok, alkarrak jasoteko ta alkarrak lagunduteko adiskide leijalak daukazuzanok, inos etorten bajatzu ez juakona, ondo gura baleutsu legez, miin zorrotzagaz ta berba labanakin enbusterijak kontetara? Edo senarrak, edo emaztiak, edo aitak, edo umiak, edo senidiak, edo auzuak, edo adiskidiak, edo artu emona zeugaz daukanak, au edo bestia zure kontra esan dabela edo egin dabela? Alako enbusterijak, dinot, belarrijetara dakarzuzamian, ez egiozu entzuterik emon. Lotsatu egizu. Esan *egiozu enbusteru bat dala ta begien aurreti juan dedilla.* Ez egiozu sinistuterik emon. Ezbabere illgo zaitu bere miineko berenauagaz. Bada, geijenian guzurra da esaten deutsuna. Ta beti geitura. Ta egijja balitz bere, ari ez juakona. Ta esan biar ez deutsuna. Enbusterubari entzuterik emon ezagaz ta sinistu ezagaz gordeko duzu bake santuba ta adiskidetasunaren lege sagraduba. Alan gura izan dagijela Jaungoikuak bere neurri bagako ontasuna gaiti ta geuri deuskun amodijo santuba gaiti. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## VI. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zer dan juzgu gaistua edo inor gaiti deungaro pensetia.*

Zortzigarren agindu santubak eragozten dau, neure kristinaubak, ez bakarrik testigantza paltsa emotia, miñagaz inoren kleituba, adiskidetasun ta bake ona galdua; *ezba[da]* baita errazoe bagarik inor deungatzat eukitia bere. Bada, errazoe bagarik inor gaiti gaiski pensetia da, norberari testigantza paltsa a gaiti emotia. Laguna edo proximua deungia dala noberaren burubari esatia da, inor deungatzat eukitia. Ez dago ezer bere gauza errazagorik, inor juzketia baino. Ezda asko asko ugarijagorik bere. Txito ikuste laburra ta begi illunak daukaguz geure paltai begiratuteko ta areek ezaututeko. Baina entero ikuste luzia ta begi argijak, inorenai begiratuteko ta areek juzgetako. Bada, batetik geuk gauza bat ikusi edo entzun ezkero, kasik noraezekua da aren gainian pensetia ta ondo edo txarto juzgetia. Ta besteti, alako juzgu asko dira pekatu. Ta askotan pekatu illgarri jak edo mortalak. Erakutsi biar jako, bada, kristinaubari: 1. *Zeinbat modutara izan leitekian inor juzgetia.* 2. *Nos dan pekatu juzgu gaistua.* 3. *Ze pekatu ezaina ta zabalatzen eta.* Entzun egizu gogoz.

### I.

Juzguba da, geure adilliak edo entendimentubak zerbait ikuñtaren, entzunaren edo iraguaren gainera, onan edo alan dala beragan sinistuteko, ateraten dabent kontu amaituba. *Kontu amaituba ez bada, ez da juzguba, ezbada izango da dudia edo sospetzia.* Alan ete dan bildurra. Juzguba izateko, duda bagarik aintzat euki biar dau gauzia. Ta orain esaten dan juzguba da, geure laguna edo proximua ontzat edo deungatzat eukitia. Ta au izan leiteke modu askotara. *Lelengo:* Euki ginaiz lagun guztia ontzat. Au juzgu ona da; Jaungoikuak aginduten deuskuna da. *Onetara ez dogu ezer bere galduen,* dino san Agustinek. *Bigarrenian:* Juezak, agintariak, gurasuak ta ugazabak, euren agindupian dagozanak gaiti, areen paltak erremedijetako karidadez ta zuzentasunez, begi argijk euki biar ditube. Ta paltiaren sustaria sentiu ezkero, juzgau dailee erremedijua imini biar dabeela, guztiz galdu ez ditezan euren agindupekuak. *Irugarrenian:* Agiriko pekatarria gaiti

deungia dala juzgetia ez da pekatu. Ikusten badot nik edo badakit ziur loggeruba dala, lapurra dala, ordija dala, loija dala, maldezinoegina dala, gaiski esalia dala, engainutsuba edo bake txarrekua dala, a gaiti ezin ondo juzgau negi, pekatari agirija dan artian. Karidadiak aginduten deust aren paltak ez esateko ta Jaungoikuari a gaiti erregututeko. Baina ez a ontzat eukiteko, agiriko pekatarria ta Jaungoikuaren arerijo ezaguna dan artian. *Langarrenian:* Agiriko pekatarria izan ez arren, badakit zuzen batek egin dabela gauza deunga bat, edo lapurreta bat, edo testigantza paltso bat, edo erijotza bat, ezin a gaiti sinistu negi gauza deunga a egin ez dabela. Ez dira, bada, oneek bide bagako juzgubak, ezbada bidezkuak ta errazoezkuak. Deungiak berak bere gatz eginagaz emoten deutsku orduban bidia ta simisgarria, bera gaiti ondo ez juzgetako ta gatxintza atan bera ontzat ez eukiteko. Lau juzgeta modu oneek ez dira pekatzkuak. Baina bai orain esango dirianak.

1. Pekatuzko juzguba da: Izanik proximuak egin dabent gauzia berez bardina nai onerako ta nai gatxerako, geijagoko bagarik juzgetia gatxerako egin dabela. Bada, egin eukian onerako. Ikusten dozu sazerdote bat emakume kleitu arinoneko baten etxian sartutene. Geijagoko bagarik juzgetan dozu, agaz pekatu egitera doiala. Au juzgu gaistua da. Bada, juan zatekian etxe atara gauza on bat egitera. Ta bide geijago bagarik ez da inor deungatzat euki biar.

2. Pekatuzko juzguba da: Arpegiko edo gorputzeko etxurati edo daukan opizioti beste bagarik, inor deungatzat eukitia. Begijk gorrijak daukazalako, edaalia edo ordija dala. Begijk zolijak edo urdinak daukazalako, patsua dala. Miina labana daukalako, enbusteruba edo enbusteria dala. Eskribaua dalako, *drogeruba* ta okerra dala. Alan juzgetan ebeen Sokrates gaiti, ordija zala, arpegija ta begijk gorrijak oi zitubalako. Santa Maria Madalena gaiti juzgau eban Simon paresijuak, Jesus engainen eta juan zala, Jesusen oinetan auspaztuta negarrez ikusi ebalako. Alan juzgau oi da opizio batzubetako jentia gaiti bere. Baina geijagoko bagarik inor deungatzat eukitia, bidebagako juzgu gaistua da.

3. Pekatuzko juzguba da, gauza on bat inok egiten dabent, nai txarragaz edo gauza txarrerako egin dabela juzgetia. Alan juzgau eban Samuelen ama Eli sazerdotiak. Eleisan luzaro orazinoian egualako, juzgau eban ordituta eguala. Onetariak izaten dira juzgu gaistorik geijenak. Ikusten dozu bat limosnia egiten. Ta juzgetan dozu banidadez egiten dabela. Ikusten dozu bat bere gauzetan begiratuba. Ta dinozu zekena dala. Ikusten dozu juez bat, alkate bat edo piel bat erriko paltak kastig-



tan ditubana. Ta juzgetan dozu andiguria ta soberbijotsuba dala. Ta onan beste milla juzgu gaisto, lagunaren egite onak txarrera botata.

4. Pekatuzko juzguba da, gauza deunga bat batek bein dabelako, beti alan egingo dabela juzgetia. Ikusten da bat, bein lapurretan egiten. Beste bat bein ordituten. Beste bat bein bere guraz meza entzun bagarik geratutenean. Bada, geijagoko bagarik ez da sinistu biar areek gaiti, beti lapurretan, edo ordituten, edo meza entzun bagarik bitzi diriala.

5. Pekatuzko juzguba da, pamelija bateko edo estadu bateko persona bat gaiski egiten ikusita, pamelija atako edo estadu atako persona guztia deungak diriala juzgetia. Ikusten dozu etxe bateko persona bat dala lapurra. Ta juzgetan dozu atan guztia deungak. Au pekatu da. Ikusten dozu abade bat dala zekena edo ordija edo pausu txarretan bizi dana. Ta juzgetan dozu, abadiak guztia deungak. Au pekatu da. Ikusten dozu, praila bat dala edaalia edo jokolarria edo alegeregiak edo adiskide ez jagokazanekin dabilena edo lapurra edo enbusteruba. Ta juzgetan dozu praila guztia edo geijenak diriala alakoxiak. Au pekatu da. Oneek dira, kristinaubak, ainbat berbarik gitxienagaz, juzgu gaistua ta pekatuzkua nos dan ezaututeko erregela edo neurgarrijak. Ta ze pekatu da juzgu gaistua?

## II.

Inor deungatzat eukitia errazoe ta bide on bagarik, beti da pekatu, neure kristinaubak. Gauza andijan bidaukazu bide bagarik deungatzat, izango da pekatu andija, illgarrija edo mortala. Gauza txikian edo gitxiyan bidaukazu deungatzat, izango da pekatu txikija edo arina. Juzgu gaistua bada errege jaunaren, obispo jaunaren, kura jaunen, sazerdoten, religiosuen, juezen, kaballero edo beste persona ondrauben ta pama onekuen kontra, orduban, alako personak deungatzat eukitia errazoe ta bide seguru bagarik, gauza gitxiyan dala uste izan arren bere, sarri ta laster izango da pekatu mortala. Euren estadu altubari ta ondrautasunari gitxiagogaz egiten jako injurija andija, gaiski juzgetan dirianian. Ta ez pensau, kristinaubak, zeuben inor gaiti egin dozun juzgu gaistua inori esaten ez deutsazunian, ez dozula pekaturik egiten. Bada, inori aotiz atera ez arren, noberak deungatzat proximua eukitia bide seguru bagarik, pekatu da. Norberak gaiski juzgaubaz gainera, inori esaten bajako juzgu gaistua, orduban gaiski esalia da. Ta juzgu gaistuagaz ta a inori esanagaz galduetako ondria atzera biurtu biar da. Oh, zeinbat onetariko pekatu erremedi-

jau bagarik geratutenean beste mundurako! Kanpo andija dauka juzgu gaistuak. Ta txito pekatu kasta ezaina da. Entzun egizu, bida, onen gai-nian zerbaite.

## III.

San Agustinek esaten dau, *jenterik geijena dagnala prest, inor gaiski juzgetako*. Jenterik geijena bitzi da inoren gatzagaz. Norbera baino bestiak deungauago diriala pensaubagaz ta sinistubagaz. Lapurrik ez deritxo ain deungaro bere lapurretiari. Baino bai inoren gaiski esatiari. Logrerubak ez deritxue ain deungaro bere tratu engainuzkuari ta kodizjari. Baino bai bestiak trago bat geijago edaatiari. Zekenak ez deritxo deungaro bere diru gordetiarri ta inoren errukirik ezari. Baino bai bestiaren kastu alperrikuai. Desonestubak ez dau gauza ezainik topetan bere ao ta tratu loijetan. Baino txito deungaro deritxo, biarra egin legijen jentiak egunian meza bat entzutiari. Onan dira beste okerrerria guztia. Norberarenak ezer bere ez dira. Ta lagunarenak txito palta andijak. Geure begijetako zura bere ikusi ezin dogu; ta inoren begiko lasto txikija bere entero zur anditzat daukagu. Onako juzgu okerrak eragiten deuskuz, geu baino obarik ikusi ezinak. Geure soberbijak. Geure andijen izan guriak. Onek eratsi eban Luziper zeruti inpernura. Ta beronek erasten ditu aren ondorik beste asko.

Zeinbat kristinau dagoz, auzuak, laguna edo proximua, santuba bida bere, zetan edo atan deungatzat ez daukenak? Geijago edo gitxiago gaiski juzgetan ez dabeenak? Goijan edo beian paltia topetan ez deutseenak? Etorri zan Juan, dino Jesukristok, *ez jan ta ez edan egiten ebala*, penitentzia egitera ta pekatarijai prediketara. Ta a bere gaiski juzgau dabee ta dinue: *demoninua danka*. Etorri da Kristo jaten dabena ta edaten dabena. Ta a bere gaiski juzgau dabee ta dinue: *jaalia ta edaalia da*. *Vorax est potator vini*. Zer ikusi eutseen gauza deungia san Juan Bautistari, demoninua eukala juzgetako? Zer Jesukristori, ardaoz zalia ta edaalia zala juzgetako? Ezer bere ez. Baino deungiak beti, danik santurik andijena gaiti bere, deungaro juzgau ta deungaro sinistu. Kain deungiak gaiski juzgau Abel bere anae erru bagia. Esau gulerubak gaiski juzgau Jakob bere anae santuba. Maria Moisen arrebiak, emakumiaren burutazinoe arinak, aixetsubak ta zelotsubak gaiti gaiski juzgau bere neba karidadetsuba ta zuzena. Jakoren seme gaistuak, okerrak ta pekatu andiginak gaiski juzgau euren anae Joseren garbitasuna, egija ta leijaltasun pina. Eli ardura gitxiakuak ta ume gaiski azizailliaiak gaiski juzgau Anaren orazinoe santia ta prutu andikua. Saul deungiak gaiski



juzgau Dabid inozentia. Paresijo soberbijotsubak, enbidijotsubak ta pekatzu betiak gaiski juzgau san Juanen barubak, penitenzijak ta sermoe itzaltsubak. Baita Jesukristo geure Jaunaren berba santubak, milagruak ta bizi-tza zerukua bere.

Onan dira, kristinaubak, deungen juzgubak. Deungiaren goguan ez da inos proximuaren egitaderik, ez berbarik, danik zintzuena ta errialena izan da bere, garbiro sartutene. Ezaindu ta loituten dau bere juzgu gaituagaz esanik ondraubena ta egitaderik santubena. Humildia gaiti dino bere artian gaistuak, simple bat dala. Urtentxubagua gaiti, soberbijotsua dala. Bere gauzeten batubagua ta begiratu onekua gaiti, ezertako eza dala. Itzaltsubagua ta txanza gitxiren zalia gaiti, gogorra ta odol txarreko bijotza daukana dala. Irago onekua ta mansua gaiti, ardura bagekua dala. Kastu gitxikua gaiti, kodizjotsuba dala. Berbetan begiratuba ta geratuba gaiti, zaipekua ta zitala dala edo buru eritxiña ta dotoria dala. Puska bat berba ugarijagokua gaiti barritsu bat dala. Premina bagarik lagun arteetan sartutene ez dana gaiti, prestu ez zekena dala. Guztiakin berba egiten ta edozeinegaz bat egiten dan gatx bagekua gaiti, txaal batek baino sustan-ziña gejago ez daukana dala. Errukiorra ta emonzaillia gaiti, etxe galzallia dala. Emonian begiratuba gaiti, keia bere gorde gura leukiana dala. Murmuretan ez badau, okasinetara juaten ez bada, lagun gaistuetati iges egiten badau, sarritxubago konpesetan bada, inoren gaiski esanak ta agriko pekatubak ontzat emoten ez baditu, oh! *ipokrita* paltso bat dala. Santutzat guztiak euki dagijen, egiten ditubala areek.

Ara emen, kristinaubak, proximua gaiti egiten dirian juzgu gaistuak ta penseta txarrak. Geijenak alan alkar juzketan dabee. Batak ezarten deutsa palta bat batari. Ta ak ezarten deutsaz bi bestiari. Nekcz pensetan da ondo inor gaiti. Au guztiau dino san Juan Krisostomok: *Pazienzia onekua bada bat, bildurti koitautzat danka deungiak. Humildia bida, paltsozat ta arpegi biko kristinantzat. Alegeria bida, nasaitzat. Zuñena ta arteza bida, sutsunzat ta ernegantzat. Guztia sinistuten daben on, aingeru bat bida, sen bagakotzat. Kontu onekua ta adin onekua bida, malezijotsotzat edo askotako gaistotzat. Sosigu onekua bida, burugintzat. Barubari ta orazinoiari jarraitutene badeutsa, modu bagekotzat. Prediketari, konpzesiari ta lagunen arimak zerura bidian imintiari ekiten badeutsa, estimazioe zaletzat. Bere konzienzijan ondo ez juakolako isten badeutsa, bere eginbiarrari kobrur emoten ez deutsan alpertzat. Jentiazaz ondo eukiteko grazija badeuka, miin labanekotzat. Inoren labankerijak ta enbusterijak entzun gura ez baditu, andiustekotzat.* Au guztiau da san Juan Krisostomorena. Emen agiri da ze sustrai andijkak daukazan juzgu gaistuak. Ez dago lagunaren egite

bat ez berba bat, ainbat zuzenena ta santubena izanda bere, alde txarrera juzgetan ez danik.

Ta ez da au, neure entzula onak, pekatu ezaina? Nai dozu ain errazzo-to ta ain bide bagarik zeure esana edo egina deungatzat inok eukitia? Zeure berba ta egite guztiak beti alde txarrera ta gatxera inok juzgetia? Ezetz esango dozu. Inok juzgu gaisto bat zeu gaiti egin dabela entzun orduko, bijotzian gorrotuaren suba jagiten ja[t]zuaren kontra. Ta grazijaren indar guzti biar dozu a amatetako. Beste ainbeste gorroto deutsa, kristinaubak, juzgu gaistuari Jaungoikuak. Bera da kristinu guztien jueza. Ta ez dau gura bere ordeko ez danek, juez ez danek inor juzgau dagijan munduban. Juzgau dagijala bakotxak bere buruba. Bainu ez inorena. Jaungoikuari berari esku artutia da, geure lagunen esanak ta eginak geuk juzgetia. *Ez egizu inor juzgau, dino Jesukristok, zeubek juzgau ez zagiyezan. Oh, zeure laguna juzgetan dozuna! Atxekija bagarik galduko zara. Inor gaiti egiten dozun juzgu gaistuagaz zeure buruba kondenetan dozu,* dino san Paulo apostolubak. Nai dozu entzun, kristinaubak, Jaungoikuak zelan juzgetan dituban inoren gatz juzgalarijak? Bada, Eskritura Sagraduban kastigu gitxi irakurten dira erru gogorragorik ta bildurgarrijagorik juzgu gaistuarena baino. Kore, Datu ta Abiron, irurak juzgau ebeen gaiski Moises ta Aaron gaiti. Errazoe bagarik ta bide bagarik, eurak deungak zirialako, juzgau ebeen, simistu eben ta esan eben deungaro Moisen ta Aaronen kontra. Ta zer deritxazu Jaungoikuak egin ebala eurakin? Zelan deritxazu juzgau ditubala? Isrraelgo jente guztiaren aurrian Kore, Datu ta Abiron egozan leku- ban, luurrak edegi eban aua inpernuragino. Ta subaren ta keiaren artian bizirik iruntsi zituban luurrak irurak inpernuko ondarretara. Ara Jaungoikuak ze gorrotua deutsan juzgu gaistuari. Ara ze pekatu ezaina ta bildurgarria dan laguna gaiski juzgetia.

Oh Jaungoiko Santuba! Emon eiguzu zeure grazija, ezaututeko zer dan juzgu gaistua ta ze pekatu zabala ta ezaina dan. Artu daigun juzgu gaistuaren gorroto santuba ta gorde daigun zeure karidadia, zeinegaz irabatiko dogun betiko zeruko gloria. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## VII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*zer egin biar daben kristinaubak inor gaiski ez juzgetako.*

Santo Tomasek erakusten dau, neure kristinaubak, juzgu gaistua dala lagunaren kontrako deungaro estate ta kleitu galtzen ama. Ta juzgu deungiaren ama oi da geijenian, edo enbidija, edo andiguria, edo gorrotua. Okerrerria edo bizijo inpame oneen lelengo umia da, inor gaiti deungaro juzgetia. Ta juzgu gaistuaren umia da laster barruban daukan berenua, nai guzurra ta nai egija, nai ziartuba ta nai dudakua, nai entzuna ta nai ikutsija, nai asmauba ta nai eritxikua, lagunaren paltia inori esatia. Proximuauren kleituko gauzia bada, *zanak emon deuts esanda*, beriala kontau lagunari. Ara emen, kristinaubak, lagun bik edo iruk edo batek, kleituban eurai ez juakuenak, bein jakin edo sospetxa egindako proximuauren paltia zegaiti edo inos bere ez edo txito gitxitan geratutenean azaldau bagarik. Lastima gorrijan, nekez topetan da persona ixil bat edo saiatu bat, lagunaren paltak ezkutetako. Berau gaiti erakutsiko deutsut dotrina onetan, *zer gogoratu edo pensau biar daben kristinaubak, inor deungaro ez juzgetako. Ta oni darraikona, inor gaiti deungaro ez esateko.* Uste dot, balijoko deutsun erakutsi dala. Ta eskatutenean deutsut entzuteko gogo ona.

*Lelengo:* Inor gaiski juzgetara orduko, gogoratu daike kristinaubak san Juan Krisostomok dinuana. Ta da, *kristinau onak nekez inor gaiti gaiski juzgetan dabela; ta kristinau deungiak nekez inor gaiti ondo juzgetan dabela.* Emeti ezautuko dituzu, neure entzula onak, zeuben burubak: Ontzat daukazuz zeure proximuak edo lagunak? Ez aoz esanda bakarrik, askok soberbia pin bategaz esan oi dabeen legez: *Neu baino obia da mundu guztia*, ezbada zeuk alan sinistuta ta guziak ontzat zeure goguan eukita? Bada, kristinau ona zara. Zeure goguan ta zeure bijotzian, inori esan ez arren, deungatzat daukazuz lagunak? Bada, seguru seguru zeu kristinau deungia zara. Ta euki daikezu zeure buruba lelengo deungatzat. Ez dozu au gurako. Bada, ez inor juzgau.

San Gregorijok esaten dau, *gaiski esalia* (ta bardin da gaiski juzgalia) *dala autsari auagaz aixe emoten deutsana legez.* Ta zer egiten dau autsari auagaz aixe emoten deutsanak? Bere begijetara autsa bota. Onegaz esaten deutsku Santubak, gaiski esaten dabenak ta gaiski juzgetan dabenak, min emoten deutseela bere begijai. Au da arimako kaltia. Ta itsututenean dituba-

la bere begijak. Au da egija ez azertetia. Au da bere juzgu txarrak ta esan gaistuak uts egitia. Au da guzurrian ibiltia, itsututa dagualako. Ta autsez betetako begi illunakin besten burlagarri geratutia. Gogoratu bada, kristinaubak, inor juzgau baino leenago, juzgu txarginak deungak diriala, itsubak diriala, guzurrian dabilzala ta arimako begijak autsez beteta daukezala, egija ezaututeko.

*Bigarrenian:* Gogoratu, inor juzgau baino leenago san Buenabenturak dinuana, ta da, *inoren gogoko barri jakin ezina.* Inoren bijotzian ta goguan ze uste ta zer nai daguan Jaungoikuak berak baino bestek ez daki. Ezda aingerubak bere. Ez badaki, bada, kristinaubak lagunaren goguan zer daguan, zelan juzgauko dau laguna deungia dan ala ona dan? Ez badaki zu inoren goguan zer daguan onako edo alako gauza esaten dabenian edo egiten dabenian lagunak, zelan azartutenean zara aren esana edo egina deungia dala juzgetara? Ta zuk deungatzat daukazuna bada ona Jaungoikuaren begijetan, zetan geratutenean da zure juzgu gaistua? Geure bijotzian, geure naijan edo borondatian dago, bada, gure on izate ta deunga izate guztia. Au ezaututenean ez dogun artian, ezin juzgau ginai errazuaz geure laguna ona ala deungia dan. Zeruban agertuko dira argiro guztiion borondatiak, guztiion naijak ta guztiion bijotzak, dirian moduban. An ikusiko dozu nor dan ona ta nor dan deungia. Ordu artian, ezin inor zuzen juzgau ginai. Oker juzgetako, oba da ez juzgau.

Ta esaten badozu, jakinaren gainera juzgetan dozula? Seinalle agiriaj daukazuzala laguna gaiti gaiski pensetako? Ez sinistu, kristinaubak, goguak esaten deutsun guztia. Uts egite asko jazotenean dira gauza onetan. Nos oi dira senaille agirijaguak inor deungatzat eukiteko, Jose Jakoren seme erru bagiaren kontra azaldau zirianak baino? Ejitoko señiora guztiz nausi bat zan, Joseren pekatutzatzua azaldau ebana. Señoriak berak esan eutsan bere senarrari, derrigorrian berari pekatu eragin gura izan eutsala Josek. Nekez, kapiaren zati bat atzamarrakin urratuta librau zala gizon gaistuaren eskubetati. Erakutsi eutsan señoriak senarrari Joseren kapa zati urratuba. Kexau jakozan juezari Joseren kontra. Jose sartu ebeen karzelan. Ta azaldau zan bere pekatutzakua. Nok juzgauko ez eban Jose deungatzat? Nok sinistuko eban Joseri jaso eutseen guzturna zala? Bada, guzurra zan. Joseri alako gauza deungarik gogoratu bere ez jakon. Señoriak berak gura eukian pekatu egin Josegaz. Ta Josek pekatu egin gura ez ebalako gorrotoz ta bengaiz señoriak, andijkatua nobliak jaso eutsan Joseri guzurra, kendu eutsan ondria ta sartu eban karzelan. *Ez bida, inor juzgau denporia baino leenago.*



Nos senalle segurubaguak inor deungaro juzgetako, Susanaren kontra jagi zirianak baino? Errijken buru ta juez zirian gizon bik, ez umiak, ez gazte buru arinak, ezbada edadekuak ta zaartubak esan eben bijak batera jente guztiaren aurrian. Ta zer esan ebeen? Esan ebeen, *eurak topau ebeela Susana gizon bategaz pekatu egiten*. Nok sinistuko ez eutsen edadeko juez arei? Nok juzgauko ez eban deungatzat Susana? Guztiak juzgau ebeen, Daniel santubaz bestiak. Bada, Danielek azertau eban ta beste guztiak uts egin ebeen. Susana deungatzat euki eban erri guztiak. Ta juez zaarrak gizon ondrantzat, eldutzat ta zuzentzat. Bada, oker pensau ebeen dirianak, Danielez bestiak. Susana zan ona ta garbija. Ta agura zaar erriko juezak zirian loijak, Susanagaz pekatu egin gura ebeenak. Ta Susanak areekin pekatu egin gura ez ebanian, guzur andija jaso eutseenak ta erri guztiari Susana santia arrika ill eragin gura eutseenak. *Ez, bada, inor juzgau denporia baino leenago*. Egon leitekez senalle agirijaguak inor deungatzat eukiteko, Santa Marinaren kontra egozanak baino? Bere Aitak eruan eban Marina, neskatxa txikija, mutil jantzita beragaz praire konbentu batera. Aita ta alabia bijak geratu zirian konbentuban praire. Marinari atarako imini eutsan *Marino* izen. Marino zan txikitati praire zintzo bat. Ta zeinbat azijago, ainbat zintzuago, esanekuago ta humildiago. Bere ontasuna gaiti konbentuko nausijk bialduten eban uri urrinera, agindubak egitera. Ta geratutenean zan gabetan lo egiten uri ondoko etxe baten. Etxe atako neskiak batu eban seina norbaiteganik. Ta ezarri eutsan erruba *Prai Marinori*. Neskiaren aita asarre ta gogor kexau jakon konbentuko nausijari Marinoren kontra. Kontu artu eutsan nausijk Marinori. Onek ez ukatu egin eutsan nausijari ez autortu, ezda bere buruba agertu bere, ezba da ixilik egon. Juzgau eban nausijk *Prai Marino* erruduna zala. Azaldau zan beriala kanpuan ta kobentuban Marinoren eskandalu andija. Ta Marino ixilik eguna. Kendu eutseen abitu santuba ta bota ebeen konbentuti kanpora. Baino ez eban esaten Marinok seina beria ez ebanik. Nok sinistuko eban ez ebala? Neskiak, seina eginda, bialdu eutsan seina geroko baten Marinori, beria ebala ta atztekero. Ta artu eban isilik seina. Nok juzgauko ez eban *Prai Marino* seinaren aitatzat?

Geijago uts egin ebeen oraindino alan juzgau ebeenak. *Prai Marino* errubagia urte askotan bizi izan zan konbentuban ta ingurubeten emoten eutseen limosniagaz seina atzten ebala, konbentuko ateetan parauta prailai parka eskatuten. Ta leen baino aurrera oba izango zala aginduta, barriko negarrez abitu santuba eskatuten eutseela. Nok pensauko eban beragaz erabilen seina ez ebala beria? Ez zan, bada. Errukitu zirian prailiak Marinoren bost edo sei urteko ate ondoko negarrakin ta erregubakin.

Milla aurrera on izateko zamaigaz ta kontu gogorregaz artu ebeen barriko konbentuban. Ez eutseen ostera konbentuti urteten isten, leen legez lotsatu ez egilan. Ill zan *Prai Marino* konbentuban. Ta meztituen ezautz ebeen, emakumia zana. Errubagia zana. Santia zana. Zer esango dogu au gaiti? *Ez, bada, inor juzgau denporia baino leenago, Jaungoikua guztiok juzgetara datorren artian*.

Baina zeinbat onako uts egite ta juzgu jazo ez dira ta jazoten ez dira egunero kristinauben artian? Eleisiaren jazuak beteta dagoz onako onak deungatzat juzgautako uts egitez. Aita san Pranziskuba bere aitak eukan deungatzat ta etxe galzailletzat. San Ignazio Loiolakua karzelan euki ebeen; ez herejiak ta jentilak, ezbada euren burubak zuzentzat ta kristinu ontzat eukeezanak. Ene Ama santa Teresari ta ene Aita san Juan Kurutzkuari beste ainbeste jazo jakuen. Euren lagunak ta anaiak juzgau zitubeen oneek deungatzat. Uste ebeen senalle agirijak eukeezala alan juzgetako. Baino engainau zirian. *Ez, bada, inor juzgau denporia baino leenago, Jaungoikua guztiok juzgetara datorren artian*.

Esango dozu menturaz: *Jauna nik onto dakit a deungia dana. Neuri ostu deuts. Neuri ukatu deust. Neuri erruba guzurragaz ezarri deust. Neuri kalte andijk egin deustaz. Neuk entzun deutsat. Neuk ikusi neban. Guztiak dinue a deungia dala...* Onek oi dira, kristinaubak, zeuben errazoe nausijk inor deungatzat eukiteko ta gaiski juzgetako. Ta izan dedilla alan. Baino gogoratu:

*Irugarrenian: Nor zara zu, zeure laguna edo proximua juzgetan dozuna? esaten deutsu san Paulo apostolubak ¿Tu quis es, qui judicas alienum servum? Gogoratu egizu zeu nor zarian. Aztertu egizu zeure bijotza. Examinau egizu zeure konzienzia. Konturatu egizuz zeure biziko egun guztiak. Pisau egizuz zeure berbak, zeure gurarijak, zeure ustiak, zeure asmuak, zeure burutazinoiak ta zeure najiak. Bai agirira atera dituzunak ta bai zeure bijotzian barruban ezkutauta Jaungoikuak ta zeuk baino bestek jakin bagarik euki dituzunak. Ta zer ikusiko dozu? Nor zara zu? ¿Tu quis es? Zeinbat lepra edo ezkabi, zeinbat sarna, zeinbat materiaja atsitu, zeinbat usteltasun, zeinbat ur berde ta mingotx ta zeinbat lizuntasun ez dakuskuz or zeure ariman, zeure konzienzian ta zeure bijotzian? Zeinbat suga ta zapori leku emon deutseezu ta, menturaz zeure laguna juzgetan dozunian, emoten deutseezu zeure bijotzian? Nok kontauko ditu zure pensamentu lotsarizkuak? Nok zure intenzinoe prestu ezak? Nok zure andi gura aixetsuba? Nok zure berba desondragarrijak? Nok zure egite engainuzkuak? Nok kontauko ditu, dinot, zure pekatubak? Nor zara zu, zeure laguna gaiski juzgetan dozuna? ¿Tu quis es?*



Lagunak egin deutsu lapurretan ta zuk diarduzu murmuretan. Ak kendu deutsu azienda. Ta zuk kendu deutsazu lagunari ondria edo kleituba. Bada, zu deungago a baino. Lagunak kendu deutsu miinagaz kleituba. Zuk kendu gura zeunskijo gorrotoz bizitzia. Zu deungago a baino. Laguna da lapurra, etxetan, soluetan ta basuetan al dagijana ostutenean. Zu zara logreruba, engainuzko tratubak al dagizunian egiten dituzuna. Zu zara pobren kontra beti deungaro esaten diarduzuna, arei limosna txiki bat ez emotia arren. Zu zara zekeneriaz ta kodizijaz bijotza liortuta daukazuna. Bada, zu ez obia lapurra baino. Zuk juzgetan dozu laguna, bidaotija dalako ta miin gaistuaren jaubia dalako. Ta zu juzgauko zaitu Jaungoikuak, alperra edo jokolarija edo kastalarria zarialako. Zuk juzgetan dozu proximua, ordija dalako. Ta zu juzgauko zaitu Jaungoikuak, desonestuba, loiha ta atsituba zarialako. Zuk juzgetan dozu laguna, zitala dalako, patsua dalako, zor pagazaille txarra dalako, ardura bagia dalako, agindu guria dalako, bijotz gogorrekuak dalako, enbidiosua dalako, batu guria dalako, esker txarrekua dalako... Ta zu juzgauko zaitu Jaungoikuak, pekatu areek guztiak daukazualako, zeuk ezautu bagarik. Ta areen gainera, juzgazaille gaistua zarialako. Nor zara, bada, zu, laguna juzgetan dozuna, aren paltaak jakinak ta agirijak izan arren? Obia zara zeu zeuk deungeentzat daukazuna baino? *¿Tu quis est?*

Aintxinakuak *lamia* esaten eutseen emakume bat pintau edo iruditutenean begi askogaz. Bainaz zelan? Bere etxian sartutenean, begijak artu buruti ta kutxaan sartutenean zitubala. Ta bere etxetia urtetenean, begijak artu kutxati ta buruban iminten zitubala. Ez eban gura bere etxerako begirik. Kanporako nai zituban dirianak. Ez eban ikusi gura bere etxian zer iragoten zan. Ta kanpokuak guztiak ikusi gura zitukian. Gaiski juzgalarijaka eta gaiski esatiak dira lamiaren modukuak. Euren paltak eta pekatubak, agirikuak eta ezkutukoak ikusteko, ez dabee gura begirik. Ta inorenak ikusteko juzgetako ta esateko, milla begi gura litukee. Emetidor geure burubak ontzat eukitia. Ta bestiak deungatzat juzgetia. Ta geienian, geuk deungatzat daukagunak dauka bere buruba ontzat ta geu gaukaz deungatzat. Alan dagoz engaina krisinaubak negargarri andian, euren burubak santutzat ta bestiak deungatzat sinistuta.

Oh! Inor juzgeta bakotxian esango baleutsa krisinaubak bere burubari san Paulo Apostolubak dinuana: *Nor zara zu, laguna juzgetako?* juzgu gaisto gitxiago egingo litzatekez. Jesukristoren aurrera eruan ebeen judegubak adulterijoko pekatuban topau ebeen emakume bat. Legiak aginduten eban, alako emakumia arrika illteko. Judegubak esan eutseen Jesukristori, arrika a ill biar zala, legia gordetako. Jesukristok esan eutseen

judebugai, pekatuak *ez daukanak jaurtegi dagjola, boda, lelengo arrija.* Au esanda, atzamarragaz luurrian eskribiduten eban Jesukristok. Emakume pekatarijari arrika asi biarrian, zaarrenetati asita, banaka ta binaka ixil ixilik jente guztiak alde egin eban andi. Geratu zirian Jesukristo ta Emakumia, bijak bakarrik. *Nun dira, esan eutsan Jesukristok, zu akusau edo juzgau zaitubeenak? Ez zaitu inor kasigau edo kondenau? Bada, nik bere ez zaitut kondeneetan.* *Zuazta ez egizu gejago pekatuak egin.* Pekaturik ez daukazunok juzgau egizuz, boda, lagunak deungatzat. Ez pekatu egin dozunok. Gaiski esan dot. Pekaturik egin ez dozunok ta aurrera bere egingo ez dozuna dakizunok, juzgau egizuz gaiski lagunak. Bestek ezin juzgau zinai zeuben proximua.

Oh, Jaungoiko juez zuzena! Deungaro inos inor juzgetan ez dozuna! Zeuk ezaututenean gaituzu nor zelakuak garian. Emon egiguzu boda, Jauna, grazia, geure burubak ondo ezaututenean guztiak geu baino obatzat eukiteko. Orduban birrinduko ditugu negarragaz geure pekatubak. Errukituko gara inoren paltiagaz. Maitetuko ditugu lagun guztiak. Ta irabatziko dogu zeruba. Alan izan dedilla Jaungoiko ona gaiti. Amen.



## IX. TA X. AGINDUBAK

*Non concupisces usorem proximi tui: non Domum...*  
Deuter. c. 5.

### I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Bederatzi ta amargarren agindubak zer eskatuten deuskubeen.*
2. *Zelan agindu oneek bat ez dirian zazpigarren ta zortzigarrenagaz.*
3. *Zelan bat ez dirian alkarren artian.*

Leengo erakutsijetan esanda geratu da, neure entzula onak, kristinaubak Jaungoikuari, lagunari ta bere burubarri eginian ta esanian zor deutsana. Eskatuten deutsku Jaungoikuak lelengo zortzi agindubetan, Bera maitetuteko, ondreetako ta serbiduteko, beste gauza guztiak baino gejago; Bere izen santuba alperrik auan ez artuteko; Berak santu egindako egunak, geuk bere santututeko; geure gurasuak ta nausijaguak ondretakoa; lagunari ez geure burubai, ez osasunian ta ez bizitzan kalterik ez egiteko; geure gorputzetan ta miinetan garbitasuna ta kastidadia gordetako; inori diruban, eukijan edo aziendaan kalterik ez egiteko, ta ezda kleituban, pamaan edo ondraan bere. Onan Jaungoikuak imini dau zero altutti lege zuzena, mundura etorri dirian ta etorriko dirian gizon ta emakume guztiontzat. Jakiturija neurri bagako bategaz erakutsi deusku, esan biar dogun ta egin biar dogun guztia. Bera lelengo ta geijken; ta gero beste lagun guztiak geure burubak legez maitetuta, guztiok irabatzi daigun zeruko erreinu ditxosua. Zer biar zan, bada, gejago, mundu guztia bardin, zuzen ta beti alkar artuta bitzi izateko? Geure bijotzeko gurarijak zuzendutia ta, neurriti kanpora urten ez dagijen, arei esja imintia. Ta au da beredatzi ta amargarren agindubetan Jaungoikuak egiten dabena. Ikusi daigun, bada:

1. *Agindu oneetan Jaungoikuak zer eskatuten deutskun.*
2. *Zelan erabagiten dirian alkarren artian.*
3. *Zelan erabagiten dirian alkarren artian.*

### I.

Azkeneko agindu bijetan Jaungoikuak eskatuten deuskuna da, neure entzula onak, gurari deungai geure bijotzian lekurik ez emotia. *Non concupis ces.* Geure bijotzian jaijo edo sortu leitekezan gurarijak zer dirian ta zeinbat modutakuak dirian, esango da geroko erakutsijan. Bijotzeti edo borondateti kanpora urten bagarik geratuten dan guraari edo nai bide



bagakua da azkeneko agindu bijak eragozten dabeena. Gauza txarra nai izateti egitera, bide andija dago. Ez da popuertzakua pekatu egiteko, gauza eragotzia esatia edo egitia. Asko da ezauberaz gura izatia. Ez dau esaten san Paulo apostolubak, *aberastu dirianak jausten diriala tentazioian ta diabrubaren lotugarrijan; ta erijotzia ta betiko galdua gizonarentzat daukeen desio onera bagako ta kaltegarriak dakazala aberastutia, ezbada aberastu guriak, aberastuteko naijak edo aberastuteko gurarijak.* *Qui volunt divites fieri.* Alan amaituten dau Apostolu santubak berak esanagaz, gatx guztien sustraija dala gura irria. *Radix omnium malorum cupiditas.*

Bijotzeko gurari edo nai deungiak bere azierak daukaz, san Gregorijok esaten deuskunez. Lau modutara, dino Santubak, pekatu egiten dala gurariz: Lelengua da tentazioezkua. Bigarrena, noberaren gustozkua. Irugarrena, noberaren naizkua edo konsentimentuzkua. Ta laugarrrena, pekatu egina ontzat zaintutezkua. *Suggestione, delectatione, consensu, et defensionis audacia.* Diabrubak tentetan dau gauza txarrera; ta borondatiak ez deutsa ezetz esaten tentazioiari. Ordubar da tentazioezko pekatuba. Aragijak eskatuten deutsa gauza eragotzia; ta borondatiak ez deutsa ukatuten aragijari eskaarija. Ordubar da bijotzian guztozko pekatuba. Gogoratutzen jako gauza deunga bat, lapurreta bat edo beste pekatu bat egitia; ta borondatiak nai dau edo konsentiduten dau lapurretia. Ordubar da naizko pekatuba, ostu baino leenago. Pekatu eginda ez dau ezautu gura pekatutzat, ez dau autortu gura. Ordubar da pekatu barrija, pekatu egina ontzat zaintutia. Lau gauza oneek iminten ditu geure lelengo pekatuban san Gregorijok berak. Diabrubak tentau eban Eba. Eba poztu ta alegrau zan tentazioigaz. Adanek nai izan eban edo konsentidu eban. Ta pekatubaren gainian kontu artu eutseenian, ez eban pekatutzat ezautu edo autortu gura izan. Au gaiti esaten dau Jesukristo geure Jaunak bere eban-jelijo santuban, *bijotzeti urteten dabeela burutazinoe deungak, gizon illtiak, adulteriujak, pornikazinoiak, lapurretek, testigantza guzurrezkuak, blasphemijk ta beste pekatubak.* Oneek guztiok bijotzeti urten baino leenago dira gurarizko pekatubak bijotzian edo ariman bertan. Pekatuzko gurari deunga oneek eragozten deuskuz, bada, Jaungoikuak beredatzitza amargarren aginduban. Ta au errazoe asko gaiti.

## II.

*Lelengo:* Eragotzi euskuzan Jaungoikuak azkeneko agindu bijetan gurari txarrak, bere lege santuba aituten inok uts egiterik euki ez dagijan.

Bada, judegu askok uste ebeen, kastidadiaren kontra pekatutrik egin ezagaz ta inori ezer ostu ezagaz gordetan ebeela legia, seigarren ta zazpigaren aginduben kontra gurari txarrak euki arren. Bada, seigarren agindubak dinuana da aragizko pekatutrik ez egitia. Ez, aragizko pekatutrik ez nai izatia. Ta zazpigarenak ezer ez oostutia. Ez, ezer ostuteko guraririk ez eukitia. Orregaiti uste ebeen judeguben artian askok, aragijari gusto emoteko ta ostuteko gurarijak libre ziriala, aragizko pekatutrik edo lapurretarik egiten ez zanian. Uts egite oni aurria artuteko ta bijotzeko gurari gaistuai esija iminteko agindu eban Jaungoikuak berba agirijakin, gurari txarrik ez eukiteko. *Non concu pisces.* Leengo zortzi aginduben ta eragotzien gainera, sustraiti duda guztiak ta atxekija guztiak pekatarijari kenduteko geitu zituban Jaungoikuak azkeneko agindu bijak. Areetan zuzendu zituban Jaungoikuak geure esanak ta eginak. Ta oneetan geure naijak ta gurarijak. Areetan lotu zituban Jaungoikuak geure miina, eskubak ta oinak. Ta oneetan lotutene ditu geure bijotzak ta borondatiak. Areetan agindutene deutsku egin biar doguna; ta eragozten deutsku egin biar ez doguna. Ta oneetan eskatuten deusku euki biar dogun naija; ta eragozten deusku euki [biar] ez dogun gurarija. Alan, ez dira bat eginak azkeneko agindu bi oneek bestiakin.

*Bigarrenian:* Beste agindubak obeto ta ziurrago gorde daiguzan emon euskuzan Jaungoikuak beredatzitza amargarren. Bada, Erromano Katezismuak dinuan legez, bijotzian nai gaistuai ta gurari deungai lekurik emoten ez deutseenak, errazto ta seguru gordetan ditu beste agindubak. Gurari txarrik edo bide bagakorik ez daukanak, ez dauka inoenaren desiorik. Kontentu da beriagaz. Poztutene da inoren onagaz. Eskerrak emoten deutsaz Jaungoikuari. Bakia dauka bere bijotzian. Gordetan ditu jaijak. Ondretan ditu nagusijaguak. Ta ezdeutsa inori kalterik egiten ez esanagaz, ez eginagaz, ez osterantzian, dino katezismuak berak. Bada, leen esan dan legez, pekatu guztien sustraija ta ama da gurari deungia. Esan ginai, beste agindu santubak gordetako giltzat emon euskuzala Jaungoikuak azkeneko agindu bijak. Giltza gordetan dan artian, giltzpeko gauzak gordeta dagoz. Bada, beredatzitza amargarren agindubak gordetan ditugun artian, beste zortzirak gordeta daukaguz. Geure bijotzian pekatuko gurarijari, pekatuko naijari edo goguari lekurik emoten ez deutsagun artian, ez daukagu ariman pekatutrik. Ta gordetan dogu lege guztia.

*Iruigarrenian:* Emon euskuzan Jaungoikuak azkeneko agindu bijak besten gainera, aituten emoteko kristinaubari, dino Erromako Katezismuak, ez dala asko Jaungoikuaren lege santuba gordetako, legiak edo agindubak dinuana azaleti edo agirijan egitia, ezbada legiak dinuana



egin biar dala bijotzeti, gogoz, borondate ta nai onagaz. Au eskatutzen deusku Jaungoikuak bere lege santuban. Au gaiti Jaungoikuaren agindubak ta munduko legeginnenak ez dira bat. Munduko legeginak, euren aginduba egin ezkero nai gogo onagaz ta nai txarragaz, ez deutsee inori geijago eskatuten. Agindutenean *armarik ez erabilteko; gabaz etxeti ez urteteko*. Bada, arma bagarik ibili ezkero ta gabian etxian egon ezkero, nai borondate onagaz ta nai txarragaz egiten dabela, ez deutsa munduko agintarijak konturik artuko. Baino bai Jaungoikuak. Jaungoikuaren legiak eskatutzen deusku ez bakarrik aginduba egitia, ezbada baita gogoz, bijotzeti ta nai onagaz egitia bere. Au gaiti Jaungoikuaren lege santuban, garbijan ta zuzenian egitia pekatu dana, nai izatia bere pekatu da. Esatia pekatu dana, gura izatia bere pekatu da. Beredatzi ta amargarren aginduban eragozten deusku Jaungoikuak pekatuzko gura izate edo nai izate guztia. Onan erabagi edo bakartutenean dira agindu bi oneek beste zortziretan. Ta eurak bijak alkaran artian bere bakartutenean dira. Bada, batak eragozten ditu gurari batzuk ta bestiak beste batzuk.

III.

Pekatubak bakartutene dirian legez alkarreganik, alan pekatubaren gurarijak bere bakartutene dira. Lapurrezia ta inor illtia pekatu bakartubak dira.

Orditutia ta gaiski esatia bere bai. Maldezinoia ta adulterrija bere bai. Ta alan beste asko. Bada, pekatuko gurarijak bere ez dira ez bat ta ez bar-dinak, ezbada bakartubak ta bata bestiak ez dirianak. Alan, gorroto bate-gaz edo gaistoz lagunari gura bazeuntsa kendu daukan diruba, ondria ta bizitzia, egingo zendukez gurari txarreko iru pekatu. Ta esan biarko zen-duke konpesinoian, aziendia, ondria ta bizitzia galduetia opa izan zeunsala lagunari. Bada, bizitzia galdueteko guraari pekatuzkua ez da bat egiten ondria galduetekuagaz. Ezda oneek bere aziendia galduetekuagaz.

Au berau gaiti, beredatzitza amargarren agindubak bijak eragotzi arren gurarizko pekatubak, ez dira bijak bat. Bada, eragozten ditubee aparteko gurarijak. Beredatzigarrenak eragozten dau, inoren emazterik ez desietia edo nai izatia. *Non concupisces uxorem proximi tui.* Eragozten ditu agindu santu onek kastidadiaren kontrako gurari bide bagako txar ta loi guziak. Ta amargarrenak eragozten dau, inoren etxerik, kriaurik, krijadarik, ganadurik, solorik eta basorik ez desietia edo nai izatia. *Non concupisces domum, servum... bovem, proximi tui.* Agindu onek eragozten dau, inoren

diruba, aziendia edo balijoko gauzia, dana dala, jaubiaren errazua zko nai-jaren kontra noberarentzat gura izatia.

Izentetan ditu Jaungoikuak agindu bi oneetan kastidadiaren ta zuzentasunaren kontrako gurarijak. Ez beste birtute ta on izateen kontrako gurarijak lege onetan eragozten edo barrututzen ez dirialako, ezbada kastidadiaren ta zuzentasunaren kontrako gurarijak izentau ta eragotzi ezkero, beste gurari txar guztia bere izentautzat ta eragotzitzat aituten dirialako. Ta baita, gurari txar guztien artian kanporik andijena ta pekatu geirik zabalena eurak daukeelako bere. Luxurija ta kodizja dira, duda bagarik, pekaturik geijen eragiten dabeenak. Ta oneen gurarijak izentetan ditu Jaungoikuak agindu bi one[e]tan. Pensamentu loijak bere guraz daukazana, ez dago urrin berba loijetati. Gusto lojjai bere artian goguan leku emoten deutseena, ez da urrin egite loijetati. Lagunaren senarra edo emaztia desietan dabena, ez dago urrin adulterijoti. Zer, bada? Ez deutsazu pensamentu loiri lekurik emongo zeure bijotzian, dino Jaungoikuak. *Non concupisces.* Ez zara aragijären gauza loijak gogoratuta, arectan gusto artutenean egongo. Ez dozu kastidadiaren kontrako gurari edo desio deun-garik zeure bijotzian eukiko. *Non concupisces.*

Inoren beijaren, idijaren edo astuaren desiuarri bijotzian leku emon deutsana, ez dago urrin, era seguruba ta ixila euki ezkerro, ardiña edo bil-dotsa, idija edo astua ostuteti. Zer, bada? Ez dozu desiaukoa lagunaren idirik, ez astorik, dino Jaungoikuak. *Non concupisces bovem, non asinam proximi tui.* Inoren etxia, solua edo basua ostutiarri bijotzian leku emon deutsanak, asmo asko topetan ditu inorena beretuteko. Batzubetan, Akak ta Jezabelek legez, jaubia illda. Beste batzubetan, auzi txar bat, solua, etxia edo irabazia kenduteko iminita, auzi jaibazteko testigu paltsuak ta bitartekuak topauta noberaganatutenean da inoren aziendia. Beste batzubetan, gurarija egin jakon gauziaren merkatari norbera eginda. Engainuz gauza a saldutera jaubia ekarrita noberaga natutenean da inoren aziendia, edo erramienzia, edo laboria, edo jantzia, edo beste gauza balijkoren bat. Bakizu zeure auzuak zorra daukana. Ta etorten jatzu aren gauza baten gurarija. Ezin zeuretu dozu gauza a bide onetzi. Artutekua daukana gana juanda esaten deutsazu, *laster kobraren edo beretutzen ez badan agan daukan artutekua, menturaz guztia galduko dabela.* Eskatutenean deutsa zordinari. Ez dauka zegaz pagau. Egiten zatxakoz (au guztia jakinik) gauza aren merkatari zorra pagetako, diruba eskuban eskinita. Ta ekartzen dozu etxian biar eukian ta euki eukian gauzia zeuri emotera. Ta menturaz balijuua baino merkiagoa. Ara, zuk inoren gauziaren gurarijari bijotzian leku emonak zeinbat oker



ekarri dituban. Zer, bada? Ez naitu, ez desiau, ez bijotzian lekurik emon inoren gauziaren gurarijari. *Non concupisces rem proximi tui.*

Onan itxi zituban, neure entzula onak, Jaungoikuak pekatubuen atiak bere lege santuban gurari deungak eragotzijagaz. Bederatzigarrenian kastidadiaren kontrakuak ta amargarrenian zuzentasunaren kontrakuak. Berau gaiti, Erromako Katezismuak esaten daben legez, emon biar deutsaguz Jaungoikuari esker andijkak, azkeneko agindubetan geure gurari sarritakuen zuzenbidia ain argiro ta ain arimako onera andijkagaz erakutsi ta agindu euskulako. Bada, beste agindubetako eginbiar nausija ta ituba da, inori kalterik ez egitia. Bainan agindu bi oneetako ituba ta Legegein santubaren gogua da, gurari gaistuakin geure burubai edo arimai kalterik ez egitia. Guraari txarrak bakarrik, ez deutsa noberari baino besteri kalterik egiten. Zure aragizko pekatu guriak, geijagoko bagarik, ez deutsa inori kastidadia galdu eragiten. Zure lapurreta guriak, geijagoko bagarik, ez deutsa inori ezer kenduten. Bainan illten dabee zure arimia. Ez dago pekatu txatxarragorik, ez zoruagorik gurari utsezko pekatuba baino. Geure burubai bakarrik kalte egin ez daijogun gurari pekatuzkuakin emon deut[s]kuz, bada, Jaungoikuak azkeneko agindu bijak.

Ondo ezautu ta maitetu dagijela, bada, zeruban aingerubak geure Jaungoiko ona. Jaso dagijela ta entzun dagijuela bere esana zerubak ta luurrak. Emen guztiok bere lege santuba zuzen, ziatz ta gogoz gordeta, euki daigun bardin bagako ditxia zero ederrian beti bizi izateko Aitiagaz, Semiagaz ta Espiritu santubagaz. Amen.

## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer aituten dan gurarijaren izenagaz.*
2. *Zeinbat modutarakuak dirian gurarijak.*
3. *Nos dirian onak eta nos txarrak.*

Erromako Katezismuak beredatzi ta amargarren agindubetako erautsijan txito kontu andija dauka, neure kristinaubak, geuri aituten emoteko zer dan, zeinbat modutakua dan ta zetarikua oi dan gizonaren gurarija. Au gaiti pultitetati ta ostian bere entzun oi dozu sarritan, gurari txarrak, apetito gaistuak, inklinazioe deungak, antoju inpamiak ta beste onako geure gogoko gatz betiko bat edo sustraizko bat esan gura daben berbetia. Ez ain argija ta erreza bere, dotrina puska bat ozta baino geijago ez dakijan kristinaubak aituteko. Au gaiti pensau dot erakutsi onetan zeubei aituten emotia: 1. *Zer esan gura daben gurarijak.* 2. *Zeinbat modutarakuak dirian.* 3. *Zelakuak dirian.*

## I.

*Gurarija* ez da beste gauzarik, neure entzula onak, orain esaten danez, ezbada gizonaren edo emakumiaren goguan sortutenean edo jaijoten eta ez daukazan ta ondo deritxuen gauzeen eskia edo naija. Gurarijak izan biar dau, ez daukazan gauzeena ta ondo deritxuen gauzeena. Alako gauzeen naija edo eskia sortu dakijonan gizonari edo emakumiari bere goguan, bere-kauten dua gizona edo emakumia gauza aren ondorik, jadiitxi aldagijana bada goguak eskatu deutsan gauzia ta errazoiagaz atzera eragiten ez badeutsa gurarijari. Gurarija berez ez da amodijua, dino santo Tomasek, *ezbada amodijuak ateraten daben, ez daukagun ta ondo deritxagun gauziaren eskia edo naija.* Gurarija ez da gauza onak geure gogora dakin poza bere. Bada, pozak urtetean dau gogoti, nai dabentz gauzia ya beragaz daukanian, dino santubak berak. Bainan gurarijaren izatia da, ez daukanaren naija edo ez daukanaren gogoko eskia. Alan, gizonaren edo emakumiaren gogua, ez daukan ta ondo deritxon gauziaren eske eta naijan, tiraka legez, biztuta legez edo abijetara legez iminten dabelako gurarijak, esaten deutsa Akilles abatak



gurarijari diabrubaren aztia. *Manubrium damonis*. Bada, gurarijak bagarik etsaijak ezer bere ezin legi munduban. Gurarijetat oratuten deutsa diabrubak gizonari edo emakumiari. Berak irakoi edo sortutten ditu geure goguan gurari deungaak, batian bata ta bestian bestia. Ta andi oratuten deutsa gero arima tristiarri, zaldijari kabuti oratuten jakon legez.

Gurarija amai bagakua da, dino santo Tomasek. Bada, geure adilliarren edo entendimentubaren asmuak eldu legitekezan lekurgagino eldu legitekez geure gurarijak. Gizonaren asmuak ta pensetak ez daukee amairik, ez neurririk. Beti juan leitekez geitubaz ta zabaldubaz. Bada, alan dira gizonaren gurarijak bere, dino Santubak berak. Au goguan euki biar dabee kristinaubak beti, euren gurari gaistuai neurrija iminteko. Nos aseko ete da kodiziosua diruz? Ill dedinian Nos esango ete dau aginduguriak, *oraintxe ondo nago?* Inos bere ez. Alejandro Andijak negar egiten eijkeban mundu bat baino ez equalako. Gizonak illaz ta luurra odoldubaz, erreinu asko irabatzi zituban. Munduko guztiak irabazteko ustia eban. Ta gitxi eritxon mundu guztiari bere agindu lekutzat. Nos aspertuko ete da aragizkua gorputzaren gusto? Zaartuta bere ez. Agura zaarrak ta juezak, lotsa puska bat euki biar ebeenak, zirian santa Susana garbijia galdu gura eukeen gizon bijak. Baina zaartuta bere gurari loijak ixioita eukazan euren goguak. *Nos in concupiscentia tui sumus*. Zugaz pekatu egiteko amodijo loijak erreetan gaukaz, esan eutseen juez zaar biak santa Susana garbijari. Ta egiten ez badozu geugaz pekatu, geuk esango dogu beste bategaz pekatu egiten topau zaitugula ta arrika ilgo zaitubee jente guztiaren aurrian.

Oh gurari itsubak, neurri edo amai bagakuak ta kaltegarrijak! Bildurtu, kristinaubak, bildurtu erne txarreko gurarijakin. Bein jorratuten badituzu edo erregarijetan badituzu ezauberiagaz zeuben goguan, laster aziko dira. Laster artuko dabee kanpo andija. Laster itsutuko zaitubee. Ta laster izango dira amai bagakuak. Edo zeubek betiko amaituko zaitubee. Baina, aurrerago irago bagarik, ikasi biar dozu, neure entzula onak, zeinbat modutakuak dirian gurarijak. Bada, ez dira guztiak deungak.

## II.

Izan leitekez bada, kristinaubak, geure gurarijak modu askotarakuak.

*Lelengo:* Izan leitekez gurarijak geure izatiak berez eskatuten ditubanak. Berez gura dau gose danak janaria, egarri danak edatekua, biloxik daguanak jantzia, otz danak berotutia, lotuta daguanak askatutia, gaixuak osatutia, itsubak ikustia. Ta beste onetariko gurari asko dira, geure izatia-

ri berez noraezian darraikozanak. Onako naturalezazko gurarijetan, dino santo Tomasek, ganadubak eta geu bardinak gariala. Geuri geurez etorten jakuzan legez gurari oneek premina orduban, alan etorten jakuez ganadubai euren premina ordubetan. Egija da, ganadubak errazoerik ez daukeen legez, areen gurarijak beti dira naturaleza utsezkuak. Baina gure gurarijak, santo Tomasek berak esaten daben legez, errazioan ta naturalezan bijetan daukee sortueria. Orregaiti, geure naturaleziari berez jagokazan gurarijak bere, errazioiak neurtu ta zuzendu biar ditu.

*Bigarrenian:* Izen leitekez gurarijak, geure izatiak berez eskatuten ez ditubanak; baina geure ustiaq ontzat daukazanak. Ta geure goguan on uste-kotzat sartuta dagozan gauzeenak. Alan gura ditugun gauzak ez dira guztiz biarrekuak. Ta ezda gitxiago bere, geure izatia gordetako edo geu bizi izateko. Bada, asko bizi dira ain bagarik. Baina dira geure burutazinoiak, baleukaz, ontzat artutten ditubanak. Ta burutazinoiaren ondo eristeti jagiten da goguan euren gurarija edo baleukazko naija. Emen asten da, san Paulo apostolubak dinuan aragijaren ta espiritubaren gerria. *Caro enim concupiscit adversus spiritum: spiritus autem adversus carnem: haec autem sibi invicem adversantur.* Aragijak daukaz bere gurarijak espiritubaren edo arimiaren kontra. Ta espiritubak edo arimiak daukaz bere gurarijak aragijaren kontra. Geure gorputza ta arimia beti dagoz gerran euren gurarijetan. *Haec sibi invi cem adversantur.* Bada, arimiak edo espiritubak berez beti gura ditu, Tertulianok esaten dabent legez, gauza onak, zuzenak, garbijak, errazuazkuak ta santubak. *Anima christiana est.* Baina gorputzak berez, beti gura ditu luurrezko gauzak, ustelkorrik ta errazzoeti kanporakuak. Au gaiti dino Apostolu santubak berak, *jakinak diriala aragijaren gurarijak ta egitiak.* Ta zeintzuk? Pornikazinoia, loikeria, berdekeria, luxuria... *fornicatio, immun ditia, impudicitia, luxuria...* Ta zeintzuk dira espiritubaren prutubak? Karidadia, grazijazko poza, bakia, pazienzia... *Caritas, pax, gaudium, patientia.*

Emeti ezaututene da, neure entzula onak, zer dirian edo zer izan leitekezan, alako geure izaterako ez dirian ta geure burutazinoiak aintzat artutten dituban gurarijak. Onetarikuak dira dirubaren gurarija, edertasunaren gurarija, jantzi apaindubaren gurarija, entzute altubaren gurarija, janari ugarijaren ta gozuaren gurarija, edaateko gozuen ta usain gozuen gurarija, soinu ederren gurarija, gorputzerako gauza leunen ta labanen gurarija, atseeta onaren ta sarritakaren gurarija, lagun maiten gurarija, olgeeta oneen gurarija ta beste milla onako, geure goguan burutazinoiagaz sartutene dirianak ta geu ain bagarik bizi geintekezanak. Bada, munduban asko bizi izan dira, bizi dira ta biziko dira ain bagarik. Ta gu bere bizi geintekez areek bagarik, nai bagendu. Gose danak jan nai izatia,



berezkua ta geure izatiak eskatuten dabena da. Bainan janarija edo edaaria gozua baino gozuagua gura izatia, burutazinoaren asmua da. Janari gozua pozagorik jaatia, geurezkua da. Bainan osasuneko janari tertziokoa eukieta, aren gainera edo ari itxita, geijago ta gozuagua nai izatia ez da naturaleza utsaren gurarija, ezbada burutazinoarena. Biloxik daguanak zer jantzi euki gura izatia, berezko gurarija da. Bainan jantzi ederra baino ederraguia, apainduba baino apaindubagua ta modarik barrijena baino barrijagokua gura izatia, ez da geure izatiaren eskaria, ezbada burutazinoarena. Ta onan beste guztieta.

Beredatzi ta amargarren agindubetako erakutsija aituteko, erabagi edo apartau biar ditugu bada, neure entzula onak, alkarraganik, geu bizi izateko biar ditugun gauzen gurarijak ta, ain bagarik irago geintekezala, aintzakotzat burutazinoian sartuten jakuzan gauzen gurarijak. Lelengua euren erru bagakuak edo pekatu bagakuak dira. Bainan bigarrenak, borondatiai errazoiagaz ta Jaungoikuaren lege santubagaz neurtu ta legeperatutena ez baditu, pekatu dira. Esango neuke, kristinaubak, onetariko burutazinoezko gurarijakin daukala diabrubak itsututa mundurik geijena. Lelengo begiratuban ez dirudijen legez lege agirijaren kontra, uste dabee kristinaubak atariko burutazinoezko gurarijak ez daukeela neurrik; ta libre dala nai dabena, edo al dagijanak al dagijana gura izatia. Ara emen zelan kristinau askok, baita euren burubak ontzat daukeezanak bere, baita sarri konpesetan dirianak bere, baita pekatu mortaletati urrin dagozala uste dabeenak bere; ara emen, dinot, zegaiti aseetan ez dirian kristinau askoren gurarijak. Zegaiti daukeen amatau bagarik euren goguan, sarri konpesau ta komulgau arren, ondasun geijagoren gurarija, apaindurria geijagoren gurarija, jan edan geijagoren gurarija, entzute andijaguaren gurarija, olgeeta geijagoren gurarija... inos asetu bagarik ta konpesakizuntzat bere artu bagarik. Begiratu bada, kristinaubak, zetarikuak dirian zeuben gurarijak. Examinau ta aztertu zeuben goguak. Itsu itsuban engainauta galdu ez zaitezan betiko.

*Irugarrenian.* Izan leitekez geure gurarijak zuzen zuzen legiaren kontra. Oneek dira ostuteko gurarija, inor illteko edo banatuteko gurarija, ordituteko gurarija, kastidadiaren kontrako gurarijak ta beste guztiak lege santubaren kontra dirianian. Legia austeko gurarija bida gauza andijan, izango da pekatu andija. Bada gauza gitxian, izango da pekatu txikija. Lau errial ostuteko gurarija pekatu anditzat emoten da. Errial bat ostuteko gurarija berez pekatu txikitxat emoten da. Alan beste guztieta.

*Langarrenian:* Izan leitekez geure gurarijak gauza onerakuak. Jaungoikua obeto serbiduteko, lege santuba ziatz baino ziatzago gordeta-

ko ta geure arimak salbetako gurarija ona ta santuba da. Norberarentzat bizi izateko ta Jaungoikua obeto serbiduteko berez ondo dirian gauzen gurarija ona da. Erlujinoian sartuteko gurarija, kastidadiaren amodijua gaiti ezkondu bagarik bizi izateko gurarija, estadu santubagua dalako sazerdote egiteko gurarija ta beste onetariko guztiak onak dira. Ta guztia erabagiteko, esaten da berba gitxitan.

### III.

Legia austia dan legez gauza txarra, legia austeko gurarija bere txarra da. Legia gordetia dan legez gauza ona, legia gordetako gurarija bere ona da. Legia austeko okasinoian edo bidian sartutia dan legez gauza deungia, legia austeko okasinoaren edo bidiaren gurarija bere deungia da. Bizitzia zaintuteko ta gordetako medijuak artutia gauza ona dan legez, bizi izateko biar ditugun gauzeen gurarija bere ona da. Au gaiti esaten dau Erromako Katezismuak, ez diriala geure gogoko gurari guztiak deungatzat euki biar. *Ez da, bida, gauza txarra, dino, janarija edo edaaria gura izatia; otz danian berotu nai izatia; edo bero danian preskotu nai izatia.* Bada, onako gurarijen indarra Jaungoikuak berak emon euskun geure izatiagaz. Bainan, lelengo geure gurasuen pekatubagaz jazo zan, geurezko gurari oneek sarri eskatutia errazoiak eta espiritubak ontzat emoten ez ditubeen gauzak. *Quae spiritui, ac rationi repugnant.*

Erromako Katezismuaren errazoe onetati ezaututen da, kristinaubak, leen esan dan guztia. Gaixuak osasuna, gosiak jana, otzak berua, bilotxak jantzia, lotubak askatutia, tristiak poza ta pobriak bizigarrija gura izatia geurezkua da, naturalezazkua da, Jaungoikuak emona da, erru bagekua da ta berez pekatu ez da. Bainan, geroko ikasikizunian esango dan legez, Adanen pekatubak azkortu ta lotsa gaistokotu zituban geurezko gurari errubaga ta garbi oneek. Au gaiti sarritan ta sarritan geurezko gurarijak eskatuten deuskubez, errazoiak ta legiak eragotzita daukazan gauzak. Ta bein naija emoten bajako gurari txarrari, zeinbat geijago, ainbat naijago. Inos ez da aspertutenean. Illundutenean dau errazoiak, makaldutenean dau borondatia, egiten da etxeiko nausi ta darua gizona edo emakumia gurari txarrak berak nai dabentz edo eskatutenean lekura.

Ez da ezegaz bere obeto aitutemotu gurari deungak geure goguan zer egiten dabeen, Jose Lanjioek atarako dakarren mutil gazte baten jazuagaz baino. Prenubari bere obeidi gura ez eutsan zaldi ezi bage batek eroian gainian mutilla abijada baten, nun geratuko zan ez ekijala.



Itandu eutsan bidezko batek, ia nora joian alan. Ta erantzun eutsan zaldi gaineti: *Zaldijonek nai daben lekura.* Beste ainbeste dira gurarijak, neure kristinaubak. Zaldi ezi bagako sutsubak dira. Bein artuten badabee bendian gizona edo emakumia, eruango ditubee, ez arrazoia dan lekura, ez borondatiak juan biar daben lekura, ezbada gurari txarrak eurak gura dabeen lekura. Ez deutsee gurari gaistuak orduban obeiduten, ez errazoiaren prenubarri, ez borondatiaren agindubari, ezbada daroia gizona edo emakumia eurak gura dabeen lekura. Oh, zeinbat lotsarizko gauzatara! Oh, zeinbat pekatu ezainetara!

Gogoratu bada, kristinaubak, zer dirian gurarijak; zeinbat modutuak oi dirian; ta onak eta deungaak zelan oi dirian. Au ikasi ezkerro, erraztuago aituko dozu zetati datozañ gurari gaistuak, zegaiti dagozan eragotzita, ta zelan goitu biar dirian, zein dan ureengo ikasikizunaren prestaria. Erregutu daijogun Jaungoikuari, ez dagigula inos bere paltau bere grazia santuba, errazoiaren argijagaz ta legiaren neurrijagaz, geure gurari guztiak zuzenduteko, bere bildur santuban bizi izateko ta zeruban beti gozeta. Aitiaren, Semiañaren ta Espíritu Santubaren izenian. Amen.

### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zetati datozañ geure gogora gurari txarrak.*
2. *Zegaiti dirian deungak edo eragotzijak.*

Kanpo andija ta illuna daukeenak dira, neure entzula onak, gurari txarrak edo pekatuzkuak. Eurak gaiti oi dira geure konzienzijako duda asko. Bijotzian mina ta arduria sarri emoten deuskubeenak. Berebiziko esanak eta eginkizunak zerbait gogoratu ta ezaututen ditu kristinaubak, astiro bere arimiari begiratutenean. Baino gurari utsezko pekatubak nok ezautu zer diran ta zeinbat dirian? *¿Delicta quis intelligit?* Onako guraziko, ondo ezaututen ez zituban pekatuben parkazinoia, esan legi, eskatutenean eutsala Dabid errege santubak Jaungoikuari, esaten eutsanian: Ez egizuz gogoratu, Jauna, neure ez jakinak. *Ignorantias meas ne memineris.* Garbitu nagizu, Jauna, neure ezkutuko pekatubetati. *Ab occultis meis munda me, Domine.* Bada, Dabid errege santubak ta Jaungoikuaren bijotzaren neurriena eginikua, ondo ezautu ezin bazituban bere gogoko ta konzienzijako gurarijak, zelan guk sinistu ginai, errazto ezaututen ditugula? Dabid santubarentzat bazirian beriak ez jakinak ta ezkutuka, nos izango dira guretzat geure gurarijak ezagunak ta jakinak? Duda bagarik, txito bildur izan biar dogu, kristinaubak, gurari gaistuak ta okerrak betiko galdu ez gaijezan. Berau gaiti, gauza onetan kristinaubari emon al dakijon erakutsi guztia, uste dot, ez dala inos bere larregi. Alan, bildur santu bategaz esamai daizuzan zeuben goguak ta begiratu dagijezun gurari deungai, esango deutsut erakutsi onetan: 1. *Nundi dakarren gurari deungiak sustraija.* 2. *Zelan dirian deungaak.* 3. *Zelan goitu biar diran.* Entzun egizu ainbat gogorik oneenagaz.

#### I.

Onetarako gogoratu biar dozu, kristinaubak, leen esan dana. Gurari gaistuetati datozañ pekatubak guztiak. *Nundi gerrak?* *Nundi bake txarrak?* *Nundi auszikak,* dino Santiago apostolubak, *ezbada zeuben gorputz zatjetan dagozan gurarijetati?* Bijotzeko gurarijetati urtetan dabee, dino Jesukristo geure Jaunak, *pensamentu txarrak, gizon illiak, adulteriuak, pornikazinoiak, lapurre-*



*tak, paltso testimonijuak ta blasphemijaak. Gurarija da pekatu guztiен sustraija, dino san Paulok. Ta gurarijaren edo aragijaren egitadiak kontetan ditu Apostolubak berak modu onetan: *pornikazinoiak, desonestidadiak, Jaungoiko paltsonak serbidutiak, gatxintzak, asarriak, gorrotuak, odijnak, ordikeriak, jaate andijkak ta onetarikuak*. Au gaiti esaten dau Santiago apostolubak bere, *Jaungoikuak ez dabela inor tentetan; bakotxa bere gurarijak tentetan dabela. Gurarijari gatxa sortu dakijonian, pekatuba jaijoten dala; ta pekatu jaijuak betiko erijotza erneetan dabela*. Onan berba egiten dau, neure entzula onak, Espiritu Santubak geure gurari gaisto, beredatzia ta amargarren aejinduban eragotzita dagozanak gaiti. Ta nun daukee gurari gaisto oneek euren asipena edo sustraija? Ete dago inor libre gurari galduen sail deungeetati? Ez, neure kristinaubak. Euren azija bijotz guztietan ereinda dago. Euren sustraijak gogo guztietan erneta dago.*

Adanen pekatuban daukee asipena ta sustraija geure gurari pekatuztuak. Adanen pekatuba zabaldu zan legez gizon eta emakume guztietara, alan zabaldu zirian gurari gaistuak gizon eta emakume guztiak bijotzeta-ra. Leenago aragija ta aragijaren gurari guztiak egozan borondatiaren esanian ziur ta zintzoro. Begiak obeiduten eutsan borondatiari. Belarrijak obeiduten eutsan borondatiari. Miinak, eskubak eta oinak obeiduten eutseen borondatiari. Esaten da, Adanek pekatu egin baino leenago, geure gogua, geure burutazinoiak, geure asmuak, geure ustiak ta geure gurarijak, bai asarrekuak ta bai naizkuak, guztiak egozala ziur, zintzoro ta prest geure borondatiaren edo naillienaren esanian ta aginduban. Ez eguna orduban, san Paulok dinuan gerrari aragijagaz espiritubaren artian. Borondatiari obeiduten eutseen zuzen gorputzak ta arimiak ta gorputzeko ta arimako alzailla ta sentizailla guztiak. Ta borondatiak zuzen ta ziur obeiduten eutsan Jaungoikuari berari. An eguna bake santu baten gizona bere gogoko gauza guztietan.

Baina zer jazo zan? Ah negargarrija! Adanen borondatiak urten eban Jaungoikuaren esanetia pekatu egin ebanian. Baita Adanen aragijaren gura-laak ta asarrelaak bere urten ebeen bere borondatiaren agindutti. Adanen borondatiak ez eutsan obeidu Jaungoikuaren borondatiari. Ezda Adanen gurarijak bere Adanen borondatiari. Adanen borondatia lagi zan pekatubagaz Jaungoikuaren borondatiaren kontra. Ta Adanen asarrelako ta guralako zati edo parte bijak, nundi urtetan dabeen pekatuzko asarre ta gurari guztiak, lagi zirian Adanen borondatiaren kontra. Adanek ez eban egin Jaungoikuaren aginduba edo naija. Bada, Adanen gorputz zatiko asarreginak ta gurarginak bere ez dau egingo Adanen espiritubaren ta borondatiaren aginduba edo naija, borondatiak edo espiritubak pelialta,

goitutenez badau aragija. Ara emen, kristinaubak, nundi datorren espiritu bagaz aragijaren arteko gerria ta alkarrtu ezina. Ara emen geure gurari txar guztiak sustraija ta asipena. Ara, geuk geure aragijagaz inos amaitu ezin dogun, ta bizi garian artian, guztiz amaituko bere ez dogun gerria. Ara, aragijaren asarrean ta gurarien kontra beti kontuban ta beti peliadan egon biarra. Ara, Jesukristo geure Jaunak erakutsi euskun, ta salbauko bagara, beti egin biar dogun gerra santuba. Ara, geure salbazinoiaren arerijo nausija. Ara, geure aragi ustelkorra, gurari pekatuzko ta lotsarizkoz beteta, espiritubari obeidu gura ezda, beti gatxerako edo pekaturako gogua zabalik ta eragotzien eskia diadarka daukala. *Oh, nire desditzaua!* diadar egiten eban san Paulo apostolubak bere buruba gaiti, aragijaren gatxintza bildurgarri oni begiratuta. *Oh, nire desditzaua! Nok librauko nau erijotza onen gorputzeti?*

Sustrai onetati bertati sortutenez dira, arako zazpi pekatu *kapitalak* esaten deuteezun gurari galduak. Ta ez dira beste gauzarik, ezbada zazpi pekatu aldra andiren burubak edo amaa. *Andiguria* ta oni darraikon gurari aldra aixetsuba. *Ondasun guria* ta oni darraikon gurari aldra okerra. *Aragizko gusto guria* ta oni darraikon gurari aldra loija. *Inoren onaren naija* ta oni darraikon gurari aldra sikuba. *Neurribagako asarrija* ta oni darraikon gurari aldra sutsuba. *Jan edan guria* ta oni darraikon gurari aldra koipetsuba ta eztitsuba. Arimako *nagitasuna* ta oni darraikon zerurutz igon ezineko gurari aldra luurtsuba. Oneek dira zazpi pekatu burubak, Adanen pekatuba zala medijo, geure goguan sartu zirianak. Oneek dira pekatuzko gurarginak ta asarreginak: Soberbia, kodizija, luxurija, enbidiija, asarre gaistua, gulerija ta nagitasuna Jaungoikuera serbiduteko. Esaten jakue onei pekatuben *burubak*. Pamelija andija edo jente andija bere agindupian dukanari esaten jakon legez pamelijaren buruba, alan zazpi pekatu oneek, bakotxak bere aldran pekatutegi andija ta guraritegi andija daukeelako imini jakuen *pekatu burnben* izena. Begiratuta bada, kristinaubak, ze gerragintza andija jausi zan geure gainera Adanen pekatubagaz.

Nor dago libre gerragintza onetati? Nor da gurari deungaginak ta pekatuginalak ez daukazana? Nor da gurari deungak ta pekaturakuak aragijaren naijak eskatutenez deutsazana? Nor da, dinot, gurari gaistuen ta aragijaren kontra peliau biar ez dabena? Inor bere ez, kristinaubak. Adanen semia edo alabia izatia da asko, aragijak ta gurari txarrak pekatu dirian gauzak eskatuteko. Ez deutsa aragijak lotsarik ekartzen ez zaarrari ta ez gaztiari, ez aberatsari ta ez pobriari, ez andijari ta ez txikijari, ez gizonari ta ez emakumiari. Aman erregeen seme gaztiari ez eutsan parkatu. Dina Jakoren alaba neskatala gaztiari bere ez. Dabid santubari bere ez. Sanson



indartubari bere ez. Judas apostolubari bere ez. Jezabel erreginari bere ez. Jiezi, Eliseo propeta santubaren eskolaubari bere ez. Bati bere ez. Daguan lekuben daguala gizona nai emakumia, aragija ta gurari txarren gatxa beragaz darabil beti. Ta gitxien uste dabentean irakoiten deutsa espiritubari gerria.

Alan, zeregin andija emoten eu[t]seen san Jeronimori, Palestinako mendian zilizijoz, azotez, gosez ta otzez gau ta egun kansauta eukan aragijk irakoiten eutsazan, gaztetan Erromako komedijetan ikusi ta entzen zituban gauza deungen gurrijak. Alan, Ejitoko mendi astunetan bere bizitzarik geijena irago eban san Anton abatari, aragijaren gurari gaistuak zeregin andija emon eutseen ainbeste urtian. Alan, santa Klara ta santa Maria Madalena Paziskuari, birjina ta santa andi bijai ainbeste urteko gerria irakoi eutseen aragijk, konbentu estubetan egozan lekuben, pekatuzko gurrijak eskatuta. Alan... Bainan zeinbat onako? Nok negar egin ez dau aragi deungaren gerria? Nok sentidu ez ditu gurari deungen kaltiak bere ariman? San Paulo apostoluba bildur bajakon bere aragijaren akulu ganari, nor bildur izango ez jako beriarenari? Bildur izan bada, kristinaubak, bildur izan aragijaren ta gurari gaistuen. Bainan esango dozu, ia zegaiti dirian ain deungak aragijaren gurrijak. Endamas gogoti kanpora urtean ez dabentean. Errazoe asko gaiti, dino santo Tomasek.

## II.

Ara erakusla santubaren beraren berbak, zegaiti daguan eragotzita *gurari txaarra*. Gurarija eragotzita dago, dino Santubak. *Lelengo*: Neurri bagakua dalako. Bada, gurarija bere moduban amai bagakua da. Ta zentzuna daukan kristinaubak neurriagaz bizi biar dau bere gauzetan. Espiritu Santubak dino, bada, *kodiziosuba ez dala diruz asek*. Ta Isaias propeta santubak: *Ob, zori gaistokua! Etxiak etxiao ta basuak basuak geituten deutzuzanak*; nun agiri dan gurrijak ez daukala neurririk. Au gaiti gizonaren gogua ta gurrijak Jaungoikuak berak baino bestek naikotu ezin legi. Alan esaten eutsan san Agustinek Jaungoikuari: *Zeuretzat egin ginduzuzan, Jauna; ta nire bijotza gosez dago zengaz naikotu artian*.

*Bigarrenian*: Eragotzita dago gurarija, geure gogoko bakia ta sosiguba galduen ditubalako, zeintzuk dirian txito baljo andikuak. Guraridunak beti dagoz sosigu bagarik, daukeena gordeetako ta ez daukeena eukiteko. Alan dino Eklesiastikok: *Aberatsari eukijak ez deutsa isten lo egiten*. Ta

Jesukristok dino: *Nun daguan zure poltsia, an dago zure bijotza*. Orregaiti esaten deutsee san Lukasek ondasunai *eztakaak*.

*Irugarrenian*: Eragotzia dago gurarija, eukija alperrikakotutene dabelako. Bada, euki utsak ez norberari ta ez inori mesede egiten deutsa. Ez dau beste balijorik ateraten, gordeetia baino. Au gaiti dino Eklesiastikok, *diruzaliak ta zekenak alperrik daukeela gauzia*.

*Langarrenian*: Eragotzita dago gurarija, zuzentasuna okertutene dabelako. Au gaiti dino Espiritu Santubak Exodoko liburuban: *Ez egizu artu erregalurik. Bada, zentzundunak bere itsutsu egiten ditubee ta zuzenaren berbak bere okertu*. Ta Eklesiastikok dino, *urriaren gurarija daukana ez dala zuzena izango*.

*Bostgarrenian*: Eragotzita dago gurarija, Jaungoikuaren ta proximuarren karidadia illten dabelako. Au gaiti dino san Agustinek, *zeinbat karidade geijago daukan kristinaubak, ainbat daukala gurari gitxiago*. Ta *zeinbat gurari geijago, ainbat karidade gitxiago*. Ta Eklesiastikok esaten dau: *Ez egizu urria gaiti desprezijau zeure lagun estimauba*. Bada, urriaren gurrijak illten dau Jaungoikuaren karidadia. Ezin inok bere serbidu legiz ugazaba bi, Jaungoikua ta dirubak, dino san Matio apostolubak.

*Seigarrenian*: Eragotzita dago gurarija, pekatu guztien ama dalako. Bada, da gatz guztien sustraija. Orregaiti bijotzian jarten bada gurarija, gizon ille, lapurreta ta beste pekatu guztia eragiten ditu. Au gaiti esan eban Apostolubak, *aberatstu gura dabeenak, diabrubaren sare ta tentazinoe askotan jaunten diriala; kaltezko ta mesede bagako gurari asko etorten jakuela; ta gurari areek erijotzia ta betiko desditzia gizonai ekartzen deutseela*.

Errazoe oneek guztiok dira, neure entzula onak, santo Tomas eskoletako aingerubarenak, aituten emoteko guri zeinbat errazoe andi gaiti Jaungoikuak eragotzi eutskuzan gurari deungak azkeneko agindu bijeten. Gurari txaar guztiak iru ordenatan sartutene ditu san Juan ebanjelistiak. Ta eureetara batutene ditu munduko gatz guztiak. Alan esaten dau Apostolu santubak: *Ez egizu amau munduba; ezda munduban daguan gauzarik bere*. Bada, mundu ban daguan gurria da aragijaren gurarija, begijen gurarija ta bizitzako soberbia. Aragijaren gurarija esanagaz, aituten emotene ditu Apostolu santubak, luxurijari darraikozan pekatu guztiak, dino san Agustinek. Begijen gurarija esanagaz aituten emotene ditu, kodizijari edo ondasun guriari darraikozan pekatu guztiak, dino Santubak berak. Ta bizitzako soberbia esanagaz aituten emotene ditu, banidadiari edo andiguriari darraikozan pekatubak, dino san Agustinek berak.

Iru gurari oneek izentetan ditu san Juanek, munduko pekatu guztien burutzat. Ez beste asko ez dagozalako, leen esan dan legez, ezbada eurak dirialako pekatu buru guztietati nausijenak ta zabalenak. Andiguria, abe-



rastu guria ta luxurija dira, edo leenago edo geruago, geijenian edo beti munduko pekatubak eragiten ditubeenak. Au gaiti ez ditu eurak irurak baino izentetan san Juanek munduko gatxintzat. Santo Tomasek imini dituban errazoiak, Jaungoikuak gurarijak zer gaiti eragotzi deuskuzan aituten emoteko, gurari txar guztienak izan arren, gejen dira kodizierenak, borondate luurtsubarenak ta andi guriarenak. Emeti ezautut da, neure entzula onak:

1. Beredatzitza amargarren aginduban eragotzita dagozala gurari deunga guztiak.

2. Gurari txar guzietati nausijenak, zabalnak, sustraitsubenak ta pekaturik gejen eragiten dabeenak diriala *andiguria, ondasunguria* ta *aragizko gusto guria*.

3. Aparteko legiagaz eragotzi euskuzala Jaungoikuak beredatzigaren aginduban aragijaren gurarijak edo kastidadiaren kontrako gurari loijak, esanagaz: *Ez dozu inoren emazterik desiauko*.

4. Lege onetan sartuten diriala, ez bakarrik inoren emazterik edo senarrik ez desietia, ezbada baita pornikazinoeko, senikerako, noberagazzo, naturaleziaren kontrako, sodomijako, ganadubagazko, berbazko ta kantazko pekatu loi guztien desiaua ta gurarija bere. Seigarren agindu santuban pekatutzat erakutsi zirian gauza loi guztien gurarija dago beredatzigarenian eragotzita.

5. Amargarren agindubak eragozten deuskula, zazpigarren agindu santuban pekatutzat erakutsi zirian gauza guztien gurarija, esanagaz: *Ez dozu desiauko inoren etxerik, ez basorik, ez krijaurik, ez krijadarak, ez idirik, ez astorik, ezda beste inoren gauzarik bere*. Inoren kalteko gurari edo desio oneek kristinau guztia eragotzita dagoz. Baino Erromako Katezismuak onako gurari gaistuetan arriskurik gejen daukeentzat kontetan ditu: 1. Jokalarrijak. 2. Tratalarijak. 3. Soldaubak. 4. Medikubak edo osaarijaki, nun sartuten dirian barberubak bere. 5. Letraubak ta eskribauba. 6. Opizialik. Ta azkenian *enbidjoso* guztiak. Oneetati gejenok edo guztiok daukeen legez etxian ogija sarri inoren negarragaz ta kaltiagaz, sarrijago-tan jausten dira, desbenturaubak, amargarren agindubak eragotzitako guraarrietan.

Gogoratu bada, kristinaubak, bakotxari juatzun moduban, zetati datozen gurari gaistuak ta zelan dagozan eragotzita. Ez sinistu libre zagozala euretati. Sinistu bai, indartsubak, lotsa gaistokuak ta okerrak diriala. Bein bijotzian leku emon ezkero, gizon nai emakume guzia darabilela arian, eurak gura dabeen lekura ta beti pekatuko lekura. Oh, Jaun zerukua! Argitu egizuz geure adillak, ezautu daigun geure gatxgin nausija, zein

dan geure aragija. Bada, gatxa ondo ezautu ezkero, lasterrago ta zuzenago artuko ditugu a osatuteko medijuak. Bialdu egizu, Jesus maitia, geure bijotzetara zeure bildur santubaren kolpe indartsuba, zeinegaz goituko ditugun gurari txaar guztiak, gordeko dogun zeure agindu santuba, geituko dogun karidadia ta irabatziko dogun betiko zeruba. Aitiaren, Semиaren ta Espiritu santubaren izenian. Amen.



## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*gurari deungak goituteko zer egin biar dogun.*

Osalarrijak agertu ta ezautu eragin arren gaixuari gatxa, osagarririk emoten ez badeutsa, isten dau leengo eduban. Beste ainbeste bada, neure kristinaubak, jazoko litzateke nigaz, leengo erakutsijetan zeubei agertu ta ezautu eragin arren geure galdubidetan gatxa ta sustraija, aren osagarrijak edo erremedijuak iminiko ez baneutsuz. Aditu dozu ze indar andija dauekin gurari gaistuak geure bijotzetan. Zelan bein leku emon ezkero eurai goguan, itsututa dabileen gizona nai emakumia, zaldi ezi bagako batek gainekua legez. Zelan inor bere ez daguan libre gurari deungetati. Ta zelan eurak dirian pekatu guztien sustraijak edo amaak. Oni darraiko, bada, ebanjelijo santuko errazorian, Erromako Katezismuak egiten dabena. Ta zer? Arimako zaurija edo illgarrija ezautu eragin ezkero kristinaubari, aren osagarrijak erakustia. Bakuszu, neure kristinaubak, asko balijo deutsuna erakutsi onetako dotriniak. Bada, erregututen deutsut guztoia arima arimatutu artu dagizula inos baino ardura geijago, ainbat gogorik onenagaz ta usterik zintzuengaz entzuteko. Erromako Katezismuak iminten ditu lau pensakizun edo errazoe, gurari gaistuak goituteko. Ta santo Tomasek iminten ditu beste lau. Ak dakaz gogora, gurari deungak goitu ezak dakazan kaltiak. Ta onek dakaz begijen aurrera, gurari deungai bijotzian lekurik ez emoteko bidiak. Bitzubenak iminiko ditut, bada, ainbat argiruen aituko dituzun moduban. Leleengo Erromako Katezismuarenak ta gero santo Tomasenak.

1. Gurari deungak goitu ezaren lelengo kaltia da, norbera gurari txarren agindupian geratutia. Bada, gurari deungiak goitutenean bagaitu, pekatuba dago geure ariman. Ta pekatupian gagoz geu. Au gaiti dino san Paulok: *Ez dagijala agindu pekatubak zeuben gorputzeten, gurari deungai obeidu ez dagijezen.* Gurari txarrai gogortutenean gatzakozanian, pekatubaren indarrak jausten dira. Ta gurari txarrai leku emoten deutsagunian, Jaungoikua botetan dogu geure etxetik kanpora ta aren lekuban sartutenean dogu pekatuba ta demoninua. Aren aginduban dago gurari txarra goitu ez daben gizonea nai emakumia. Zer lotsari andijagua, gizon bat edo emakume bat gurari txatxar baten aginduban agotia baino!

2. Bigarren kaltiaren pensakizuna da, gurari deungetati urtetia pekatu guztiak. Iturri batetik urteten dabentzitik, gurari txarrezko bijotzeti pekatubak urteten dabee. Esanda geratu da san Juanegaz, aragijaren gurarijak, begijen gurarijak ta andinajak daukazala munduko gatx guztiak. Ta itxiko deutsat berriagaz urteten gatx guztiak neuri dakardazan bati, goitu al izan ezkero? Itxiko neuskijo, goitu al daidala, etxeko guztiak illgo gaitubana dakin arerijo bati, atian barrura sartutenean? Ez. Bada, beste ainbeste da gurari deungiari geure goguan sartutenean istia. Goguan edo bijotzian sartutenean bida, gauza on guztiak illten ditu.

3. Irugarren kaltia da, gurari txarrak gizonari juizjua okertutia ta adina illundutia. Zeinbat gorroto izango geunki auzo bati, geure aita edo ama juizjua okertuta ta itsututa iminiko baleuskuz? Ta zeinbat geijago, geu alan iminiko baginduz? Oh! Txito asko esango genduke a gaiti. Begiratu, bada, gurari txarrai goguan leku emonda, inoren emaztiagaz pekatu egitera doianari. Ia zuzenaren ala okerraren egitadia eta a. Ia itsubarena ala argijarena eta a. Bere emaztiagaz inok alan egingo baleu, zer esango ete leuke? Okertutak ala zuzentzat eukiko ete leuke alako adulterijogina? Bada, a gaiti pensauko leukiana pensau biar leuke bere buruba gaiti, gurari gaistuak inoren emaztiagana doroianak. Baina ez da alan pensetan. Noberaren pekatubak, ezainak ta itxusik izan arren, ez daukaz deungatzat, gurari txarra goguan sartuta daukan artian. Okertuta dauka bere juizjua. Ta illundutak bere adina. Lapurrik ez dau ezaintasunik ezau-tutenean bere lapurretetan, geijago egin ezina baino. Ta batek ostutenean badeutsa berari gauza gitxi bat, orduban dira guztiak okerrak. Baina bere lapurretak, ostuteko gurarijagaz daguan artian, txito ederrak. Gurari txarrak bere bijotzian sartuta daukazanak, gauzarik ezainenak ta pekatutik ikaragarrijkenak eginda bere, esango dau pena bagarik: Ze gatx egin dot, bada? *Quid mali feci?* Edo adrede egin dot; txantzan egin dot. *Ludens feci.*

4. Laugarren kaltia da, Jaungoikuak geure bijotzeta erein gura daben berba santubari erneetan ez istia. Gurari gaistuak ito egiten dabeetik Jaungoikuaren berba santuba ta edozein pensamentu on. Gurari gaistuak eztakatu ta liortu egiten dabeetik geure bijotza, zeruko berba ta abisubak an jar teko. Ta a gaiti ez dabeetik pruturik emoten, dino san Markos ebanjelisiak. Ze estadu tristia gurari txarrezko bijotzarena! Zeinbat kalte ta gatx daukazan bere kontra, gurari gaistuak leku emoten deutseelako! Gurari deungen euren esanian dago; itsututa dago; pekatu guztia leku emoteko zabalduta dago; ta zeruko berbak, argija eta grazija artuteko, itxita dago gurari txarrezko bijotza. Ez dakit gizon edo emakume batek zer euki legi-jan ze galdu, gurari deungai bere goguan leku emon ezkero. Kalte bildur-



garri oneek gogoratuten deutskuz bada, neure kristinaubak, Erromako Katezismuak, geure gogua ta bijotza gurari deungeetati alderatuteko. Entzun dajogun, bada, santo Tomasi, zer egin biar dogun onako arimia-ren ta gorputzaren karga astunetzi ta kalte andikoti libretako, zein dan era-kutsi onen bigarren zatija.

1. Guraarijak goituteko errazoe bat dakar santo Tomasek beria legezkua ta ezin obeto gauzia erakusten dabena. Dino, bada: Bik burruka badiardubee ta batari lagundu gura badeutsazu, zer egingo dozu? Lagundi gura deutsazunari indarra emon ta bestiari indarra gitxitu, aleginaz. Lagundi gura deutsazunari bere burrukako kolpe bakotxian aurrera eragin ta bestiari atzera. Ordubar ezautuko da, zeinek burrukia irabaztia nai dozun. Entzun dozu bada, kristinauba, geure betiko burrukalarrijak diriala espirituba ta aragija. Nai dozu espiritubak goitu dagijan aragija? Bada, espiritubari indarra emon ta aragijari kendu. Espiritubari beti aurre-ra eragin ta aragijari beti atzera eragin. Au zuzengarri seguruba da, neure kristinaubak. Ta biarrekua, gurarijak goituko baditugu. Baino zelan goituko ditugu? Santo Tomasek dino lelengo lekuben: Okasinoetati alde eginagaz. *Primo, occasiones exteriore fugiendo.* Okasinoiak dira lagun deungak, pekatuko lekubak, ibilte nasaijak ta pekaturako bidia kanpoti emoten deutsan guztia. Orregaiti dino Espiritu Santubak, *neskatillari ez begiratuteko, bere edertasunaga galdu ez dagjan.* Job santubak inos bere ez eutseen begiratu. Dabid erregiak begiratu eutsan Bersaberri ta beragaz jausi zan. Salomonek begiratu eutseen emakumiai. Leku emon eutseen bere etxian. Ta lotsari andijan jausi zan. Ta ez dakigu jagi zan. *Emakumeen edertasunak asko galdu ditu,* dino Espiritu Santubak. Dina neskatilla gaztia, bere aita onaren etxian eguna artian, seguru egon zan. Urten eban errijak ikusteria, laster bera ta beste asko galdua, etxera biurtu zan. Au gaiti dino Espiritu Santubak: *Ez zaitez jiraka ibili erri aldeetan, ango plazetan galdu ez zaitezan.* Ezin inok euki legi suba kolkuak soinekua erre bagarik, ezda okasinoietan bere guraz inor ibilli bere, jausi bagarik. Bidaoliarentzat jokua okasinoia da. Ordijarentzat ardaua okasinoia da. Aberastu guriarentzat tratuba okasinoia da. Andiguriarentzat diruba okasinoia da. Oneek ta beste onetariko asko ez dira guztientzat okasinoiak, ezbada areetan jausi oi dirianentzat. Beste okasinoe batzuk guztientzat dira okasinoiak. Lagun txarra, esateko moduban, ordijk, jokolarijak, lapurrik, bake txarrekuak, desonestubak ta beste onetarikuak, edozein kristinaurentzat dira okasinoiak. Areetai guztiak iges egin biar dabee. Esan egidazu nogaz zabilzan ta esango deutsut nor zarian. Emakumiak gizonezkuentzat ta gizonezkuak emakumeentzat, sarriko alkarragaz ibiltian ta karinuan, edozein da guz-

tien okasinoia. Amonentzat Tamar bere arrebia izan zan okasinoia. Absalonentzat bere aitaren emaztia. Putibarren emaztiarentzat Jose bere krijaduba. Lot izan zan okasinoia bere alaba bijentzat. Ta onan beste asko. Goitu gura baditu, bada, kristinaubak bere gurari gaistuak, alde egin biar dau okasinoetati. Alde egin biar dau pekatuban jausi oi dan edo jausi dan lekuti, etxeti, tratuti, ibilteti ta laguna ganik. Bada, *okasinoia nai dabena, okasinoian galduko da.* Pekatuko lekuba nai dabena, pekatuko lekuban jausiko da. Pekatuko lagunagaz egon gura dabenak, pekatuko lagunagaz egingo dau pekatu. *Qui amat peri culum, in illo peribit.*

2. Pensamentu edo burutazinoe gaistuai atia itxijaz goitu biar dira gurari deungak. *Secundo, cogitationibus aditum non praebendo.* Ta au egiten da gorputzari naijak emon ezagaz. San Paulo apostoluba santu andija zan. Okasinoe guztietati alderatutu egulan. Zeru altura jasota, Jaungoikuak bere grazija santan ontzat ezaututa eukan. Ta orregaiti esaten eban Apostolu andijk: Kastigetan dot neure gorputza. *Castigo corpus meum.* Dometan dot gorputz au, ezten dot ta ekarten dot neure agindupera. *Et te serbitutem redigo.* Ta zegaiti kastigetan eban Apostolu santubak bere gorputza? Zegaiti zurriagaz, peniagaz ta nekiagaz ezten eban, dometan eban ta bere esanera ekarten eban san Paulok bere gorputza? Ah, kristinaubak! Berak esaten deusku zegaiti. Bestiai prediketan deutsedan artian neu kondenau ez nadin, dino. Bestiai zerura bidia erakusten diardudan artian, neure aragijaren gurarijak neu kondenau ez nagijen. Au gaiti kastigetan dot neure gorputza. Bada, san Paulok uste beebar, zurrau ta kastigau biar ebala bere gorputz argal, nekatu, kansau, zaar santuba, aragijaren gurarijak goituteko; aragijaren gurarijak kondenau ez egijen; *ne forte... ipse reprobus efficiar;* zelan goitu gura gendukez guk geure aragijaren gurari deungak, gorputzak ezi, domau ta kastigau bagarik? Ta onen ondorik esango dogu, euren gorputzak Jaungoikotzat artuta areen naijak topau ezinda dabilzanak, daukeela gogua gurari deungak goituteko? Ikusgarririk ederrenen, soinurik maiteen, usainik gozuenen, janaririk gozatubenen, edanaririk eztitsubennen, jantzirik leunenen ta sengarririk labanenen billa dabilzanak, nai dabeela, espiritubari lagundutia ta aragija goitutia? Begijai, belarrijai, auari, sabelari ta luurrezko gorputz ustelkorrai alegin guztiagaz gusto emonda? Aixe otz puska batek, izerdi batek, gose apur batek, janari otzaago edo motelago batek edo gau bateko lorik ezak bildurtutene ditubala, edo ilgo ete dirian arduratan iminten ditubala? Itxasuat, luurrak ta axiak erre ta azten dituban erregalubak soinerako ta sabelerako gitxiegi ditubeela? Euren bizi edo denporarik geijena plazarik plaza, piestarik piesta, dantzarik danza, komediarik komedia, saraurik sara, bigirarik bigira, zezeneta-



tik zezenetara, jokorik joko ta maitekerik maitekerijara iragoten dabeela? Dinot, kristinaubak, onan? onan bizi? Ta gurari deungak goitu? Ez deutsu inok sinistuko. Ez dau inok egin. Olan bizi zarian guztiok autor dozu zeubek nai dituzula zeuben gurari txarrak. Arei darraikuezan kaltiak ta pekatubak bere bai. Ta pekatubai darraikuen inpernuba bere bai.

Gurari deungak goitu gura ditubeenak, okasinoe gaistuetati alde egiten dabee aldagijen guztian. Batzuk guztiz, euren errajai ta senidai itxita, Abraanek, Eliasek, Eliseok ta areen ondorik beste kontau ezin legizan edu priaile[k] legez. Beste batzuk palazijueta bizi izanda, alde egin dabee okasinetati. Jose Jakoren semiak, Mardokeok, Jonatasek ta millak alan. Beste batzuk, koroia buruban ta zetrua eskuban dabeela, errjak ta erreinubak konbernaubaz, alde egin dabee okasinoetati. Dabid, Ezekias, san Enrike, san Pernando, san Luis ta beste asko dira onan. Bainan zetako da kansetia guztiok dakizun guztia sinistu eragiten? Edade guztietañ, leku guztietañ ta biziera guztietañ irakurten dira erregiak, erreginak, kaballeruak, seinorak, zaldunak, damak, soldaubak, nekezarijak ta opizijuetaukak, euren ogia irabaziari itxi bagarik, okasinetati alde egin dabeenak. Ta alan, gurari txarrak goitutia gaiti okasinoetati alde egin dabeenak, zelan tratau ditubee euren gorputzak? Ah, kristinaubak! Guztiak gogor. Guztiak penaz. Guztiak bildurrez. Guztiak zurrauta. Emen gogoratu biar litzateke Judit baten penitentzia, Jeremias batena, Isaias batena, Maria Ejizziaka batena, Tais batena, Pelajia batena, Arsenio batena, Makario batena... Bainan nok kontau? Ta zegaiti egin ebeen ainbeste penitentzia? Gorputzaren gurarijak goitutia gaiti. Diabrubari euren arimak artuteko aztia kendutia gaiti. Bestiak salbau arren eurak kondenau ez zitezan, *castigo corpus meum*, esaten ebeen. Zurretan dot neure gorputza, neure aragijak kondenau ez nagijan. Beekijken Jesukristok esan ebana, *gurari txarreñko demonino kastia ez dala goituten barubagañ ta orazinoiagaz baino*. Alan Santo Tomasek irugarren leku ban eskatuten dau gurari txarrak goituteko *orazinoia*.

3. *Orationibus insistendo*. Bai, kristinaubak. Okasinoetati alde egitia ta gorputzari paderezidu eragitia noraezekua da, gurari txarrak goituteko. Bainan erregutu biar deutsagu Jaungoikuari kansau bagarik bijotz umildiagaz bialdu daigula zero altuti bere grazija, geure aragija ta aragijaren gurari deungak goituteko. Banekijan, dino Salomonek, *Jaungoikuak zeruti lagundu bagarik ona iżan ezin neintekiana*. Zeruko grazija bagarik, gurari txiki bat bere goitu ezin ginai. Ta etorriko jaku zeruko grazija ta laguntasuna esku tu bagarik? Ah! Eskatu egizu ta artuko dozu, dino Jesukristok. *Petite, et accipietis*. Prest dago Jaungoikua bere grazija ugarijagaz ta indartsu bagaz guri lagunduteko, biar orduban. Bainan nai dau Jaungoiko zuzenak, geuk

berari erregututia. Geure erreguben ta orazinoien trukian daukaz Jaungoikuak aginduta bere grazijk ta miserikordijk. Au gaiti esaten eutseen Jesus maitiak bere apostolubai: *Esnatutu zür egon zaite ta egizu orazinoe, tentazinoian jausi ez zaitezan*. Bada, kristinaubak, alperrik bada geure etxia geuk gorde gura izatia Jaungoikuak gordetan ez dabenian, ta Jaungoikuak geure etxia gor detako, geure arimia salbetako ta geure gurrijak goituteko bere grazija ta laguntasuna santuba emoten badeusku orazinoiaren ta erregubaren saritzat, ya gauza agirija da, gurari galdubak goituteko, Jaungoikuari erregutu biar deutsaguna edo orazinoia egin biar doguna.

Esango dozu askok, ez daukazula astirik orazinoe egiteko. Bada, esaten deutsut nik, gogua badaukazu, astiña artuko dozula. Gogua euki dabeen guztiak astiña artu dabee orazinoe egiteko, euren eginbiarrai ondo kobru emonagaz. Esaten deutsut nik, zaarrak eta gaztiak, aberatsak eta pobriak, ezkondubak ta ezkontzagak, osasunekuak ta gaixuak, guztiak orazinoe egin legijela nai izan ezkero, euren zereginetan lasto baten balijuua atzeratu bagarik. Bat edo bat balego munduban guztien artian orazinoe egiteko astirik eukiko ezin ebana, ez euskun Jaungoikuak guztioi, bat itxi bagarik, aginduko orazinoe egiteko. Guztioi Jaungoikuak agindu euskuna da. Guztiok egin ginaijana da. Ta guztiok egin biar doguna da, gurrijak goituko baditugu ta salbauko bagara.

4. Goitu biar ditugu gurari deungak, pekatu ez dan biarrian zetan edo atan denporia iraguagaz. *Quarto, licitis occupationibus insistendo*. Gatzgin andija da alperrerija, dino Salomonek. Alperrari nai ta ez etorriko jakoz burutazionoe txarrak ta gurari deungak. Ez dogu irakurten alperrrik sanitrik ez santarik. Ez dogu irakurten alperrerijan bizi izateko legerik. Orduna oneko lege guztietañ dago eragotzita alperrerija. Irakurten dogu bai Sodomako pekatu ikaragarrijak ta lotsarizkuak andiguriak, eukijak, gulerijak ta alperrerijak ekarri zitubala. *Haec fuit iniquitas Sodoma; superbia, saturitas, abundantia, et otium*.

Alde bada, kristinaubak, okasinoetati; itxi bijotzeko atiak pensamendu txarra; erregutu Jaungoikuari gogo onagaz; ta ekin beti zerbait gauza ona egitiari, gurari deungak goituteko ta beredatzia ta amargarren aginduko esanak egiteko. Orduban topauko dogu zeruko atia zabalik, beti an ditxoso ta zorijoneko izateko.

Amar agindubetan Jaungoikuak eskatuten deuskuna da karidadia. Jaungoikua maítetubagaz beste gauza gustiak baino geijago; ta geure lagunak amaibagaz geure burubak legez, gordetan dogu lege guztia. Oh, geure Jaungoiko guztiz ona! Oh guztiz maitegarrija! Lege guztiz laburra



ta arina emon deuskuzun legez, emon egiguzu, Jauna, zeure grazija indartsua, erbeste onetan guztia ziatz ta zuzen gorde daigun ta zeruban zeure arpegi santuba ikusteko ditxia euki daigun. Alan izan dedilla, Jauna. Aitiaren, Semiarenen ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## AMA SANTA TERESA JESUSENAREN ONDRARAKO ONDO ESATIA

*¿Mulierem fortem quis inveniet? Prov. Cap. 31.  
Emakume indartsu bat nok topauko dan? Ibid.*

Nor irago ta arrituten ez da, neure kristinaubak, Espiritu Santubari entzun ezkero Salomonen aoti, ia emakume indartsu bat nok topauko dabentz? *¿Mulierem fortem quis inveniet?* Zer pensau ginai edo norutz begiratutu ginai emakume indartsu baten billa, Espiritu Santubak ainbeste jaso ta ondretan ditubanaz gainera, itandutenean badau ia nok topauko dabentz? Ez dago Debora bat, Moisen lekuban jarrita, Israeli legiak emoten? Ez zituban Judit batek, Olopernesi samia ebagita, asiriotarren soldau guztiak goitu? Ez eban Jaelk Sisara gerragina eskuperatu ta amaitu? Ez dago Ester bat, bere bizitzagaz aaztuta, Asueroren bijotza eskuratu, soldauberena Amanen kolpe odoltsubak geratu ta bere jentia salbau ebana? Ez da kontetan Ana bat, bere orazinoiaren indarragaz Israeli Samuel, propeta, juezta erregearena emon eutsana? En fin, ezin kontau legiz emakume indartsutzat, jakituntzat ta ezertakotzat Abigail bat, Rut bat, Sunamitis bat, Salome bat ta beste asko? Duda bagarik esan legi baietz. Orraitino bere ez dakit zer gaiti azartutena da[n] Salomon itandutera ia emakume sendo bat nok topauko dabentz. *¿Mulierem fortem quis inveniet?*

Esango baleu legez Espiritu Santubak, dinue Eleisiaren erakuslak, ez da erreza emakume sendo bat, indartsu bat ta askotako bat topetan. Nekezka baten, gitxitan, otzta baten ta urrineti agertutenean dana da emakume pirmia, zuzena, zala, iraun andikua, burutsuba ta ezertakua. Ez da beinguan ta urreetan topeetan alako emakumia. Urrin errijetati nos baitakoren baten agertutenean da alako joija edo margarita balijotsuba. *A ultimis finibus praetium ejus.* Onako berbeta altubagaz ta jasuagaz etxuratutenean dau Espiritu Santubak emakume amaitu ta indartsu baten balijuera.

Bada, neure entzula onak, beste guztien ondo esangarrijai era batera itxita, azartutenean nas gaurko egunian zeuben begijen aurrian iminten emakume bat, Espiritu Santubak esan dirian berbetan opa dabena. Emakume bat, indarretan inos palitarik euki ez ebana. Iraunzalian, inos oinik atzera biurtu ez ebana. Zuzentasunian legerik egon ez balitz, barrijak bere exenplubagaz egingo zitubana. Jakiturijan, erakuslak bardindu edo irago zitubana. Burutazinoian, asmo altubak ta santubak topauko zitubana.



bana. Egitadetan, bardinik ez daukana. Ta bijotzeko anditasunian, mundu guztiari zer pensau ta zer ikasi emon eutsana.

Au da ene Ama santa Teresa. *Ecce, mulierem fortē.* Santa Teresa Jesusena, zeinen onizatiari ta gloriari konsagretan deutsan Eleisa Ama santiak gaurko eguna, Jesusen espresa egijazkua ta maitetuba, Eleisiaren alaba pina ta jaolia, jakiturrijan kerubinen laguna, amodijuaren serapinena, giza aldiyatoko zuzentasunaren ta ontasunaren ispilla argija, bere erakuslen erakuslia, Karmengo Mendi santuko lorarik ederrena, ene erlijinor ortotzaren ama, buruba ta barristarria, orazinoe egijazkuaren bide argizalria, zeruko sinisgarri andijen zabalzaillia, ereje guztien lotsagarrija, pekatarijen esnaagarrija, inpernubaren bildurgarrija, zuzenen lagun seguruba, bide oneko guztien biztugarrija ta espirituba ta txarreko guztien azotia. *Ecce mulierem fortē.* Ara, kristinaubak, emakume bat indartsuba ta andija. Andija pensamentubetan ta andija egitadetan. Bai, kristinaubak; andijk Teresak, Jesusegaz bat egiteko daukazan pensamentubak ta andijk Teresaren egitiak Jesus gaiti. Au izango da zeuben entzunkizuna. Bainaz zelan nik esan, Espiritu Santubak bere grazijagaz bisitetan ez badau nire arimia? Oh, Espiritu Argillarija! Zeuk biztu, azi ta sendotu zenduban ene Ama santa Teresaren espiritu altuba. Zeure ondrarako ta bera alabetako eskatuten deutsugu, bada, bialdu dagidazula niri zeure grazija, santuben argija ta amodijuaren suba. Onetarako iminten dogu bitartekotzat Birjinaz guztiz santia zerubetako Erregina, zeini esaten deutsagun aingerubagaz:

*¶ Mulierem fortē quis inveniet?*

Jaungoikua da berez bakarrik andija, neure kristinaubak. Ta Jaungoikuagan ta Jaungoikua gaiti ez dan anditasunak, zaatatsuba izan arren munduban, ez dauka entzuterik, ez balijorik zeruko argijaren aurrian. Mundubak kontetan ditu andi asko, bai bere jakiturijan, bere lege-gintzan, bere gerragintzan, bere eukijan, bere entzutian ta agindutian. Platon, Likurgo, Alexandro, Kreso, Bruto, Dario, ta beste milla dira andijk mundubarentzat. Baino onen anditasuna, ariazko sustraijak eukazan legez, lelengo aixiak itzuli eban luurrera ta austu eban. Sinistute egijazko baten, uste garbi ta zuzen baten, karidade manso ta guztirako baten edo Jesukristoren amodijo santu baten asieria ta ituba ez daukan anditasuna utsa da, dino san Paulo apostolubak. *Nihil sum*. Ene Ama santa Teresaren anditasunak ez eban beste asierarik, ez iturik euki, Jesusen amodijo san-

tuba baino. Jesusen amodijuak asmau eragin eutsazan pensamentu altubak eta santubak. Ta Jesusen amodijuak sendotu eban bere bijotza, asmo andijai kobru emoteko. Au da Teresaren anditasun sendua. *Ecce mulierem fortem.*

I.

*Pensamentu andijak.* Bai. Pensamentu andijak dira Teresarenak. Bainanok dauka miina eurak jadisteko ta esateko? Zazpi urte ditubaneko oratutent deutsa Jesusen amodijo itsubak ta ixuak Teresari bere bijotzian. Ta ezin kabidu da munduban. Salto egin gura leuke laster zerura, Jesusagaz bat egitera. Bainan bizitzia eragozten deutsa. Zer, bada? Oh! Irakurten daud ta entzuten daud Teresak txikijak, Teresak umiak, Aprikan moruak kristinaubak illten ditubela Jesusen gorrotoz. Ta alan Jesusen amodijua gaiti bizitzia emoten dabeenak bertati zuzen duazala zerura, Jesusegaz bat egitera. Oh, ze ditxial! dino Teresak bere artian. Ez dot au galdu biar. Isilik eta kontuz, neure aitak ez amak igarri bagarik urten biar dot etxetia juan biar dot Aprikara, Jesusen izenian illteria. Oh, sei zazpi urteko Teresak txikijaren ta umiaren pensamentu andija, sendua ta elduba! Aprikaruz dua ixilik eta arin, bere etxetia iges eginda, zazpi urte kunplidu bagarik, moruen esku gogorretan Jesus gaiti bizitzia emotera. Ta bere pozta ditxa andija zelanbit zabalduteko, artutent daud laguntzat bere anaean edo neba gazttxuba.

Oh Teresaren pensamentu santuba! Zelan begiratuko ete deutsee zeruko Serapinak! Aprika nun daguan ez daki. Errleinu andijkatua itxaso zabalak iragoteko daukaz. Oraindino berbetan ondo ez daki. Ez bidiak nok erakutsi, ez zer jan dauka. Ta Aprikaruz dua bizitzia emotera Jesus gaiti. Kolpiak artuteko gorputzik ez dauka. Ta moruen kaltzaidubak ta katiak desapijetara dua. Munduban orain sartutzen da; ta ya mundubagaz kansau da. Bizi izaten orain asten da; ta ya bizitzia emon gura leuke Jesus gaiti. Ara, kristinaubak, Teresa zazpi urteko neskatillia andija ta sendua.  
*Ecce mulierem fortē.*

Oh Jesus, arima zintzuen esposo gozua! ez dozu aintzat artuko Teresaren eskini pina ta maitetsuba? Ah, kristinaubak! Jesusek aintzat artu ta estimau eban duda bagarik Teresaren bijotz presta, goixtarra ta animosia. Bainaz ez deutsa orain naija emongo. Ez deutsa bizitzia kenduko moruen ezpatiak, ezbada Jesusen amodijuak berak. Teresak gau ta egun negar egingo dau, ditxa andi a galdu eragin deutseelako. Zeruti erbestetu-



ta bizi biar xlabelko. Gorputzaren pisuba espiritubagaz jaso biar dauela-ko. Jesusegaz guztiz bat egitia luzatu biar jakolako. Bainan alperrik. Ez da Aprikara juango. Beste bizi modu bat pensau biarko dau.

*Pensamentu altubak.* Zer egingo dau, ba da, Jesusen amodijo garbijaga-z ixioita daguan Teresaren bijotzak? Aprikara juaten isten ez deutsee. Espanian Jesusen arerrijorik ez dago orduban, beste denporetan legez, Teresaren gorputza Jesus gaiti martirijetako. Bere etxian erregalubak ta gustuak emoten deutseez. Zer asmauko dau, bada, Teresak bere bijotza beti Jesusegaz bat eginda eukiteko? Oh! Arritu bitez zerubak, ixildu bedi luurra ta ikaratu bedi inpernuba emakume onen pensamentu altubagaz. Asmetan dau luurrian zeruba egitia. Bakust, dino Teresak, bizirik Jaungoikuaren arpegi santuba ikusi ezin negijana. Bakust, Luterok ta lute-rotarrak Pranzijan, Olandan, Alemanian ta Inglaterran Jesusen pedia uka-tutuen dabeena; sakramentu santubak oinazpitutzen ditubeena; eleisak ta altarak birrinduten ditubeena; sazerdotiak erbestetu edo illten ditubeena; Jesus garbijari konsagrauta dagozan esposak, konbentubetati aterata, gal-dutten ditubeena; ta relijiosuak argaldutten ditubeena, euren guzur deun-getara ta bide gaistuetara biurtuteko. Bakust, Isrrael negarrez daguana, Siongo birjinak lutuz jantzita dagozana ta santuleku nausiragino oitura galdua, nasaitasuna ta pekatuba sortu dana.

Oh, Jesus bijotzekual! dino Teresak. Oh, neure arimiaren poz baka-rra! Ya ez daukazu nok ostatuba emon luurraren gainian. Birrindu deu-subez zeure etxiak ta egonleku santubak. Loitu ditubee zeure esposak. Ta atera zaitubee euren errijetati. Zer egin negi, bada, nik, Jesus neure bijo-tzaren Jaubia, zeu topetako ta zeugaz egoteko? Oh! Bakit zer egin. Diadar egingo dot zeruragino. Esango deutsat mundu guztiari, bedar ustelak baino geijago balijo ez dabela luurrian daguan guztiak. *Omnis caro faenum.* Ta basoko loria baixen galdukorra dala munduko ditxa ta atsegin guzia. *Omnis gloria ejus, quasi flos agri.* Zaata andi bategaz esnaatuko dot munduba. Irakoiko ditut luurrian datzazanak zerurutz. Aixaatuko ditut pekatari itsubaren begijetako lausuak. Topauko ditut Jesusen kriñjalu biarginak. Egingo ditut eleisa barrijak, Jesusen egonlekutzat. Jasoko deutsadaz alta-rak. Orniduko ditut konbentubak. Poztu, biztu ta animauko ditut birjinak, Jesus maitiari euren bijotzak, gorputzak ta arimak osorik konsagrauta, munduti erbestuta, konbentubetako jardin edo ortu gozuan Jesusegaz bakarrik bizi ditezan. Alan, pekatarijak biurtuta, kristinaubak onduta, Jaungoikua ezaututa, Jesukristo maitetuta, erlijinoiak barristauta, konben-tubak geitura, predikadoriak zabalduta, neskatilla ederrez Jesusen etxiak beteta, gau ta egun Jesus euren Esposo maitiaren ontasunak ta pinezak

kantetan ta alabetan dagozala eukiko dot, dino Teresak, ditxia erri bakotxian eleisarik edu zero ta konbentu bakotxian monjarik edu aingeru ikus-teko ta euren artian Jesusegaz bizi izateko. Ara, kristinaubak, etxura txiki baten Teresaren pensamentu altubak ta animosuak. *Ece mulierem fortem.*

Baina zer asmetan dabela, esan legi, emakume onek? Nor da Teresa, asmo altu ta zabal one[e]jk bere buruban sartutene jakozanian? Ze errenta dauka? Ze indar? Ze soldautegi? Ze entzute? Ze adiskide? Zer egitera dua? Oh! monja pobre bat da Teresak, pensamentu egingatzeko oneek asmetan ditubanian. Gojan zeruba ta beian luurra baino besterik ez dauka. Zer esan legi, bada, alako emakumia gaiti? Ez daki inpernu guzta bere kontra izango dabena? Ez daki gauza barrijak, onak izan arren, are-rijauk oi ditubeena? Ez daki kastidadeko botuen ta donzellatasunaren kontra pluma asko zorroztuta jagi diriana? Ez daki mundu guzta kontra jagiko jakona? Zer pensetan dabela, esan ginai, Teresak monja tristiak? Oh, Jesusen amodijo indartsuka! Ze sustrai senduak imini dituzun Teresaren bijotzian! Au guziau ezaututene ebani Teresak bere bakarrian. Bainan ez zan bildurtu. Asmo barri bategaz, dino Teresak, goituko ditubala arerijo guziak.

*Pensamentu santubak.* Teresak asmetan dau beste sail bat, Eleisako jazuetan bardinik ez daukana. Ta da, boto andi bategaz eskintzia edo oprezidutia Jesuseri, beti Jesusek naijen dabena aitutene dabena edo uste dabena, egiteko. Ya boto onen bitartez Teresak beti da Jesusena. Teresak esaten dabena, Teresak pensetan dabena, Teresak egiten dabena, Teresak nai dabena da, Jesusek naijen dabena. Oh Teresaren asmo santuba, beti Jesusegaz egoteko! Oh Teresaren pensamentu jakituna, Jesusen naijagaz ta bijotzagaz bat egiteko! Ez da au, kristinaubak, bere bijotzian zeru barri bat egitia? Ez da au arerijo guztiak goitutia? Zer egingo deutsa inpernu-bak, beti Jesusegaz daguan Teresari? Zer egingo deutsa mundubak, Jesusganik inos aldendutene ez dan Teresari? Zer deutsa, beti Jesusek nai dabena esaten daben, egiten daben, pensetan daben ta desietan daben Teresari, mundubaren esanak, gorrotuak, persekuzinoiak ta penagarri guztiak gaiti? Ezer bere ez. Pensamentu santu onegaz ikaratu zituban Teresak inpernubak. Isildu zituban erejiak. Lotsatu zituban pekatarijak. Anima zituban onak eta onerakuak. Argitu zituban itsubak. Arritu zituban jakitunak. Ta desapijau zituban aingerubak Jesus ametara. *Ece mulie-rem fortem.* Ara emen, kristinaubak, Teresak andija ta sendua, Jesusegaz bat egiteko pensamentubetan. Baita ez gitxiago Jesusen izeneko egitadetan, zein dan nire bigarren esakizuna.



## II.

Teresak, zer pensau, zegaz arritu ta zer ikasi emon beutsan mundubari bere Jesusaganako pensamentu andi, altu ta santubakin, ez eutsan gitxiago emon bere Jesusen izeneko egitade bardin bagakuakin. Jesusen amodijo sutsubak ta indartsubak ixio ezkero bere bijotz lejala ta ezertakua, zelan sosegauko da Teresak, bakarrian ornidu dituban asmo santubak ta pensamentu altubak Jesusen amodijuia gaiti mundubari erakutsi bagarik? Zer? zinuan Teresak. Bein buruban sartu jatan pensamentuba Jesusen maitetasunerakua izan ezkero, zelan eukiko dot eginagaz Jesus maitiari ta mundu guztiari aituten emon bagarik? *Conceptum Sermonem tenere, quis poterit?* Ez. Ez nas geldi egongo. Asiko dot pensau dodan sailla. *Incipiam.* Ta kostako jatana kostetan jatala, ez nas geratuko amaitu artian. *Et complebo illud.* Ara Teresaren gogo egilla sendua. *Ecce mulierem fortem.* Ia betoz Teresaren aurrera ezin al guztiak. Saill andija, gatxa ta luzia izatia asten dabena. Zuriko bat nun izango daben ez jakitia. Bera monja pobre, triste, lau ormaren artian sartuta inoren aginduban daguana izatia. Entzuterik ez eukitia. Adiskide lagundu legijonik ez eukitia... Ez da ardura. Guztia egingo dabela dino Teresak, bere bijotzian daukan Jesusen amodijo santubagaz. *Omnia possum in eo, qui me confortat.*

Betoz Teresaren gainera, asten daben saill santuba eragotzi legijuen gatz guztiak. Bisitau begijee bere gorputza sekeriak, umore txaarrak edo reumatismo zolijak, urte luzetako kolikuak edo errebesetiak, bijotzeko minak, eraitekuak, alborenguak, palta bagako buruko alaak, jan ezinak, lorik ezinak ta beste asmau legizan gorputzeko gatzak. Ez da ardura Teresarentzat. Ez dabee gatzak atzeratuko pausu bat bere egitade andijetan. Guztia daiket, esango dau Teresak, Jesusen amodijuagaz. *Omnia possum in eo, qui me confortat.* Ez dago Teresaren goguan ez gorputzeko gatxen ta ez mundukuen bildurriki. Jesus maitetutia ta Jesus gaiti gatzak iragotia da bere bijotzeko poz ta atsegin guztia. Edo Jesusen izenian padezidu, edo Jesus ikustia gaiti ill, da Teresaren betiko kantia. *Aut pati, aut mori.* Zer egingo ez dau, alan Jesusen amodijo ixiuagaz sendotuta daguan bijotzak? Guztia daiket, esango dau. *Omnia possum.* Ara, kristinaubak, Teresak, emakume bat egitian sendua ta animosua. *Ecce mulierem fortem.*

Alperrik armauko da inpernu guztia Teresaren kontra, asi daben sailla eragozteko. Asmauko deutseez guzur astunak. Desondrauko dabee enbusteratzat, etxizeratzat, endemoniadatzat edo zorotzat. Zamaituko

dabee inkisizinoiagaz. Sartuko dabee karzelan. Largako deutsee konpesoriak. Kastigauko dabee bere agintari nausijk. Jagiko dira bere kontra erri osuak. Persegiduko dabee bere aiztaak, bere nebak, bere gurasuak ta bere adiskidiak. Birrinduko deutseez korbentu barriko asi dituban ormaak. Aginduko deutsee, pena andijen beian, ostera ez aitatuteko emakumen bururako ez dirian asmo areek. En pin, eskomulgauko dabee Teresa, pensamentu santu arei itxi dagijuen. Baino alperrik. Ez dabee bildurtuko bere bijotz sendua ta indartsuba. Ez nabee ikaratuko, dino, ez inpernubak, ez erijotziak, ez karzelak, ez desondriak, ez zamajjak, ez nire kontra jagi aldedinek, millaka badira bere. *Non timebo millia populi circundantis me. Ecce mulierem fortem.*

Ainbeste ezinen ta eragozlaren kontra sendotuten da Teresak Jesusen amodijo santubagaz ta orazinoiagaz, bere pensamentu andijk mundubari eginaz erakusteko. Urte luzetako zerubari erregutubagaz; Jesus maite-tubagaz ta orazinoe egiazkuagaz; gorputzeko gatzai kasurik egin ezagaz; mundubari nai ebana esaten itxijagaz; humildadiagaz, pazienzijagaz ta ixi-lik egonagaz; guztiai mesede eginagaz; ta ene erlijinoia barristetari egunian baino egunian gogo geijagogaz ta animo senduaguagaz batian kartaz, bestian esanez, bestian errazoez, bestian millagroz ta beti eginaz ekin-da, lautu zituban Teresak bere asmo santu, altu ta andijen ezegintzako mendi guztiak. Isildu eban inpernuba. Argitu zituban uts egitez illunduta egozanak. Bereganatu zituban, leen bere kontra zirianak. Irabatzi zituban arerijuenean bijotzak. Ta euki eban ditxia, berak pensau eban legez, Karmengo erlijinoe zabala barristauta ikusteko. Ogeta amabi korbentu ta eleisa barri Jesus maitiari bere egonlekutzat ta jardin loratsutzat Teresak berak egiteko. Jesus maitetubari ainbeste esposo ta espresa ortuztu korbentu barrijetan sartuta eskintzeko. *Ecce mulierem fortem.*

Barristetan dau Teresak Spainia ditxosuan Elias, geure patriarka santubaren espirituba, zelua, pobrezia ta penitenzia. Zabalduen ditu Palestina, Tebaida ta Ejitoko ermitaino santuben barubak, ixiltasuna, ortoztasuna, latztasuna, azotiak ta gorputzaren penagarriak. Baita apostoluben erakutsija ta aingeruben koru ederrak ta garbitasun enkantagarri-jak bere. Baino zeinbat lekutan? Ah! Abilan, Medinan, Malagon, Vaiyadolizena, Toledon, Pastranan, Salamanca, Alban, Segobijan, Beasan, Sebillan, Karabakan, Billanueban, Palenzian, Sorian, Granadan ta Burgosen Monja bere alabentzat. Takasik errijetan eureetan ta beste askotan Karmen Ortozko prailentzat. Teresak korbentu barri oneek guztiok Spainian ta Portugalen berak eginda, bialdu zituban bere semiak eta alabak Pranzijara ta beste erreinubetara Karmen Ortozko erlijinoe barris-



tauba zabaldutera. Oh, santiaren bijotz andija ta egilia! Zelan begiratu ginaijo berari! Nogaz bat egin ginai bere anditasuna ta egite ezertakua? Nor arrituten ez da ikusi ezkero emakume bat, zubek txotxatzat, simpletzat ta ezertako eztzat edo alperrikakotzat daukazun monja bat, beti gaisorik, beti minez, beti alaz, inos bere gatx bat edo beste bat bagarik, berrogeta ainbeste urtian lorik egin ez daben monja pobre bat, inpernu guztia, ta esateko, mundu guztia bere kontra ditubala; ikusi ezkero, dinot, onako emakume bat, ainbeste lani ta sail andiri kobru emoten deutseala? Ta inpernubaz beste arerijo guztiak bere adiskide andi egiten ditubala? Au egin eban bada Teresak Jesus gaiti. *Ecce mulierem fortē.*

Deritxat, ikusten dodala ene Ama santa Teresa matia zelan ibiliko zan. Ain laster koruban ta ain laster botikakua artutен. Ain laster lege barrijak egiten ta ain laster ordenak emoten. Ain laster etxiak erosten ta ain laster ezkaatzeko zereginak egiten. Ain laster eleisa barrijak ta konbentubak orniduten ta ain laster monjai konzienzijako dudak kenduten. Ain laster Errromarako kartak eskribiduten ta ain laster aloberekuaak topeetan. Ain laster... Bainan nos amaitu? Egunero kobru emoten eutseen santa Teresak kalenturiari, gaixuari, orazinoiari, barubari, diszipliniari, zili-zjuari, erregiai, obispuai, juezai, konpesoriai, prailiai, monjai, konbentugintzai, eleisagintzai, opizialiai, aloberekua, zordunai ta beste duke, marxes, konde, kaballero, seinora ta santia zerbaitetarako topau ebeen guztiai. Au da, kristinaubak, santa Teresaren karta ta liburu zerukuetan ondo irakurten dan mirarija. Santa Teresaren egitade andi guztietati ez da txikarrrena, ainbestegaz ta ainbeste sail andi ta txikitán tratauta, Santa Teresaren kexa txiki bat bere artu emonetan inok ez eukitia. *Ecce mulierem fortē.*

Moises bat dirudi Teresak, lege barrijak eginda, Ejito mundukoti atera daben Karmengo jentia gobernetan. Elias bat diruri, zelo santubagaz Jesusen ondria zaintuten ta pekatari gogorrak zamaituten. Samuel bat dirudi, erregiai, ta andijai zer egin biar dabeen erakusten. Daniel bat diruri, zeruko misterijo santubak, altubak ta ezkutukuak argitara ateraten. Bautista bat dirudi, bakartasunak santututa, penitencijsa ta Jesusen amodijua prediketan. San Paulo bat diruri, Eleisa barrijak egiten, obispo jaunai, sazerdotiai ta konpesoriai erakutsija ta konsejubak emoten. Serapin bat diruri... Bainan ez dakit, neure entzula onak, zein aldetara begiratu, nun topeten ez dituban Teresaren egite santubak ta mirarizkuak. Ta guztiak Jesusen amodijo santubaren izenian. Esan daigun, bada, andijk diriala Jesus bere Espousarentzat santa Teresak eukazan pensamentubak ta Jesus gaiti egin zituban biarrak. *Ecce mulierem fortē.*

Oh, ene Ama santa Teresa Jesusena! Zeu zara Jerusalengo alaba egijazkua. Zeu zara Israelgo alegría ta poza. Zeu zara Espaina guztiaren ondria. Zeu zara Eleisa guztiaren pillar sendua ta erakusla argija. Zeu zara san Josepe bedeinkatubaren debozinoe egijazkua kristandade guztiko bijotzeta zabaldu zendubana. Zeu zara Jesusen esposa maitetuba ta zeruko joija ederreze apainduba. Zeugana gatoz, bida, guztiok, santa Teresa bijotzekua, zeu Jesus matiaren aurrian bitarteko imintera, jadiitxi daiguzun Eleisa guztiarentzat, geure errege jaunentzat ta Espaniako pamelija guztiarentzat arimako grazija ta gero zeruko gloria. Amen.